

PAULO IZTUETA ARMENDARIZ

BERASTEGI

2 Gatazken tenorean



PAULO IZTUETA ARMENDARIZ

BERASTEGI

2 Gatazken tenorean

Utriusque Vasconiae

Liburu honek Berastegiko Udalaren laguntza jaso du

© Paulo Iztueta Armendariz

© Utriusque Vasconiae

Lehen argitaraldia: Donostia, 2010eko Urria

ISBN: 978-84-937658-9-7

Lege-gordailua:

Azaleko argazkia: Lobo Altuna

Diseinua eta maketazioa: P.I.A.

UTRIUSQUE VASCONIAE - Ategorrieta Hiribidea, 3-3

20013 Donostia. Tel.: 943-270433

Iparraldean: 0033547640386

Banatzailea: BITARTE - 31195 Berriozar (Nafarroa)

Tel.: 948-302239

Inprimatzea eta koadernotzea: Monte Carmelo. Apdo.19.

09080 Burgos

Debekatuta dago, legean aurrikusitako kasuetan izan ezik, liburu honen erreproduktzioa, banaketa, komunikazio publikoa eta eraldaketa egitea jabetza intelektualaren duten titularren baimenik gabe. Aipatutako eskubideak haustea jabetza intelektualaren kontrako delitutzat har daiteke (Kodigo Penaleko 270 art. eta ond.)

Eskaintza

Erredionen munduratu ninduten
Fermin eta Madalen gurasoei,
eskerronez eta oroitzapen ahantzezinez.

AURKIBIDEA

Hitz bi	11
---------------	----

AUZI, GERRA ETA DIKTADUREN ARTEAN

I. Auzotarren eta jauntxoaren arteko liskarrak (1500-1605)	15
1. Jauntxoaren zerga-eskubideak herri-lurren gain	18
2. Berastegiko oinetxeko jauntxoaren jatorria ezbaian 1535eko auzian	24
3. Berastegiko jauntxoaren zerga-eskubideak 1536ko auzian	33
4. Juan Martinez jaunaren maiorazkoaren sorrera (1548)	46
5. Auzi-katea eliz patronatuaren inguruan ..	53
5.1. San Martin eliza berria zabaltzeko lursailen erosketa (1530-1549)	55
5.2. Arrateko errota berria (1552)	59
5.3. Hamarrenen borroka luzea: diruaren hotsa	60
5.4. Eserlekua eta hilobia: jauntxo-ohorea jokoan	72
6. Berastegiko jauntxoaren kasu partikularra testuinguru zabalago batean	87
6.1. Berastegiko Francisco jauntxoaren desafioa (1624)	91

6.2. Bedaio auzoa Berastegiko jaun feudalen uztarpean (XVI-XIX)	95
7. Apaizteriaren kexa arrazaoitua	101
8. “Verastegui” oinetxeko jauntxoan izaera soziala	103
9. Estamentuzko gizartetik berdintasunezkora	106
II. Lehen karlistadan (1842-1926)	109
1. Foruen arazoa Euskal Herrian	109
2. Jose Antonio Muñagorri Otaegi eskribau- aren aldarri politikoa: Bakea eta Foruak (1794-1841)	111
III. Azken Karlistadan: Foruen erabateko abolizioa (1872-1876)	129
1. Manuel Santa Kruz apaiz gerrillariaren pasadizoak	130
2. Santa Kruzen ekitaldiak gerrillan	134
3. Salatariak omen zirela eta...	145
3.1. Tolosako postaria Berastegiko plazan .	145
3.2. Juan Andres Aldunzin alkateordearen fusilatzea (1873)	146
4. Liberalak Berastegiko gotorlekutik leku- tzeko mehatxuak	159
5. Azken consideranda batzuk	165
IV. Azken gerratekoan (1936-1939)	175
1. Berastegiren egoera politikoa Gipuzkoako hauteskunde-emaizten mapan (1900-1936)	178
1.1. Espainiako Gorteetarako hauteskundeak	178
1.2. Gipuzkoako udal-hauteskundeak	185
2. Erreketeak Urton barna 1936ko uztailean	189

V. Frankismoaren sotoan (1936-1975)	203
1. Atxikipenak eta omenaldiak	204
2. Gastu militarrek gerratekoan	206
3. Adierazpen erlijiosoak gerra ondoren	209
4. Arazketak udal-administrazioan	211
5. Ondasunen konfiskazioak	213
6. Udal-enplegatuen izendapenak eta soldatak	214

MANKOMUNITATETIK JABETZA PRIBATURA

VI. Berastegi eta Elduain: lursailen ustiapen konpartitua (1319-1848)	221
VII. Herri-lurren pribatizazioa	227
1. <i>Ondazilegi</i> -lurrak direla-eta, aurrez ehaztapenak	228
2. Pribatizazio-prozesua: Gerrak eta amortizazioak	232
3. Legeria	236
4. Herri-lurren egoera	241
5. Protesten uholdea	244
6. Pribatizazioa, zergatik eta nola?	249
VIII. Zorioneko herri-lurren kronika (1919-1946)	253
Oharrak	289
Bibliografia	331

HITZ BI

Lehen liburuko sarreran esanak ditugu esatekoak eta hemen ez goaz hangoak errepikatzera. Bihoaz, halere, ohar bat edo beste, testu honen argigarri.

Ohartuko da irakurle ernea bigarren liburu honetako atal guztiak ez direla luzera bereko edo antzekoak eta gai batzuk sakonago aztertu ditugula beste batzuk baino. Berastegiko jauntxoei eskainitako lehen atalak, adibidez, lan monografiko baten tankera hartu du, eskuartean izan dugun dokumentu argitaragabeak horretako bide eman baitigu. Ezinezkoa gertatu zaigu horrelako iturri aberats baten aurrean ezinikusiarena egitea. Lehen hurbilketa bat egiteko saio bat izan da gurea. Ez gehiago.

Gerrez eta gerra ondoez aritu garenean, ez dugu ez horien historiarik ez horren antzeko ezer egin nahi izan, gai honetaz historiografia luzea baita. Gure herriak ere horrelako egoerak bizi eta ezagutu baititu, ohiko gizarte-gatazka areagotzen duten egoera horiek Berastegi herrian zuzenean edo zeharka izan duten eragina aipatzera baino ez gara mugatu, eskura izan ditugun datu publikoetan oinarrituta. Zalantzarik ez da atal horiek itxi gabeak direla eta zer

azterturik geratu dela. Nahiz eta horrelako egoerak ahaztekoak hobeak diren, memoria historikoak berea eskatzen baitu, honi men egin diogu. Horrela jokatzean, noski, beste hainbat lan akademikoren bideari jarraitu baino ez dugu egin.

Paulo Iztueta Armendariz

**AUZI, GERRA ETA
DIKTADUREN ARTEAN**

I

AUZOTARREN ETA JAUNTXOEN ARTEKO LISKARRAK (1500-1605)

Lehen esan dugu Goiz Erdi Aroaz (IX-X) ezer gutxi dakigula. Garai horretako gertakari nagusia da Gipuzkoa Gaztelako erresumakoa izatera pasatzen dela eta, ondorioz, Alfonso VIII.ak kostaldeko hiriak sortzeari ekiten diola eta ondorengoek politika berberari eusten diotela itsasaldearen populatzea areago eramanez.

Epealdi honetan (1500-1766), bandokideen gizartea utzi eta, Probintzia antolatzen da. Antolaketa hau maila desberdinetako burgesia heterogeneoak gidatzen du, gehienbat Donostian kokatzen den hark. Horretarako, gizartean ordena ezartzea izan zuen helburu, bandokideen gatazkarekin behingoz bukatzeko. Horretarako nekazariak menpean hartu eta diziplinatu behar izan zituen, Jesusen Lagundiaz baliatuz. “Gizarte-berdintasuna” lortzeko, herri-lurrak mantentzea eta sistema politikoa antolatzea izan ziren haren xedea. Nahiz Gipuzkoako nekazaritza ahula izan, ahulezia hori burdingintza eta ontzigintzarekin

gainditzen zuen. Eta XVII. mende-bukaerako zailtasunek ondorio larriak izan ez bazituzten, neurri handi batean, artoaren sarrerak nekazaritzan ekarri zuen iraultzarengatik izan zen eta, ez gutxi, baita karea eta laiari esker ere (Fernández, 1975, 373). Berastegiko karobiez Jabier Salbarredik (2008, 28-31) idazten duen artikulua interesgarria gertatzen da zer ziren eta nolako tradizioa izan duten jakiteko.

Esana daukagu, halaber, nola aurkitzen den elizaren ondoan Jaundegi dorretxea. Urrutitik begiratuta ez zaio antzematen eraikin berezia izan daitekeenik. Ez du bereziki erakartzen ez bere handitasunak, ez bere edertasunak. Hantxe herri-erdian galdua, baserri baten eta elizaren ondoan kokatua, bera nabarmentzen da antzinako lekuko nagusi bezala. Muga-gatazkez jardutean, ikusi dugu, baita ere, jaundegi edo gotorleku hartatik zer-nolako erasoak egiten zituzten hango jauntxoek inguruko herrietan. XV. mendearen bigarren erditik aurrera, Aro Modernoan (1492-1789) sartzearekin batera Ameriketarako bideak irekitzen direnean, gurean hiriak sendotzen doazen heinean Ahaide Nagusien indarra ahultzen joaten da. Baina kontuz, Ermandadeak Ahaide Nagusien gain duen hegemonia ez baita erabatekoa. Oraindik ere jauntxo horien itzala kontuan hartzekoa izango da, ez baitira nornahi. Ermandadeak lortu zuen, neurri zorrotzak hartuz, maila batean bederen, haien bidegabekeriak eta jokabide anarkikoak urtzea; halere, ondoko mendeetan ere maila sozioekonomikoan eragin handia izanez eta nekazal gizartean –hemen, batez ere–, nagusi izanez segituko dute (Carrion, 1975, 69). Berastegiko jauntxoek kasuan, XVIII. mendera arte bederen bai.

Testuinguru hori begien aurrean dugula joango gara osatzen Berastegiko jauntxoek inguruan gertatzen diren hainbat auziren kronika.

Berastegiko jauntxoek garrantzia herrian bertan nola-koa izan zen ikusteko, XVI. eta XVII. mendeetan zehar herritarrek eta apaizek jauntxoekin izan zituzten auziak aztertu beharra dago. Auzi hauek leku eta jurisdikzio-maila desberdinetan eman ziren: Tolosako Epaitegian, Valladolid-eko Kantzelaritzan, Iruñeko Gotzaindegian, Erromako Rotan, Errege-Kontseiluan. Auzi hauei buruzko gorabeherak datarik ez daraman baina ustez XVII. mendean inprimatua izan zen oroitza-txosten batean aurkitzen dira, Berastegiko Udal-Artxiboan gordetzen dena eta izenburu luze hau daramana: *Memorial ajustado del pleito que se trata en el Consejo entre el señor Fiscal y Don García de Verastegui del abito de Santiago, señor del Mayorazgo y Casa de Verastegui. Y Doña Francisca de Verastegui su hermana, que como inmediata sucesora que dize ser en dicho Mayorazgo, ha salido a él en la instancia de revista. Con los Cabildos Eclesiásticos, y Seculares de la villa de Verastegui, y Eldua su Barrio*¹. Iturri honetan oinarritzen dira gai hau aztertu izan dutenak.

Aurreko mendeetan Berastegi herriak Tolosa hiriarekin izan zituen bezala bere auziak, orain bertako jauntxoekin izango ditu, udal- eta eliz mailetan, bietan. Izan ere, XVI. mendeko hirugarren hamarkadan hasten dira Berastegi unibertsitateko auzotarrak jauntxoarekin auzitan, honen feudo-izaerako eskubideak abolitzearen aldeko borrokan murgilduta. Bi mendez luzatzen diren auzi hauetan jauntxo feudala bere garrantzia eta errentak galduz joaten da. Haulere, XVII.aren erdialdera arte eliz hamarrenak jasoz etorriko da. Horregatik, herritarrek epealdi luze horretan

herriko jauntxoekin izan dituzten auzi desberdinek duten izaeraren eta kronologiaren arabera, azalpena bi sailetan zatituta emango dugu. Lehen jarduna jauntxoek herriko mendi eta larreen gain duten zerga-eskubideei buruzkoa izango da; eliz patronatuari buruzkoa, bigarrena.

Jauntxoek krisia hasi, herri-lurrak –mendiak, basoak, larreak eta abar–, erabiltzeko hartuta zeuzkan eskubideak auzitan jartzen direnean hasten da. Borroka hori irabazi ondoren, ez lehenago, ekiten diote herritarrek patronatu-eskubideak zalantzan jartzeari. Beraz, hemen, Udalak eta Parroki elizak, bakoitzak bere eremuan, kudeatzen dituzten herritarren eskubideak daude jokoan. Berastegiren historia, bere osotasunean hartuta, herritarrek bere jauntxoek kontra agertutako erresistentzia etengabeko eta gogor baten historia da XVI. eta XVII. mendeetan zehar.

1. Jauntxoek zerga-eskubideak herri-lurren gain

XVI. mendean jadanik hasita zeuden herri batzuetako Udaletan eta elizetan jauntxoek bereganatzen zituzten hamarrenen kontra borrokatzen, leinu zaharrekoei jauntxo-hegoak mozten, haien sarrera-iturriak murrizten, haien zenbait pribilegioren jarraipena galarazten. Herritarrek protestan jaikitzen dira zergak kobratzen dizkietelako, elizetan ohorezko lekuak, beren hilobia, beren sepultura, nahi dituztelako, hamarrenak kobratzera ausartzen direlako, horretarako betiko eskubidea balute bezala. Protesta-uholdea pixkanaka joan zen goraka, lehen herri batean, gero besteetan, azkenean egoera lehertuko den arte. Berastegi ez zen izan lehena bere protesta-ahotsa auzietan entzunarazten. Kronologiari bagagozkio bederen, aurretik bere kexa

Epaitegietan azaldua zuten, hala nola Beasainek 1495ean, Azkoitiak 1510ean Balda jauntxoaren kontra, Usurbilek 1519an, Berastegik 1535ean eta, mende-bukaeran, 1581ean, Zizurkilek (Otazu, 1973). Kasu hauetan, herritarrek Parrokiako apaizekin eta Udalarekin batera herriko jauntxoen kontra egiten duten oinarrizko salaketa da, beretuak dituzten eskubide-mota desberdinak noizbait indarrez eta ezkutuan usurpatuak dituztela.

Beasaingo erretoreak eta eliztarrek, Yarzako jauntxoek hamarrenen erdia kobratzen dutelako, erdi hori ez ordaintzea erabakitzen dute 1495ean:

“El susodicho –rector– y los parroquianos de dicha Iglesia, de un año a aquella parte, perturbándoles, y molestándoles en dicha posesión y haciéndoles fuerza, se auian sustraydo por su autoridad, de pagarles la dicha mitad de diezmos, oblaciones y pie de altar, y no los querían pagar, por decir que era necesario para otros Clerigos que era menester para servir dicha Iglesia y auian secrestado la dicha mitad de diezmos en algunos vezinos, mandándoles que no les acudiessen con ellos hasta que les diessen el dicho Clérigo...” (*Memorial*, 1651, 350 zenb.).

Usurpazioaren salaketa egiten dute:

“Que si los dichos doña Maria, y su hijo tenian algunas rentas, y las avia llevado, avia sido por fuerza, usurpandoles por ser poderosos, lo qual avia sido causa que se impidiesse el Culto Divino, y no se avia administrado los Sacramentos, como era necesario, por aver falta de Clérigos” (*Memorial*, 1651, 365 zenb.).

Jauntxoek, beren aldetik, Euskal Herriko apaizak “monipodioa” bultzatzen ari direla esanez erantzuten dute:

“Mas que ya se sabia antes de aora, que todo el estudio de los Clerigos de la Prouincia de Guipuzcoa y Vizcaya era de querer privar a su Magestad y a quantos Caualleros huuiesse en la dicha tierra de sus Monesterios, anteiglesias dezimas y patronazgos dellas, por lleuarse los, no se contentando con lo que se les dexaua para su mantenimiento porque siruiessen.

Que sobre esto continuadamente hazían monipodios, y escándalos en los dichos pueblos, y procurauan llevar las causas a Roma, y a los otros Iuezes Eclesiásticos, porque como eran Clérigos todos se ayudauan, y sabian, que dellos auian de ser favorecidos (...)

Que por auerlo hecho el Vicario General del Reyno de Nauarra, se auia venido huyendo a estos Reynos, por delitos que en el auia hecho; porque auia sido condenado por traydor, y desnaturalizado del dicho Reyno, por el Rey de Nauarra y su Consejo (...)

Que las partes contrarias auían ido contra los Reales mandatos, por quarenta florines que, los dichos Rector y Universidad auian de mandar castigar...” (*Memorial*, 1651, 368, 369, 370 zenb.).

Eta jauntxoek beren alde ematen zuten arrazoia zen, patronatu-privilegio horiek izan ezean, bizi-iturririk gabe geratzen zirela. Kalte izugarria zetorkien, beraz.

Azkoitiak amaren aldetik San Inazioaren familiakoa zen Balda jauntxoa salatzen du, Soreazuko patronatua indarrez eta ezkutuan beretu zuela argudiatuz:

“Y assí, aunque huuiera sido de mil años no les aprouechaua, ni daba causa de prescribir, y por ayer

continuado las violencias auían estado impedidos de poder reclamar... “ (*Memorial*, 1651, 431 zenb.).

Usurbilek zioen Atxega jauntxoak bere patronatueskubideak usurpazio-bidez jaso zituela, zuzengabeki –ezein titulu eta arrazoirik gabe, alegia–, eta auzitara joko du 1519an, hari hamarrenak ordaintzeari uko eginez:

“... incapaces para poder llevar, usar, y gozar los frutos y dezimas de la dicha Iglesia de Usurbil, las auían lleuado sin título, causa, ni razón que para ello tuuiesen, siendo según derecho, pertenecientes a los dichos Beneficiados, los cuales no lleuauan cosa alguna de los dichos diezmos para su congrua sustentación, por lo cual dexauan de acudir al seruicio de la Iglesia, por necesitar de andar mendicando, y buscar su vida...” (*Memorial*, 1651, 296 zenb.).

Atxega jauntxoa hamarrenak bere maiorazkoan sartuta zeudela esanez defendatu zen:

“... no auia incapacidad en ellos, ni en los otros parientes mayores, caualleros de la Provincia de Guipúzcoa, como lo eran (...) Los dichos Juan Veltran de Hortega, y su hijo pusieron excepciones, pretendieron ser dados por libres de dicha demanda: porque ellos no poseían diezmos algunos que perteneciesen a las partes contrarias, ni tuuiesen derecho para pedirlos: porque los diezmos que poseian eran suyos, y pertenecientes a su casa de Hortega de tiempo inmemorial, y de antes del Concilio Lateranense, y los poseian con titulo, y buena fee, y los auian poseído sus antecesores, y estauan incluso en el mayorazgo de la dicha casa, y los auian llevado con correcta conciencia, por institución Eclesiástica, según la

qual no auia incapacidad en ellos, ni en los otros parientes mayores, Caualleros de la Provincia de Guipúzcoa, como ellos lo eran, por pertenecerlos antes del dicho Concilio... “ (*Memorial*, 1651, 299 zenb.).

Gizarte-klase jakin baten partaide, hots, Ahaide Nagusi izatean oinarrizten da bere defentsa. Auzia Valladolid-eko Kantzelaritzan erabaki zen 1525ean, jauntxoaren aldeko epaian². Usurbilek, ordea, ez zuen amore eman eta auziak bide luzea egingo du, Iruñea, Zaragoza eta Erroman, batean jauntxoa garaile bestean herria izaki, horrela 1569. urtera arte, salatuz jauntxoaren eskubide eta titulu horiek guztiak garai batean herriari indarrez eta bortxaz usurpatuak izan zirela:

“Porque el dicho don Alonso (Ydiaquez) tenía usurpados injustamente el Patronazgo, y diezmos que pertenecían a la Iglesia, sin titulo, ni derecho, porque el, y sus antecesores por fuerça y violencia, como poderosos, se auían entrado en ello contra la voluntad de sus partes, y de los Clérigos, Beneficiados y Mayordomos, los quales siempre lo auían contradicho, y reclamado, y si antes no auian salido judicialmente era por el mucho poder de los contrarios, y por las fuerças, mañas y violencias de que se auían valido, defraudando a sus partes el Patronazgo que les pertenecia por derecho, y don Alonso lo tenia confessado en juicio, pues tenia presentado, y se queria aprovechar de un titulo en que dezia, que algunos de los dichos sus partes le auian dado, y cedido el Patronazgo, el qual no le podia aprouechar, por ser nulo, y por el reconocia auer sido el Patronazgo dellos, y no mostrava auer sido por legitima causa, sino solo por violencia. Y mucho menos derecho tenia para llevar los diezmos,

antes tenia resistencia de derecho, y era inhábil, e incapaz para poderlos lleuar” (*Memorial*, 1651, 319 zenb.).

Herriak berriro kontrako epaia jaso zuen, “betiko isiltzera” kondenatuz, baina auziak bizirik zirauen hurrengo mendearen erdi aldera ere (*Memorial*, 1651, 332-333 zenb.).

Zizurkilen ere antzeko kasua gertatzen da San Millan jauntxoarekin, honek ere, zegozkion ustezko patronatueskubideetan oinarrituz, elizan eta elizkizunetan lehentasunezko lekuak eskatzen baitzituen. Argudiatzen zuen eliza bere lurreen egina izan zela eta, hein batean bere jabetzakoa zenez gero, hamarrenak haren maiorazkoan sartuta zeudela. Auzia 1590ean bukatu zen.

Ageri denez, jauntxoek beren defentsan ateratzen duten arrazoia da, funtsera joanda, oso aspalditik datozkien esku-bideak direla eta beren maiorazkoan txertatuak daudela.

Berastegi eta Elduaingo herritarrek Juan Martinez jauntxoa 1535ean eramango dute auzitara. Itxura guztien arabera, jauntxo hori bera da Belateko batailan parte hartu zuena, koronela deitua, han zuzen. Herritarrek jauntxo boteretsua zeukaten aurrean Epaitegian indarrak neurtzeko orduan. Bi auzi desberdin ematen dira bi urteren buruan: bata 1535ean, bestea 1537an. Bietan, funtsean, arazo bera planteatzen da. Noizkoa da Berastegiko oinetxearen jatorria eta zertan oinarritzen da bertakoen leinu-ahaidetasuna? Nola liteke, lurraren jabe izan gabe, herritarrek dirutan eta espezetan jauntxoari ordaintzera behartuak egotea? Nola deitu behar zaio ekonomi sistema honi? Feudalismoa? Jauntxokeria soilki? Horrelako galderak sortzen dira auzi horietan harrotzen diren arazoan.

2. Berastegiko oinetxeko jauntxoaren jatorria ezbaian 1535eko auzian

Berastegiko herritarren eta bertako Juan Martinez jauntxoaren arteko lehen liskar juridikoa 1535ean hasi zen, honen oinetxearen jatorria eta zerga-eskubideak auzitan jarri zirenean. Jauntxoak bere defentsan antzinako denbotetan (*tiempo inmemorial*) lortutako tituluen argudioa erabiltzen baitu eta horretaz ez baita zuzeneko idazki zehatzik, herriko zaharren testigantzak, osagarriak baino gehiago, oinarrizko frogak gertatzen dira auzietan. Kontuan izan behar da garai haietan 50 edo 60 urte lehenago gertatuak mitifikatzeko joera zegoela eta auzietan deklaratzeko zuten lekukoek ukaezinak ziren ebidentziak ukatzeko ere joera zegoela, bandokideen arteko gerrei buruz interpretazio bitxiak eskainiz eta haien jarrerak seguru asko inoiz gertatu ez ziren gertakari batzuetan oinarrituz. Nolanahi ere, Udalak aurkeztutako lekukoek mende bat eta erdi lehenago gertatuaz kontatu zutena sinesgarria izan zitekeen, orduan egiazki gertatu zenari hurbil zekiokkeen. Galdetu zitzaion ea, duela 150 urtetik hona, Berastegiko jauntxoek Ahaide Nagusien titulua al zeramaten, haiek Berastegiko oinetxea sortu al zuten, lehenago oinetxerik ez al zen, Ahaide Nagusirik ere ez, eta, jatorrira joanda, ea lehen Ahaide Nagusi deitua Sagastiberriko seme bat izan al zen, eta Juan Martinez jauntxoa haren leinukoa al zen. Hori zen, laburturik, galdera-sortaren edukia. Azken batean, Berastegiko oinetxearen jatorriaz da arazoa. Hainbat lekukok diotena jasotzen da *Memorial*-ean.

Juan Martinez Olahondo, Elduaingo semea da, 53 urtekoa, Berastegin senitartekoak dituen, eta honek dio bi herri hauetako zaharrei entzuna diela nola beren aurrekoek

gerrak izaten zituzten nafar ganboatarrekin, eta hauek Berastegin eta inguruko herrietan kalte handiak egiten zituztela, jendea hilez eta lapurretak eginez. Horretan jarduten zutela Lekunberri, Gorriti eta Leitzako gazteluetan zeuden jauntxoek eta, bereziki, Heriekta eta Erasoko jauntxoek. Egoera honi irtenbidea emateko, Berastegiko herritarrek, elkartuta, herritar bat Ahaide Nagusi izendatzea erabaki zutela, etsaiei aurre egin ziezaien eta beren lurra defenda zitzaizkien. Eginkizun horretarako, beraz, Sagastiberriko hirugarren semea, gazteena, izan zela hautatua, beste bi zaharrenek nahi izan ez zutelako. Beraz, Yslela izeneko hirugarren seme hau izan omen zen, Ahaide Nagusi izendatua izan zenez geroztik, Jaundegia egin zuena:

“... e así aceptado, auía edificado una casa parte de la que agora está el dicho solar; el qual dicho mayor hijo de la dicha casa de Sagastiberri, después que así aceptó el dicho cargo, hizo la dicha casa” (*Memorial*, 1651, 189 zenb.).

Beraz, lekuko honen ustez, Sagastiberriko seme hori da oinetxeari sorrera eman ziona, eta haren ondorengoak hasiko ziren beren buruak Ahaide Nagusi bezala izendatzen.

Eraikin berriari dagokionez, garbi ez dagoena da orduan egindako etxe hura egungo Jaundegi ote zen, “auía edificado una casa parte de la que agora está el dicho solar” esaten baita. Egiazki Sagastiberri baserria eta oraingo Jaundegi bi eraikin desberdin al ziren? Eta hala baziren, Sagastiberriak eman al zion sorrera Jaundegiri? Galdera gehiegi erantzun bakarrerako.

Juan de Verdinarray lekukoak, 66 urteko berastegiarak, Juan Martinez jauntxoaren onibarrei buruz, zehaz-

tasun hau eman zuen, gaineratzean haren oinetxeak zeuzkan ondasunak oro –lurrak, etxe-orubeak eta oinordetzan jasoak–, horiek guztiak Berastegiko unibertsitateak eta auzotarrek Sagastiberriko semeari *emandakoak* izan zirela:

“dize de oidas publicas a sus mayores, y que ellos lo oyeron a sus mas ancianos, que las tierras, heredamientos, y suelos de casas, que el dicho Juan Martinez y su Casa, y Solar tienen, y poseen en dicha tierra de Verastegui, le fueron dados por la dicha Universidad, y vezinos, al hijo de Sagastiberri, fue el primero pariente mayor” (*Memorial*, 1651, 885 zenb.).

Beste lekuko batek, Juan Martinezen ahaide zen Ibarako Domingo Laskibar apaizak³, 44 urtekoak, honek ere aurrekoaren azalpen bera eman zuen, herritarrek *lurrak eman* egin zizkiotela:

“le dieron algunas tierras, y demas dellas, él de su propia autoridad auia...” (*Memorial*, 1651, 887 zenb.).

Herriko Martin de Echenagusia apaizak, 40 urtekoak, Berastegiko jauntxoak bertako lurrez nola jabetu zen azaltzen du. Garai hartan Berastegin 33 etxe baino ez omen zeuden eta bertakoak bizibeharrak eraginda kanpora joan zirenean, haien lurrez Sagastiberriko semea jabetu omen zen:

“que al tiempo que el dicho hijo de Sagastiberri fue alçado por pariente mayor de la dicha de Verastegui, no auia mas que 33 casas, y cada uno tomaua del Exido, lo que bien le uenia; y que el dicho señor que assi alçaron, tomó como los otros, lo que bien le vino de los Exidos dela dicha tierra, todo lo que le parecio, y quiso, puede auer los dichos docientos años” (*Memorial*, 1651, 886 zenb.).

Honek, aurrekoek ez bezala, zerbait gehiago esaten du: eman ez, baizik *hartu* egin zituela, alegia.

Elduaingo Martin de Olaburuk, 63 urtekoak, gehiago luzatzen da kontakizunean eta datu gehiago ematen ditu Berastegiko lehen Ahaide Nagusi honi buruz. Leitzan bizi zen Herrera izeneko jaun batek kalte handiak egiten omen zizkion Berastegiri, bertako auzoetan lapurretak eginez eta, haren erasoetatik babesteko joan omen ziren Sagastiberri etxera, hango semea Ahaide Nagusi izendatzera. Zaharrenak ezezkoa eman zuenez, gazteena izendatu zuten. Honek, Leitzako plazan zegoen errementerian zelatan jarrita, Herrera jaunari itxaron zion eta bertan hil zuen. Handik pixka batera, Ahaide Nagusiak emaztea galdu zuen, eta harengandik izandako semeak hartu zuen bere oinordetza. Hau, era berean, Lekunberriko oinetxeko alabarekin esposatu zen eta seme-alabak izan zituzten. Azkenean, bera Gaztelan hil zen eta bere emazteak haren gorputza Berastegira ekarri zuen:

“... aguardó al dicho señor de Herrera junto a la Herreria de la plaza en Leyzera, en celada, donde le mató, è después dello, de alla poco tiempo, dexando preñada el dicho pariente mayor de Verastegui a su muger, auia fallecido; donde a poco tiempo el dicho primero pariente mayor de Verastegui, hijo de la dicha Casa de Sagastiberri: E al hijo que de la dicha su muger auia nacido, quedó por pariente mayor en la dicha tierra de Verastegui, el qual se auia casado con la hija de la Casa, è Solar de Lecunberri, è tuvo hijos de su muger; y estando assi casado, falleció el dicho Garcia Martinez, segundo pariente mayor, el qual fallecido en Castilla, y su muger auia hecho llevar su cuerpo a la dicha tierra de Verastegui, y quedó por tercero pariente mayor de la dicha Casa, è Solar de Verastegui, Garcia Martinez su

hijo, è Ochoa Martinez de Verastegui, hijo del dicho Garcia Martinez, abuelo que fue del dicho Juan Martinez de Verastegui, que de presente es señor del dicho Solar de Verastegui despues de la muerte del dicho Ochoa Martinez su padre, auia quedado por señor de la dicha Casa; lo qual oyó decir a los dichos Juan de Inça su padre, è Martin de Zamora, è Juan de Echipra de Arrue, que ellos assi lo oyeron a sus mayores, y mas ancianos, que el origen, y principio del dicho Juan Martinez de Verastegui, y su padre, è abuelos, è ascendientes eran en la manera que ha dicho. E que antes dellos en la dicha tierra de Verastegui, no auia solar, ni parientes mayores, ni nombre de pariente mayor, è del arroyo della de dicho hijo de Sagastiberri dependian los dichos parientes mayores, è del dicho Solar, è Casa de Verastegui, è todo ellos assi lo oyeron de sus mayores (...) Y según lo suso dicho el dicho Juan Martinez de Verastegui, que de presente es el sexto pariente mayor del dicho solar, descendiente de los dichos señores, que de suso ha declarado” (*Memorial*, 1651, 872 zenb.).

Pasarte honetan bada jakingarririk. Simancas-ko artxi-boan aurkitzen den 1494ko uztailearen 4ko dokumentu batean esaten da Amezketa errekan, urte horretan, bi burdinola zeudela martxan: bata Amezketako Argañarasen, eta bestea Ugarte auzoan. Azken hau, hain zuzen, Miguel Ugarte eta Ochoa Martínez de Velástegui jauntxoek eraiki eta ustiatzen zuten. Burdinola hau “Ugarte-aundi” eta “Ugarte-jauregi” baserrien artean kokatua egongo zen. Dokumentu horretan, hain zuzen, Amezketa erreka burdinola guztien gaineko zerga-eskubidea –alkabala, errege-agiria, hamarren zaharra–, Nikolas Gebarari ematen zaio, herentziaz eman ere (Díez de Salazar, 1997, 163-167).

Hurrengo mendean, Argañaras-Torreko buruzagi bezala Martin Ochoa Argañaras agertzen da, Berastegiko Juan Martinez jauntxoarekin Ugarteko Santa Maria elizako patronatua partekatuz.



Ugarteko Santa Maria eliza, Bedaiorako bidean eskuin
(Iztueta, 2010)



Amezketako Ugarte auzoan, elizatik hurbil eta erreka ondoan, Argañarás eraikina, garai bateko jauregia, arrosa kolorez eraberritua (Iztueta, 2010)

Bi familia hauek, hain zuzen, ezkontza-bidezko loturak zituzten. Gizonezko biak koinatuak ziren, Argañarasko Martin Ochoa Berastegiko Juan Martinezen Maria Lopez arrebarekin esposatua baitzegoen⁴.

Hori batetik, eta bestetik, berriz, pasarte horren azken zatia da berria; alegia, Berastegiko oinetxeoak Lekunberrikoarekin elkartzen direla ezkontza-bidez, haren semea Gaztelan hil zela eta emazteak Berastegira ekarrarazi zuela lurra ematera. Jauntxo-familia honen bizi-sarea zabaltzen doa

ezkontza-loturen bidez eta, bestalde, gizarte-mugikortasun nabaria dute, ez baitaude beti sorterriko zoruari estekaturik.

Lekuko hauen kontakizunetan, artean hain urrutikoak ez ziren bandokideen arteko muga-gatazkek aipatzen dira, jadanik aztertuak ditugunak. Alde batera utzita egiazko jauntxo-erregimen baten aurpegia ezkutatzeko egokiak izan zitezkeela azalpen horiek ematen zituztenentzat, interesgarria da ikustea, halere, arazoa gizarte-berdintasunaren aldetik begiratuta, Ahaide Nagusiaren sorrera herri-hautaketari loturik datorrela, esan nahi baita Ahaide Nagusiaren irudia herriko beste baserritar baten parekoa dela eta haren jatorria ez dela bere garaikideena baino lehenagokoa. Horrela, asmatutakoa eta egiazkoa, biak nahasten dira. Diogunaren karietara, adibidez, Berastegiko jauntxoa egiazki izan, oinaztarra zen, ez militar aingeru bat; auzian etsaitzat ematen direnak, ordea, ez hura, baizik nafarrak eta ganboarrak dira. Bereizketa hau, noski, ez da zentzurik edo intenziorik gabekoa lekukoen baitan, egia hutsa baita Berastegiko jauntxoak, leinuen jerarkiari dagokionez, Lazkaoko jauntxoen harikoak zirela. Honetaz jabetzeko aski da Jaundegiko armarrian datorren “Oñez/Lazcano” izenburua irakurtzea, nahiz inskripzio hori geroztikoa den, uste denez, Juan Martinez eta Lazkaoko Kasilda senaz-emazteek maiorazkoa eratu zuten garaikoa.

Esan dezakegu, laburtuz, herriko bi lekuko horien ikuspegia, orokorrean, hasierako berdintasunean oinarritzen dela eta Berastegiko jauntxoari ukatu egiten diotela oso aspalditik letorkiokeen Ahaide Nagusiaren titulua.

Aurreko bertsioaren kontrakarrean, Pedro Martinez jauntxoak, bere eskubideak aspaldiko garaietan oinarritzen direla egiaztatzeko, 1270eko martxoaren 8ko errege-idazki

bat aurkezten du, eta ahozko tradizioaren gainetik, hori izango du bere alde, zeinetan esaten baita Berastegiko Juan Martinez jauntxoak Nafarroako erregerengandik 25 marabedi jaso zituela berari egindako zerbitzu eta mesedeengatik eta, orobat, Berastegiko oinetxeko nagusi izateagatik⁵. Juan Martinez jauntxoak, hain zuzen, eskritura honen aipamena egiten du 1535eko auzian. Garcia jauntxoak ere errege-zedula hori aipatuko du 1656ko azaroaren 4ko auzian⁶.

Bestalde, haren aldeko lekukoek, jauntxoaren antzinate-tasunari buruzkoa xehetasunez hornitu nahirik, diote Berastegiko oinetxeko ahaide batek Latrango kontzilioa baino lehen (1123) sortu eta eraiki omen zuela bere lurrian San Martin eliza, hango patroia bezala izendatuz, eta jauntxo horrek eta bere ondorengoek gozatu zituztela hamarrenak, opariak, eta abar. Badiote, orobat, Espainiako erresumetan mairu fedegabeak sartu zirela eta horien kontra borrokatuz sortu zela Gaztelako erresuma kristaua eta Gipuzkoako Ahaide Nagusiek eta beste lekuetakoez konkista horretan parte hartu zutela eta, zerbitzu horregatik, Urbano II.a aita santuak (1088-99) Ahaide Nagusiak saritu zituela, eta hauek izan zirela Latrango kontzilioa baino lehenago beren elizak sortu eta eraiki zituztenak eta, ondorioz, betidanik zetozela jasotzen zegozkien hamarrenak⁷.

Lekuko hori, beraz, XI. mende-bukaera arte edo, gutxienez, XII.aren hasiera arte doa iraganen Ahaide Nagusien sorreraren bila Berastegiko lurrian. Hori horrela, patronatu-eskubidea ordutik letorkioke Berastegiko jauntxoari. Baina lekukoak aipatzen duen Latrango kontzilio horretan, hain zuzen, debekatu egiten da laikoek elizako gauzetan sar daitezen (García Villoslada, 1963, 338; 356-

357). Kontraesana agerian dago, Berastegiko elizan agintzen duena, azken ikuspegi honen arabera, ez baita klerikoa, laikoa baino. Latrango kontzilioarena aipatzeak, beraz, ez bide du zentzu handirik, justu kontrakoa baitio.

Juan Martinez jauntxoaren kontrako zein aldeko leku-koen azalpenak batera hartuta, ohartzen gara irakurketa kontraesankorrak agertzen direla. Zalantzarik ez da jauntxoaren ustezko eskubideak defendatzen dituzten lekuko azalpenean akats historiko larriak aurkitzen direla eta, neurri handi batean, asmakizun hutsak diruditela Kontrako jarrera dutenen artean ere badira nahasketak eta puntu ilunak, arestian azaldu bezala, bana ezin da esan dena asmakizuna denik ere. Nolanahi ere, noizkoa den zehaztea zaila bada ere, baliteke Berastegiko Ahaide Nagusien jatorria antzinakoa izatea. Hala uste du Ignacio Maria Carrion-ek (1975, 72). Dena den, 1270ekoa asmakizuna balitz ere, 1332. urtetik aurrera etengabe agertzen dira Berastegiko jaunak. Ez dirudi, beraz, Sagastiberriko kontu horrek oinarri handirik duenik.

3. Berastegiko jauntxoaren zerga-eskubideak 1536ko auzian

Berastegiko jauntxoaren kontrako herritarren erresistentzia poliki-poliki nola joan zen gogortzen ikusteko, has gaitzen liskarra noiz eta nola abiatu zen azaltzen. Auzi hau Juan Martinez jauntxoaren eta Berastegi eta Elduaingo Juan Gorostizu, Martin Azkarraga, Juan de la Plaza, Domingo de Sagastiberri eta Martin Ermentaritegi ganaduzaleen artean ematen da Tolosan 1536an. Epai honetan agertzen diren datuen arabera, jauntxoak Leitزارango haraneko larre eta

sarrietan ganaduak bazkatzeagatik zegozkion urteko ordainsari batzuk kobratzen zituen. Urtero, Leitzararen larrean zebiltzan ganadu-nagusiek maizter edo morroi bat izendatzen zuten, eta haren ardura zen hango aziendak zaintzea eta hango larretan bazkatzeagatik jauntxoari ordaintzea. Ordaindu beharrekoak oso zehatz izendatuta zeuden: hogei florin⁸ dirutan, bi pitxar ardo, erralde⁹ bat behiki, hamabi gurin Eguberriz, eta maiatzeko San Krutzetatik abuztuko Ama Birjinak arte larunbatero behi-esnearekin egindako gaztak¹⁰. Oiartzun eta Berastegin behi-gurin fresko-freskoa egiten omen zuten (Isasti (1985, 152) eta pentsatzekoa da luxuzko artikulua izanen zela jauntxoarentzat.

Gertatu zen Leitzararen bazkatzen ziren ganadu-nagusiek 1532. urte-inguruan, utzi egin ziotela ordainsari horiek jauntxoari ordaintzeari. Herriko ganaduzaleek, ez jauntxoari, baizik zuzenean morroi zaintzaileei ordaintzea eskatzen dute, beste arrazoien artean, hura hango lursailen jabe ez delako. Sei bazkaleku hauek aipatzen dira, orduko grafian honela emanda datozenak: Basaiz, Orin, Ameran, Ollaiz, Hurlio eta Oreneum¹¹. Jauntxoaren bitartekotza kendu nahi zuten.

Tolosako Udal-Epaitegiak, ordea, 1536ko irailaren 28an Berastegiko Juan Martinez jauntxoaren aldeko epaia eman zuen, argudiatuz haren frogak baliozkoak zirela eta, ondorioz, haren lurretan bazkatzen ziren ganaduengatik ordainsariak kobratzeko eskubidea zuela:

“Fallamos, que el dicho Juan Martínez de Verastegui e sus procuradores en su nombre, probaron bien, e cumplidamente su intencion, è lo que probar les convenia (...) por razon de las vacas que apacientan en los dichos terminos, è los 20 florines, è vino, è carne, è

mantecas, è quesos que han sustraído de repartir, y pagar al dicho Juan Martinez de Verastegui en los dichos dos años passados de 1534 è 35 a los quales dichos Juan de Gorostiçu, y consortes, condenamos a que dentro de nueve dias primeros siguientes, den, è paguen, è satisfagan al dicho Juan Martinez de Verastegui, è a quien su poder huuiere, los maravedis que les caben a pagar por razon de las vacas que han tenido, è tienen, è los 40 florines que han sustraído de pagar en los dos años pasados de 1534 y 35, è mas la parte que les cabe, è puede haber de las doze mantecas que dexaron de pagar la Navidad passada. E assimismo paquen, è satisfagan lo que cabe, ò puede haber de los quesos que dexaron de dar, è pagar al dicho Juan Martinez los dias de Sabados de cada semana, desde el dia de Santa Cruz de Mayo, hasta el dia de Santa Maria de Agosto deste berano proximo passado (...) Y por esta nuestra sentencia definitiva, juzgando, assí lo pronunciamos, y mandamos (*Memorial*, 1651, 563 zenb.).

Honela, berriro, zergak ordaintzera behartuta geratu ziren abeltzainak, zehazki hauek: Leitzarango larreengatik zegozkion marabediak ordaintzera; 1534. eta 1535. urteei zegozkien 40 florinak dirutan ematera; joan den Eguberriako 12 gurin ematera; eta maiatzeko San Krutzetatik abuztuko Ama Birjinak bitarteko gaztak ematera, epealdi horretako larunbata guztietakoak. Eta epaiak espreski esaten zuen, orobat, aurrerantzean ganaduak larre horietan bazkatuko zituzten herritarrek edo horien ondorengoek ordaintzeari uko egiten bazioten, hauek ere kondenatuak izango zirela. Arazoa trenkatua geratu zen, baina ez luzerako. Hain zuzen ere, hurrengo urtean, 1537an, berriro ekiten diote herritarrek jauntxoaren kontrako prozesuari.

Juan Martinez jaunak Juan de Gorostizu eta Martin de Azkarragarekin Tolosan izandako auzi aipatu horretan interesgarrienak, agian, lekukoen azalpenak dira, horietan Ahaide Nagusiaren izatea eta honen eskuduntzak aitortzen baitituzte. Lekukoei egiten zaizkien galderen edukia, hauxe da: “Pregunta I: Si saben, è han noticia de la dicha casa, è solar de Verastegui, y de los terminos, y prados, seles, y aguas, è yeruas de Leiçaran. Y si han noticia delos seles de Bizcoiz, Oizin, y delos dos seles de Ameraun, y del sel de Olahiz, è Orençun, que son siete seles en los terminos de Leiçaran, incluso” (*Memorial*, 1651, 863 zenb). Azpimarra dezagun aipu honetan, ez sei baizik zazpi saroi izendatzen direla hemen eta, gainera, grafiaz aldatuta. Badirudi zazpigarren hori “Orençun” hori dela.

Beren lekukotza jauntxoaren alde eman zituztenen erantzunak *Memorial*-eko 863. zenbakian biltzen dira, jarraian laburbiltzen ditugunak.

Berastegin bezala Elduainen senide asko dituen 60 urteko Urdinaraingo Juan Luzeak, adibidez, zioen lehengo garaietan gerrak eta istiluak izaten zirela nafarren eta Nafarroarekin muga egiten zuten Berastegi, Elduain eta Gazteluko herritarren artean, eta herri hauek armak hartuta ibiltzen zirela lanean, nafar erasoen beldur zirelako. Horrela ezin zela jarraitu-eta, herritarrek Berastegiko oinetxekoa Ahaide Nagusi izendatzea erabaki zutela, nafar haiengandik babes zitzan eta Leitzarango lurak, saroiak eta ganaduak astean bi aldiz ikustera joan zedin. Zerbitzu horien truke, Berastegi, Elduain eta Gazteluko elizetako hamarrenak eta herri horietako erroten errentak eta gainerako ordainsariak, hots, florinak, gaztak, gurinak, haragia eta ardoa jasotzen zituen jauntxoak¹². Lekuko hau, beraz, Juan Martinez

jauntxoaren harikoa zen, testigantza haren alde eta Gorostizuren aurka egin zuena. Jauntxoaren alde deklaratu zuen, orobat, Juan Gaztañahondok ere, Juan Martinezen morroiak, esanez auzotarrek nafarregandik babesteko hautatu zutela Ahaide Nagusitzat eta babestuek ordainetan Berastegi eta Elduaingo elizetako hamarrenak, eta Gazteluko lurrarenak, herri haietako erroten errenta, florinak, gaztak eta gurinak, haragia eta ardoa ematen zizkiotela¹³.

Lekukoen azalpen-txanda honetan, hari beretik doazen beste honako aitorten hauek ere egiten dira, zehazki hauek:

Bat, Leitzarango zazpi saroiak, jadanik aipatuak, aspaldi-aspaldiko garaietatik Berastegiko oinetxeari zegozkionak zirela –hango jabe eta jauntxoei zegozkienak, alegia–, eta gero haiek emanda jaso zituztela Berastegi eta Elduaingo auzotarrek. Hori da V. galderari¹⁴ emandako erantzuna:

“... antequissimamente solian ser, y pertenecían a la dicha casa y solar de Verastegui, y a los dueños y señores della (...), é después los dieron a los dichos vecinos de Verastegui y el Guayen”.

Bi, VII. galderari emandako erantzunean esaten da jauntxoek maizter edo mendizain bat izendatzen zutela Leitzaranean bezala Berastegiko zein Elduaingo lurretan bazkatzen ziren aziendak zaintzeko eta, arazoak sortzen zirenean, honek Berastegiko jauntxoarengana jotzen zuela, gaizkileak zigortuak izan zitezen:

“Que si algun delito, u otra cosa tocante a los Bustos de Verastegui, y el Duayen, y en daño de los dichos Bustos, y Vacas, y sus gurdas, y Vaquerizos, acontece en los dichos terminos, y Seles de Leyçaran, el Maizter, y mayoral de los dichos Bustos, y dueños del ganado

bacuno que usa en los dichos Seles, y los Vaquerizos de ellos acuden, y suelen acudir al dueño, y señor de la dicha Casa, y Solar de Verastegui, que es, y por tiempo ha sido, para que lo haga remediar, y castigar por justicia; y assi lo suelen hazer remediar, haziendo punir, y castigar a los que se hallaren culpantes, è hazer enmienda, è satisfacion de su daño, al Mayoral, y Maizter, y a los dueños que tienen Vacas en los dichos Bustos, y asus Vaquerizos; y que assi aora siete, u ocho años, poco mas, ò menos tiempo, acudieron, y requirieron el dicho Mayoral, y los vezinos, y dueños de ganados de los Bustos de Verastegui, y el Duayen, y su voz, al dicho Juan Martinez, para que hiziesse castigar a dos hombres vezinos de Verastegui, que auian hecho prenda injustamente a unos Nauarros en los dichos terminos, y Seles de Leyzaran; el dicho Juan Martinez, conforme a la dicha costumbre, y possession, se quexo, y los hizo prender, y castigar por ante el Alcalde de la Hermandad de Hernani, que los hizo bolver libremente las dichas prendas” (*Memorial*, 1651, 863 zenb.).

Hiru, herriko ganaduzaleek urtero-urtero maizter bat izendatzen zutela eta bera izaten zela haiei dirua kobratzeaz eta jauntxoari ordaintzeaz arduratzen zena, II. galderari emandako erantzunean datorren bezala:

“En la segunda se preguntaba a los testigos si Juan Martinez y sus antecesores recibia y recibian “de aver, y llevar, y cobrar, y recibir de los dichos Juan de Gorostiçu, y sus consortes, y Martin de Azcarraga, y de los suyos, y de los vezinos y moradores de los dichos pueblos de Verastegui y el Duayen, y de sus passados, y ellos de les dar, y pagar por respecto de sus ganados vacunos, y del busto, y bustos, que metian, y meten en los dichos

terminos, prados, y pastos, y seles de los dichos terminos, y Valle de Leizaran, y en sus seles, avergamientos, repartidos, y pagados por el Mayoral que cada año se haze por los dichos Bustos de Verastegui, y el Duayen, que se dize Maizter: veinte florines corrientes en dinero contado, y dos jarros de vino, y un relde de vaca, y doze mantecas, y los quesos que los dichos Bustos, se hazian en cada año desde el día de Santa Cruz de Mayo, hasta el día de nuestra Señora de Agosto, en todos los días, Sabados, y los dueños que los ganados vacunos que los dichos Bustos de Verastegui, y el Duayen, en uno con la otra costa juntados, solian repartir, y pagar los dichos veinte florines, y vino, y carne, y mantecas, y quesos, por justos, y derechos titulos” (*Memorial*, 1651, 863 zenb.).

Lekuko hauek, bada, Berastegiko jauntxoak Ahaide Nagusitzat daukate eta esplizituki aitortzen dituzte haren jaun-izaerari dagozkion eskubideak.

Bestalde, Juan Martinez jauntxoaz egiten den erretratua gizon ondradu bati dagokiona da. Bera gizon kezkatia da, baketsua, atsegina eta oso humanoa, ohitura eta bizitza onekoa, eta hiztuna. Hala dator adierazia XIX. galderari emandako erantzunean:

“Que el dicho Juan Martinez de Verastegui, es hombre quieto, y pacifico, cortes, y muy humano, de buenas costumbres, y vida, y conversacion, y por tales avido, y tenido, y conocido, y dello es publica voz, y fama, y lo mismo fueron en su tiempo Juan Martinez su padre, y Ochoa Martinez, su abuelo, y dello fue, y es publica voz, fama, y comun opinion. Y lo mismo han oydo dezir de los otros sus bisabuelos, y antepassados, y mayores del dicho Juan Martinez, que lo fueron en su

tiempo, oyendo, y platicando de los viejos, y ancianos” (*Memorial*, 1651, 185 zenb.).

Ezin zitekeen bestela izan zeruak eta lurak bereak zituela uste zuen jaun handiki bati buruzko irudikapena. Baina bazekien Berastegi eta Elduaingo herritarrek ez bide zutela begi onez ikusten. Ozenki zioen erasotzen ziotenak ez zirela lau katu, asko eta indartsuak baizik:

“Que los dichos vecinos de Verastegui y el Guayen, son muchos, y grandes pueblos, y que pueden mucho, mucho, y son altivos, indomitos y soberbios, tales que no consintieran ninguna fuerça” (*Memorial*, 1651, XVI. galdera, 863 zenb.).

Eta ahaltuak direlako, hain zuzen, auzietara eramán eta horietan dirua xeharazten diote, bera desegiten eta lur joarazten ahalegintzen dira eta bereari eusten diote. Herri-indarra zuten beren alde:

“Que los dichos vezinos de Verastegui, y el Duayen, y los que entre ellos han levantado este pleito, y lo siguen, y hazen seguir, se han dexado dezir diversas vezes, que al dicho Juan Martinez le han de destruir y echar a perder en pleitos, gastandose en ellos; y que no ha de auer fin, como son pueblos, y poderosos y muchos vecinos” (*Memorial*, 1651, XVI. galdera, 863 zenb.).

Neurri batean “auzotarren” edo herritarren erresistentzia honen ondorioz gertatzen den jauntxoén hondamena modu dramatiko batez deskribatzen da: beren errotak hondatzen utzi zituzten, haietan irina ehotzeari utzaraziz, eta horietatik zetozkien errenten gozamena galdu zuten, baita makila eta ohorea ere. Horretarako, elkar hartu zuten

eta beste errota garaiago eta apalago batzuk egin zituzten, bereak leku galduetan isolaturik geratu zirelarik. Honek guztiak jauntxoari urtean 30 dukateko galera ekarri zioten:

“Que los dichos pueblos y Universidades de Verástegui, y el Duayen, y vecinos, y moradores dellas, como pueblos, y poderosos, echaron a perder al dicho Juan Martinez, y a su padre, sus molinos, haciendoles perder la renta, y maquila, y honor. y renta, y provechos dellos, haciendo entre sí liga, y munipodio para no moler en ellos, è haciendo otros molinos más altos, y baxos, de manera que los suyos quedassen aislados y perdidos, y assi quedaron, y estan desolados, y perdidos” (*Memorial*, 1651, XVII. galdera, 863 zenb.).

Bereak zituen Igeralde eta Arrosiko errota biak, berea, orobat, Elduaingo hirugarrena ere. Herriak egindako Arrateko eta Arrosiko errotez arituko da hor.

Lekuko hauen azalpenak ikusita eta Tolosako Udal-Epaitegiak emandako epaia kontuan izanda, ageri da Berastegiko Juan Martinez jauntxoak, bere aurrekoen antzera, herriko nekazariengandik zerga-mota desberdinak jasotzen zituela dirutan eta espezetan. Zein eskubideren izenean? Hango lurren jabe izan gabe, bertako nekazariak noizbait haren jabetza aitortu ziotelako? Hala dirudi. Bestalde, zalantzarik ez da nekazarien borondatearen kontra jokatzeko zuela, hala izan ez balitz ez baitziren auzitara joango. Galdetu izan dena da, Otazuk (1973, 84) egiten duen bezala, ea zer motatako ekonomi sistema den hori. Feudala? Herriko jauntxo soil bati dagokiona?

Galdera horiek aurrean, erabateko ondoriorik ezin bada atera ere, gogoeta batzuk egin eta orduko gizarte-giroa hobeto ezagutzeko parada egokia izan daiteke Berastegiko

jauntxoaren inguruan zehazten den auzi honen inguruan ohar batzuk egiteko.

Lehenik, lekukoaren erantzun batzuk kontuan hartzen badira, badirudi jauntxoak nolabaiteko jurisdikzioa edo eskumena baduela edo, bederen, aitortzen zaiola, zehazki baieztatzen baita jauntxoek beti izan zutela, eta dutela, urtero zaindari edo mendizain bat izendatzeko usadioa eta ohitura, Leitzarango mendi eta lursailak, berdin saroiak, jagon zitzaten, eta ez hangoak bakarrik, baita Berastegi eta Elduain herrikoak ere (Otazu, 1973, 84). Jauntxoaren eskumen hori, bestalde, herritarren borondatean oinarritzen zen, arazo penalak zeuzkatenean haiengana joaten zirela esaten baita. Zaindaritzapeko mendi horietan kalteak gertatzen zirenean, zaindariak edo “maizterrak”, berdin ganadunagusiak, jauntxoengana joaten zirela eta joanez segitzen dutela, esaten da, errudunak justiziaz zigortuak izan daitezzen.

Badirudi eskumen berezi horretaz jauntxoa 1530. urtera arte bederen baliatu zela, zeren urte honetan maizterrak eta Berastegi eta Elduaingo ganaduzaleek eskatu baitzioten zigor zitzala Leitzarango lurretan nafar batzuei bidegabeki lapurreta egin zien Berastegiko bi gizon. Eta jaunak, ohitura zuenez, biak hartu eta Hernaniko Ermandateko alkatearen aurrera eraman zituen.

Jauntxoa bera baita auzoen kexuak eta eskaerak jasotzen dituen, bera gaizkinak atxilotzen dituen, badirudi, neurri batean bederen, baduela bere eskumena. Baina egiazki, haren egitekoa izan, epaile-agente bati dagokiona baizik ez da izango, zeren zer ebazpen eman behar den erabakitzen duena, azken batean, alkatea baita, kasu honetan Hernaniko alkatea. Hori horrela zen XVI. mendearen erdi aldera. Lehenago nola ote? Oso litekeena da, hala uste da, jauntxoak

“ziklo jurisdikzionala” bere osotasunean beretuko zuela, ezagunak baitira Ermandadearen kexak eta arrangurak, hura artean hain indartsua ez zenean. Bestalde, arazo penaletan abeltzainak jauntxoarengana beren “borondatez” joaten zirela esaten denean, esan dezakegu, Otazurekin (1973, 85-86) batera, ohitura hori ezarri zen garai haietan nekazarien borondateak ezer gutxi balioko zuela jauntxoen aurrean.

Bigarrenik, Berastegiko nekazariak, jauntxoa auzitara eramatean, erresistentzi jarreratik harago joanez, haren kontrako “ehiza” hasten dute eta, bide horri ekitean, beren artean elkartu eta antolatu egiten dira. Berastegin eta Gipuzkoako beste herri batzuetan, Penintsulako beste lekuetan gertatzen denaren antzeko prozesua ematen da. Erasoaldi honen oinarri soziala maila ertaineko nekazaritzak osatzen zuen eta honen indarra, hain zuzen, bere kopuru handian zetzan eta baita bere antolaketan ere. Berastegiko nekazariak beren protagonismoa erakusten dute, lehen esan bezala, bertako jauntxoak garbi asko esaten baitu arerioak asko eta indartsuak direla eta, gainera, herri askotakoak. Erresistentziaren alderdi hau nabarmendu beharrekoa da, nekazal gizartea jauntxoen ordura arteko botereari azpia jaten hasia baita (Fernández, 1975, 111). Berastegiko jauntxoari oldartu zitzaizkion nekazari horiek, seguru asko, etxenagusiak izango ziren, ez maizterrak.

Hirugarrenik, zeuden zapalketa-egoeratik ateratzeko, taktikari dagokionez, errebolta-mekanismo posible guztiak erabiltzen zituzten eta horien artean, bereziki, mingarriena zen hura –auziarena, alegia–, garai hartan jauntxoen poltsikoak dirutan aski hutsik baitzeuden. Berastegiko jauntxo auzipetuak minduraz salatzen zuen auzotarren asmoa bera

auzi-gastuen bidez zorpetuta uztea zela. Eta, bestetik, haren diru-sarrerak murrizten ahalegintzen ziren, lehen aipatu-tako erroten kasuan bezala. Jauntxoek, eraso hain ondo antolatuaren aurrean aurkitzean, sarritan, dirua lortzeko, bere ondasunak saldu behar edo, hobeto esan, gaizki saldu behar izan zituzten.

Laugarrenik, jauntxoen kontrako eraso XV. mendebukaeran hasi zen, baina bere unerik bizienak XVI. mendean eman ziren. Erasoaren bidez bi xede hauek lortu ziren; hasteko, jauntxoen eskubideak eta hauek 1350-1450 epealdian zehar egindako usurpazioak berrikustea, eta gero, jauntxoen sinboloak oro desegitea.

Lehen xedeari dagokionez, frogatu zuten jauntxoek lehengo garai ilun haietan bereganatu zituzten zalantzazko eskubide haiek ez zirela bidezkoak. Berastegiko jauntxoaren kasuan, zehazki, hala gertatu zen. Bertako herritarrek Joannes jauntxoaren kontra jarritako auzian, haien letratuak egindako txostenean agertzen da hark, ganaduak mendietan bazkatzearen ordainetan, kobratzen zituen zergak legez kontrakoak zirela, bortxaz ezarritako zerbait: “una ymposicion forzosa e intolerable”¹⁵. Berastegitik at, Gipuzkoako beste herri batzuetan ere antzeko gertaerak ematen dira. Zehazki Hondarribian, hemen ere errotak erabiltzeagatik zergak ordaintzeari uko egiten diote. Errota eta mendiekin bezala, sarioiekin ere antzeko zerbait gertatzen da. Herritarrak garai batean egindako usurpazioak berreskuratzen hasten dira.

Bosgarrenik, Berastegiko nekazariek Juan Martinez jauntxoaren kontra 1535ean hasten duten auzian Tolosako Udal-Epaitegiak haren aldeko erabakia aldarrikatzen du hurrengo urtean, argudiatuz haren eskubideak, nagusiki,

antzinatasunean oinarritzen direla. “Aspaldiko garai haie-tan”, esaten da. Arrazoi horrek aski funtsik baduen ala ez alde batera utzi eta emaitzetara etorrira, esan dezakeguna da Berastegiko jauntxoak XVI. mendea aurreko garaietan orain ez bezalako indarra izan zuela eta haren eragina, Berastegitik harago, Elduain eta Gaztelura ere iristen zela eta, seguru asko, Berastegiko haran osoa, bertatik Amasara artekoa, kontrolatuko zuela. Zalantzarik ez da, jadanik XVI. mendearen lehen erditik hasita, haren botere-esparrua murrizten hasia zela. Ez da Gaztelu eta Elduain herrietako hamarrenak jasotzen zitueneko daturik. Herritarrek hortzak erakusten zizkieten jauntxoari, eta hasieran kontrako epaia jaso bazuten ere, Valadollid-eko Kantzelaritzara jo eta han aldekoa lortu zuten handik hamar urtera, han erabaki baitzen Berastegi eta Elduaingo auzotar guztiek zerga-mota guztietatik aske zeudela, eta Juan Martinez aipatuak eta honen aurrekoek Ahaide Nagusi ziren aldetik jaso zituzten zergak erresuma eta Probintziako arauen kontrakoak zirela:

“... todos los vecinos dellas (Universidades de Berástegui y Elduayen), auían seido e heran libres de las imposiciones de los dichos florines (...) e si el dicho Juan Martinez e sus antecesores lo auían llevado auía seido como parientes mayores (...) contra leyes (...) de nuestros reinos y hordenanças de la dicha provincia”¹⁶.

Espainiako errege Karlos I.ak (1516-56) 1545eko maiatzaren 12an emandako erabaki horrekin Berastegi eta Elduaingo nekazariak garaipen handia lortzen badute ere, eliz hamarrenak oraindik ere jauntxoari ordaintzen segituko dute, jarraian ikusiko dugun bezala.

Zein den arazoaren funtsa? I. M. Carrion-en ustez, Berastegiko oinetxearen sorrerari buruzko iritzia kontra-
jariak daude auzitan. Noiztik datozenak dira jauntxo horiek?
Nondik datorkie Ahaide Nagusien titulua? Nork emanik,
edo nola lorturik?

Auzi gehienek sorburuan hamarrenen kontua agertzen
da, horien hiru laurdenak jauntxoak eramaten baititu,
auzotarren borondatearen kontra. Jauntxoak dio bere esku-
bideak oso aspaldikoak direla, ia denboran zehar galtzen
diren horietakoak. Auzotarrek, hasierako berdintasunean
oinarrituz eta, ondorioz, iragan hurbileko ebidentziak
ukatuz, diote jauntxoak ez duela inolako eskubiderik ha-
marren horiek kobratzeko. Auzotarrek jauntxoen eskubi-
deei buruz egiten duten azalpenean “usurpazioaren”
kontzeptua aipatzen da. Bestela esanda, hasieran guztienak,
hots, herriarenak zirenak, bakar batzuek –kasu honetan
herriko jauntxoek–, beretzen dituzte.

Baina maila juridikoan zertan oinarritzen da Beras-
tegiko jauntxoa horrelako eskubideak bereganatzeko? Ikusi
da, 1535eko auzian, bere jauntxo-tituluaren bermetzat
1270eko errege-idazkia aipatzen zuela eta baliagarria ger-
tatu zitzaiola Tolosan auzia irabazteko. Gertatzen dena da
auzotarrek jarritako auziekin, maila batean ez bada bestean,
alde guztietatik erasotzen diotela eta defentsarako –jadanik
bereganatuta dauzkan ondasunei eusteko, alegia–, euskarri
juridiko berri baten beharrean aurkitzen dela. Xede hori
maiorazkoaren notari-eraikuntzan gauzatuko da.

4. Juan Martinez jauntxoaren maiorazkoaren sorrera (1548)

Juan Martinezek eta bere emazte Kasilda Lazkanok, Berastegi oinetzeko jaun-andereek, Gaztelako errege Karlos I.a eta Juana erreginak (1516-1556) baimenduta, bere ondasun guztien ondorengotza aitaren izen bereko beren Juan Martinez semeari utzi zioten eta, honela, Berastegiko oinetzekoen maiorazkoa eraikita utzi zuten 1548 urriaren 28an. Hala izenpetu zuten Tolosako Juan Lopez de Olaçazabal eskribauaren aurrean, Berastegiko jaunaren oinetxean bertan, lekuko gisa bertan zirelarik Zaldibiako Juan Lopez de Arrue –Arrue oinetzeko jauna–, Legorretako Gregorio Echeverria, Amezketako Juan de Hugarte eta Berastegiko Garcia de Verastegui. Kasilda emazteak ez baitzekien idazten, haren ordezkari lekukoek izenpetu zuten.

Maiorazkoaren helburua, beraz, oinetxearen jabetza bere osotasunean ziurtatzea zen, belaunaldiz belaunaldi, jarraipena gizonezkoen lerrotik hasita emanaz, honela hurrenez hurren: semeak, eta hauen biloba mutilak, eta horien faltan, semeen arrebak eta biloba neskek. Oinetxeari atxikiriko eta zatiezin eta besterenezintzat jotzen diren ondasunen zerrendan, honako hauek sartzen dira, jatorrizkoan datorren bezala transkribatuta:

“Los bienes vinculados, que serán indivisibles e inajenables, comprenden, además de la citada casa, el solar de Ugarte de Yuso (*suya propia*), en la tierra de Amézqueta; derechos de patronato sobre las iglesias de San Martín de Berástegui, Santa María de Ugarte y Santa María de Bedayo; diversas caserías, varias huertas; una veintena de piezas de pan llevar; un amplio conjunto de

manzanales, castañales, nogales y robledades; los molinos de Arrospi, Yeralde y Elduayen, y un lugar, quedando reservados a las autoridades concejiles de la villa de Tolosa los derechos jurisdiccionales sobre estos términos” (Lema et alii, 2000, 270).

Juan Martínez jauntxoaren ondasunak Berastegiko mugetatik harago zabaltzen dira, Bedaio eta Amezketako lurretan ere sartuz. Izan ere, kabildo biek in –Parrokia eta Kontzejuarekin–, izandako auzi gehien oinarrian patronatu-eskubideak aurkitzen baitira, hemen kontuan hartu behar da bere maiorazkoan maila berean ezartzen dituela hiru eliza horiek, hots, Berastegikoa, Bedaiokoa eta Ugartekoa.

Ugarteko Santa Maria elizako patronatua Argañarasko Martin Ochoa kapitainarekin konpartitzen zuen (Díez de Salazar, 1997, 163). Izan ere, Maria Lupez de Verastegi, Juan Martinezen alabarekin esposatuta zegoen. Amezketako auzo horretan ere, seguru asko Ochoa Martinez aitarengandik zetorkion herentziaren ondorioz, berea zuen hango burdinola ere: “... que Juan Martínez de Berástegui y sus consortes tienen echas en el río de Amézqueta, en el lugar llamado Ugarte...” (Díez de Salazar, 1997, 719).

Berastegiko San Martin elizari buruz, esplizituki aipatzen da Berastegiko oinetxearena dela eta hango jabeari dagokiola haren fruitu, errenta, opari eta hamarrenen bi herenak jasotzea:

“primeramente, la cassa y solar llamado por su nombre por su nombre (sic) antiguo la casa e solar de Verastegui con su anteyglesia de la yglesia parrochial de señor San Martin de la tierra e huniversidad de Verastegui y con la renta e frutos decimales d’ella, conbiene a

saver, las dos tercias partes de todos los frutos e rentas, decimas e hofrendas e cera para la dicha yglesia y servicio d'ella e de su rector y beneficiados, y las otras dos tercias partes de los dichos diezmos, hobladas y cera y espetar llamado en bascuence herraya a la dicha cassa y solar de Verastegui...” (Lema et alii, 2000, 338).

Gero zehaztuko den bezala, hamarrenen arazoak kate luzea ekarriko du, garratza eta gatazkatsua. Izan ere, ohitura, denboraren poderioz, lege bihurtzen baita inork protestatu ezean, edo erresistentzia kolektiboa gorpuzten ez den bitartean, inoiz norberaren jabetzakoak ez direnak hala izanez segitzen dute. Horrelako zerbait gertatzen da Berastegiko jauntxoekin, bere maiorazkoaren eskriturak egitean patronatu-eskubideak sartzen dituenean, jabetza horri izaera juridikoa ematen zaiolarik.

Bestalde, Berastegin bi errota aipatzen ditu, bata Arro-sikoa eta bestea Igeraldekoa, eta hirugarren bat Elduainen, hau erdibana duena Berastegiko unibertsitatearekin. Arro-siko erroten aztarnak oraindik agerian daude, baita Arratekoak ere. Igeraldekoaren arrastorik, ordea, ez da agertzen eta ezin da jakin non kokatua egon zitekeen. Baina kontuan izanda orain Igeralde deitzen zaion baserriari oraintsu arte Maikone deitzen zitzaiola eta Igeraldetxiki Arbide eta Arretxerako bidegurutzean, askaren ondoan, bidearen gainaldean aurkitzen dela hormak jautsita, pentsa liteke azken inguru horretan izan behar zuela errota horrek. Nolanahi ere, Uliko erreka doan lekutik ez urruti, hango urak presara ubide baten bidez jasoz, nahiz ez den oraindik horren aztarnarik aurkitu.



Igeraldetxiki izandakoaren hormak, Maikonerako bidearen ondoan, Izotzalden. Ondoan, Arretxe eta Arbiderako bidegurutzean, behiak edanarazteko uhaska eta latsarri bat aurkitzen dira (Iztueta, 2010)

Garai hartako nekazal ekonomian garia izaki oinarrizko elikagaia, pentsa liteke Berastegiko zelaian hogeiren bat galsoro zeuzkana ez zela izango etxalde-nagusi bat gehiago, herriko jaunen jauna baizik, hitzaren zentzurik hertsienean. Eta horri guztiari eransten bazaio sagasti, gaztainadi, in-txaurrondo eta hariztietan zeukan ugaritasuna, jauntxoaren sabaia ez zegokeen laborez eta fruituz hutsik. Egiazko jauntxo bati zegozkion ondasunak zeuzkan: lursailak eta errenta finkoak eta ez-finkoak jasotzeko diru-iturri desberdinak: hamarrenak, errotak, dolarea, Leitzarango sarrietako

abeltzainen zergak. Hasierako <A...> izena baino irakurtzen ez den beste etxe baten aipamena ere egiten da –Amiriarena seguru asko–, bere sagasti guztiekin. Tolaretxearekin, bi etxe bederen badira bereak.

Bere galsoroek zein baserritako lursailekin mugatzen duten kontuan hartzen bada, ohartuko gara Berastegiko zelaigune osoan zehar barreatuta dauzkala eta zelaiaren ia ingurune guztia hartzen dutela, luzean Ariztunugaldetik Izotzalderaino, zabalean Urdinaraindik Eguzkialderaino, errekaen alde bietara. Hauek dira aipatzen diren baserri edo jabe-izenak jatorrizko grafian emanda: Gorostiçu, Vengoechea, Milla de Sasturain, Lastadi, Yrun, Dendaritegui, Eulalde, Yeralde, Domingo de Sagastiverri, Bulaçia, Hurrelo, casa de Mari Verrovi, Sagastiverri de Mayzter, Domingo de Esoain, Martin de Esoain, Martin de Hovineta, Martin de Gaztellu, Juan de Bustinsoro, Maria de Berrovia, Maria de Ozpindegui, Domingo Zuri, Juan Hortu de Rodrigo, casa de Michel Horeza, casa de Errementaritegui, casa de Miquel de Saustegui, Mayztertegui, Liçarraga, Lizarraga la Nueva, Olloqui, Arriagacho, Sederu, Aberdin, casa de Arriaga, Ançiola, Aeraztun. Sei sagasti bederen izendatzen ditu, non kokatuak zeuden esanez: bi eliz ondoan, Arandian eta Apalorriagan, eta beste bat elizatik Gorostizurako bidean, Lastadiko lursailen mugan, eta beste hiru Muñoan, Hurkikundia eta Sagastiberrin¹⁷, azken hau oinetxearen ondoan, Lizarragazarrarekin mugakide. Sagar-doa edari estimatua baitzen orduan, sagastiak ondasun bat ziren. Orain mahastiak bezala. Kontuan har pinta batek zortzi-hamar marabedi balio zituela (Isasti, 1985, 151). In-txaurrondoak, berriz, Tolaretxea eta eliza artean aurkitzen ziren. Gaztainadiak eta hariztiak Amirialde eta Urdinarain auzoen bitarte horretan zeuden.

Berastegitik landa, Amezketan Hugarte de Jusoren etxea zuen berea, bere ondasun guztiekin. Baina egiazko feudo jaun gisa, Bedaion agertzen da, bertako ondasun guztiak bereak baititu: eliz patronatua, hamarrenen lau herenak bereganatuz, mendiak, basoak, etxea eta baserria, eliz ondoan eraikitako bost baserriak, beren gaztainadi, sagasti eta hariztiekin, eta galsoroekin.

Berastegiko jauntxoaren klase-izaerari zehatzenik legokiokeen gizarte-kategoria zein den zertzen jarduteko batere asmorik gabe, gutxien-gutxienik esan dezakeguna da herrian bertan eta kanpoan jaun ahaltsua izateko adinako ondasunen jabe zela. Eta Bedaion, berriz, egiazko feudoa. Baina epaien arazoan axola zaiguna eta benetan nabarmentzea komeni dena, beste hau da: maiorazkoaren eraketan eraikitako eskriturak asko baldintzatzen dituela epaitegi desberdinetako erabakiak, alegia. Hor dute beren abiapuntua eliz patronatuaren gainean harrotzen diren ondoko auzi gehienak. Horregatik eman diogu horrelako tartea azpisail honi, auzien bilakaera ulerterrazago gerta dadin, hain zuzen.

Ez dakigu Juan Martinez jauntxoak bere maiorazkoan sartu zituen ondasunek –bereziki higiezinak–, zein neurritan segitu zuten bere osotasunean haren enborrekoak izaten belaunaldiz belaunaldi. Garcia jauntxoa 1667an hil zenean, haren ondasunak bere arreba Franciscaren izenera pasatu ziren. Ezin da jakin zenbatekoak ziren, inbentariarik egin gabe jaso zituelako. Nolanahi ere, errentan emandako etxeak bazituen: “pensiones (...) de las casas que tenía dadas en arrendacion indistintamente”; basoak ere bai, botatzen aritua zelako: “... por razon de haver entrado de corttar y transmochar los montes...”. Badirudi Garcia

jauntxoak utzitako ondasunak apalak zirela, testuan “de poca monttamiento” esaten baita¹⁸.

Oso posible da, mendeetan aurrera egin ahala, Berastegiko oinetxeko jauntxoek ondasunak murrizten joatea. Gogoan izan behar da jadanik XIV. mendetik hasita, bertakoak direla burdinolaren jabeak: 1362an Lope Garcia Ondikanoko burdinolaren jabea da eta 1415ean, berriz, Lope Sánchez Ollokiegikoa. Baina 1467an, Enrike IV.ak Ochoa Martines-en¹⁹ Ollokiegiko burdinolako erregeeskubideak Anton Ginçales de Andia-ri, Domenjón Andia-
ren semeari-, ematen dizkio bizitza guztirako. Mende berean, 1490ean, Berastegi oinetxeko jabetza Elviraren eta Teresa Ochoa Iñiguezaren artean banatzen da. Oinetxeak artean, XV. mende-bukaeran, bada, ondasun handiak zituen: “La casa solar disponía de una herrería y molinos, asi como de abundantes terrenos” (Urteaga, 1992, 91). Hurrengo mendean (1548) Juan Martinez jauntxoak bere maiorazkoa egingo duenean, oinetxeari zegozkion jatorrizko ondasunak osorik ala zatiturik jaso zuen jakiteko aski daturik ez dugu jaso. Nolanahi ere, bere ondasunen zerrendan burdinolaren aipamenik ez da egiten.

5. Auzi-katea eliz patronatuaren inguruan

Eliz patronatuaren inguruan sortutako istiluek ez zuten bazterretan hautsa gutxiago harrotu, Berastegitik bertatik hasita. Kontua zen eliza gehienak egon, jauntxoek eskuetan zeudela eta, hala egonik, hamarrenak eta beste pribilegio osagarri batzuk eskuratzeko eskubidea beretua zeukatela. Orduko elizen egoera ulertu ahal izateko, aurreko

denboretara joan behar da. Izan ere, hasieran, Euskal Herrian elizak edo monasterioak finkatu zirenean, kasu askotan, jauntxoek lagunduta edo babestuta eraiki baitziren, orduko tradizioari eusten zioten. Hasiera batean, gatazka sortu, patronatu-sinboloen gainean sortu zen, hemen sartuz: elizan esertzeko zegokion lehentasunezko eskubidea, hilobia elizan izatekoa, eskaintzak egitekoa, eta abar. Sakonean, ordea, jauntxoek nahi zutena zen patronatu-eskubidea bere osotasunean eskuratzea. Auziak han eta hemen berehala lehertu ziren eta sarritan berandu bukatu: Hondarribian (1484), Hernanin (1490), Zarautzen (1492), Beasainen (1495), Azkoitian (1510), Usurbilen (1519), Andoainen (1533), Tolosan (1554), Deban (1564), Astigarragan (1580), Eibarren (1591). Mende oso bat auzitan sartuta (Fernández, 1975, 114).

Berastegiko parroki elizaren inguruan gertatzen dena ere, testuinguru horren barruan, ez da salbuespen bat izanen. Esan bezala, nahiz eta azken batean nekazariak garaile irten jauntxoak beretuta zeuzkan lursailen jabetzarentzat, geroztik ere Parroki elizan herritarrek jauntxoari hamarrenak ordainduz segituko dute XVII. mendearen erdira arte (Carrion, 1975, 75). Herritarrek lurretik jasotako laboreen ehuneko hamarra eman ohi zioten elizari, beronen mantentze-lanetarako eta bertako elizkizun-zerbitzuen ordainketarako. Ohitura hau indarrean egon zen XIX. mendera arte, herri guztietan edo gehienetan. Lekuan lekuko jauntxoak, bere burua elizaren jabetzat hartuz, opari hauek beretu egiten zituen. Berastegiko jauntxoak, zehazki, opari horietatik heren bat Parrokiako apaizentzat uzten zuen, eta gainerakoa –bi herenak–, berak jasotzen. Elizan eskaintzen ziren opariak, hauek izaten ziren: ogitxoak, argizaria eta haragi-puska, “orraia” deitzen zitzaiona.

Lehen, ustezko Ahaide Nagusien jatorritik abiatuta, hauen lur-jabetzaz bazen eztabaida, oraingoan, lerro beretik joanda, jauntxoaren patronatu-eskubidea jarriko da auzitan. Berastegi herriak hainbat auzi izan zituen bertako oinetzeko jauntxoekin, beste arrazoien artean, jauntxo horiek parroki elizaren gainean omen zuten patronatu-eskubidea bereganatu nahi zutelako eta, ondorioz, hortik zetozkien hamarrenak kobratzen segitu nahi zutelako eta, orobat, elizan lehentasunezko pribilegioak atxiki nahi zituztelako. Joanean-joanean, azkenean, gatazkak esparru zibiletik elizakora egingo du jauzi.

Auziak bata bestearen gainean baitoaz metatzen, horien azalpenean ordena kronologikoari segituko diogu. Eta auzi desberdinen prozesu konplexuan nahasketarik sor ez dadin, azpisaillkatuta emango dugu arazo espezifikoko bakoitzari buruzkoa: lursailen erosketarena, errotena, hamarrena eta eserlekuena. Arazo hauek elkarrekin hertsiki harremanean badaude ere, bakoitzak ibilbide autonomoa duenez, bihoaz bereiz emanak.

5.1. San Martin eliza berria zabaltzeko lursailen erosketa (1530-1549)

Tours-ko San Martini eskainitako Berastegiko eliza berriaren orubea zabaldu egin behar zela-eta, Kontzejua lurmutur baten eske joan zitzaion Juan Martinez jauntxoari. Eliz eraikuntzan ari zen Juan Arbideko harginak eta Martin Azpileta juratuak Tolosako alkatearen aurrean zortzi dukat ezarri zituzten Juan Martinezen lursailen ordainketarako, baina honek ez zituen hartu nahi izan, argudiatuz, kobratu ez, baizik lursail horien dohaintza egiten ziola elizari. Udal-

ordezkariek, ordea, lursail hori zortzi dukatetan saltzea eskatzen zion²⁰. Dohaintzan emateak, jakina, jauntxoarentzat eliz patronatua bereganatzea suposatzen zuen eta horretantxe zetzan, hain zuzen ere, auziaren muina. Juan Martinez jauntxoaren patronatu-eskubideak zeuden jokoan. Eskubide hori da hamarrenen zein lehentasunezko lekuen gainean harrotuko diren epaiketa guztien azpian dagoen arazoaren gakoa.

Auzotar batzuk haren baimenik gabe lanean hasi zirelako eta jadanik haren lursailetan zimenduak ateratzeko zuloak irekita zeuzkatelako, auzitara eraman zituen eliz arduradunak eta herri-agintariak 1535ean. Zehazki berea zen lursailean obrak egitea salatzen zuen²¹. Kontzejuak, bere aldetik, mandatu bat atera zuen 1535eko uztailaren 8an Carlos korrejidorearen aurrean bere jarreraren defentsa egin ahal izateko. Frogak zehazten direneko artikulatuak 21 galdera dauzka eta bertan parte hartzen duten lekukoak hogeita hamar dira, horien artean Elduaingo Joan Martinez eta Martin de Olanan jaunak, Billabonako Lope, eta abar. Lekuko hauen bidez frogatzen da, lehenik, Juan Martinez jauntxoaren etxea berria dela, Sagastiberri etxeari atxikia, eta, hori baino berrehun urte lehenago, Berastegi etxea zela, bere elizarekin; bigarrenik, Juan Martinez jauntxoaren etxea eta onibarrak oro herriak emandakoak direla; hirugarrenik, eliz hamarrenak osoki Berastegiko herritarrek aurkezten eta eramaten dituztela²².

Tolosako Korrejidoreak emandako epaia Iñigo Zaldivia eskribauak izenpetua zetorren eta ez zen aintzat hartua izan salaketaren edukia. Emandako arrazoia zen oinetxeko bere aurrekoek –aitak eta aitonak, alegia–, duela 60 urte, elizako obrak egiteko baimena eman zutela²³. Honek esan nahi du,

baldin datu hori ontzat ematekoa bada, eliza berria egiteko obrak jadanik XV. mende-bukaeran hasita zeudela. Dena den, Juan Martinez jauntxoak Valladolid-eko Kantzelari-tzara jo zuen, eskatuz eman zitzaion epai zigortzaile hura baliogabetua eta, aldi berean, salaketa indarrean ezarria izan zedila. Bere eskarian zehazten zuen, orobat, eliztarrek eta eliz arduradunek obrak egiteko eskubiderik ez zutelako, eraikia deseraikitzen zigortuak izan zitezela, lehen zegoen egoera berean utziz, eta egindako kalteengatik ehun dukat ordain zitzatela. Epaiak behin eta berriz errepikatuko den jauntxoaren argudio nagusia zen, hain zuzen, bera zela San Martin elizako patroia, bere aurrekoak halaxe izan ziren bezala, eta eliz patronatua aspaldiko denboretatik zetorkio-na zela, (hasierako) eliza bere aurrekoek sortua eta eraikia izan zelako. Beraz, lurra behar izanez gero, eskatzea da-gokie, ez bere kabuz hartzea²⁴. Hemengo bistako eta erre-bistako epaiak 1537ko uztailaren 6an iritsi ziren, eta horietan Tolosako Korrejidorearena baliogabetu egin zen, erabakitzean lurra izan, Juan Martinez jauntxoarena zela; aldi berean, ordea, lursailaren jabea eliztarrei zortzi dukate-tan saltzera behartzen zuen, alderdi bakoitzak beretzat aldarrikatzen zuen patronatuaren jabetzari buruzkoa auzitan jarri gabe²⁵. Galarza eta Esquibel lizentziatuek 1538ko otsailaren 26an emandako erabateko epaian, aurreko urtean hartutako erabakia berretsiz, Juan Martinez jauntxoaren bere lursaila saltzera eta ordainetan zortzi dukat hartzera behartzen da²⁶; haren patronatu-eskubidea auzitan jarri gabe, halere²⁷.

Berastegi unibertsitateak, 1538ko martxoaren 4an be-tearazle bihurtutako epai hori eskuetan zuela²⁸, zortzi dukat eskaini zizkion lursailen ordain gisa, baina Juan Martinez

jauntxoak hartzeari uko egin zion, dohaintzan ematen zituela erantzunez²⁹. Batek lursaila erosi egin nahi eta besteak saldu nahi ez, tenka horretan aurrera ezin egin-eta, 1540ko irailaren 26an, Joan Arbideko erretore eta Domingo Sagastiberri alkate jaunek, bi kabildoen izenean, errekerimendu bat ezarri zuten Tolosako Udalean³⁰, eta hemen ere, epai-mahaiko lehendakariak Juan Martinez jauntxoa bere lursaila Kontzejuari zortzi dukatetan saltzera behartzen du. Zenbatekoa zen lursail hori? Zabaltzeko markatua zegoen lur-azalerak lau estatu neurtzen zituela esaten da³¹. Gipuzkoan estatu bat 3,81 metro karraturen baliokidea zela emanda, guztira, 15,24 metro karratukoa izango zen eliz hormak zabaltzeko markatua zegoen lursailaren neurria. Metro horiena ez zen, bada, beste munduko gauza horrela tematu eta auzitan buru-belarri sartzeko! Baina balio zuena ez zen lursail horren materialitatea, hark inplikatzan zuten sinbologia baizik, zuzen-zuzen patronatuaren muina ukitzen zuena.

Oraindik ere Berastegiko jauntxoa ez zegoen amore emateko prest eta beste saio bat egiten saiatzen da. Atsedena hartzeko betarik gabe, hurrengo urtean bertan, 1549an, Francisco Perez jauntxoak parroki elizan ateratako mandatu batean, Juan Martinez jauntxoak frogatu batzuk aurkezten ditu Martin de Obineta alkate jaunaren kontra, eta bertan 22 auzotarren lekukotzak dakartza, esanez elizak bazuela bere zimitoria prozesioak egiteko eta gorputzak lurperatzeko, eliz bira osoa berea zela eta ez zeukala eliz orubea zabaltzeko eskubiderik haren baimenik gabe eta, gertatzez, zimenduak ireki zituztela eliza berria egiteko asmotan eta bere kaltetan³². Oraingoan ere, bigarren, ezezko erabakia jasoko du Juan Martinez jauntxoak, Valladolid-en bertan,

1550eko azaroaren 7ko epaian, beti ere hamarrenak eta opariak jasotzeko eskubidea aitortzen zaiolarik. Oraingoan, bai, etsiko du, beste auzi batzuetan murgilduta segitzeko.

5.2. Arrateko errota berria (1552)

Handik bi urtera, herriak bere kontura eraikitako errota bat zela zio, 1552an beste epai betearazle bat ere eman zen Valladolid-eko Kantzelaritzan. Juan Martinez jauntxoak Igeralde eta Arrosiko errotak sartu zituen bere maiorazkoan. Bi horiek ziren bere jabetzakoak eta auzotarrek beren garia horietan ehotzera behartuak zeuden. Baina jauntxoaren menpekotasun horretatik aske izan nahiak eraginda, unibertsitatea Arrateko errota egiten hasi zen 1518an. Juan Martinez jauntxoa auzitara joan zen, Igeraldeko bere errotaren kaltetan zihoala salatuz; unibertsitateko Antonio Achega jaunak zioen, aldiz, bere lursailean egina zela. Pedro Nabagno korrejidoreak, lekukotasuna herriko guztiak han bertan zeudela bere begiz jaso ondoren, azken epaia unibertsitatearen aldekoa eman zuen. Juan Martinez jauntxoak Valladolid-eko Kantzelaritzan helegitea aurkeztu zuen. Hemen, Juan Martinez jauntxoaren alde emandako 1552ko urriaren 8ko epai betearazlean, bi erabaki eman ziren: bat, Berastegi unibertsitateak eskatutakoaren kontra, Igeraldeko errotak, horrela pluralean jarrita, Juan Martinez jauntxoaren jabetzakoak zirela: “en quanto a lo pedido por parte dela Universidad cerca de que los molinos Ygeralde no se pongan en el dicho mayorazgo, devemos absolver y absolvemos a dicho Juan Martinez de Verastegui. Cerca de la mitad de los dichos molinos, para que dellas pueda disponer a su voluntad”³³; eta bi, uniber-

tsitatek berak konpon zezala, bere diruz eta ofizialen bistan, Igeraldeko errotarako ubidea, uren joana Arratekoa egin aurretik zegoen bezala utziz, ogi-irina egiteko moduan³⁴. Uren bideratze hori nolakoa izan zen ez dakigu, zehaztasunez ez dakigun bezala non kokatuta zegoen errota hori. Lehen esan bezala, non egon zitekeen, bai, ordea. Lehengo Igeraldetik hurbil.

5.3. *Hamarrenen borroka luzea: diruaren hotsa*

Berastegiko eliztarrak oraindik 1545ean jauntxoaren menpe bazeuden ere, lehenagotik –jadanik XV. mendebukaeratik hasita–, zetozen harekin, hika-mikan baino gehiago, auzitan sartuta. Honela, 1497an, Medina de Campo-n Errege Katolikoekin hitz egin eta gero, hauek agindu zuten Berastegiko Juan Martinez joan zedila ordu onean bere etxera eta auzi horretan ez zezala aurrera egin, Errege-Ganbarako eskribauak luzatzen duen ziurtagirian datorren bezala:

“Yo Juan Ramirez, Escribano de Camara del Rey, y de la Reyna nuestros señores, doy fee, como en la villa de Medina de Campo, à 9 días del mes de Agosto de 97 años, los señores del Concejo del Rey, y de la Reyna nuestros señores, dixeron, que sus Alteças, en la consulta que postrimeramente se avia hecho, aviendo mandado, que el dicho Juan Martinez de Verastegui se fuesse enhorabuena a sus casa, y que no se siguiesse mas con este pleyto, que el Fiscal de sus Alteças movia sobre la Iglesia de San Martin de Verastegui, è en este petición se haze mencion, è que se diesse por fee, è yo le diessa firmada de mi nombre, que fue fecha dia, mes y año suso dicho, Juan Martinez” (*Memorial*, 1651, 504 zenb.).

Honela, kontuan izanda familia hau Koroari mesede handiak egindakoa zela, haiengandik lortu zuen ondoriorik gabe uztea herritarrek eliza, soro, lur, larre eta azienden gainean egindako hainbat eskari.

Arazoak lehengoan segitzen zuela-eta, istiluak eta ezinegonak handitzen etorri ziren, hamarrenak ordaindu nahi ezta (Carrion, 1975, 76). Ezagutzen den auzi zaharrena 1524koa da. Jauntxoak nola eta zergatik jo zuen auzitara? Antza, eliztar batzuk elizan elkartu-eta, Juan Martinez jauntxoari bertan sartzea debekatu omen ziotelako, harik eta herriak hutsik zegoen erretore-karguaren aurkezpena egin arte. Gertakari honen aurrean, jauntxoak Probintziako Korrejidorearengana jo zuen eta honek, elkartuak nor izan ziren ikertu ondoren, haietako batzuk atxilotu egin zituen. Urte berean emandako erabateko epaiaren ondorioz, erbestera joatera eta zergak ordaintzera kondenatuak izan ziren. Baina epai hori baliogabetu egin baitzuen Valladolid-eko Kantzelaritzak 1525eko urriaren 6an, absolbitu eta libre utzi zituzten; gastuak, gainera, auzi-jartzailearen gain joan ziren, 1530eko abenduaren 12an emandako epai betearazleak agindu bezala (Gorosabel, 1972, 109).

XVI. mendearen erdialdera, Eldua auzoan, bertako eliza eraiki berria zelarik 1548an, Berastegiko jauntxoak auzitara eraman zituen hango auzotarrak, hamarrenak bere osotasunean, ez hari, baizik kleroari eman nahi zizkiotelako. Auzi hau ere Probintziako Korrejidorearen instantziatik Valladolid-ekora pasa zen, bigarren auzia izenekoan³⁵. Elduako auzotarrek baino urtebete lehenago, 1548an, Berastegiko kabildo biak izan ziren Juan Martinez jauntxoari auzia jarri ziotenak Valladolid-eko Kantzelaritzan, hark elizan bere patronatu-eskubideak eta hamarrenak errebindi-

katzen zituelako, hala nola, Udaleko kargudunei zegokien lekua berak hartzea, opariak egitea, bakea ematea, prozesioetan buruan joatea, elizan bere hilobia izatea, hamarrenen bi herenak jasotzea eta bertako patroiti-titulua beretzea. Lehen auzi hau izango da, zalantzarik gabe, garrantzitsuena eta ziurki baita zalapartatsuen ere. Juan Martinez eta Kasilda Lazkano senar-emazteek argudiatzen zuten Karlos enperadorearengandik Berastegiko bere oinetxean maiorazkoa egiteko ahalmena jaso zutela 1544an, beren ondasun higiezinekin eta onibarrekin, eta horiek haientzat eta beren ondorengoentzat baligarriak izango zirela. Honela, 1548ko urriaren 28an, jaun-andere horiek, beren ondasunen artean, hauek sartu zituzten: bere oinetxea eta San Martin parroki eliza, bere elizatearekin, zegozkion errentak eta hamarrenak, opariak, argizaria, seboa (testuan “herraya”), azken hauetatik bi heren haienak direlarik eta bestea erretore eta benefiziatuarena³⁶. Beste klausula batean dio, halaber, elizan pribilegio batzuk izan zituztela aspaldiko denboretatik, eta dituztela, hala nola beren eserlekua, hilobia eta sepultura izatea, eskaintzak egitea, bakea ematea eta prozesioan buruan joatea, eta horiek guztiak beren aurrekoek izan zituztela, beroriek dituztela, eta hori elizako egiazko patroiak direlako³⁷.

Unibertsitateko bi kabildoek jakin zutenean Berastegiko Juan Martinez eta Kasilda Lazkano senar-emazteek aipaturiko maiorazkoa egin zutela, haren kontrako demanda bat ezarri zuten hurrengo hilean bertan, hots, 1548ko azaroaren 27an Valladolid-eko Kantzelaritzan, argudiatuz Juan Martinez jauntxoak elizan zeuzkan ustezko pribilegio horiek usurpatu egin zituela, patroiti oso (*ymsolidun*) edo bakartzat zeukala bere burua, baina izan gabe, ez zuela inoiz

izan ez botorik ez betorik, ez beste herritarrek baino gehiago, eta horiek guztiak bermatzeko xedearekin egin zuela maiorazkoa eta, beraz, ez zezala bere maiorazkoan sar bereak ez zirenetik ezer: “a que no pusiese en el dicho mayorazgo cosa alguna de las subsodichos y de los bienes que las tildase equitase dél y no la pusiese adelante declarando aver sido eser todo ninguno”³⁸. Juan Martinezek kontrargudiatu zuen esanez auzi bat izana zela Errege Katolikoan aurrean eta jadanik emana zela epai betearazlea. Bere argudioa zehazten joan zen esanez eliza aspaldiko denboretatik bere arbasoena izan zela, eta berea izanez jarraitzen zuela, “Berastegi” izeneko oinetxeokak izan zirela eliza fundatu, eraiki eta dotatu zutenak beren lursailean, haiek beti izan zutela ohorezko lekua izateko eskubidea, eta hala erakusten jarraitzen zutela. Azken batean, Ahaide Nagusi izatea beretzean edo bere burua halakotzat hartua izatean oinarrizten zuen bere defentsa, titulu horrek ematen zion bere burua beste herritarren gaineratik jartzeko esku-bidea. Eta aske uztea eskatu zuen.

Bistako epaian erabakitzen da unibertitateak frogatu zuela bere demanda, baina ez errudunak edo salatuak. Beraz, Martinez jauntxoak, lehen aipatutako pribilegioei buruz –eserlekuari, oparigaiei, bakea emateari, prozesioan buruan joateari, patroï bakar deitzeari, elizan beren hilobia eta sepultura izateari buruz, alegia–, ezin duela ezein dokumentutan ezarri horietan guztietan edo horietako batzuetan eskubiderik eta lehentasunik duenik. Bere burua patroï bakartzat hartzeari buruz, berriz, ez duela ezein eskubiderik patronatu-titulua bereganatzeko. Hamarrenen bi herenenei buruz, aldiz, eskubidea aitortzen zaio. Erabaki hau Valladolid-eko Kantzelaritzan eman zen 1550eko

azaroaren 7an. Beraz, bistako epai horretan, arazoaren funtsa den hamarrenen kontuan, hain zuzen, Juan Martinez jauntxoari arrazoia ematen baitzaio, Berastegi unibertsi-tateak helegitea aurkeztea erabaki zuen. Erantzuna 1552ko urriaren 8ko azken epai betearazlean etorri zen eta 1552ko azaroaren 12an jakinarazi zitzaion Juan Martinez jauntxoari, eta horretan hitzez hitz berretsi zen bistako epaian emandakoa, jauntxoari bere maiorazkotik patronatu-titulua kenduz eta, aldi berean, hamarrenen bi herenak kobratzen segitzea baimenduz.

Epai betearazle honetan, bada, bi erabaki-maila garbiki bereizten ditu Epaitegiak: patronatuarena bata, hamarrena bestea. Lehen kasuan, Juan Martinez jauntxoa parroki elizako patroik bakar deitzeari eta lehentasunezko eskuduntza batzuk beretzeari uko egitera behartzen du³⁹. Beraz, garbi esaten da Juan Martinez jauntxoak ez bide duela elizan lehentasunerako ezein eskubiderik eta ez dezala aurrerantzean errebindika eliza hartako patroik-titulua, ez horretaz bere burua aupa, elizan ez baitu beste eliztarrak baino eskubide gehiago⁴⁰. Hamarrenen kasuan, ordea, bi herenak jasotzeko eskubidea aitortzen zaio⁴¹. Beste testu honetan zehazten denez, hamarrenen barruan sartzen dira, dirutan ez ezik, espezetan edo oparietan ere jasotzen diren bi herenak: “Por parte dela dicha Universidad sobre las dos tercias partes de diezmos y oblaciones dela dicha iglesia, reservamos su derecho absoluto asu persona o personas que pretendiere tener derecho alas dichas dos tercias partes delos diezmos para que lo puedan pedir y demandar”⁴².

Epai betearazlean hartutako erabakiak gorabehera, Juan Martinez jauntxoak, agindu zehatzak jaso arren, elizan patroik izaten jarraitu zuen, ez baitzion lehentasunezko pribilegioak mantentzeari ukorik egin.

Hamarrenen auzia zela bide, hirugarren auzia zertxobait geroago, 1564ko irailaren 23an, hasi zen Iruñeko Goztaindegian, Domingo Hizaguirre erretoreak eta Baltasar Olaondo benefizituak Juan Martinez aita-semeen kontra jarrita, Valladolid-en ezina izan zena han lortuko zuten esperantzarekin⁴³. Alderdi biek aurkeztu zituzten beren frogak, epaia ere eman zen, baina haren edukiaren berri zehatzik ez da. Lekuko batzuek deklaratu zuten ez, ezkutatuta eta hainbat urtez galduta egon ziren dokumentu-orriak eta, azkenean, Feloaga abokatuaren eskuetara iritsi zirenean, egoera txarrean omen zeuden, orriak hautsita eta ustelduta. Arrazoi honegatik notarioak ez bide zituen konpultsatu Erromara igortzeko. Inoiz entzundakoan oinarrituta, lekuko batzuek diote Berastegiko jauntxoaren aldekoa izan zela; beste batzuek, berriz, auzi hori lehendik epaitutzat eman zela. Badira horretaz inoiz ezer ez zutela entzun diotenak ere (*Memorial*, 1651, 13 zenb.). Dena den, Hieronymus Bertuccius-ek idatzitako agiri honetan datorrenez, badirudi Francisco Garcia jauntxoaren aldeko epaia izan zeneko iritzia nagusitzen dela⁴⁴. Nolanahi ere, gauza garbirik ez. Francisco Garcia jauntxoak, bere defentsan, eskubide hau Latrango kontzilioa baino lehenagoko garaietatik bere arbasoek zeukatena zela zioen, oinetxearen izaera feudalean oinarritua zegoena, eta berari haiengandik zetorkiola zuzenez. Iruñeko Eliz Epaitegian, beraz, azken bi epaiak Berastegiko jauntxoaren aldekoak izan ziren.

Laugarren epaia urte batzuk geroago etorriko da, 1579an, hain zuzen. Andres Inza erretoreak, bere benefiziatuekin, eta unibertsitateak jarri zioten Isabel Eguino emaztekiari, Francisco Martinez jauntxoaren amari. Hura artean umea zela jarri ziotena da, lehengo arazo beragatik.

Bi kabildoek hainbat adituren iritziak jasotzen dituzte gai honen inguruan, horien artean Alcalá-ko unibertsitateko Domingo Lopez zuzenbide-katedradunarena 1580ko apirilaren 28an. Honen erantzunean hiru puntu azpimarratzen dira kontsultagileen alde: lehenik, balitekeela Latrango kontzilio aurretik hamarrenak jaso izatea, baina ez horrela haren ondoren, ez baita idatzizko frogarik ematen; bigarrenik, apaizek duintasunez bizitzeko adina diru-sarrerarik ez dutela: “las dos terceras partes delos diezmos no les queda congrua substentación...”; hirugarrenik, hamarren eta oblazio horiek ordaindu, bertako auzotarrek ordaintzen dituztela eta, beraz, auzotarrek Parrokiari emandakoak direla⁴⁵. Lekukotasuna egiten duena Berastegiko Parrokiako Andres erretore jauna da, argudiatuz Joan Martinezen ondorengoei ez dagozkiela hamarrenen eta olaten bi herenak jasotzea, beste arrazoen artean, lego hutsak direlako eta horretarako ezein pribilegiarik ez daukatelako, ez elizarenik ez erregerenik, nahiz eta beraiek dioten aspaldiko denbotetatik, Latrango kontzilio aurretik, direla horien jabe. Berriro, oraingoan ere, badirudi epaia amaren aldekoa izan zela, nahiz artikulatuan ez datorren esplizituki hala jaso: “... de que se recibio a prueba, y que ay conocimientos de Procuradores, de Escribano de Camara, y de Relator, y de que passó en el Oficio que oy sirve don Ioseph de Arteaga, que se halla intitulado en el legajo en que avia de estar, y que no parece, ni se halla, se haze relacion en los autos que van puestos en el derecho de don Garcia a num. 120”⁴⁶.

Eserlekuaren kasuan gertatu zenaren antzera, hamarrenen auzia ere, Iruñea, Zaragoza eta Erroman zehar, triangelu horretan ibiliko da 1600eko hamarkada-hasieratik aurrera, Juan Bautista Panfilio, Rotako entzulearen agirian irakur daitekeen bezala⁴⁷.

Hamarrenei buruz kabildo biek Juan Martinez jaun-
txoaren kontra daramaten auzian, haien prokuradoreak
diren Gabriel Oteiza eta Joan Camus jaunek aurkeztutako
agirietan datorrenez, Valladolid-eko Kantzelaritzan bistako
bi epai aldarrikatu ziren 1600ean, eta hauetan frogatutzat
ematen da: bat, Berastegiko oinetxeko jauntxoak bidega-
beki jasotzen dituela hamarrenak, eta bere aurrekoek ere
hala jaso zituztela; bi, Erromako Rotak emandako epaietan
Juan Martinez jauntxoa zigortua izan zela hamarrenak eta
olatak bidegabeki eramaten zituelako⁴⁸. Urte berean, El-
duako elizari buruzko auzia Iruñeko Eliz Epaitegian
eztabaidatzen da eta bertan eskatzen da hamarrenak osoki
jaso ahal izatea, ohiko olata edo opariak ez baitira aski
hango elizarentzat: “oblationes ordinarie non sufficebant
nec sufficiunt nec sufficere valent”⁴⁹.

Patronatuari buruzko auzian, 1610ean emandako
epaira begira, Sancho de Verrobi eta Martin Gomez jaunek,
bi kabildoen prokuradoreek, Francisco jauntxoaren kontra
prestatutako txostenean 22 artikulatu formulatu zituzten
eta horietan haren argudioak arrazoibiderik gabe uzten aha-
legindu ziren. Adierazgarria da testu hori, beste arrazoi-
arten, nahiz gaia juridikoa izan, tarteka XVII. mende-
hasierako Berastegi herriaz datu jakingarriak agertzen
direlako, guztiak ez bada ere, nagusiak bederen azaltzea
merezi dutenak. Lehenik, aspaldiko denboretatik hasita,
Berastegin izan dela eta badela parroki eliza bat, San Mar-
tini eskainia, aparta, eta bertan erretorea, apaiza eta benefi-
ziatu bat izaten direla, elizkizunak egiteko eta sakramentuak
emateko, eta badela Elduan beste eliza bat ere, Jasokundeko
Ama Birjinari eskainitakoa, eta bien artean legoa erdi bat
(2,75 km.) dagoela gutxi gorabehera. Bigarrenik, auzotar

eta eliztar guztien hamarrenak, elizbarrutiko sinodo-konstituzioak eratu zirenez geroztik, beti izan direla Parrokiari dagozkionak eta, halaber, erretorearenak eta benefiziatuenak, eta horienak bakarrik, beste hirugarren batek horietan parterik izan gabe. Hirugarrenik, Berastegi oso herri zabala da, hainbat gauzatan inguruko beste auzo eta herrietatik bereizten dena. Berastegiko jauntxoek oinetxeaz gain, kapareen hainbat oinetxe ezagun eta maiorazkoen garrantzi handiko hainbat etxalde ditu. Armetan dihardutenak ere badira. Zerratoki asko ditu bere etxeekin, errotak eta bordak hainbat, baina herritik urrun, bi legoa baino urrunago eta haietara leku askotako jendea joaten da. Familia osoak joaten dira igandero eta jaiero Parrokiako elizkizunetara, beren seme-alabekin eta morroiekin eta, guztira, mila lagun baino gehiago dira. Laugarrenik, bere aurrekoak bezala, Francisco jauntxoa ere legoa da eta herrikoek halakotzat daukate. Bosgarrenik, Francisco jauntxoa, legoa izaki, hamarrenak jasotzeko gaitua ez dagoen arren, hamarrenak jasotzen etorri da, eta dator, baina bidegabeki, ez baitauka horretarako ezein titulu egokirik, ez Latrango kontzilio aurrekorik ez ondorengorik, ez Aita Santuarenik ez inorenik. Seigarrenik, Francisco jauntxoa ez da inoiz Berastegiko parroki elizako patroik bakar izan, haren eraikuntzan eta dohaintzan ezein parterik ez dutelako ez berak, ez bere aurrekoek, gauza jakina den bezala. Zazpigarrenik, haren aurrekoak ez dira herriko beste auzotarrak baino garaiagoak izan, ezta haien jaundegia beste auzotarren etxeak baino hobea; armarrria ere bere aita eta aitonak gero jarritakoa da. Bera eta bere aurrekoak ez dira aberatsak izan ez armetan ez ondasunetan, ez beste auzotarrak baino aberatsagoak, eta Erromako elizaren aldeko borrokan ez

dute sekula parte hartu ez zaldiekin ez armekin ez beharrezko beste gauzekin. Zortzigarrenik, bere aurrekoek hamarrenen bi herenak jaso bazituzten eta Francisco jauntxoak jasotzen segitzen badu, horretarako eskubiderik ez duenez gero, soilki eta garbiki usurpazio bidez jokatzeko du horrela. Bederatzigarrenik, Francisco jauntxoak eta bere aurrekoek elizaren gaineko beren patronatu-eskubidea idazkietan eta feudo-tradizioan oinarritu izan dute. Hamargarrenik, Gipuzkoa ez da sekula mairuen eta fedegabeen menpekotasunetik askatua izan. Hamaikagarrenik, oparien bi herenak ere jaso izan dituzte, horiek ere bidegabeki, baina, Valladolid-eko Kantzelaritzak eta gero Erromako Rotak berretsitako ezezko epaiaren ondoren, jasotzeari utzia dio Francisco jauntxoak. Hamabigarrenik, elizako erretaula bost mila dukat baino gehiago kostatuko da, mila eta laurehun dukat baino gehiago balio duen gurutzea dauka, biziki aberatsa, eliz jantziak ere zetazkoak eta belusatuak dauzka, hauek ere ederrak, beren bordatuekin, eta horiek guztiak elizak ordaintzen ditu, zati bat hamarrenen bidez eta beste zati bat herritarrengandik jasotako limosna eta dohaintzen bidez. Hamahirugarrenik, erretore bat eta benefiziatu bat baino ez izatean eta, lehen esan bezala, Berastegiko lursailak herritik oso urrun barreiatuak egotean, ez dira iristen elizkizunak behar bezala egiteko, bereziki, hileta-egunetan eta jai handietan, meza nagusia diakono eta subdiakonoarekin eman behar denean. Eliztarrak behar bezala zerbitzatzeko, aldarerako hiru apaiz beharko lirateke, eta korurako beste hiru eliztar. Hamalauargarrenik, hamarrenen laurden batekin, bi klerigoek ez dute aski duintasunez bizi ahal izateko. Hamabosgarrenik, eta azken ondorio gisa, hamarrenak bere osotasunean Beras-

tegiko parroki elizari eta honi atxikitako Elduakoari dagozkionak dira⁵⁰.

Valladolid-eko Epaitegiak ebazten duenaren kontra, Iruñeko Gotzain-Epaitegiak Francisco jauntxoaren aldeko absoluzio-erabakia ematen baitu 1617ko apirilaren 29an, egoera kontrajarri hartatik ateratzeko, kabildo biak Erromako Epaitegi sakratura jotzeko erabakia hartzen dute. Honela, alderdi bietako dokumentuak konpultsatu ondoren, hamarrenen auzia Rotara eramaten da 1632ko azaroaren 6an, eta hemen Jeronimo Verospio jaunak, Rotako Epaitegiko entzule eta epaileak aztertuko ditu⁵¹, Paulo V.a aita santuaren garaian (1605-1621). Epaileak bi alderdiei 1634ko azaroaren 20rako deia egin zen eta auzian parte hartzen zuten bi alderdiek beren dokumentuak 1635eko ekainaren 30ean jarri zituzten epailaren aurrean, Martin Lizardi apaiz jaunak, notario publiko apostolikoak, egiaztatatu ondoren. Alderdi bienak gazteleraz idatziak zeuden, gero latinera itzuliak. Beste hiru urtez eztabaidatzen segitu ondoren, Verospio epaileak hamarrenak Parrokiako apaizenak zirela erabakitzen du 1639ko uztailaren 17an, Petrus franciscanus tudertinus notarioaren onarpenarekin: “pertinere ad predictos RR. retorem eta veneficiare... Ita pronunciacabo ego Hieronimus Verospius sacrae Rotae auditor...”⁵². Azkenik, aurretik izandako hiru epaitan hartutako epai beteazleak 1648ko abuztuaren 12an eguneratu eta aldarrikatu ziren:

“Y aviendo apelado a Roma los Cabildos, se revoco dicha sentencia, y se declaro pertenecerles los diezmos por tres sentencias conformes de que año 1648, se despacharon executoriales: y no ay razon de los dias, ni años en que pronunciaron: ayla, de que estando

pendiente este pleito ante el tercer juez que dio la ultima sentencia, se despacho de pedimiento de don Garcia remisorial, con termino de seis meses, segun en el se dize, que va puesto infra n^o. 60, para hazer probança, y se hizo, y antes de llegar a Roma esta, y el testimonio que remitio el juez remisorial de la falta de hojas, de pedimiento del dicho don Garcia, por mandato del primer juez de la Rota se dio la tercer sentencia, confirmando las dos primeras”⁵³.

Auzi honetan apaizen prokuradorea Guterio de Argueslies izan zen, eta Garcia jauntxoarena, berriz, Bartolome Pictiniro. Archangelus Bazonus Rotako notario apostolikoak eta Amatus Duzonet, Rotako kaperau, entzule eta dekanoak egiaztatu eta izenpetu zuten epai betearazlea, 1651ko ekainaren 15ean, aita santu Inozentzio X.a zela⁵⁴.

Epaia betetzeko garaia iritsi zelarik, Garcia jauntxoaren eta honen arreba Francisca, bere oinordeko hurbilena, ahalagindu ziren Kontseiluan haren obratzea geldiarazten, auzia berrikusteko eskatuz. Fiskalaren baietza ere jaso zuten, auzia 1649ko abuztuaren 28ko errebistan berrikusi zen, baina ez zuten beren helburua lortu⁵⁵. Azkenean, hamarrenen 1665eko urtarrilaren 22an emandako epaiarekin bukatu zen, aldarrikatuz ez zuela lekurik barkamen-gutun (*despachos remisionales*) ustezko geldiarazteak⁵⁶. Azkenean, agindutako epai betearazlearen ondorioz, eta ezinbestez, Iruñeko gotzainak bi benefiziari berri izendatu zituen 1683an eta, aldi berean, bi elizetako zerbitzarien betebeharrak zehaztu ziren (Gorosabel, 1972, 110). Beraz, lehengo Miguel de Arbide eta Francisco de Obiñeta jaunekin batera, bosteko apaiz-taldea osatuko da orain: Berastegiko elizan lau, erretorea eta hiru benefiziari, eta Elduan bikario bat.

Bestalde, kontuan hartzen bada hamarrenen inguruko auziek mende bat baino gehiago irauten dutela eta Kontzejuak horien defentsan hogeita mila dukat baino gehiago xahutu dituela, orduko eliz kabildoak, bere eskerrona agertuz, hamarrenen bi herenak hamalau urtez Kontzejuak jasotzea erabakitzen du eta urte horiek betetzean, 1685. urte-inguruan, hamarrenak bere osotasunean herriko lau apaizen artean banatuko dira, bakoitzak daukan karguari dagokionaren arabera, Antonio de Ayaldeburu notarioak 1671ko otsailaren 10ean izenpetutako eskrituran egiaztatzen den bezala⁵⁷. Esan behar da Berastegin eliz patronatua kabildo biek osatzen dutela. Auzi guztietan ere batera agertzen dira.

Noizbait behar-eta, halako batean, ordurako unibertsi-tate izatetik hiri izatera pasatua zen Berastegik, hamaika ahalegin egin eta gero, bere asmoak bete zituen. Horregatik inprimatu zuen auzi luze honen kronika, geroak jakin zezan gertaerak nola izan ziren, ateka hartatik nola atera zen garaile.

5.4. Eserlekua eta hilobia: jauntxo-ohorea jokoan

Esana daukagu, patronatu-eskubideak zirela bide, Juan Martinez jauntxoak beretzat hartuak zeuzkan eliz pribilegioak zirela-eta, Berastegi unibertsitateak Valladolid-eko Entzutegiak lehenik 1550eko urtarrilaren 7ko bistako epaian eta gero 1552ko urriaren 8ko azken epai betearaz-lean emandako erabakiak bi alderditara banatu zituela Peragasco epaile jaunak⁵⁸. Batetik, eskaintzak egiteari, bakea hartzeari, bere burua elizako patroiz bakar (*in solidum*) deitzeari, elizan bere eserlekua, hilobia eta sepultura izateari

buruzko arazoetan, zehazki puntu horietan guztietan, Berastegi unibertsitatearen aldeko erabakia eman zuen, Juan Martinezi aginduz ez zezala ezar bere maiorazkoko ondasunetan aipatu diren horietatik ezer⁵⁹. Lehentasunezko edo ohorezko pribilegio-ukitua zuten puntu horietan, bada, ezezko garbia jaso zuen. Ez horrela, ordea, maila krematistikoan. Horren froga da Berastegiko jauntxoak aldeko erabakia jaso zuela gatazkatsuenak ziren gaietan, zehazki errota eta eliz oparien zein hamarrenen kontuan. Errotak ere bere ondasunen artean sartzekoak direla ebazten da bertan⁶⁰, horrela pluralean emanda. Orobat, opariak eta hamarrenak⁶¹.

Beste ezer baino lehen, gogoratu behar da, data hori baino bi urte lehenago, 1548an egindako maiorazkoko eskrituretan ezarriak zeuzkala Juan Martinez jauntxoak goian aipatzen diren patronatu-eskubide eta jabetza-mota guztiak bere ondasunen barruan. Orduan ezezkoa jaso bazuen ere Juan Martinezek elizan lehentasunezko tratua izateari dagozkion puntuetan, ohorezko pribilegio horri eusteko asmoari ez dio uko egingo eta maila horretan ere, segidan ikusten joango garenez, arazo honek bere ibilbidea egingo du ondoko urteetan zehar. Eta ez nolana hiko! Horregatik ematen diogu aparteko trataera eserlekuaren arazoari.

Zergatik bilakatzen den hain gatazkatsu eserlekuarena? Jokoan ohorea zegoelako. Jakin badakigu, weberiar soziologian, botere-faktoreen osaketan diruaren kapitala bezain garrantzitsua dela ohorearena. Ohoreagatik bizia arriskuan jartzen zuten eskrima-borrokan garai bateko handikiek. Baliteke kasu honetan hitzetatik ekintzetara pasatzeak odola berotzea ere.

Ekintzetan urte beroa gertatuko da XVI. mendea, eta honen barruan, batez ere, 1553ko hamarkada. Urte

honetan, zein hilabete eta egunetan ez dakigula, bi salaketa gurutatu ziren gai beraren inguruan gertatutako ekintzen-gatik. Berastegiko Kontzejuak auzi bat jarri zuen Juan Martinez jauntxoaren kontra Gipuzkoako Juan Beltran de Segurola korrejidorearen aurrean, salatuz Juan Martinez bera izan zela herriak alkate eta kontseilarietzat elizan jarritako eserlekua desegin zuena. Epai betearazlea, ordea, jauntxoaren aldekoa izan zen, herritarrak betiko isilik ego-tera behartuz⁶². Berastegiko auzotarrak, Jaundegiko jauntxoaren nagusi-jarrera ikusita, hitzetatik ekintzara pasa ziren. Gauzez elizan sartuta, oinetxeko jauntxoek bertan ezarrita zeuzkaten eserlekua, hilobia eta sepultura puskatu eta kanpora atera zizkioten. Auzotar asko izan omen ziren elizara armatuta joandakoak⁶³. Datarik gabeko beste agiri batean 40ko taldea aipatzen da⁶⁴. Ekintza hori bide, Juan Martinez jauntxoak Agustin Olahondo, Martin Arriaga eta herriko beste auzotar batzuen kontrako kereila jarri zuen 1553ko maiatzaren 9an Probintziako Vecerra korrejidorearen aurrean, hiru eskabide eginez: errudunak zigortuak izan zitezela, elizatik kenduak bere lehengo lekuan ezarriak izan zitezela eta, azkenik, gertatutakoaren berri jaso zezala⁶⁵. Antza, jauntxoaren aurrekoak elizan zeuden hilobiratuak. Eta Korrejidoreak informazioa bildu, errudunak harrapatu, eta deitu eta agertzen ez zirenei beren ondasunak bahitzeko agindua eman zuen⁶⁶.

Kontzejua, ordea, erruduntzat hartuak eta zigortuak izanen zirenen alde atera zen. Beraien alde zituzten arrazoen artean, aipatzen zuten auzotarrek egin zutena egiteko eskubide osoa zutela arazo hori lehendik trenkatua zelako Valladolid-eko Kantzelaritzak 1552an emandako epai betearazlean, hain zuzen ere, eta, ondorioz, Berastegiko

jauntxoak ez zeukala ezein eskubiderik ohorezko pribilegio horiekin jarraitzeko. Gertatutakoaren erantzule bakar, ez auzotarrak, baizik Kontzejua bera egiten zela adierazi zuen Juan Eldua alkateak⁶⁷. Gipuzkoako Korrejidorearen epaia 1553an etorri zen, eta bertan kereilatuak bederatzi egunen buruan, beraiek ordainduta, elizatik kenduak lehengo leku berean ezartzera behartzen zituen, eta zigorrak ezarri zizkien eta isunak marabeditan⁶⁸. Auzi-jartzaileek Valladolid-eko Kantzelaritzara jo zuten, arrazoituz epai hori zuzengabea zela, besteak beste, Berastegiko jauntxoak ezein eskubiderik ez zuelako elizan lehentasunezko leku horiek izateko, eta garai batean bere aurrekoek pribilegio horiek izan bazituzten, ez zeukala berak aurrerantzean horiek izan beharrik, parroki elizako patroik bakarrak izan, kabildo biak zirelako, hau da, Kontzejuko agintariak eta Parrokiako apaizak⁶⁹. Ondorioz, eskatzen zuten, zigortua izan zedila Juan Martinez jauntxoa, hain zuzen ere, jadanik emana zen agiri betearazleari muzin egiten ziolako:

“... el dicho Juan Martinez, ni sus sucesores, no poder tener en dicha Iglesia la dicha tumba, estrado, ni asiento, ni otra preminencia, mas que qualquiera de los otros vezinos, y que tambien se le condenasse (a Martinez) en las penas de carta executoria” (*Memorial*, 1651, 579 zenb.).

Juan Martinez jauntxoak, bere aldetik, Valladolid-eko Kantzelaritzan ezarritako helegitean, Probintziako Korrejidoreak 1553an bere alde emandako ebazpena berresteko eskea egin zuen⁷⁰, bere argudioan ondoko arrazoi hauek emanaz: bat, berak eta bere aurrekoek aspaldi-aspalditik zirela ohorezko leku horien jabetzakoak⁷¹; bi, 1550eko epai

hark ez zuela behartzen elizan lehentasunezko leku horiek ez izatera, patroï bakarrena bere maiorazkoan ez sartzera baizik, horretara soilik⁷²; hiru, ezein kasutan ere, ez zegoela indarkeriaz jokatzeko eskubiderik⁷³; lau, eta ondorioz, lehentasun-adierazle ziren leku eta gauza horiek lehen bezala jarrai zitzatela⁷⁴. Valladolid-eko Kantzelaritzaren bistako epaiak Korrejidorearena berretsi zuen, baina neurri batean bakarrik. Zehazki, kereila-jartzaileak Berastegiko jauntxoaren elizako gauzak lehengo lekuan beren kabuz jartzera behartu zituen, baina egotzitako beste salaketa guztietatik aske geratu ziren:

“La Chancillería confirmó la sentencia del Corregidor, en quanto mandó que a costa de los querellados se pusiesen en la Iglesia, en las partes, y lugares donde estaban la tumba, y sepultura; y en todo lo demas la revocaron, y absolvieron, y dieron por libres a los querellados, de la acusacion contra ellos puesta por el dicho Juan Martinez” (*Memorial*, 1651, 580 zenb.).

Horra, beraz, ondorioa: Jauntxoarentzat bere pribilegioen berrespena eta auzotarrentzat zigorrik eza. Horregatik, Epaitegiaren erabakia ez baitzen erabat alde baten aldekoa izan, bi alderdiek agertu zuten beren ez-adostasuna: Juan Martinez jauntxoak elizako gauza horien gaineko jabetza, aspaldi-aspalditik zetorkiona, onartzen ez zitzaio-lako (*Memorial*, 1651, 581 zenb.), eta auzia jarri zutenek, berriz, gauza horiek bertatik kendu bazituzten, epailearen aginduz kendu zituztelako, jauntxoak ezein eskubiderik ez zuelako (*Memorial*, 1651, 582 zenb.). Eskari horiek bideratu, auzian frogantzak egin eta gero, argitaratzeko agindua eman zen (*Memorial*, 1651, 583 zenb.). Eta arazoa egoera

horretan zegoela, auzotarrek, Kontzejuarekin batera, auzitara jo zuten, bere helegitean betiko arrazoia errepikatuz, auzi hori jadanik bukatua eta erabakia zegoela, alegia, eta behingoz berak eta beste ondorengoek uko egin ziezaiotela lehentasunezko pribilegio horri⁷⁵. Juan Martinez jauntxoak ez bide zuen onartu eskari hori, bistako epaia jadanik bere alde emana zelako (*Memorial*, 1651, 585 zenb.). Alde bien arrazoiak jaso ondoren, Valladolid-eko Kantzelaritzaren 1555eko martxoaren 7ko errebistako epaia etorri zen, bistakoa berresten zuena, Juan Martinez jauntxoari beste behin elizan ohorezko tratua aitortzen ziona:

“y mandó que los dichos Agustin de Olahondo, y consortes, y el dicho Concejo, tornassen a poner el asiento que parecia aver sido quitado, y derribado en que se solia assentar el dicho Juan Martinez a oir Missa, y estar en los Divinos Oficios en la dicha Iglesia de Verastegui, en la misma parte, y lugar donde estava, sin perjuicio del Prelado, ò de otro tercero que mejor derecho tuviesse” (*Memorial*, 1651, 586 zenb.).

Hurrengo urtean (1556) etorri zen Gipuzkoako Korrejidorearen bidez jakinarazitako epai betearazlea, agindua betetzen ez bazuten zigortuak izango zirela mehatxatuz (*Memorial*, 1651, 587 zenb.).

Unibertsitateak ez zuen onartu epaia, batetik, bistakoa zelako eta, bestetik, prozedura-formak bete ez zirelako; horregatik, auzia berrikusteko eskaria egin zuen. Eskabideari ez zitzaion jaramonik egin eta auzia zintzilik geratu zen Valladolid-eko Entzutegian⁷⁶. Bista eta errebistako autoen bidez agindu zen, jabetzari dagokionez alderdi bien kaltetan joan gabe, eserlekua ezarria izan zedila behekoek elizkizunak ondo ikusteko moduan. Eserlekua goregi

zegoelako beheran zeudenei bista kentzen ziela-eta, eliz-tarrak kexatu egin baitziren⁷⁷, Kontzejuari 1566an eman-dako azken epaian erabaki zen eserlekuaren bizkarraldea apaltzea, behekoek belauniko egonda ikusteko modua izan zezaten⁷⁸.

Handik hamar urtera, Francisco (Garcia?) jauntxoak, Juan Martinezen semeak, Berastegiko Martin Ureta apaizaren kontrako auzia jarri zuen 1562an Iruñeko Gotzaindegiko Epaitegian, elizako eserlekua kendu ziolako (*Memorial*, 1651, 588 zenb.). Apaizak aitortu zuen eserleku hori ez zegoela egon behar zuen tokian (*Memorial*, 1651, 589 zenb.). Iruñeko Gotzainak eserlekua bere lekuan jartzera kondenatu zuen apaiza 1563an, bi dukateko isuna ezarriz, gehi beste gastuak bere kontu (*Memorial*, 1651, 590 zenb.). Martin Ureta apaizak Zaragozako Gotzaindegiko Epaitegira jo zuen hurrengo urtean bere eskearekin, baina alferrik, hemen jakinarazi baitzioten Iruñekoak jadanik bere epaia emana zuela eta hari zegokiola erabakiak hartzea. Azken batean, eserlekua bere tokian ezarria izan zen (*Memorial*, 1651, 591 zenb.).

Hurrengo hamarkadaren hasieran, 1600. urtean, Francisco jauntxoak urrats berri bat emango du elizan bere lehentasunezko lekuari eustearen aldeko borrokan. Zerk eraginda? Nork egina den zehazten ez den 1601eko idazki batean deskribatzen denez⁷⁹, duela aspaldi aldare nagusiaren ondoan bostentzako eserleku bat aurkitzen zen eta hor esertzen ziren herriko apaizak kantatzeko eta eliz otoitzak egiteko. Baina, ikusiz gatozenez, Berastegiko aldiari aldiko jauntxoek behin eta berriz errebindikatzen baitute aldare ondoko eserleku horretan egoteko eskubidea, ez zuten amore eman nahi izan ez Juan Martinez jauntxoak ez

honen ondorengoek. Gertatzen zen, alabaina, eserleku horretan ez zela beti lekurik aski izaten, batez ere apaiz asko elkartzan zirenean, eta orduan jauntxoak handik kanpo geratu behar izaten zuela, beste eliztarren parean, ohorezko lekurik gabe. Berastegiko Jaundegiko Francisco jauntxoak bereari eusten baitzion, berariaz hala eskatuta⁸⁰, Iruñeko Antonio Zapata gotzain jaunarengandik lortutako dekretu baten bidez, eliz otoitzak eta kantuak koruan egitera behartuak aurkitu ziren Parrokiako apaizak eskumikuaren eta diru-isunen mehatxupean. Transkribaturik dakargu, nahiz luzetxoa izan, Juan Garro idazkariaren bidez jakinarazten zaien dekretu horren edukia:

“Don Antonio Zapata, obispo de Pamplona, (...) por quanto aviendo citado en la Yglesia parroquial de san Martin de Verastegui personalmente querella el rector y beneficiados y clérigos della dicha Yglesia celebravan el oficio divino (...?) fuera del coro contra la costumbre General y buena orden de todas las yglesias de España y es justo queremendo como tiene dicha Iglesia coro muy bueno se cante y celebre desde él el divino oficio por la presente de envio mero oficio mandamos al rector y beneficiados y clérigos de la dicha Iglesia de san Martin de Verastegui que agora son y seran de aqui adelante y a todos los demas clérigos que a la dicha Yglesia acudieren acelebrar los dichos oficios divinos ambersarios y otros qualesquiera divinos y nocturnos y de difuntos y a los (...) y demas ministros dela dicha iglesia que de aqui adelante canten y celebren los dichos oficios desde el coro dela dicha iglesia estando en el como son obligados loqual cumplan so pena de excomunion y los meses (...) y diez ducados aplicados para obras pias y fabrica dela dicha iglesia.... Treinta dias del mes de enero del año mil

y seis cientos. Obispo de Pamplona por mandato de sys affec. Juan de Garro”⁸¹.

Nolanahi ere, epaiketan zehar bi kabildoak ordezkatzeko zituen defentsak emandako arrazoietan ikusi ahal izango denez, Gotzainarengandik agiri hori lortzeko modua eta honek koruari buruz dioena ez dira errealitateari dagozkionak edo ez bederen orduko agiri batzuetan azaldu izan diren bezalakoak. Egin dezagun gertakarien bidea epai-agirien ildotik.

Jadanik aipatua dugun eta gazteleraz eginda dagoen dokumentu honetan datorrenez⁸², Zapata gotzainak erabaki hori Berastegiko Parrokiara egindako bere artzain-ikustaldian hartu zuela zabaldu baitzen, bertsio horrek ondoko erabakietan eragin handia izango du. Aurelius Maraldus jauna, Zaragozako eliz epailea, Iruñeko Zapata gotzainarengandik Francisco jauntxoak lortutako dekretuak ez duela balio arrazoitzen ahalegintzen da, besteak beste, argudiatuz: bat, dekretu horretan esaten dela Gotzainak Berastegiko Parrokiara egindako artzain-ikustaldia egin eta hango apaizekin egon ondoren hartutako erabakia izan zela, baina hori ez dela egia, Donostian eta artzain-ikustalditik at egina izan baitzen⁸³ eta, beraz, Erromako Rotak 1601eko urtarrilaren 24an hartutako erabakian hala uste baitzen –Goztaina Berastegiko Parrokian bertan izan zela, alegia–, orain ez dela aintzat hartzekoa; bi, ez dela zuzena Francisco jauntxoak egiten duen deskribapena, zeren apaizek ez baitituzte beren elizkizunak betidanik egin, berak dioen bezala, eserleku (*camera, aposento*) garai batean –korua (*chorus*) deitzen zaion horretan–, elizako aldare nagusiaren ondoan dagoen eserlekuan eserita baizik, herri txikiak elizetan ohi den bezala. Beraz, Parrokiako apaizek, eserleku

horretan egoteko eskubidea eta Ordezkarri apostolikoaren epaia beren alde dutenez gero, Iruñeko Gotzaindegian Francisco jauntxoaren aldeko epaia emandakoak behartuta daudela alderdi biak Erromako Rotara jotzea, auzia hemen erabakia izan dadin. Bestalde, Latrango kontzilioarena aipatzen baita, zehazten da laikoek aldare ingurutik at egon behar dutela elizkizunak ospatzeko orduan eta apaizei bakarrik dagokiela hango eserlekuan egotea⁸⁴. Horiek horrela, beraz, Iruñeko Zapata gotzainaren dekretua ez da bete beharrekoa⁸⁵. Iruñeko Gotzaindegitik interpelazioa egiten baitiote, erantzunean lehen emandako arrazoi bera errepikatzen du: hots, Gotzainak ez duela frogatzen agindu hura Parrokiara artzain gisa egindako ikustaldian emana izan zela eta, hain zuzen, horixe dela frogatu beharrekoa⁸⁶. Ez baitzuen Parrokiara artzain-bisitarik egin, zalantzak ditugu hango aldare inguruan korurik bazen ez zen bazekienik ere.

Antonio Zapata gotzainaren babes lagun, Francisco jauntxoak bere eserlekua Kontzejukoek baino goragoko leku batean, lehen mailan, baitzeukan kokatua, haiek erabaki zuten beren eserlekua ebanjelio-aldean jartzea, baina epistola-aldeko Francisco jauntxoarena baino leku garaiago batean. Eta jarri, hala jarri zuten. Francisco jauntxoak kereila jarri zuen Gipuzkoako Korrejidorearen aurrean, errudunak preso sartzeko eskatuz. Kontzejuak kontra egin zion, argudiatuz prozedura kriminalez jokatzeiko arrazoirik ez zegoela eta, gainera, Kontzejuak zuzen jokatu zuela eserlekua han jarri, horretarako eskubidea zeukalako eta haien jokabidea Francisco jauntxoak zeukan agiri betearazlearen kontrakoa ez zelako. Korrejidoreak auto baten bidez ukatu egin zuen ustezko errudunen kartzelaraztea eta Francisco jauntxoari agindu zion eska zezala justizia

egitea berari zerizkion edo komeni zitzaion bezala. Auto honen aurrean, Francisco jauntxoak Valladolid-eko Kantzelaritzara jo zuen, esanez berarekin bidegabekeriaz jokatu zela eta, ondorioz, erabaki hura baliogabetzea, akusatuek epaituak izatea eta kausaren ezagutza geraraztea eskatzen zuela. Kontzejuak, bere aldetik, epaia bera alegatu zuen eta, aldi berean, presioa salatu. Valladolid-eko Entzutegiko autoaren bidez, Gipuzkoako Korrejidoreak lehendik emanda zegoen epaia berretsi zuen, kausaren ezagutza atxiki egin zen, eta agindu zuen lehen entzunaldian bi alderdiek alega zezatela zuzenbidez. Arazoa egoera horretan zegoela, badi-rudi Francisco jauntxoaren aginduz, bere morroi eta lagun batzuk alkate eta korrejidore edo kontseilariantzat jarritako eserlekua eta bankua kendu zituztela. Hauek, ekintza horren aurrean, kereila jarri zuten Korrejidorearen aurrean, eta honek informazioa bidaltzeko eskatu zuen. Honek, jakin beharrekoak jakinda, 1601eko urtarrilaren 24ko auto baten bidez, erruduna atxilotu eta Lehendakari eta Epailen eskuetan utzi zuen, justizia egin ziezaioten: “Para que es dado susodicho probean zusteza”⁸⁷.

Agindu horren aurrean, bada, bi kabildoek helegitea aurkeztu zuten Erromako Rotan, baina hemen hasieran, konjeturak eta preso hartzeak zirela bide, Iruñeko Goetzainak agindutako eserlekuetan elizkizunak egitera behartu zituen apaizak. Gero, ordea, handik agiri betearazlea, brebe bat eta Aita Santuaren erreskripto bat lortu ziren, arazoa Zaragozako Artzapezpikutegiko ofizialaren esku utziz. Honek Parrokiako apaizek beren helegitea egin zuten egunean zeukaten eserlekuari eusteko eta bertan elizkizunak egiten segitzeko eskubidea aitortu zien, berriro hasierako egoerara itzultzea ahalbidetuz. Francisco jauntxoak, Zaragozako

Artzapezpikutegiko Bikario Nagusiak emanda, brebe (*sub reticio*) bat lortu ondoren, Iruñeko katedraleko Priorearen aurrean helegitea jarri zuen, argudiatuz laidotua sentitu zela Zaragozako Ofizialak hartutako erabakiarekin eta, ondorioz, eskatzen zion inhibizioa kentzea, prozesua, kausa eta zatiak berriro Zaragozako Epaile apostolikoari igortzea⁸⁸.

Hurrengo urtean, 1602ko ekainaren 23n, Tolosako Gabriel Gaztelu Azpillaga eskribauak errekerimendu bat zuzendu zion Francisco jauntxoari Andres Inza erretore eta Miguel Goyenetxea alkate jaunen izenean, Francisco jauntxoak eta bere semeak bost lagunentzako eserlekuan egoten jarraitzen zutelako. Valladolid-eko Entzutegiak lehentasunezko lekuari buruzko gaian 1550eko azaroaren 7an emandako epai betearazlea oinarriztat hartuz, bi kabildoko arduradunek jakinarazi zieten haiek ez zeukatela leku hartan esertzeko eskubiderik eta aurrerantzean ez zitezela gehiago hara joan eta, arren, bakean uzteko eskatu zien aita-semei⁸⁹. Auzi hau eskuartean izan zuen Zaragozako Gabriel Sora bikario nagusi, doktore eta kalonjeak 1602ko uztailaren 5ean eta hango Epaitegiak, bete beharrekoak bete ondoren (*servatis servandis*), Parrokiako apaizei beren betiko eserlekuari eusteko (*manutenendo*) agindua eman zien eta, aldi berean, Francisco jauntxoak apaizen kontra egindako kaltea (*turbatiam*) ezabatu zuen 1603ko otsailaren 18an⁹⁰. Zehatzago esanda, Zaragozako Martin Carrillo ofizialak hiru eguneko epea ematen zion Iruñeko Juan Dionisio Fernandez Portocarrero bikario nagusiari bere agindua bete zezan⁹¹. Intimidazio-agiri honi erantzuten dio esanez justizia probatzeko argudioak ez direla oinarritu behar zentsuretan, intimidazio-agiri horretan egiten den bezala eta, beraz, zentsura horiek ezein zuzenbide-oinarririk ez

dutenez gero, ez daukala horiei zertan kasurik egin⁹². Marco notarioaren ustez, bada, mehatxu hori lekuz kanpo dago. Zaragozako Artzapezpikutegiko epaile ofiziala den Juan Izquierdo Aznar jaunak berriro agintzen du 1604ko urriaren 20an bere defendatuak –Parrokiako apaizak, alegia–, bere lehengo eserlekuan ezarriak izan behar zirela, han eseri eta kantatzeko, eta jabetza hori onartu behar zitzaie⁹³. Izquierdo Aznar epaileak erabaki hau 1604ko azaroaren 13an jakinarazi zion Juan Dionisio Fernandez Portocarrero Iruñeko bikario nagusiari, mehatxatuz, agindua ez bazen betetzen, mila dukaten isuna eta eskumikuaren zigorra etorriko zitzaiola gainera. Azkenean, Iruñeko Bikario Nagusiak ez baitzuen agindua aintzat hartu, eskumikatutzat jotzen dute⁹⁴. Urte honetan parroki elizako erretorea Miguel Arriaga da, eta apaiz laguntzailea, Martin de Arbide.

Arestian ikusi den bezala, Iruñeko Ofiziala ez baitzen ados etorri Zaragozakoarekin eta Epaile laikoetara jo baitzuen, arazoa azkenean, Martin Carrillo bikario nagusiak, artzapezpiku-kargua hutsik zegoela, Erromara eramango du, Leon XI.aren aitasaindutzan, hemen Rotako entzule eta epaile den Juan Bautista Panfilio jaunaren eskuetan utziz, azken erabakia berak har dezan. Honek, arazo guztiez eta bakoitzaz jardun eta erabakitzeke, alderdi biak zitatu zituen, deia hartu eta hirurogei egunen barruan, beren prokuradoreekin eta auziari dagozkion agiri juridiko guztiekin ager zitez⁹⁵. Epaileak ez zeukan erabakitzen erraza, tartean bi eskumiku-epai egonda.

Lehen deialdian, 1605eko apirilaren 3an, kartzelatuak libre uzteko agindua eman zuen eta, halaber, apaizek eserlekuaren jabe izanez segitzekoa⁹⁶. Era berean, eskumikuaren inguruan, guztien eta bakoitzaren egiazko absoltzioa

aldarrikatu zuen, haren azpian egon zirenentzat edo egon zitezkeenentzat⁹⁷. Handik bost hilabetera, 1605eko irailaren 11n, bere azken erabakia hartu zuen eta, auziak jarraipenik izan ez zezan, bi alderdietako inork ezingo zuen ezertan erabakitakoaren kontra joan setakeria gaiztoz⁹⁸. Emandako epaia bikoitza izan zen: erdibidekoa, aldi berean inhibizioarena eta absolbizioarena, alegia. Beraz, alde batetik, ordura arte hartutako erabakietan inhibitu egiten da, horietan parte hartzeari uko egiten dio, hor sartuz zigormota desberdinak, hala nola mila dukateko isuna, eskumikuak, zentsurak, eta besterik⁹⁹. Beraz, eta esandakoaren ondorioz, absolbizioa aldarrikatu zen alde bientzat¹⁰⁰.

Egin dugun ibilaldia egin eta gero, helburura iristean galdera bat geratzen zaigu zintzilik: non zegoen edo egon zitekeen kokatua eserleku famatu hori? Non, korua? Non, leku garaiago hura? Badirudi presbiterioan egon zela, zirela, aldare nagusiaren inguruan. Eremu hori jauna hartzen den lekuan elizako zorutik metro erdi bat edo gorago aurkitzen da eta horrek banatzen du klerikoen eta laikoen arteko muga elizkizunetan. Egun, ez dakigu noiztik, epistola eta ebanjelioaren alde bietan daude ezarriak eserlekuak beren bizkarraldeekin hormaren kontra. Agirietan egiten den deskribapenen arabera, badirudi garai hartan eserleku hori aldareari begira zegoela, ez zeharka, horizontalean baizik, presbiteriotik at beheko partean dauden eliztarrek kexatu egiten baitira ez dituztela aldareko elizkizunak ondo segitzen, edo ikusten. Iruñeko Zapata gotzainak aipatzen duen koru “ederrenetako” hori non egon zitekeen asmatzea zaila da, ezina, bertan ez baita horretarako lekurik. Lehen, 1960ko hamarkadan Vatikanoko II. kontzilioaren ondoren emandako liturgi berrikuntzaren karietara aldarea eliztarrei

begira jarri aurretik, aldarea sagrarioaren ondoan aurkitzen zen, hiru eskailera igota, gaintxo batean. Orobat, epistolaren aldean, hormaren kontrako eserlekuaren ondoan, metro bat eta erdira-edo, eserlekuak zeuden, hauek ere zeharka kokatuta, eta hauetan esertzen ziren apaizak meza nagusikoan eta bezperak kantatzerakoan. Horregatik, zaila egiten zaigu apaizek beren eliz otoitzak eta kantuak egiten zituzteneko leku hori, ditxosozko “koru” hori, non kokatua egon zitekeen irudikatzea. Leku jakin bat zela, ezin da ukatu, Gotzainak lehengo lekutik beste batera aldatzera behartu baitzitu. Seguru asko, garai hartako presbiterioak beste konposizio-mota bat izango zuen, gaurkoaren zerikusirk izango ez zuena.

Beraz, zaila egiten zaigu irudikatzea orduko eserleku eta koruaren kokapen finkoa, gaurko erreferentzia bisualak balio ez digulako. Horren arrazoia da, batetik, ez dakigula Juan Eulaldek non kokatu zituen aldareak, mailak, eskaile-rak, gizonetzkoen eserlekuak eta abar, eta bestetik, Francisco Fratin arkitektoaren planoarekin, aldaketak egon zirela eta seguru asko elementu horien antolaketan bere eragina izango zutela.

Gaur, jai handietan-eta, herri-agintariak elizako lehen eserlekuan ikusten ditugu eta normala iruditzen zaigu. Baina garai hartan ez zen horrela. Presbiterioan, apaizentzat bakarrik zen eremu berezian, Berastegiko jauntxoa eta herri-agintariak agertzen dira, nork goragoko lekua izan lehia bizian. Eta Berastegiko Francisco jaunak lortuko du denboraldi batez apaizak ere beren betiko eserlekutik botatzea. Harrigarria da ohoreak duen boterea.

Orain artekoa laburtuz esan dezakeguna da, Juan Martinez jauntxoari ukatzen bazaio ere bere burua elizako

patroi bakartzat hartzea —edo, zuzenago esanda, bere maio-razkoan sartzea—, eta bertan lehentasunezko atributuak izatea, ez diotela kentzen, halere, hamarrenak kobratzeko eskubidea. Izan ere, patronatu-eskubidea zentzu hertsian eman, elizak edo kaperak jauntxoena diren kasuetan bakarrik ematen da. Esana daukagu horrelako elizak dozena bat baino gehiago ez zirela Gipuzkoan.

6. Berastegiko jauntxoena kasu partikularra testuinguru zabalago batean

Orain arte Berastegiko bi kabildoek, Parrokiak eta Udalak, Berastegi oinetxeko aldia aldiko jauntxoena kontra burututako auziak aztertzerako mugatu gara. Heldu da gertakari partikular hori testuinguru zabalago batean kokatzeko unea, galdetuz, bidenabar, borroka horrek zer duen baterakoa zer berezia Gipuzkoako beste herrietan gertatuekin, erakunde zibil eta erlijiosoaren, hots, udal- eta eliz agintarien arteko interes komunak zer gizarte-faktore jakinek eraginda sortzen diren, eliz patronatuaren inguruko auziek zer-nolako zabalkundea duten, kleroak bere asaldurarako gizarte-oinarririk ba ote zuen. Eta abar.

Gizarte-mugimendu hori zein neurritan zabaldu zen Gipuzkoan zehar eta nolako arrakasta izan zuen galdetzea ere bidezkoa da, besterik ez bada kontura gaitezen utopia hutsak diruditenak, baldintza objektibo batzuk emanez gero, egingarri bilaka daitezkeela historian zehar.

Beste nonbait aurreratu dugu Gipuzkoako beste herri batzuetan ere eman zela garai bertsuan arazo berbera. Orain zehatzago azalduko dugu jauntxo-erregimenaren kontrako borroka, kutsu lokaleko gizarte-fenomeno mugatua baino

askoz haragokoa izan zela eta, neurri batean, erabatekoa ere bai.

Berastegi ez zen izan lehena bere protesta-ahotsa auzitan entzunarazten. Kronologiari bagagozkio bederen, aurretik bere kexa epaitegietan azaldua zuten, hala nola Beasainek 1495ean, Azkoitiak 1510ean, Usurbilek 1519an, Berastegik 1535ean eta, mende-bukaeran, 1581ean, Zizurkilek. Kasu hauetan, herritarrek Parrokiako apaizekin eta Udalarekin batera herriko jauntxoaren kontra egiten duten oinarrizko salaketa da, beretuak dituzten eskubide-mota desberdinak noizbait indarrez eta ezkutuan usurpatu zituztela.

Orokorrean, lekuko jauntxoren kontrako borrokan garaile irten ziren herritarrak, beren indarrak Kontzejuaren eta Parrokiaren inguruan bilduta. Oñatiko konderriarekin bakarrik aurkitu zituzten gaindiezinezko oztopoak. Garai-pen partzial batzuk lortu zituzten, adibidez, 1496an Gatzaga hiria Arabatik Gipuzkoako Ermandadera pasatzea. Gerora ere, 1540. urte aldera, oñatiarrek sinestezinezko laidoak jasaten baitzituzten lekuko jauntxo indartsuaren aldetik, Leintz harana haren eskutik behingoz askatzeko borrokari ekiten zaio. Horretarako, auzitara eramaten dute herritarrek. Salaketetan testu bortitzak idazten dira, adibidez, Leintz haraneko jauntxoaren kontra egindako auzian. Hemen esaten da jauntxo honek eta beste batzuek beren buruak “jauntxotzat” dauzkatela, baina egiazki izan gabe, horrela deitzeko ezein titulu juridikorik ez dutelako. Beraz, ez dute ezein sarbiderik herri-jurisdikzioan¹⁰¹. Testu hau XVI. mendekoa da, 1547-1556 bitartekoa, orduan ematen baita kondearen kontrako auzia.

“Jauntxo” autoizendatzen direnen artean aurkitzen da Berastegikoa ere, Zarautz, Lazkao, San Millan eta Leintz-

koarekin batera. Agian, orduko sonatuenak ere horiek izanen ziren. Baina titulu horiek, egiazki hala izan gabe, beraiek beren buruei hala emandakoak ziren, ohorearen amorez, oinarri juridikorik gabe. Ahaide Nagusi ziren aldetik, lurren gozamina zuten, ez jabetza, baina praktikan haien gaineko jurisdikzioa usurpatua zuten. Azkenean, Oñatiko kondeak ere, “Espainiako Handia” deitzen zitzaion hark, burua makurtu behar izan zuen.

Berastegiko Parrokian jauntxo-izaerako hamarrenen arazoa bukatutzat eman badaiteke ere jadanik XVII. mende-bukaeran, Gipuzkoako beste Parrokia askotan hamarrenen ohiturak luzaro iraungo du. Goierriko Gain-tzan, adibidez, oraindik XIX. mende-hasieran (1810), eliztarrek Lazkaoko jauntxoari, oinetxeko nagusiei, Parrokiako “Arrosarioko Andre Maria” kofradiari eta “Kultu eta Kleroa” elkarteari espezieetan ehuneko hamar edo, gehiago behar zenean, ehuneko hoge ematen zizkien. Opari hauek garia, gaztaina, sagarra, artoa, babarruna, lihoa, arkumeak, eta beste, izaten ziren (Sorazu, 2009, 49). Jakitekoa da ohitura hura nola hartzen zuten, gaur nola ikusi beharko litzatekeen, herritarren “bihotz eta esku-zabaltasunaren ezaugarri jator” bezala, egileak idarokitzen duen bezala, ala baserritar pobreek egiazki deitoratzen zuten ezarpen bat gehiago bezala.

Gatazka, beraz, luzea izan zen eta garestia. Berastegiko Juan Martinez jauntxoak zioen, auzia auziaren gainean, azkenean porrot eginda geratu zela, auzo ahaltsuak oldartu zitzaizkiolako. Auzien zerrenda zenbat luzatzen den ikusita, tartean belaunaldiak pasatzen baitira, pentsatzekoa da Berastegiko jauntxoak ondo aspertuta egongo zirela eta diruzorroan zuloak ere eginda edukiko zituztela. Herritarrek

ere, auzi batekin bukatu orduko bestean sartu, haiek ere diru franko xahutuko zuten. Izan ere, auzi guztiek, batean galdu eta bestean irabazi, berekin dute gastua.

Auzi jarraitu hauek zerbait agerian jartzen badute, gizarte-sektore desberdinen arteko indarren korrelazioa da, Udalaren, Parrokiaren eta jauntxo feudalaren artean gauzatzen dena. Eliza eta Udala elkartzen dira jauntxoaren kontra egiteko. Haiek indartuz doazen neurrian doa hau ahultzen. Auzi horiek adierazten dutena horixe da, funtsean: herritarren gorakada eta jauntxoen beherakada.

Hamarrenak zirela-eta, Berastegiko jauntxoek bi kabildoekin izandako auzi desberdinen historia luzean (1548-1665), inoiz hitzetatik ekintzetara pasa baziren ere, ez genuen uste odol-isurketarik egon zenik. Oker geunden, Berastegiko Francisco jauntxoaren Jorge semea gertatu baitzen hila 1612ko azaroaren 11n, San Martin egunez. Hiltzaileak epaitu eta zigortuak izan daitezzen aitak haien kontra ezarritako auzian berari dagokion ahalbidea Domingo de Iriarte eskribauaren aurrean izenpetzen duen agirian, hauxe deklaritzen du:

“Sepan cuantos esta carta de poder vieren cómo yo don Francisco de Verástegui y señor de la casa y solar de Verastegui. Digo que por quanto el día de San Martin próximo pasado estando yo y mi mujer en el dicho mi solar con nuestros hijos y criados, Ana de la Plaza y Lucia de Ayerdi y Martin de Osacar y otros consortes penetraron y escalaron la dicha mi casa y solar, y mataron a don Jorge de Verastegui mi hijo, y cometieron otros delitos atroces y dignos de castigo, por lo cual están presos los susodichos por el señor alcalde ordinario de la villa de Tolosa, en su cárcel. Y a mí como agraviado por

la dicha causa pedir su castigo. Por quanto otorgo y concedo todo mi poder cumplido que yo tengo y de derecho que para el caso se requiere”¹⁰².

Pasarte horretan datorrenez garbi dago etxean indarrez eta horman gora igoz sartu zirela, bertan zeudela gurasoak, semeak eta morroi-neskameak, baina ez da zehazten, hilketaz gain, nolako ankerkeriak egin zituzten, ez jadanik Tolosako kartzelan dauden hiltzaile horiek nor eta nongoak ziren, ez zenbat. Auzietan inplikaturako herritar batzuk ote? Berastegiko jauntxoa auzietan murgilduta zebilela honez gero gauza jakina da, herrian giroa gaiztotua zegoela ere bai, baina hortik aurrera zerbait gehiago esateko hurbileko tesuinguruaren ezagutza falta zaigu.

6.1. Berastegiko Francisco jauntxoaren desafioa (1624)

Eliz patronatuaren gaineko auziak bukatu eta gerora ere, Berastegiko oinetxeko jauntxoaren botereak ahaltsua izanez segitzen du edo, bederen, haren itzal politiko eta ekonomikoaren errainuak agerikoak izango dira, Berastegitik landa, Gipuzkoan ere. Adibide-pare baten bidez argiago agertuko da adierazi nahi duguna.

Ahaide Nagusien kontra hasitako ekintzaren balantze orokorra egiten hasiz gero, esan behar da orokorrean ona izan zela, baina salbuespen batzuekin. Ermandadeko ordenantza probintzietan zein errege-zeduletan neurri zorrotzak zetozen aldarrikatuta. Zigortuak izango ziren Ahaide Nagusien arteko liskarrak, borrokak, desafioak, eta horrelakoak eragiten zituztenak, haien gehiegikeriak epaitegi zibil eta kriminalean epaituak, Ermandadearen esanera jartzen ez zirenak beren lurraldetik ohilduak beren familiarekin,

eta beren ohorezko karguetatik zein goi-kargu politikoe-
tatik kenduak. Hala zetorren aldarrikatuta 1463ko orde-
nantzetan. Azkenean, Enrike IV.a erregeak haien dorretxeak
desegiteko agindua eman zuen, nahiz gerora etxebizitza bat
eraikitzeko eskubidea eman zitzaien, baina lehengo dorre-
txetik aparte. Azken batean, Ahaide Nagusi izandakoak,
handikiak eta indartsuak, beste herritarren parekoak izatera
behartu zituzten.

Baina ez bide zuten guztiek amore eman eta jauntxo-
keriaren aztarnak ez ziren erabat ezabatu. Badirudi 1516an
Ahaide Nagusi batzuek ezkutuko bileraren bat egin zute-
lako, salatuak izan zirela Erregeren aurrean. Halatsu mende
bat geroago ere, 1624an, hain zuzen, Espainiako Felipe IV.a
erregeak (1621-1665), Felipe II.aren bilobak, Gipuzkoari
laguntza militarra eskatu zionean, frantziar inbasioaren
mehatxupean omen zegoelako: “país amenazado de la inva-
sión francesa” (Gorosabel, I, 1899, 287).

Espainia ahaltua inbasiopean? Baiki. Baina ez Ameri-
ketako Espainia koloniala, Europako inperiala baizik. Izan
ere, Espainia jadanik buru-belarri sartua zegoen Erdialdeko
Europar piztu eta Europa osora zabaldu zen Hogeita Hamar
Urteko gerran (1618-1648). Espainia eta Frantziaren arte-
koa 1659. urtera arte luzatuko da. Europar gerra hura
erlijioen arteko gerra deitu zitzaion hasieran. Hala formu-
latu bazen ere, katolikoek eta protestanteek arteko gerra
bezala, alegia, haren oinarrian zergati sozioekonomiko eta
politiko sakonak zeuden. Europar jadanik orokortua ze-
goen krisia gizarte-maila guztietan XVII. mendean, orain-
dik indarrean zeuden gizarte-egiturek oztopatu egiten
baitzuten kapitalismo hasiberriaren garapena. Azken ba-
tean, bi zibilizazio-mota zeuden tenkan: batetik feudala eta

katolikoa, Habsburg-ekoek defendatzen zutena eta, bes-tetik, burgesa eta protestantea, Probintzia Batuek –oraingo Herbehereek–, eta Alemaniako printzerri kalbinistek bul-tzatzen zutena. Bohemia kalbinista matxinatu zenean eta bertako erregeztat Federiko V.a hautatu, Habsburg-eko Fernando II.ak, Bohemia (1617) eta Hungariako (1618) errege eta enperadore erromatar-germanikoak (1619-1637), laguntza eskatu zion Espainiari eta Felipe III.ak bere ar-mada bidali zuen, Ambrosio Spinola buru zela, eta garaipenak lortu zituen Wimpfen-en (1622) eta Breda-n (1624) eta, honela, erregimen inperiala Alemanian berrezarri ahal izan zen. Gerrak, halere, aurrera segitu zuen, eta hori da arrazoia zergatik behar dituen Espainiak armadarako sostengu berriak. Baina orain etsai berria sortuko zaio, ez Europaren bihotzean, estatu-auzoan baizik. Ikusirik Espainia inperiala-ren arrakasta espantsionista, Frantziak gerran parte hartzea erabakitzen du, Richelieu-rekin, Italiako lurraldean –zehazki, Savoia eta Veneziarekin–, hauek espainolen agindupekoekin –Inperioarekin, alegia–, harremanik izan ez zezaten. Espainiak, ordea, Parma, Modena, Genoa eta Lucca-ren laguntzarekin, porrot eginarazi zion eta 1626an Italia eta Austriaren arteko bide militarrek irekita geratu ziren.

Egitura feudaleko Europaren gainbeheraren isla nabar-mena den gerra erlijioso-politiko horretan zuzenean parte hartu zuen Espainia inperialak eta testuinguru horren barruan kokatu behar da Espainiako erregeak Gipuzkoari egiten dion eskea. Zuzenean ez baina, zeharka bai, bera ere inplikaturik aurkitzen da Europa inperialaren defentsan. Bera eta Berastegiko jauntxoa, beste batzuekin batera.

Erregearen deia erantzun beharrez, Probintziak Billa-bonan Batzar bat egin zuen errege-eskeari jende armatua-

rekin nola erantzun behar zitzaion erabakitzeke eta, bide batez, soldaduskaren gaia aztertzeke. Batzar horren kariatara, antza, data berean eta herri berean, Korrejidorearen baimenik gabe, ezkutuan-edo, elkartu zirela eta, Probintziako bost Ahaide Nagusi salatuak eta epailearen aurrean deklaratzera deituak izan ziren, zehazki hauek: Francisco Berastegikoa, Migel Millangoa, Martin Zabala Idiakenez, Luis Lizanoskoa eta Migel Erasokoa (Gorosabel, I, 1899, 285-288).

Salaketan aurpegiratzen zitzairen soldaduskara joateko deiari uko egin ziotela, “jaun” titulua zutela argudiatuz. Auzitara eramanak izan ziren eta han galdetu zitzairen titulu hori nola lortu zuten, zein arrazoi juridikoren izenean, zergatik eta zein pribilegioren babesean, esateko halako tituluak zeuzkaten etxeen izenak¹⁰³. Testu hau Probintziak Ahaide Nagusien kontra egindako txostenean dator. Baina bada esaten duenik ere berez ez zuen garrantzia eman zitzaiola bilera hari, eta elkartu baziren beren jokabidea adosteko asmoarekin elkartu zirela, armada autonomoa ala, beste herritarrekin batera, talde bakarra osatu erabakitzeke xedearekin¹⁰⁴.

Dena den, kasu batean zein bestean, zalantzan ez da jartzen Espainia inperiala “frantziar inbasioaren mehatxupean” zegoela eta laguntza eman behar zitzaiola. Eta Probintziak laguntza eman zion. Eta ustez erabaki horretara makurtu ez ziren bost jauntxo horiek atxilotzeko agindua eman zuen. Berastegikoak eta Erasokoak Nafarroara alde egin zuten; beste hiruak Elgoibarren ospatzen ziren Batzar Nagusietara eraman zituzten eta han deklarazioa hartu ondoren, Batzar Nagusiek horretarako hautatutako epaien esku utzi zuen auzia epaitegi kriminalean erabakia izan

zedin. Auzitik ihes egindako biak Probintziatik kanpora erbestean lau urte egitera eta bakoitzak mila dukateko isuna ordaintzera kondenatuak izan ziren, eta oraindik gogorra goa dena, beren jabetzako sagastiak, landak eta oihanak moztu eta beren etxeak erretzeko agindua ere eman zen. Beste hiruak –San Millangoa, Zabala eta Luis Liraun Lizanoskoa–, aske utzi zituzten, ohartaraziz aurrerantzean ez zezatela ezein bilkurarik egin ez pribatuan ez publikoan. Berastegi eta Erasoko jauntxoek erregearengana jo zuten, argudiatuz emandako epaia ez zela zuzena izan, eta hark indultatu egin zituen, baina Espainiak Frantziarekin zerman gerran parte hartzeko obligazioa ezarriz (Gorosabel, I, 1899, 287-288).

Bi jauntxo horiek gerra horretan parte hartzera behartuak zeudela esaten bada ere, ez dakigu joan ziren ala ez, eta baiezkoan, zein baldintzatan joan ziren, beren armada autonomoarekin ala Gipuzkoako ostearekin batera, ezta gizon armatu horiek nondik bildu zituzten ere. Ziurta dezakegun bakarra da Gipuzkoa presente egon bide zela Italiako lurraldeetan Espainiaren defentsan.

6.2. Bedaio auzoa Berastegiko jauntxoen uztarpean (XVI-XIX)

Badirudi Gipuzkoak Nafarroarekin 1523an egindako mugarriztatze-lana ezagutzen den zaharrena dela, Aralarko mendietan, hain zuzen, Ordizia, Amezketa eta Abaltzisketa herriek zituzten istiluek eraginda. Geroztik, 1662 eta 1787an ere, berritu zituzten. Azkeneko data honetan Orexan elkartu ziren Probintzia bietako ordezkariak. Bedaio eta Azkarateko lurrak mugatzen dituen Lasturriagako gainera

iritsi zirenean, bukatutzat eman zuten beren lana. Horko mugak zehazteko orduan, interesatuek beren eskriturak agertu zituzten, nola Azkaratekoak hala Bedaiokoak. Hemengo ordezkariak Berastegiko Juan Martinez jauntxoarena erakutsi zuen, zeinetan ziurtatzen baitzen 1502an bera zela Bedaioko nagusia (Gorosabel, I, 1899, 49-51). Zehatzago esanda, Lasturriagan bildutako ikustatzaileak, Azkaratekoen aldetik 13 lagun izan ziren errejidore eta bizilagunen artean eta Berastegikoen aldetik, berriz, Pedro de Ribas jauna, Gasteizen bizi zen Francisca de Lavega y Alvana anderearen izenean. Pedro hau Jose Antonio de Ribas y Berastegui jaunaren –“dueño y señor que fue de la dicha casa y mayorazgo de Berastegui” deituaren eta ordurako hila zenaren–, familiakoa genuen. Francisca emaztekiak, berriz, bere seme Joseph Tomas Francisco de Rivas y Berastegui jaunaren –gero Berastegiko jauntxoa izandakoaren–, eta Bernardino de Ribas y Berastegui jaunaren tutoretza zuen. Horiekin batera, Thomas de Larreta eta Luis de Lizarribar jaunak izan ziren, biak, hurrenez hurren, Araitz eta Alzoko eskribauak. Ikuskatze-eskritura 1502ko urriaren 6an izenpetu zuten eta guztira 47 mugarri ikuskatu zituzten. Amezketako mugara iristean, hango Udalekoekin jarraitu zuten eta ikuskatze-eskritura Pedro Ribas jaunak eta Donato de Argaizondok, Azkarateko apaiz jaunak, izenpetu zuten, eta beste batzuek¹⁰⁵.

Tolosaldeko auzo txiki hau Berastegiko jauntxoaren jabetzako izan zen Juan Martinez jauntxoak 1544ko ekainaren 8an Tolosako jurisdikziopean txertatu zuen arte maila juridikoan; maila ekonomikoan, ordea, Berastegiko jauntxoaren babespekoa izaten jarraitzen zuen eta haiek jasotzen zituzten Bedaioko auzoko hamarrenak, lur-emariak eta

ohoreak. Berastegiko jauntxoak, gaur-gaurkoz ezagutzen dugunaren arabera 1735. urtetik hasita, bere ordenantzak ezarrita zeuzkan hango auzoan eta, horien arabera, Berastegiko oinetxekoa, aldian aldikoa, erabateko jaun eta jabetzat onartzera behartuak zeuden, hots, hango lur guztiak –ehiza, mendiak, urak, hamarrenak eta lur-emariak–, bereak zituela onartzera eta, ondorioz, halakotzat hartzera. Bedaio-koak kate horretatik XIX. mendera arte ez bide dira askatuko, horrelako pribilegioak XIX. mendean desagertu ziren arte (Gorosabel, I, 1899, 51). Esan dezakegu egiazko feudo baten aurrean aurkitzen garela¹⁰⁶. Bedaio auzoaren kasuan agertzen da argienik horko jabeen feudo-izaera.

Bedaiok, Tolosako Udalerrian sartu eta gerora ere bai, lehengo gizarte-egitura berean funtzionatzen segitu baitzuen, Gipuzkoan elizak beren jabetzakoak zituzten patroien izenak aipatzean, zerrendan hamaikagarrenean dator Legarda markesarena, Berastegiko oinetxearen jabe bezala izendatua: “El Marqués de Legarda, de la de Bedayo, como poseedor de la casa solar de Berástegui” (Gorosabel, IV, 1900, 211).

Joaninazio Elosegiren oharrei esker, osatu ahal izan dugu jadanik ezaguna zaigun Garcia jauntxoaren ondokoen eboluzioa. Honen zuzeneko segidakoa den ala ez alde batera utzita, Don Jose Antonio de Ribas y Berastegi agertzen da, ustez, ez Berastegin, baizik Gasteizen bizitzen den lehena. Jauntxo hau 1677rako zendua zen eta bere ondorengoa Don Jose Tomas de Rivas y Berastegui (1710) izan zen. Don Diego Manuel Esquivel jauntxoaren izena lehen aldiz 1732an dator eta harrez gero Esquiveltarrak izango dira Berastegiko jauntxoak XIX. mendera arte, “Legardako markesa” tituluarekin lehen aldiz 1770ean agertzen direlarik.

Berastegiko jauntxoak bere ordenantzak egin eta handik urte gutxira, XVIII. mendearen azken hamarkadetan bi dokumentu aurkitzen dira Bedaioko ondasunak oro Legardako markesarenak direla egiaztatzen dutenak. Lehenagoa 1776ko azaroaren 13koa da, eta hor Bedaioko Santa Maria eliz berriztapenean egindako gastuak zehazten dira. Besteak, 1780ko ekainaren 6koa, Bedaio eta Ugarteeko etxeen errentamendu-kontratuaz dihardu, urtero ordaindu beharreko kopuru zehatza emanez. Guztira 15 ziren errenta ordaintzen zuten baserriak eta etxeak: Ugartejau-regui, Saroveberria, Ygunaga, Bedaiobarrena, Arrupe, Bedaiobitarça, Gurdillaaundia, Gurdillatxikia, Zugastibarrena, Jazkue de abajo, Jazkue de arriba, Zumizketa, Larrañeta¹⁰⁷, Belarmuga eta Elizechea. Garai hartan, bada, Legardako markesa zen Bedaio auzoaren jabea. Esquiveltarrak izango dira aldi berean Berastegi eta Bedaioko jauntxoak XIX. mendera arte.

Ez zen nornahi jauntxo hau, ohorezko titulu asko eta goreneko kargu publikoak baitzituen: “Patrón divisero de las iglesias de Esquibel, Bedayo, Ugartejauregui; Alcaide y Castellano del castillo de la villa de Bernedo, Marqués de Legarda, Vizconde de Ambite, señor de Baltierra, Jentilhombre de Cámara de su Majestad, de su consejo en el Real de Hacienda, Gobernador y juez subdelegado de rentas generales, tabaco y salinas en toda la Cantabria, vecino de Vitoria...” (Garmendia Larrañaga, Juan, 2002, 189).

Legardako markesaren noblezi titulua Gasteiz ondoan dagoen izen bereko herri zaharretik datorkio. Herri honen markesgoa 1664ko azaroaren 30ean eman zion Felipe IV.a erregeak Antonio de Salcedo Hurtado de Mendoza jaunari, Enkarterrietan Salzedo etxeko ahaide nagusiari. XVIII.

mende-bukaeran herri honen jauntasuna Legardako markesaren oinetxera pasatu zen.

XIX. mendearen bigarren erdian, Don Antonio Maria de Esquivel y Saenz de Navarrete, Legardako markesa eta Berastegiko Jaundegiko jauntxoaren oinordekoa, hiltzen denean 1860an, lege-aldaketak baliatuz, haren alargunak bere semeen artean maiorazkoa zatitzeko erabakia hartzen du. Ondasunak bi zatitan banatzen dituzte. Bedaio erdia eta Berastegiko ondasun guztiak, Julian de Esquivel y Ruiz de Pazuengos, Legardako markesaren eskuetara pasatzen dira eta, esana daukagunez, Berastegikoak horri erosten dizkio Ozpindegiko Jose Antonio Arregi indianoak. Bedaio erdia, berriz, Julianen ondorengoek Fermin Calveton y Blanchoni jaunari –Donostiako parte zaharreko kalearen izena daramanari, hain zuzen–, saltzen diote eta honek 1900ean Segurako Braulio Jose Alustiza y Aranbururi. Bedaio beste erdia Julianen anaia den Bernardori tokatzen zaio eta honen ondorengoek Jose Elozegi Zabalarri, txapel-fabrika eraiki zuen Antonio Elozegi Lizargarateren semeari, saltzen diote¹⁰⁸. Honek, Normandiatik ekarrita, 5.000 sagarrondo landatu zituen eta 7.000 zaku sagar biltzera iritsi omen zen.

Bedaioiko ondasunak, beraz, 32 urte geroago saldu ziztuzten. Diru-premian zegoelako –edo, nork daki zergatik–, Julianek presa gehiago ibili zuen ondasunak saltzen Bernardok baino.

Legardako markesaren eta Berastegiko jauntxoaren artean senitarteko loturarik izan ote zen? Eta baiezkoan, zein mailatakoa? Kontuan hartzen bada Berastegiko Garcia jauntxoa 1667an hil zela eta arestian aipatutako Jose Antonio de Ribas y Berastegui 1677an, pentsa liteke Ribas

abizeneko hau seguru asko Garcia jauntxoaren arreba baten semea izango zela. Bestalde, José Thomas de Rivas y Berastegi jaunaren izena 1713. urtera arte agertzen da; handik 19 urtera, berriz, Diego Manuel de Esquivel jaunarena. Badirudi azken hau Ribas jaunaren iloba izango zela eta laugarren abizena Berastegi izango zuela, nolana ere ziurtatzeke dagoen ustea. Itxura guztia du hala izatearena, jakinda, gainera, maiorazko-eskriturretan oinordekoen izen-dapenak xehetasun osoz mailakatu eta zehazten direla senideen artean.

Bedaioko eliz gunea 400 metroko altueran aurkitzen da, Berastegiko plazaren pare, Aralarko Balerdi mendiaren



Bedaioko eliz gunea, Santa Maria elizako dorrea bistan dela
(Iztueta, 2010)

magalean, Ugartetik 8 kilometrora. Menditsua da bere ingurunea, 1210 hektareako azalerarekin. Tolosa guztiaren heren bat. Egun 80 lagun baino ez dira bizi bertan.

Garai batean, ordea, orain ez bezalako garrantzia izandakoa da. Erdi Aroan hango galtzadatik Nafarroatik kostalderako merkantziak pasatzen ziren eta, horrelako pasabide estrategikoetan ohi zenez, ez ziren falta izaten kontrabandistak eta lapurrak. Horren lekuko izana omen da Gurbillaundi baserria, Gipuzkoako handiena eta erdian patio laukizuzena duena. Gerra karlisten garaian kuartel bezala erabili zen. Egun, guztiz eraberrituta, sei etxebizitza daude antolatuak, lehengo egiturari eutsiz. Dena den, Bedaion badira seiko, lauko eta abarreko etxebizitzetan zatitutako beste baserri batzuk ere, errentatzaileak etekin gehiago ateratzeko xedearekin halaxe eginak. Jauntxoaren marka berezizat har liteke hori ere.

San Inazio Loiolakoa ere, Iruñean zauritua izan eta gero, etxerako bidean hango galtzadatik pasa omen zela eta hango baserri batean atsedean hartu omen zuela ere kontatzen da.

7. Apaizteriaren kexa arrazoitua

Behin honetara heldu ezkerro, galdera hau egin beharra dago: zer dela-eta, oldartzen dira apaizak hain gogorki? Ba ote zuen kleroak haserre sentitzeko arrazoirik? Nolakoa ote zen orduko eliztarren erlijiotasuna?

Berastegiko eliztarrek herriko jauntxoekin dituzten auzietan funtsezko arazoa, hamarrenen atzean ezkututzen dena, krematistikoa baita, galdera horiek badute garrantzirik eta komeni da zein testuinguru sozioekonomiko eta

kulturaletan eman ziren jakitea. Eginkizun honetan alderdi hau aztertzen duen Fernández egilea (1975) izanen dugu lagun.

Kleroaren arazoak izateko arrazoirik bazuela ezin da ukatu. Estatu modernoan eraiki behar zela eta, Errege Katolikoek gotzain-feudalismoa sustatu baitzuten, horren alboan apaiz-proletalgoa agertu zen. Kleroaren barruan, klaserik apalena benefiziatuena zen, eta hauen egoera ekonomikoa biziki larria zen garai horretan. Hamarrenen arazoan etengabe ateratzen den kontua da.

Bestalde, Euskal Herrian orokorrean eta Gipuzkoan bereziki, baziren beste arazo gehigarri batzuk ere maila erlijiosoan. Gipuzkoa zegoen bezala egonda nekazal zibilizazioari erro-errotik atxikia, oraindik ere kristau-praktika ohikoenetan lehengo paganismotik zetozen hondar-elementu batzuk nahasten ziren eta orduko herritarren pentsaera erlijiosoa halako sinesmen hibrido batez bustia aurkitzen zen. Ikuspegi hori, batez ere, hildakoei zor zitzaien begiramenean islatzen zen. Hiletetan egindako gastuek zorretan uzten zuten batzuetan etxea bera. Horregatik, Trentoko kontzilioaren ondotik, batez ere, goreneko eliz jerarken kezka nagusia izan zen “herri-sinesmenak eta praktikak” garbitzea, “herri-fedeak” nolakoa izan beharko zukeen mugatzea. Noski, asmo hau oraindik XVI. mendean egitarau huts bat baino gehiago ez da izango, baina XVII. mendean haren ondorioak bistatzen hasten dira, “praktika erlijiosoa” kontrolatzen baita, bere adierazpen-mota guztietan kontrolatu ere, oso hurbiletik zainduz festak eta herri-ospakizunak. Gizarte zibilaren eta erlijiosoaren arteko bereizketa garbiki egitea aldarrikatzen da. Era berean, kristau-dotrinari garrantzia handia ematen zaio. Alde

guztietan “deabrua” eta honen lagunak ikusten dira, han eta hemen sorginak agertzen. Zorroztasunak inkisizioari bide ematen dio eta horren ondorioak ezagunak dira.

Bestalde, erlijio-mailan zeuden uste okerrak garbitzeko, herritarrak sorginkeriatik aldentzeko, hemen Gipuzkoan, 1653an aldarrikatutako Foruen XXVII. tituluan datorrenez, faborezko tratua eman zitzaion Jesusen Lagundiari, klero sekularrak jasotzen zituen hamarrenen zati bat Lagundiari emanez. Gipuzkoak Lagundiaren beharra zeukan herria kulturizatu ahal izateko; aldi berean, Lagundiak ere bai Probintziarena, kleroaren aurrean bere jarrerari eusteko. Biak zeuden elkarren beharrean. Jesusen Lagundiak urrats handi eta sarkorrek eman zituen, pastorgintzan baino gehiago pedagogian, batez ere, irakaskuntza kontrolatuz (Fernández, 1975, 128-138). Pedagogia jesuitikoaren umeak gara, funtsean.

8. “Verastegui” oinetxeko jauntxoen izaera soziala

Borroka luzea izan zen. Berastegi herriak eta Eldua auzoak, beraz, bi mende luze jardun zuten borrokan, auzitan, jauntxoari ordaintzen zizkioten eskubideak gainetik kentzen. Bistan da, jauntxoek kontrako gatazkak hain luzaro iraun zuen, haien indarra ere ez zela hutsala. Kontua da nola kategorizatu behar den haien izaera soziala. Orain arte egindako gertakarien errepaso historikoan, ikusi da beren buruak Ahaide Nagusitzat izan zituztela, herriko abeltzainek inoiz epai-eskuduntzak ere aitortu zizkiotela, patronatu-eskubideak beren maiorazkoan sartu zituztela, beren ondasunak, Berastegin bakarrik ez, Bedaion ere bazituztela, Gipuzkoako historia politikoan –bereziki, zeregin

militarretan—, buru-belarri sartuta ibili zirela. Labur esanda, beren buruak beste auzotarrak baino goragoko beste gizarte-maila batean kokatzen zituzten. Bestalde, badirudi Berastegiko auzotarren etxaldeak ere indartsuak zirela eta, elkartuta, jauntxoei gain hartzeko gauza izan zirela. Zer izan ziren, feudoak zentzu hertsian, ala soilki jauntxoak?

Feudo-kasu tipiko baten aurrean aurkitzen garen ala ez galdetzea, bidezkoa da, lehendik ere egina izan den galdera baita; erabakitzea, ordea, arriskutsua. Baduela bere berezitasuna, zalantzarik ez, horrelako egoera espezifikokoak ez baitira herri guztietan ematen, banaka batzuetan baizik. Nolanahi ere, argiago dago Bedaio auzoaren kasuan, feudo bati dagozkion atribuzioak oro betetzen direla; Berastegiren kasuan, beharbada, ez maila berean edo, zehatzago esanda, ez beti modu berean. Auzietan ikusten da izaera feudaleko prestazioak zirela Berastegiko jauntxoek errebindikatzen zituztenak eta herritarrek, kontrakarrean, hasierako berdintasunaren argudioa erabili zutela jadanik ezarria zegoen gizarte-ordena baten gainean finkatutako jauntxo-eskubideak deuseztatu eta haren ebidentziak ukatzeko orduan. Implizituki, bada, onartzen da Berastegiko jauntxoak feudo jaun baten atribuzioak hartzen zituela. Jaun feudal bati zegozkion gizarte-bitartekoak ere bazituen, orduko ekonomian oinarritzekoak ziren ondasun higiezinak, maiorazkoan zehaztuta datozenak: etxeak, lursailak, basoak, errotak, sagastiak, dolareak, soroak, eta errentan jasotzen zituenak, Leitzarango ordainsariak, eta hamarrenak. Horiek denak jasotzen zituen, XVI. mendera arte bederen bai. Auzotarrak beren errebindikazioan aurrera egin ahala, aldiari aldiari jauntxoen feudo-izaera ere moteltzen joango da, diru-sarrerak urritzen eta, aldiz, auzien bidez, gastuak handitzen. Herriak

Arraten bere errota egin izanak, adibidez, ondo adierazten du jauntxoa bere botere ekonomikoa galtzen ari dela, sektorean zeukan monopolioari lehiakide berria sortu zitzaio-lako, Juan Martinez jauntxoak berak espreski aitortzen duen bezala.

I. M. Carrion-ek (1975, 68-72), Berastegiko jauntxoez ari dela, pasarte batean “resistencia señorial o feudal” dio, eta handik lau orrira “derechos señoriales (o si queremos feudales)”. Badirudi, erabateko iritzia ematera ausartzen ez bada ere, egiazko jauntxo feudalen kontrako auzotarren erresistentziaz ari dela. Era berean, Luis Miguel Díez de Salazar-ek ere (1997, 242), Plazaola burdinolako jabeak Juan Martinez Berastegikoari ordaindu behar zion zergaz jardutean, jokabide horri feudo-airekoa irizten dio: “destacamos su carácter servil y feudalizante”. Bada nahikoa esatea. Izan ere, jauntxo feudalen ezaugarri gehienak, edo denak, betetzen zituzten. Agian, ez zituzten sekulako ondasunak izango, baina bai feudotzat hartzeko adinakoak.

Zalantzak ez dira hor bukatzen. Berastegiko jauntxoen inguruan dauden iluntasunak gehiago dira argitasunen aldean. Mendez mende eta belaunez belaun, beren jatorria eta deitura “Verastegui” oinetxearen baitan finkatzen dituzten jauntxoen zerrenda, XIV. mende-hasieratik datorrela uste denez, luzea da eta beren genealogia, bere izen-abizenekin osatzen, zaila. Esan dezakegun bakarra da, Sancho de Berrobi eta Miguel de Izaguirre jaunek izenpetutako dokumentuan oinarrituta¹⁰⁹, hauek frogatutzat ematen dutela Sagastiberriko hirugarren semeak, Domingo Arbidetik, XV. mende-hasieran egindako “Verastegui” izeneko oinetxe horretan bizitakoak oro haren ondorengoak izan zirela, hala nola, Garcia Martinez, Ochoa Martinez, Juan

Martinez (birraitona), Juan Martinez (aitona), Juan Martinez (aita) eta honen seme Francisco Garcia. Noski, izen gehiago ere aipatzen dira Berastegi oinetxeari atxikitako Ahaide Nagusien zerrendan, mendeetan zehar, izen-abizen desberdinak agertzen dira: Garcia Martiniz de Blastegui (1330), Lope Sánchez de Berastegui (1415), Ochoa Martines de Verastegui (1467), Doña Elvira eta Doña Teresa Ochoa Iñiguez (1490), Domingo de Sagastiberri (1490), Garci Hortiz (1490), Juan Martinez (1502), Garci Martinez koronela (1512), Francisco Martinez (1579), Francisco Garcia (1601, 1667), eta abar. XVI. mendean, 1502an Juan Martínez de Berastegui agertzen da Bedaio auzoaren jabe bezala; 1512an, berriz, Garci Martinez de Berastegui ikusi dugu Belateko gudan parte hartzen. Pertsona bera ote? Hainbeste mendetan horrenbeste eten egonda, zaila da Berastegi oinetxeko jauntxoen genealogi zuhaitza osatzen.

Bestalde, testuetan behin eta berriz aipatzen den “Sagastiberri” eta “Verastegui” oinetxearen arteko lotura nola-koa zen ere ez dakigu asko. Ezta non kokatua zegoen ere.

9. Estamentuzko gizartetik berdintasunezkora

Probintzia bakoitzak zeukan antolaketa politikoaren arabera bereizten ziren herritarrak kapare bezala. Gipuzkoak bere lurralde-antolaketa politiko XV. mendean finkatu zuen, Batzar Nagusiak 1463an sendotu zirenean, hain zuzen. Harrez gero Probintziako zerga-errola, “encabezamiento” deitua, eratuko da eta bera izango da herritarren zerga-mota desberdinak –mantenukoak, eskribautzakoak, gatzarenak, burdinola-eskubideak, eta abar–, kobratzeaz arduratuko dena. Honela, XV. mendearen azken laurdenetik

aurrera, Gipuzkoako hiriak zerga-salbuespenak lortzeko bidean jarri ziren. Zerga-salbuespen hauek, antza, Gaztelako Koroari egindako zerbitzu eta mesedeen ondorioz, sari gisa, lortu bide zituen Probintziak.

Zerga-errolda hori Felipe II.ak 1561ean berrestzen du. Badirudi lehengo Ahaide Nagusiek garrantzi handia eman ziotela gertakari honi, hainbestekoa ezen zerga-salbuespen honi egozten baitzaio Ermandadeak aldarrikatutako berdintasunezko erregimenaren erabateko sendotzea. Ustez Berastegiko jauntxoarena den XVII. mende-hasierako pasarte batean irakurtzen denez, Gipuzkoan zeuden zergapeko etxe askok Errege-Koroari egindako zerbitzuengatik lortu zuten zergak ordaintzetik aske izatea:

“Que había en la dicha provincia de Guipúzcoa otras muchas casas pecheras y el estado de ellas comenzó a confundirse en el encabezamiento general de alcabalas, que tiene la dicha Provincia en 4.000 ducados por cada año, en recompensa de servicios fechos a la Corona real, con que los señores reyes de Castilla se dignaron de eximir de todo pecho, tributo y contribuciones. que, en cualquier forma y cualesquiera personas de la dicha Provincia les fueron debidos y de ello resulta no pagar pechos”¹¹⁰.

Zerga-erroldaren orokortzeak ekarri zuen, azken batean, zergapekoak oro berdintzea. Horregatik, Berastegiko jauntxoak samintasunez aitortzen duenez, Gipuzkoako gizarteak, Gaztelakoak ez bezala, estamentu-izaera izateari utziko dio. Hor islatzen da Ahaide Nagusien klase-kontzientzia.

II

LEHEN KARLISTADAN (1833-1839)

Ikusten etorri garen bezala, Berastegi oinetzekoen jauntxo-botereak, bandokideen arteko borroka-garaian ez ezik, geroago ere luzaz jarraitu zuen bere eragina izaten beren ganaduak Leitzarango sarrietan bazkarazten zituzten herriko abeltzainen baitan eta, maila orokorrago batean, herriko eliz patronatuaren inguruan. Kasu isolatu batzuetan, Probintziako politika militarrean parte aktiboa hartzen ere ikusi ditugu. Oinetxe horretako leinukoek gidatu zuten herriko udal-politika eta, hein batean, baita elizari zegokiona ere. Leitzarango Ollokiegi burdinolaren jabetza eta kudeaketan horien izenak agertzen dira.

1. Foruen arazoa Euskal Herrian

Orain arte deskribatuz etorri garen Euskal Herri zaharra –bere diru-iturriak nekazaritza, artisautza, burdingintza eta merkataritza klasikoan oinarrituak zeuzkan hura, alegia–, gainbehera etorriko da industrigintza eta honek

dakartzan gizarte-aldaketak ezarriz datozen heinean. Bi gerra karlisten arteko epealdian hasten dira handitzen hiriak eta industriguneak, trenbide-sareak adarkatzen, automobilen zako errepideak egiten, edo moldatzen. Orduan hasten da, orobat, langileria lehen sektoretik bigarrenera aldatzen, gizarte-mugikortasuna azkartzen, honen ondorioak XX. mendeko lehen hamarkadetan nabarmenduko badira ere.

Karlistadak, hain zuzen, gizarte tradizionalaren arrokan gertatzen den pitzaduraren isla dira, hiri-gizarteak nekazal gizartearen bihotzean irekitzen duena. Liberalismoak bereganatuko du gizarte sekulartuaren ikurra; tradizionalismoak, aldiz, gizarte teokratikoarena. Krisi ideologiko honen adierazle gardena izango da gerra horietan kleroko sektore batek hartzen duen protagonismoa, erlijioaren kausari ematen zaion lehentasuna, Santa Kruz apaizaren kasuan ikusiko den bezala.

Karlistadek beren sorrera Espainia monarkikoan badute ere, haien funtsa ezin da mugatu soilki dinasti arazo hutsera, Euskal Herrian bederen ez, hemen, zeuden egiazko arrazoi ekonomiko eta ideologikoez gain, foruen arazoak beste inon ez bezalako garrantzia hartu baitzuen. Batzuek Karlistaden aroari “prenazionala” deitu izan diote. Sabinismoak hortxe du, hain zuzen, bere abiapunturik hurbilena. Foruzaletasunaren partikulartasunak ematen dio bere espezifikotasuna euskal Karlistaden historiari. Foruen aldeko aldarri ozena izango da, hain zuzen, Berastegiko Jose Antonio Muñagorriren altxamendu militarra.

Karlistaden atalean eta Berastegiren historiaren barruan, bi izen propio sartzan ditugu, Jose Antonio Muñagorriena eta Santa Kruz apaizarena, biek izan baitzuten beren protagonismoa bi gerra horietan, ez bakarrik Euskal Herri

osoan, baita Berastegin ere. Muñagorri bertako semea izan zen; Santa Kruz, aldiz, Elduaingoa, baina auzo-herrikoa izateak bere hurbiltasuna ematen dio kasu honetan. Bi izen hauek batera ekartzeak, gainera, bi gerren arteko hariak lotzeko parada ematen du. Honela, ez hain urrutiko gerra haiek mendi artean ezkutatutako Berastegiko haran hartatik nola bizi zituzten ikusteko modua izango dugu. Bestalde, Muñagorri hil eta hurrengo urtean jaiotzen baita Manuel Santa Kruz, honek lagun diezaguke gertakizunen kontakizunari segida ematen.

2. Jose Antonio Muñagorri Otaegi eskribauaren aldarri politikoa: Bakea eta Foruak (1794-1841)

XIX. mendean, Berastegiko jauntxo-leinukoen eragina galtzen denean Bedaio auzoa beste esku batzuetara pasatzean, leinu horren historiarekin zerikusirik ez duen beste izen bat jalgitzen da herrian, hots handiz jalgitzen ere, Espainia osoan entzuteko modu zolian, lehen Karlistadako azken urteetan.

Espainiako Fernando VII.a erregea 1833ko irailaren 29an hiltzean, Maria Kristina alargunak segituko du gobernatzen, erregeorde bezala, harik eta bere alaba Isabel adin nagusira helduko den arte. Erabaki honetan liberalak alde zituen bitartean, karlistak, lege salikoak emakumeen tronuratzea galarazten zuela argudiatuz, defuntuaren Karlos Maria Isidro anaia errege izendatzearen aldekoak agertu ziren. Espainiari bakarrik zegokion ondorengotza dinastikoan izan zuen bere sorrera lehen Karlistadak, baina azkenean Euskal Herria bete-bete harrapatuko du karlisten eta liberalen arteko gerrak. Berrero ere, lehen bertako

bandokideen arteko borrokekin gertatu bezala, 1833tik 1839ra luzatzen den gerra hau anaien arteko gerra bihurtuko da Euskal Herrian.



Jose Antonio Muñagorri (*Aidanen*, 2004, 24)

Bila joan gabe, egoerak behartuta, gerra honek zepoan harrapatu zuen Jose Antonio Muñagorri Otaegi. Hondamena baino ez zekarren eta luzatzen zihoan gerra hari bukaera eman nahirik, gizon armatu batzuekin gerra-zelaira atera zen, “Bakea eta Foruak” aldarrikatuz. Honela zioen

Berastegin 1838ko apirilaren 18an nafarrei eta gipuzkoarrei zuzendutako haren proklamak:

“Hace cinco años que la desolación y la muerte pesa sobre nuestra patria. La sangre vertida en nuestros campos es la sangre de nuestros hermanos, de esos valientes que seducidos y engañados por intrigantes combaten por un príncipe cuyos derechos a la corona de España son muy dudosos. ¿Qué pedís? ¿Por qué combatís? ¿Por quién? ¡Paz y fueros! Tal debe ser nuestro objeto. Si ambiciosos desean el trono, allá se las hayan. La Navarra, las provincias vascongadas, unidas por tantos vínculos de amistad, de sangre, de costumbres, de libertades, son desde ahora independientes. Desde hoy no somos ya los esclavos de esos miserables acostumbrados a mandar como señores y a enriquecerse a expensas de los pobres. ¡A las armas! ¡Viva la independencia! ¡Paz! ¡Libertad! ‘Obediencia a las nuevas autoridades!’”

Proklama hori zabaltzen zuen aldi berean, don Karlos erregegaiari gutun bat igorri zion, honi euskal lurraldea utz zezala eskatuz:

“La felicidad de mi país me ha prescripto un deber sagrado. Ambas me impelen a buscar los medios de poner término a la guerra civil, a esta plaga que todo lo destruye sin objeto ninguno y sin escuchar la voz de la clemencia. Treinta mil familias han desaparecido de nuestro suelo y otras cien mil se hallan reducidas a la más horrorosa miseria. Esta desolación, estas desgracias nos han venido por vos (...) V. A. R. conocerá fácilmente que le es preciso salir de estas provincias, vos y vuestros consejeros las habéis convertido en un desierto, habéis sembrado en ellas el luto y hacinado a montones de

cadáveres. Abandonadlas pues cuanto antes. Si tenéis derechos a las personas y que nosotros navarros y vizcaínos no hemos reconocido jamás a otros reyes que nuestros fueros y nuestros privilegios. ¿Vos queréis reinar? Marchad pues a las provincias que os puedan reconocer por rey, pelead con auxilio de los hombres que os crean con derecho al trono, que decida la espada entre vos e Isabel, entre vos y todos los demás pretendientes, pero no contéis más en adelante con los esfuerzos de las provincias exentas (...) Abandonad el suelo de Navarra, marchad señor, nosotros queremos disfrutar de un día de descanso, llevad a otra parte vuestras máximas de destrucción...”.

Bere aldarrikapenak bere herritarren artean arrakasta izan zezan, Euskal Herri osoan zehar zabaldu ziren bertso-paper batzuk argitaratu zituen, seguru asko Donostiako Barojaren etxean. Nork eginak? Ez dakigu, baina pentsa dezakegu bertso-jartzaileren bati enkargatuko ziola, orduan usadioa zen bezala. Ahapaldietako batek honela jasotzen du bere asmo nagusia:

Pakea eta fueroen bandera zuria
ona emen anaiak
beagun guztia
Karlosekin or daude
Gerra ta katea
Emen libertadea
Poza ta pakea.

Beste honetan, berriz, Hego Euskal Herria eta Espainiako lurraldea oso argi bereizten ditu. Foruak errebindikatzean, Hegoaldeko lau lurralde historikoak dauzka gogoan:

Pakea ta fueroak
da gure bandera
gure anaia maiteak
atozte onera,
nafarrak, alabesak,
giputz, bizkaitarrak
atozte guregana
gazte eta zarrak!

Kopla horiek Benito Lertxundik aireratu ditu kantuz, haren orduko ideia politikoa ezagutzera emateko-edo. Muñagorrik, bere proklamarekin, lehen Karlistadaren historian orri berri bat idatzita utzi zuen, batez ere euskal herrietan, eta Berastegi herriaren izena ere harenarekin batera zabaldu zen.

Muñagorriren mezu foralistak argia dirudi: Foruak Euskal Herriarentzat eta erregeak Espainiarentzat. Goiko gaztelaniazko lehen bi testuak irakurrita, esan liteke egungo abertzale independentista baten moduan mintzatzen dela, batetik, Nafarroa eta euskal Probintzien independentzia aldarrikatuz eta, bestetik, gerra hau, ez Euskal Herriarena, baizik Espainiarena dela baieztatuz. Bestalde, lurraldeari dagokionez, Hegoaldeko Euskal Herri osoari zuzentzen zaio bere aldarrikapenean, Ipar Euskal Herriaren salbuespenarekin.

Hala ote? Testuen irakurketa formal batean, bai. Baina, jakina, testu horiek bere testuinguru jakin eta zehatzean hartu eta ulertu beharrekoak dira. Jakin behar da Muñagorriren asmoa zein zen, zergatik eman zuen urrats hori, eta beste zenbait galdera ere egin daitezke. Lehenago, ordea, esan dezagun nor izan zen, zein lanbideri lotu

zitzaion, bere bizitzaren inguruko xehetasun hauek guztiek zenbait puntu argitzen lagunduko digute-eta.

Berastegiko Elutsenean jaio zen 1794ko apirilaren 2an. Haren aita, Jose Antonio Muñagorri Larburu, eta aitona ere, Juan Bautista, errege-eskribauak izan ziren, eta halaxe izan zen Jose Antonio Muñagorri gaztea ere, eskribaua edo, gaur deituko geniokeen bezala, notarioa. Hogei urterekin esposatu zen Joakina Labaienekin, Hernaniko alabarekin.

Esan bezala, ikasketaz notarioa bazen ere, berehala lanbidez negozio-gizon bihurtu zen eta herrian bertan, Leitzaran bailarako burdinolak, basoak eta meatzeak errentan hartu eta ustiatzeari ekin zion. Zehazki, Ameraun, Ollokiegi, Plazaola, Urto eta Zumarristako burdinolak ustiatzen zituen. Lehen Karlistada hasi hurrean, 1832an, Gasteiz eta Irurtzunen arteko bidea egiten ere jardun zuen kontratista bezala. Negozio-lanetan jarraitu zuen, bada, 44 urterekin bere 1838ko “proklama” aldarrikatu zuen arte.

Gerra zibilak ukitutako gerra nahasi hartan parte hartzeko erabakia hartu zuenean, ez zen norbaitek burua berotzen zion mutiko zoro eta itsu horietako bat –sarritan militante sutsu batengatik esan ohi den bezala–, gizon heldua baizik, doan lekura zergatik eta zertara doan dakien batena baizik. Gizon ikasia eta informatua zen. Ezagutzen zituen Frantziako Iraultza handiak ekarritako ondorioak. Baita haren ondoko gertakariak Europa osoan zehar eta Espainian izan zuten eragina ere. Muñagorri gazteari oso hurbilak egiten zitzaizkion, bereziki, Frantziak Espainian bere erregimena ezartzeko egindako bi inbasioak, Napoleon Bonaparterena 1808an eta Luis XVIII.arena 1823an, eta bazekien Euskal Herria gerra horietan barruraino sartuta egon zela, Espainiaren kausa Euskal Herriarena balitz bezala

hartuz. Bitarte horretan, Cádiz-en konstituzio liberala aldarrikatu zenean 1812an, hain zuzen, euskal politikariak bi aldetan banatu ziren, batean liberalak eta bestean kontserbadoreak. Azken batean, Espainiako politikan agintzen zuen sistema politikoaren parametroak erreproduzitzen ziren euskal politikan ere eta testuinguru honetan piztuko da lehen Karlistada. Txinparta azalera aterako duena izan, lege salikoaren arazoa izanen da, horrela esanda, arazo soilki monarkikoa; errautsen azpian itzaltzeke zegoena, ordea, lehendik zetorrena zen, liberalismoaren eta absolutismo monarkikoen arteko borrokan gauzatzen zena. Eta Espainiaren aldetik, oro har, independentziaren ikurra frantziar inbasioen aurrean. Independentzi gerrakoan, arazo ideologiko soilen gainetik, nazio-askatasunarena zeukan ezarria garbiki. Euskal Herriarekiko, ordea, menpekotasun garbigarbia ez bazen, uztarpe mozorrotua bederen bai, foruak gorabehera. Foru-arazoa erabat arrotz zitzaion ezkerreko zein eskuineko politika espainolari, lehen Karlistadan, Euskal Herriaren foralismoaren arazoa harrotuko denean, argi asko azaleratuko den bezala. Muñagorrik, hasieran 1838ko proklamaren edukiaz jardutean zertxobait aurreratu dugun bezala, bi xede zituen finkatuak. Lehenengoa, oinarritzkoa, Euskal Herriaren interes espezifikoak eta Espainiako monarkiarenak errotik bereiztea eta, ondorioz, foru-erregimenari eustea; banaketa hori egin eta gero, bigarrena, euskal lurraldetik Karlos erregegaia ohiltzea eta gerra bukatutzat ematea. Horregatik, Muñagorrik euskal foruak errebinkatzen zituenean, bazekien zertaz ari zen. Egun nazio-arazoa deitzen zaiona, orduan foru-arazoa deitzen zitzaion.

Bada, halere, Muñagorriren bizitza politikoan behar adina argitu izan ez den argi-ilunezko zokogunerik. Negozio-

munduan zangoraino murgilduta egonda, nolatan bururatu ote zitzaion hain ur nahasi eta lohitsueta zipriztintzea? Zergatik joan ote zen gerrara, eta hain berandu?

Zalantzarik ez da arrazoi garbiki ekonomikoengatik sartu zela saltsa horretan. Izan ere, ikuspegiz zein joeraz liberala zen, lagunak ere hala zituen, horien artean Gipuzkoako korrejidore liberala izandako Jose Manuel Zabalaren, Villafuertes-ko kondea deituaren, semeak. Baina Berastegi karlisten lurraldean kokatua zegoenez eta bertakoak halaxe zirenez gero, hauen aldeko agertzea behartua zegoen (Bidador, 2002). Muñagorrik kausa karlistaren zerbitzura jarriak zeuzkan bere burdinolak eta Zumalakarregik berak behin baino gehiagotan bisitatu omen zituen. Gertatu beharrekoa gertatu zen: gerra luzatzen joan ahala, haren ondorioak Muñagorriren ekonomi hondoa zulatzen joan zirela, arrazoi nagusien artean, karlisten intendentziak bere ordainketak gero eta atzerapen gehiagorekin egiten zituela eta, ondorioz, bere langileei ordaintzeko dirurik ez zuelako. Asko ziren berarentzat lan egiten zutenak: olagizonak, egurgileak, ikazkinak, mandazainak eta jornalariak. Gerra-egoerak eraginda zorpetuta egoteak –bere negozioen porrotak, alegia–, eraman zuen Muñagorri erabaki drastiko hori hartzera, gerraren bukaera –azken xedea–, ustez bakea furruekin nahastuz erdietsiko zuelakoan eta behingoz bere lehengo egoerara helduko zelakoan.

Helburuak balio zezakeen bitartekoetan asmatu izan balu. Bere asmoa aurrera eramateko ezinbestekoa zitzaion bando batekoekin eta bestekoekin hitz egitea eta alde biak adostasun-bidean jartzea. Horretarako, lehendabizi, Iturmendin elkartuta zeuden buruzagi karlistak –hauen artean Arabako Bruno Villarreal–, gerra bukatzearen komenientziaz

konbentzitu nahi izan zituen, baina alperrik. Hauek entzungor egiten ziotela ikusita, liberalekin jarri zen harremanetan, Gendulain-en bidez Torenoko kondearekin eta, azkenean, lortu zuen Madrilen Bardají Azara lehendakariarekin mintzatzea 1837ko azaroan. Honek, bai, onartu zuen bere proposamena, hori gauzatzen joateko miloi errealeko subentzioa eman ere bai, bere altxamendua bultzatu eta armada karlista ahultzeko, eta, honela, gerrarekin bukatzeko baldintzapean. Bere proklama aldarrikatu aurretik, bada, emanda zeuzkan lehen urrats horiek, lortua zuen gobernu liberalaren ezkutuko babesa.

Bihotzez eta buruz liberala zen baina halabeharrak karlista egin zuen hark bide berri bat hasiko du 1838ko apirilean. Bando bietan borrokatzen ziren soldaduei deitu zien bakea lortzeko berarengana bil zitezten. Bere langileak izandako batzuk eta desertatutako beste karlista batzuk baino ez zitzaizkion inguratu eta horiekin osatu zuen bere armada txikia, xumeetan xumeena.

Bere altxamenduak, ordea, arrakasta koxkorra izan zuen. Buruzagitza karlistak berehala erreakzionatu zuen eta, bere gizon armatuekin, ihes egin eta Saran aterpetu zen. Handik, jarraitzaile berriak egiteko asmoz, hasieran aipatu ditugun koplak zabaldu zituen, bere mezu politikoa, bakea eta foruak, euskaraz mintzatzen zen herritar soilengana errazago hel zedin. Gobernu liberalak handikien batzorde bat sortua zuen Baionan, hain zuzen ere, espreski Muñagorriren altxamenduari laguntzeko. Jaun hauek ziren batzordekideak: Villafuerstesko kondea Gipuzkoatik, Iñigo Ortes Belasko Arabatik, Pascual Uhagon Bizkaitik eta Jose Maria Bidarte Nafarroatik. Ekintza erbestetik zuzenduta, Muñagorriren tropek Lastaola hartu zuten, Bidasoa arroan Bera

eta Irunen artean dagoen ingurunea, eta bertan finkatu zuten beren kanpamendua, arriskurik egonez gero ibaia zeharkatu eta Saran babestu ahal izateko moduan. Eta instrukzioa, berriz, Gaspar Jauregi eta Lord Hay militarrek ematen zieten. Bigarren sarraldia Dantxarinetik egin zuten, Urdazubiraino, eta Olaburun Nafarroako II. batailoia hartu zuten preso. Baina gero guztiak libre utzi zituzten, beraiek ere liberalekin portaera bera izan zezaten eskatuz. Bi horiek baino lehenago, beste sarraldi bat ere egina izan behar zuten, 1838ko azaroaren 5ean hain zuzen, Endara, Bianditz eta Artikutzatik barna Goizuetaraino joanez.

Zenbat sartu-irtenaldi egin zituzten jakiteak hainbeste garrantzirik ez du, zeren, azken batean, nabarmendu beharrekoa Muñagorriren altxamendu militarren erabaketezko porrota baita. Erabat bakarrik geratu zen. Alde bietatik, gainera. Liberalek, beren aldetik, ez zuten bete emandako hitza. Nahiz Madrilgo gobernuarekin bere adostasuna lortu, buruzagi liberalek ez bide zuten begi onez ikusi Muñagorriren proposamena, beren tropetan desertoreak ugaltzen baitzihoazen. Horregatik, O'Donnell-ek Luzaide hartzea debekatu zion. Bestalde, gerra bukatu eta gero, Espartero Madrilgo gobernu-buru izatera iritsi zenean, euskal liberal moderatuak matxinatu egin ziren, eta gure Muñagorri ere hantxe zebilen haiekin batera. Zergatik matxinatu ziren? Tronpatuak sentitu zirelako. Foru-Diputazioen eta Batzar Nagusien ezabapena baitzekarren 1837ko irailaren 16ko dekretuak, hori indargabetzea zen Baionako batzordekideentzat beharrezkoena, eskakizun hori zelako herritarren artean zabalduena. Baina Madrilgo gobernuak zioen berari bakarrik zegokiola foruen arazoa konpontzea, ez beste inori, eta horixe ezarri zen Bergarako

besarkadan, xedetzat nola edo hala estatu espainolaren zentralismoa indartzera zettorrena, Frantziako estatu-nazioaren ikuspegi jakobinoaren eredura. Honek, noski, euskal foruak ezabatzea inplikatzan zuen, artean beren foru-eskubideen jabe ziren Espainiako lurraldeak oro –zehazki Euskal Herrikoak–, maila juridiko eta instituzionalean berdintzea, eta xede nagusi honen aurrean beste arazoak oro –adar kontserbadoreen eta liberalen arteko hika-mika ideologikoak barne–, bigarren mailara pasatzen ziren Espainiako politika orokorrean.

Gerra-garaian, bere altxamenduaz geroztik, batzorde karlistak bere eskribau-kargua eta gerra aurrean ustiatzen zituen burdinolen gaineko eskubide guztiak kendu zizkion.

Gerra bukatutakoan, Muñagorri berriro lehengo lanbidera itzuli zen, Eratsungo “Sumarrieta” izeneko burdinola ustiatzera. Baina laster, 1841eko urriaren 14an, Leopoldo D’Donnell jeneral liberalaren ofizialeko batek, Ramon Elorrio Soroeta tenienteak, bere bost soldadurekin Zumarristara joan-eta, tiroz hil zuen Pillotasoroko gaintxoan, 47 urte baino ez zituela. Hango zuhaitz batean tinkatua dagoen gurutzeak esaten du non izan zen gertakari hits hura. Joakina alarguna hiru seme-alabekin geratu zen, Luisa, Klaudio eta Erramonarekin. Bukaera tristea. Ehorzketa Eratsungo elizan egin zitzaion eta haren gorpua bertako hilerrian datza.

Hiltzailea Betelukoa zen, umetatik bere laguna izandakoa, gainera. Zergatik hil zuen galdetu izan da. Batzuek –hauen artean Antonio Maria Labaienek–, hiltzailearen izaera zikoitza aipatzen dute arrazoi nagusitzat, hala nola, zazpi urteko gerra hartan teniente izatera iristeak eman zion harrotasuna, Muñagorriri aspalditik zion gorrotoa, bere

izena ezagutzera emateko zeukan irrika, eta horrelakoak. Beste batzuek, berriz, diote muñagorritarrak inplikaturik egon zirela liberekin Karlos erregea Azkoitia bahitzeko egin zuten plangintza eta hor bilatu behar dela zergatia. Ekintza hori aurrera eramateko izendaturik, hain zuzen, Ramon Elorrio sarjentu liberala omen zen. Hau, talde txiki batek lagunduta, Zumaiako portuan lehorreraturik zen eta, ordu gutxitan kolpea eman-eta, berriro etorritako lekutik ihes egingo zuten, beti ere Lord Hay-ren fragatarekin kontatuz. Komodoro ingelesari, ordea, debekatu egin zion bere gobernuak horrelako ekintza baten parte hartzea eta pentsaturik zegoen bahiketa-asmotan bakarrik geratu zen. Porrotaren errudun, antza, Muñagorri egin bide zuten Elorrio militarrik.

Asmatu ote zuten Muñagorri egingarriko bere aukeran? Bai eta ez edo, egokiago agian, ez osotara. Erabat asmatzen du foru-arazoa eta arazo dinastikoa errotik bereiztean, azken hau ez baita inondik ere euskal politikari dagokiona, garai hartako egoera politikoa espainolari baino. Foruen aldeko sentimendua herri soilean –bereziki, nekazal girokoan–, benetan errotua zegoela jakiteko ez zegoen gaizki kokaturik bere sorterrian bertan eta inguruko nafar herrietan. Muñagorriren foruzaletasuna ezin da inola ere zalantzan jarri. Bego hori garbi esanda.

Baina, bakea aldarrikatzen zuten aldi berean, gerra dinastikoa hartan benetan arriskuan zeuden foru-instituzioen jarraipena bermatzeko bitartekoak eta xedeak formulatzean, gure ustez, ez zuten asmatu. Hara zergatik.

Lehenik, bere proklaman Karlos erregeari, behingoz euskal lurraldea utzi eta kanpora joan zedila eskatzen dio, argudiatuz Euskal Herriak ez zeukala Koroaren ondoren-

gotzarekin zerikusirik. Arrazoi beragatik, ez bakarrik Karlosi, Isabelen aldeko buruzagi liberaleri ere eskabide berbera egitea zegokion. Liberalak akaso karlistak baino foruzaleagoak iruditzen al zitzaizkion? Horrela pentsatzeko ez bide zeukan datu objektibo askorik begien aurrean; biez mesfidatzeko, askoz gehiago, zalantzarik gabe. Alde bateko zein besteko buruzagi militar haiek Espainiaren kausa zeukaten buruan. Zumalakarregi euskaldunak ere bai? Hau ere Espainiako armadako buruzagi militarra zen eta honek ere —bere ñabardura guztiekin nahi bada, baina—, Euskal Herritik harago, Espainia osora begiratzen zuen. Harentzat ere, lehen Karlistada hura, odoltsuen euskal lurra gertatu bazen ere, funtsean, gerra espainola zen, eta izan zen.

Bigarrenik, bere aldarrikapenaren ardatza da bakearena. Erabat ulergarria berak bizi zuen testuinguru bortitzean. Erabat zorpetuta, inoiz bukatzen ez zen gerra hartaz nazkanazka eginda, basamortuan ur freskoa bezain beharrezkoa zitaion bizitza normaldura itzultzea. Eta bakearen aldarrikapena egitean, zalantzarik gabe, herritar xume gehien-gehien ahotsa jasotzen zuen. Foruak ziurtatu eta bakea lortzeko bitartekoak hautatzerakoan, ordea, berak ere borroka armatura jo zuen. Eta honek gogoeta bikoitza egiteko bide ematen digu, erori zen kontraesanen sarean hariak kontuz-kontuz banatu beharra baitago.

Bakea lortu nahi-eta, borroka-zelaira jende armaturarekin atera? Zergatik hautatzen du bide hori? Ez al zeukan eskura beste bat eraginkorragorik? Galdera honi erantzun behar zaio. Hau batetik eta, bestetik, borroka armatuaren bidetik arrakasta izateko zein neurriko aurreikuspenarekin? Kontua da bere deiak ez zuela erantzun masiborik izan, arras mugatua baino, eta aski berehala egin zuela porrot.

Beste hirugarren galdera bat ere egin daiteke: egia da, alderdi bietako buruzagiekin mintzatu zela, baina, azkenean, gelditu liberalekin gelditu zen. Ez zuen lortu euskal politikan hirugarren esparru autonomo bat irekitzea, bando bietatik garbiki bereiz zitekeena. Agian, egin zuen baino gehiago ere ezin egin zezakeen.

Horregatik –eta azken puntu honetara etortzeko egin ditugu aurreko ohar horiek–, guztiz lekuz kanpo dago, batzuek egiten duten bezala, Agirre, Irujo, Landaburu, Lasarte, Galindez eta beste hainbat jeltzaleren jokabidea eta orduko Muñagorrirena lerro berean kokatuz gero, segidan gaineratzea horiek guztiek bakearen, normalizazioaren, adiskidetzaren, autogobernuaren, burujabetzaren, subiranotasunaren alde jokatu zutela, baina beti bakezko bideak erabiliz. Eta hori esatean, noski, ETaren jarrera salatzen da (Bujanda, 2006). Orduko eta oraingo testuinguruak ezin dira hain erraz nahastu eta horrelako ondorio deitoragarriak atera. Galdera latza, oinarrizkoa, da nola lor daitekeen guztiok hainbeste desiratzen dugun bakea bortxarik gabe, jakinda gizarteko harremanetan gatazka-egoera iraunkorra nagusitzen dela, gizartearen izaera horixe dela, eta legezko erakunde politikoak, azken batean, hauek ere erabakigarri gertatzen den bortxan oinarritzen direla. Legezko urez bedeinkatu eta sakratutzat joa izango da, baina bortxak bere izateari uzteke. Bortxa, legezkoa izan ala ez, beti da bortxa. Eta zapaltzailearena denean, berriz, are deitoragarria. Politika orok du bere etika.

Noski, sakoneko gatazka-egoerari unean uneko atarabidea emateko, gizarte-harremanen nolakoa adostu egin behar da, baina adostasunera iristeko bitartekoetan auzitan dauden alderdiek aukera-berdintasuna izan dezaten, ez

dezake botere hegemonikoak estatuaren legezko bortxa monopoliza eta bere menpekoen eskubide-aldarrikapenak isilaraz, ezta herritarren artean bere sostengu soziopolitikoaren duen indar armatuaren presentzia terrorismotzat har eta kriminaliza ere. Bortxa deitoratzekotan, kasu bietan, nola legez ezarritakoan hala ez-legezkoan deitoratu beharko litzateke, kontuan izanda kasu bietan, azken batean, legeari legitimitatea ematen diona herria bera dela, ez boterea. Barasoingo Azpilikueta nafar doktoreak “regnum non regis” zioen, euskarara “herriak du boterea” emanda datorrena bere sortetxeko oroitarrian. XVI. mendeko Europan izar handienetako bat izandako kanonista eta teologo honen urrezko esaldi horrek erabateko gaurkotasuna du.

Izan ere, menpekoei bere zapalkuntza-egoeratik ateratzeko egiazko biderik eskaintzen ez bazaie, adostasunaren emaitza hitz soilen indarrean uzten bada, zapalkuntza-mota orok bere horretan segituko du, inolako aterabide errealik gabe. Estatuaren izateko eta irauteko lehen eta azken baldintza, ez arrazoia-aren indarrean, baizik bortxaren arrazoian datza. Oinarri-oinarrizko puntu honetatik abiatuta, has gaitzke bortxa instituzionalaz eta ez-instituzionalaz eztabaidatzen, bakearen eta gatazkaren arteko harremanez galdetzen, adostasun-beharraren gutxieneko baldintzez zehaztapenak ematen, herritarren egiazko beharren eta horiek ordezkatzeko dituzten klase politikoen interesen arteko loturak harilkatzen.

Gure berastegiarraren lekukotasunak gisa horretako planteamenduak egiteko aitzakia ederra ematen du. Izan ere, lehen Karlistadak utzitako ondorioak ikusita, esan dezakegu gailendu ziren interesak ez zirela izan herritarrenak, botere hegemonikoen interesak baizik, bidean

milaka hildako utzita, bazterretan zorrak eta miseria. Eta, oro har, galtzaile handia, Euskal Herria. Euskal foruen defentsa zegoela jokoan, eta hori karlistek bermatzen zutela? Espainian orokorrean liberalak zein karlistak euskal foralismoaren kontrakoak ziren, eta hori ondoenik Bergaran 1839ko abuztuaren 30ean Espainiako armadako Maroto eta Espartero jeneralek antzetzutako besarkada traidorean islatu zen. Besarkada hori burutu baino lau hilabete lehenago, maiatzaren 19an, Esparterok Hernanin euskal foruen defentsa egin zuen, esanez ez zirela ezabatuak izango: “jamás se ha pensado en despojaros de ellos” (Estella, 1979, 284). Baina estatu espainolaren zentralismoa ezartzeko bidea irekita utzi zuen, 1839ko irailaren 11n ondoko 1. artikulua bozkatu baitzen Madrilgo Gortetara aurkeztutako lege-proiektuan: “Se confirman los fueros de las Provincias Vascongadas y Navarra, sin perjuicio de la unidad constitucional de la monarquía” (Estella, 1979, 287). Maroto-ren xedea ere, azken batean, horixe bera zen: behingoz Espainia osoan estatu-zentralismoa ezartzeko bideak irekitzea.

Karlosek, bere ihesian 1839ko irailaren 14an muga zeharkatu aurretik, Maroto-ren traizioa salatu zuen, Bergarako hitzarmenari “infame venta” deitzen ziolarik (Estella, 1979, 81-283). Hobe zukeen isil-isilik erretiratu izan balitz, eta bere burua lurpean ezkutatu balu, berak ere ez baitzitu sekula aipatu izan euskal eskubideak edo, zehatzago esanda, euskal foruak. Euskal Herrian, gerra piztu zenean, hiritarrak liberalen aldekoak ziren, nekazariak, aldiz, karlisten aldekoak. Gipuzkoa, Donostia hiriburua salbu, karlisten alde atera zen. Bertakoa zen Tomas Zumalakarregi jenerala, Ormaiztegi seme euskaldun peto-petoa, baina

hau ere orduko buruzagi militar guztien antzera, Espainia-ko armadako partaide bat gehiago izan zen.

Euskal Herrian lehen Karlistada honetaz egiten den irakurketa klasikoan, oro har, tradizio foralistaren edukia modu antitetikoan formulatuta etorri zaigu: karlistak ziren foruzaleak eta euskaltzaleak; liberalak, aldiz, kontrakoak. Gauza jakina da, ordea, eta egiaztatua, liberalen artean ere bazirela foruzaleak eta euskaltzaleak Euskal Herrian. Behar bada neurri apalagoan, baina baziren.

Foralismoaren ikurra karlistek monopolizatzeke joeraren beste ertzean, batetik tradizio eta erlijioaren eta, bestetik, aurrerapen eta laizismoaren arteko lehia ideologikoaz egiten den irakurketa dago, jokoan zegoen arazo nagusizat antitesi hori ezarriz. Zalantzarik ez da elementu ideologiko horrek bazuela bere garrantzia, baina bere neurrikoa, horren gainetik baitzegoen lehen aipatu den xede politikoa, zeina baitzen indarge zegoen estatu espainolari behingoz zentralitatea ematea eta Espainiako populazioa bere osotasunean homologatzea. Gerra bukatu baino lehenago ere, Madrilgo Gorteetarako konstituzio bat prestatzen ari zirenean, jadanik asmo horiek indarrean zeuden. Horretaz argiro jabetu zen Paskual Txurruka jauna. Honek, 1837an Argüelles, Olozaga eta Gómez Acebo politikari espainolei egindako gutun batean, esaten die, gerra honetan, Euskal Herrian zehazki, arazo politikoa –foruena– nagusitzen dela, ez ideologikoa:

“¿Por qué luchan los vascos? Dícese por algunos que la guerra de las provincias del Norte es guerra de principios y no guerra de fueros; pero yo les contesto que los naturales de Vizcaya no se matan porque triunfen principios de absolutismo y de tiranía, sino porque los

ambiciosos y los agentes del fanatismo les hicieron y continúan haciendo creer que iban a perder sus fueros. Esta es la base sólida y terrible de la guerra de estos países..” (Estella, 1979, 282).

Betikoa: seguru asko, herri xeheak halaxe uste izan zuen. Eta bizi.

III

AZKEN KARLISTADAN: FORUEN ERABATEKO ABOLIZIOA (1872-1876)

Azken gerra honek lau urte iraun zuen, 1872tik 1876ra eta, aurreko gerran bezala, berriro anaien arteko odola isuri zen, oraingoan ere Espainiari zegokion kausa batean sartuta. Independentzi gerra (1798-1814) Espainiak Frantziaren kontra egindakoa izan zen, naziotik naziora, estatutik estatura egin zena, eta Euskal Herriarena ez zen gerra horretan ere euskaldunek parte hartu zuten. Azken batean, nazio-arazoaren kontuan zer ikuspuntu erabiltzen den, horretan datza giltza. Nazio-arazoa estatu-zentralismotik begiratzen bada, noski, nazionalismo periferikoen errebin-dikazioak eta herri-mugimenduak modu negatibo eta kondenagarri batez aztertu eta epaituak izango dira, zeinaren arabera bortxaren legezko erabilera monopolizatzen duen estatuak nazio zapalduena terrorismotzat hartzen baitu. Zentzu honetan, estatu zentralista eta multinazionalaren zerbitzura dauden intelektual organikoek kaleratzen dituz-

ten argitalpenetan ohikoa izaten da nazio zapalduak bideratutako herri-mugimendu askatzaileak oro kondenatu eta zapaltzea, are eta gehiago mugimenduak talde armatuetan antolatzen direnean, kasu honetan karlistekin gertatzen den bezala. Karlistak dira armetan jaikitzen direnak Madrilgo gobernuan estatu-ordezkarik diren liberalen aurka, hori hala da; ez da ahantzi behar, ordea, liberalak armatuagoak zuzendela, bere esku baitzeukaten estatu-aparatu zapaltzailearen babes erakundetua. Armada, Guardia Zibila, Gipuzkoan Mikeleteak-eta, liberalenak ziren. Karlistak indartsuen Bizkaia eta Nafarroan agertu ziren.

1. Manuel Santa Kruz apaiz gerrillariaren pasadizoak (1842-1926)

Albotik esango zaigu zergatik dakargun hemen Santa Kruz apaizaren izena, bertako semea ez izaki. Ez da ohar zozoa. Hala izanda ere, arrazoi bat baino gehiago ditugu haren memoria gurera ekartzeko. Berastegirekin batera mende askotan zehar beren herri-lurrak batera kudeatu izan dituzten auzo-herri batekoa izateaz gain, bigarren Karlistadaren garaian Berastegiren historian pasadizo jakingarriak idatzarazi baitzituen. Esan dezagun hori hasteko. Baina arrazoi nagusia, zalantzarik gabe, Andres Aldunzinen fusilamendua da, Santa Kruzi buruzko liburu batzuetan atal berezi batean jaso izan dena. Gertakari horren azalpena iritsi aurretik, ordea, goazen Santa Kruzi bere gerrilla-ibilbidean laguntzera, haren Berastegiko pasadizoak testuinguru zabalago batean kokatuak izan daitezten. Berastegiko lurra askotan zapaldu baitzuen.

Santa Kruz apaiza gerrillariak jardun izan direnek –ez bakarrik, baina, bereziki, lehengo eta oraingo euskal eta erdal liberal gehienek–, oso leku txarrean jarri izan dute haren irudi politikoa. “Ultramontano”, “montaraz”, “ultra-conservador” eta horrelako epitetoak erabili izan dituzte, horrelaxe idatzita modu isekatsu batean. Horrelako loreak euskarara ematen ez dugu asmatzen. Mendiz haraindikoa? Mendirakoa? Basatia? Euskal Herriaren historia ikuspegi zabalago eta kritikago batetik aztertzen dutenek, aldiz, Karlistadetan, kontserbadoreen eta liberalen arteko gerra ideologikoz gain –hemen batera sartuz erlijiosoak eta monarkikoak–, foruen arazoa ere planteatu zela diote, eta funtsean hori, gainera. Euskal nazionalismoak, hain zuzen, foruen desjabetzean du bere jatorria, Euskal Herriak bere subiranotasuna orduan galdu izan balu bezala. Zuzenago da esatea, galera askoz lehenagotik zetorrela, etorri, nahiz foruei azken errematea 1876an eman zitzaizen, bigarren Karlistada bukatzean. Beraz, euskal foruen atzean, zertzeladak zertzelada, euskal nazioari bere buruaz erabakitzeke daukan eskubideari buruzko arazo politikoa planteatzen da, gero eta modu ageriago eta indartsuago batean. Beraz, badu gaurkotasuna gai honek.

Herri xehearren baitan, karlista batzuen artean ere bai, ez bide zuen bildu hain fama ona. Nikolas Ormaetxeak (1991, 671) bere aita Bautista Ormaetxea Lizarraga jeneralarekin gerran ibilia zuen eta berari galdetu zion zer iritzi zeukan Santa Kruz apaiaz. Erantzuna, laburra bezain zuzena: “makur samarra izan behar zuela”. Orixeren liburuan irakurritakoak gogoan, ama Madaleni galdegin nion behin batez zer esaten zen han Elduainen beren gaztaroan. “Gaiztoa” izan zela, hala xuxurlatu zidan ahots mehe batez,

sekulakoak egin izan balitu bezala. Santa Kruz apaizak Amerikako misio-lurretan zegoela ere gaizto-famarekin segitzen zuen.

Bere sorterrian hori bazioten, zer ez zuten esango Berastegin, tartean bere aginduz hildako bat egonda? Santa Kruzen izena orrialde hauetara badakargu, berriro diogu, ez da auzo-herrikoa delako, edo bigarren Karlistadan entzute handiko gerrillaria izan zelako, baizik, eta batez ere, Berastegiren historian orrialde bat odolez tindatuta utzi zuelako Aldunzinen hilketarekin, 1873ko martxoaren 12an. Argentinara joandako haren ondorengoek oso gogoan zeukaten gertakari hura eta behin batez, ageriko suminduraz, Txomin Jakajortexarenari (1990, 303) aurpegira bota zioten, garai hartako karlismoa eta geroko nazionalismoa nahastuz bezala, biak gauza bera edo antzekoa bailiran. Ondo baitzekiten hura gerra aurreko errefuxiatu nazionalista zela.

Aldunzinen hilketa aipatu orduko, baliteke norbaitek, gehiago pentsatu gabe, lehen Karlistadan Muñagorri gertatukoa eta harena gauza beretzat hartzea. Bietan gertakaria, hilketarena da. Badute, halere, batera lotura historiko jakin bat, eta da: biak gerra karlisten barruan kokatzen direla eta koordenada politikoak, berriro ere, euskal liberalen eta karlisten artekoak direla; azken batean, anaien artekoak. Gertakari honen ingurukoak argitzen zerbait aurreratzen badugu, ahalegina ez da alferrikakoa izango.

Bagenekien Santa Kruz apaizak bere arrasto historikoak utziak zituela Berastegin, hemengo inguruetan maiz samar izaten zela, eta horrelakoak, han eta hemen jasoak. Berastegiko zaharrek badakite Manuel Inazio Santa Kruz Loidi 1842ko martxoaren 23n jaio zela Elduaingo Samonea

baserrian, aita gazterik galdu zuela, lau urterekin, eta 1866ko maiatzaren 25ean apaiztu eta gero burutu zituela bere apaiz-ikasketak. Hortik aurrerako guztia, edo ia guztia, Hernialdeko baserri batean sotana utzi zuen apaizaren gerrillari-bizitza mila istorioren lainoek estaltzen dute nekazal giroko sukalde gehienetan. Askok idatzi izan dute Santa Kruz apaiza gerrillariak, eta asko gainera, kontrakoek eta aldekoek. Iturririk fidagarriena, zalantzarik gabe, aita Ignazio Ariztimuño jesuitarena da. Hau 1917-1918 ikasurtean Kolonbiako Pasto-ko jesuiten ikastetxean egon zen irakasle eta hor ezagutu zuen Santa Kruz apaiza, biak komunitate berean bizi izan baitziren. Bere kontra esandako edo egindako salaketen gainean argitasunak eskatu zizkion tolosarrak, Aitzolen anaiak. Gainera, liburuari hitzaurrea egiteko ere eskatu zion. Lau orrialdetan izenpetua utzi zuen bere testamentua. Biografia hau 1918an hasi zen egiten eta 1932an bukatu zuen. Denboraldi luzez ilunpean egon eta gero, Xabier Azurmendik Deustuko artxiboan atzeman zuen 1979ko maiatzean eta 1986an argitaratu *El Cura Santa Cruz* izenarekin.

Ez dakigu noiz utzi ote zion aita Ignazio Ariztimuñoak originala Orixeri; seguru asko, oporraldietan-edo, Las Palmas-etik Tolosara etorri zeneko egunen batean, 1923-1930 epealdia irla horretan egin baitzuen irakaskuntza eta apostolutzan (Iztueta, 1991, 571). Orixek aita Ariztimuñoen jatorrizko testu hori eskuetan izan zuela, *Santa Kruz apaiza* liburuko lehen atala (Ormaetxea, I, 1991, 637) irakurri orduko ikusten da. Kontakizunen harian eta mui-nean, orpotik jarraitzen dio haren testuari, nahiz bere kontura egindako balorazioak badituen, batez ere, Santa Kruzen jokaerari buruz. Ahalegintzen da harena defendatzen.

Orixeren liburutxo hau bitxi bat da eta, idazkerari dago-kionez, zaila da darion ahozko tradizioaren emanagatik haren kontakizuna gainditzea.

Santa Kruzek Berastegiren historiarekin zer harreman izan duen ikusi aurretik, komeni da haren jokabidea bere osotasunean hartzea, azken gerra karlistan hark egindako ibilbidea urrats luzetan bederen ezagutzea, bestela Beras-tegiko pasadizoak gertakari isolatu gisa ulertuak izateko arriskua baitago. Ikus dezagun, bada, zein izan zen Santa Kruzen ibilbidea azken Karlistadaren bilakaeran.

Azken Karlistadan lau ekitaldi egiten ditu Santa Kruzek edo, argiago esanda, lau aldiz irteten da gerrilla egitera bere mutilekin, aldi bakoitzean porrotaren sentipen garratzare-kin erretiratzen delarik.

2. Santa Kruzen ekitaldiak gerrillan

Lehen ekitaldiak denbora gutxi iraun zuen, 1872ko apirilaren bukaeratik maiatza arte bakarrik. Bi hilabete baino ez. Bere armak data horretan uzten ditu Donezteben. Don Karlosek, Frantziako erbestea utzi-eta, Beratik altxa-mendurako deia egin zuenean, maiatzaren hasieran Re-condo koronelak gidatzen zuen konpainian kide gisa sartu zen. Egun gutxi iraun zuen konpainia honek, Gipuzkoa eta Nafarroako mendietan zehar ibiltzera mugatu baitziren, beren ibilaldian Iturriotz, Oñati, Segura, Ataungo Aia, Baraibar, Leitza, Erasuren, Beruete eta Doneztebe herri-inguruak zeharkatuz. Ez bide zuten deus lortu, nekea eta gosea baino ez, mendi garaietan elurra, eta 1872ko maiatzaren 4an Segurara iristean, berriz, ihesaldi itzela egin zuten, han zegoelako ostenduta lainope lodian Segorbeko

batailoi liberala. Han barreiatu ziren lagunak gauerako Korriko burdinolaren inguruan, Lizarrustin, elkartu ziren berriro, handik Nafarroan sartuz. Doneztebera iristean, egindako ahalegina alferrikakoa izan zela-eta, soldaduak beren armak bertan uztera behartu zituzten buruzagiek.

Santa Kruzek, ordea, ez zuen etsi eta Iparraldera joatea erabaki zuen eta han batera eta bestera ibili zen, norako garbirik gabe. Hango egonaldian jabetu zen lehen Karlistadan gertatuaz eta, ordukoa ikusita, lehengo akatsetan ez erortzeko erabaki sendoa hartu zuen. Orduan hasi zen, klase politikoan bezala militarrean, zintzoak eta faltsuak bereizten, alea galburutik jalkitzen. Berak eredu bakartzat Zumalakarregi zeukan. Hari segitu nahi zion. Maroto jeneralarekin Bergaran gertatutakoa errepikatu berri zen Bizkaiko karlista-buruzagiek Serrano jeneralarekin adostutako Zornotzako hitzarmenean¹¹¹, zeinetan, foruak errespetatuak izango zirela aginduz, jazarritako karlistak desarmatzera behartzen baitira. Honela, Serrano jeneral liberalak aldarrikatu zuen 1872ko maiatzaren 29tik aurrera armekin atzemandako guztiak gerra-kontseiluen legera epaituak izanen zirela. Hitzarmen honen ondorioak bistakoak izan ziren, ekainaren bukaerarako talde gehienak desagertu baitziren eta karlistek beraiek arma pila bat entregatu baitzituzten. Ordurako, ordea, gazte oldartsu asko izan ziren borroka-zelaian hilak, asko kartzelaratuak eta asko, orobat, zigortuta Kubara bidaliak. Errendizioa, beraz, testuinguru horretan egin zen eta hori guztia saldukeria iruditzen zaio artean erbestean dagoen Santa Kruzi. Eta Iparraldeko erbestean dauden buruzagi karlistak, berriz, errege-bizitza eramaten ikusten ditu, herri xehearen kontura bizitzen. Hamazortzi hilabete egin zituen Iparraldean, hemen ere

ihesi, batean Angers-etik Ziburura, bestean Ziburutik Bricamont-era.

Leialtasun eta zintzotasun osoz segitzen zioten Herrialdeko mutilak eta borrokan segitzeko prest zeuden beste batzuk berarekin hartuta, guztira hamaseiren gazte, muga zeharkatuko du maiatzaren buruan. Ez zegoen geldirik egoteko. Izan ere, Santa Kruz gerrillariak traizio garbitzat zeukan Zornotzako hitzarmena. Bizkaiko liberal buruzagiak “zurikerian eta koipekeritan” hasi ziren bertako karlistekin, esanez atsekabetuta zeudela gerra hark kalte handiak zekartzalako orokorrean eta, bereziki, bertako garapen ekonomikoan. Egoera hari bukaera emateko, Bizkaiko Diputazioko ordezkari batzuk –Urkizu, Urue eta Argintzoniz jaunak–, liberalen Serrano jeneralarekin hitzketatu ziren eta bakea sinatzeko ondorio batzuetara iritsi. Orokorrean esanda, jazarritako karlistentzat amnistia moduko zerbait eskaini zuen Serrano jeneralak foruak aintzat hartuak izanen zirela esanez. Horrela, modu abstraktuan, noski. Eta Bizkaiko Diputazioaren esku geratu zen, Gernikako haritzpean batzartuz, gerrako gastuak nola zuritu erabakitzea. Horixe zen hitzarmena hitz laburrez esanda (Ormaetxea, I, 1991, 649). Hitzarmen hori traizio bat gehiago izan zen, baina geroztik, Santa Kruzen antzera, hura onartu ez zuten karlistak “ultra” gisa hartu izan dituzte euskal historialari batzuek.

Bigarren ekinaldia lehengoa bezain laburra gertatuko da, maiatzaren bukaeratik abuztuaren 12a arte baizik ez baita luzatzen. Aramaion atxilo hartzen dutenean bukatzen da haren bigarren saioa. Zornotzako hitzarmena ez baitzuen onartu eta Iparraldean ere ez baitzegoen lo egoteko prest, muga hamasei mutilekin mendiz zeharkatu eta Oiartzundik

Lesakarako bidean dagoen Aritxulegi mendi-kaskora jo zuen, armaz hornitu eta bere kanpamentua hor nonbait ezartzeko asmotan. Onetik libratu zen. Han mikeleteek eraso zieten eta Santa Kruzek “bere mutilik bizkorrenetako bat” galdu zuen (Ormaetxea, I, 1991, 651).

Apaiz gerrillariaren bigarren irtenaldi hau ez zen emaitzetan emankorra izan, baina ez, halere, lehenengoa bezain hutsala. Mendiz mendi ibili zen oraingoan ere, han eta hemen jateko puskak bilduz, sosa batzuk poltsikoratuz, arma batzuk eskuratuz, beraienak oso txarrak zirelako, eta etsaien atzaparretatik ihes egiten ahaleginduz. Nondik ibili zen? Gipuzkoatik gehienbat. Hain ondo ezagutzen zuen Ernio mendian barna ibili zela esaten da, inguru haietako lagun zaharren bat edo beste bisitatu zuela, gaua haren baserrian egin ere bai. Azkoitia eta Azpeititik ere pasatu zen. Bergaratik Arrasaterako bidean karlista buruzagiek Zornotzan entregatutako armen konboiarekin zihonan talde nazionalari bidera atera zitzaion, abuztuaren 8an, eraso eginez eta ihes egitera behartuz. Berehala saltatu ziren santakruz-tarren atzetik, zakur amorratuak baino amorratuago, Oñati, Bergara, Arrasate, Aramaio, Elorrio eta Otxandion kokatuta zeuden goarniziokoak. Santa Kruzen mutilak, ordea, Kanpazarren barna, zangoak arin, Anboton ezkutatuta zeuden. Baina hemengo mendi-kaskoak liberelez eta mikeletez josiak zeuden eta hemen harrapatu zuten Santa Kruz eta Aspe-Arazolara eramanez, han zeukaten beren koartelera. Han bertan garbituko zuen don Antonio Urdanpilleta komandanteak –horretaz hain zegoen konbentziturik Santa Kruz bertako erretoreari deitu baitzion konfesatzera etorzekion–, baina atzeman zuen kapitainak kontra egin zion. Aramaiora eramanez eta hango Udaletxeko kartzelan preso

sartu zuten, balkoi jarraitua zuen lehen solairuan, gau eta egun jagole bat aldamenean zuela. Baina egun gutxi egin zituen preso, bi egun baino ez, baina horietan, plazaren erdira eramanda, tiratzaileen aurrean jartzen zuten, bere mutilak non zeuden esaten ez bazuen, hiruzpalau minutu barru tirokatu egingo zutela mehatxatuz.

Santa Kruzek infernu hartatik ateratzea baino ez zuen gogoan. Eta bilatu zuen modua. Gauerdian, komonera pixa egitera zihoan aitzakiarekin, jagolea kanpoan utziz, zamarra balkoiari lotu eta haren puntari eutsita jauzi egin zuen eta, nahiz zaurituta geratu, aski indar izan zuen erreka-bazterreko sasiartean ezkutatzeko. Hori 1872ko abuztuaren 12an gertatu zen. Bere mutilak Arantzazun zeuden eta egun berean enteratu ziren ihes egin zuela. Herio-egoera larri hartan, alde guztietatik etsaiez inguratuta, izoztuta, hantxe egon zen etsita bezala, baina haiek lehenago etsi zuten, han arrastorik ez-eta, hurrengo eguneko eguerdian joan baitziren. Ezkutuan zegoela aurrez aurre herriko gizon bat ikusi zuen, Juan Antonio Untzueta, eta honek bere etxean babeska eman zionaren esku utzi zuen. Balendin Larrañaga zen hau, etxean jaten eman ziona eta hankak aguardientez igurtzi zizkiona. Bere salbatzailea. Orduan egin zion promesa Ama Birjinari, handik onik ateratzen bazen, Ameriketara misiotara joango zela. Baserrian sendatuta, handik Aramaio eta Elorri artean zegoen haitzulo batean egon zen ezkutatuta. Mutiko bat joaten zitzaion flauta joz jana ematera. Han hiru bat egun egin zituen. Handik zuzenean eta bidean gelditu gabe joan zen Iparraldera, taka-taka, 20 ordutan eta bertan egon zen 1872ko abendura arte, Isidro Maria Urruelaren etxean. Olasoko Telesforo Monzonen aitona zen hau, aberatsa, eta, esaten denez, bera izan zen “Mendiomundo”

izeneko kanoi famatua oparitu ziona, Endarlatzan sekulako triskantzak egin zituen eta, bere lekuan esango dugun bezala, Berastegiko liberalen kuartela desegiteko erabili nahi izan zuena (Ariztimuño, 1986, 49-60).

Bi ekitaldi eta bi porrot. Famatua zen, halere. Hernialde, Ernio eta Aramaion erakutsitako balentriek egin zuten famatu. Askorentzat, krudela, ankerra, etsaiak erraz fusilarazten zituen.

Hirugarren ekitaldiak zortzi hilabeteko iraunaldia du, 1872ko abendutik 1873ko uztaila bitartekoa. Berrito berrogeita hamar lagun inguru bildu-eta, oraingoan, gabarretan pasa zuten Bidasoa ibaia, gauez, eta handik Aritxulegiko harkaitz-zulora abiatu ziren, ahuntzen bidezidorrean gora (Ormaetxea, I, 1991, 656). Santa Kruzek 30 urte zituen. Ez dakigu ondoko egunetan nondik ibili zen Santa Kruzen gizon-taldea. Esaten da abenduaren 3an, Amadeoren urrea atzerrira omen zeraman trena gelditu zutela, baina urrerik aurkitu ez. Hori bai, abenduaren 6an Elduainen agertzen da bere konfiantza osoko lau mutilekin. Gauean lokartzeaz zeudela bere baserri ondotik liberalen patruila bat pasatu omen zen, hain bilatua zena han zegoela asko enteratu gabe. Hurrengo egunean Ollokiegiko baserrian zegoen, Leitzaranen, eta 11n 30 lagun inguru Goizuetan zeuden, eta 15ean, berriz, Yoyagaren baserrian gaua egiten, 17an Hernialden (Ariztimuño, 1986, 96-97). Liberalen tropak alde guztietara banatuta zebiltzan Aranotik hasi eta Oria ibaia arte, Arana liberala beti atzetik segika zuela, zepoan noiz harrapatuko. Tolosako alkate liberalari agindua emana zioten kanpaiak jo zitzaizkion, jendea bildu eta Santa Kruz han Hernialden atxilo har zezaten. Alferrik, ordea. Badirudi Hernialdetik 18an bertan Oiartzunera abiatu zela

eta hemen, antza, bertako gotorlekuaz jabetu nahi izan zuela (Ariztimuño, 1986, 89-99).

Harrigarria da nola eta zein bizi mugitzen zen alde batetik bestera Gipuzkoa eta Nafarroako lurretan. Hona hemen, adibide gisa, joan-etorri estuen kronika laburra: 1872ko Eguberritan, 25ean, Goizuetatik Leitzara joan zen, munizioak jasotzera; hurrengo egunean, 26an, Ezkurran gaua eginda, Eratsunen biderako anoa eskatu zuen; 27an Aritxulegin aurkitzen zen. Goizuetatik 24an buru-makur aldendu baziren, 27an garaile atera ziren mikeleteekin Gartzarrietan izandako enkontruan; 28an mendiz Urnietara joan ziren eta, Lasarten tiroka ibili ondoren, arma batzuk bertan utzi egin behar izan zituzten ihes egiteko.

Bitartean, Arana Tolosako aldetik eta Lujanbio Ataungotik, amorratuki haren bila zebiltzan, baina inguratua zeukatela uste zuten bakoitzean erbiak ihes egiten zien. Ikusirik ezin zutela harrapatu, bere familia eta senitartekoei ahalik eta kalterik gehien egiten ahalegindu ziren. Bere arreba Josefa Ignazia, bere osaba Frantzisko Antonio Sasiain apaiza eta beste batzuk Tolosako kartzelan sartu zituzten. Honek, bai, min eman ziola Manueli, batez ere bere arreba beti mehatxupearan edukitzeak. Miserikordiatik Arrameleko zubira joanda, handik Irurako bidean zihoan zalgurdi eder bat gelditu zuten eta atea irekitzean, harridura handiz, ikusi zuten La Libertad-eko bolondresen koronela zihoala, aldamenean bere aita zaharra eta lau ofizial zituela. Bere mutilek guztiak Irurara eramán zituzten eta bera zalgurdian gelditu zen eleketan zaharrarekin. Esan omen zion: “Begira, nire etxeok ez daukate nirekin zerikusirik eta bakean utz itzazue, arren, beren bizimodua egin dezaten. Horrelako azpijokoak egiten dizkidazuen bakoitzeko, ordainak hamarretan

edo hogeitan biderkatuak jasoko dituzue. Beraz, askatu Tolosan preso daukazuenak, bestela...”. Baita askatu ere, bazekitelako ez zela txantxetan ibiltzen. Arreba Frantziara eramán zuen. Tolosa utzi-eta, 29an Asteasun zen armez hornitzera joanda eta urte-bukaeran Aranón. Ihesian abila zen. Endaratik Oiartzunera, Aiatik Aranora, nahiz batzuetan tartean edo bidean liberalen tropekin topatu, beti asmatzen zuen inor ez zegoen lekutik pasatzen. Negurik gogorrean ere, Oriá, Urumea, Leitzarán, Berastegi, Amezketa, Agauntza eta beste ibai batzuk ez ziren harentzat oztopo gaindiezinak (Ariztimuño, 1986, 105).

Santa Kruz bere gerrilla egiten ari zen, bere kabuz. Zornotzako hitzarmena onartu ez zuen don Karlosek, urte berriaren hasierarekin, 1873ko urtarrilean 7an, hain zuzen, Frantzian bizi ziren buruzagi eta ofizialei Espainian sartzeko agindua eman zien, euskal lurretan armada berrantola zezaten (Ariztimuño, 1986, 108). Esaten denez, Santa Kruzek bidea ireki izan ez balu, ederki asko jarraituko zuten erbesteko paradisuán. Hala sartu ziren barrura Dorregaray eta Antonio Lizarraga.

Santa Kruzen partidakoek non egin zituzten 1873. urteko lehen egunak? Urte Zaharrean Aritxulegira joan ziren jatekoak eta bestelakoak hartzera, eta handik jaitsita Urte Berri eguna Astigarragako Bentetan egin zuten. Hemen, esaten denez, bera zen buruzagi karlistarik sonatuena eta, antza, jarraitzaile asko zituen: hasieran 30 gazte, geroago 90 ere bai. Ondoko egunetan, herriz herri zebilen: 7an, gauéz Errezilen 50 gizonekin; 9an, Aizarnan; 12an, Anoetan, eta hemen hilda agertu zen espioi bat erretoretzeko atetan¹¹²; 13an, Aian; 18an, Hernanin; 19an Usurbilen; 25 eta 26an Hernialden, eta hemen bizkarrekoak

eman zizkion jagole-lanak egiten utzi zuen baserritarrari, bere lekua utzi eta eskuak berotzera joan zelako; gero Iturriotzen, liberalekin trantze gogorrean; 30 eta 31n, Aiako erasotik justu-justu libratu zen (Ariztimuño, 1986, 119-137). Santa Kruzek etengabeko kexa du muniziorik ezarena. Eskatu eta etortzen ez.

Urte berriarekin batera, 1873ko otsailaren 8tik 26ra bitartean, Monarkiatik Errepublikarako aldaketa ematen da Espainiako politikan. Don Amadeo erregeak otsailaren 2an tronua utzi eta 12an bere familiarekin Portugalera abiatzen da, handik itsasoz Bruselara joateko asmotan. Errepublika aldeko 258 botorekin aldarrikatu zen, kontra-koak 32 baino ez zirela; gobernu-buru, don Estanislao Figueras jauna (Ariztimuño, 1986, 155). Aldaketa hau zela bide, Miguel Dorronsoro Gipuzkoako diputatu nagusiak, Ataungo semeak, herritarrei otsailaren 25ean egindako mintzaldian, Gipuzkoaren etorkizuna beltz ezarri zuen: erlijioa eta patriaren (Espainiaren) osotasuna arriskuan zegoela; foruak, jadanik hezur hutsean zeudenak, hitz huts baizik ez zirela; jabetza pribatua hankaperatua izango zela, etab. Beraz, herritarrak Jainkoaren, foruen, patria eta erregeren bandera defendatzera irten zitezela eskatzen zuen (Ariztimuño, 1986, 160-161).

Bestalde, buruzagi karlisten arteko harremanak gaiztotu egiten dira: Lizarragak Santa Kruz hiltzera kondenatu zuen 1873ko martxoaren 1ean emandako agiri batean, nagusien esanetara jartzen ez zelako (Ariztimuño, 1986, 176-180). Lagundu ordez, bidetik nola kendu ibiliko da. Isilpeko aginduak eman zituen hura garbitzeko, baina aginduak jasotzen zituztenek ez zituzten betetzen, ez salatua baizik buruzagi salatzaileak zeuzkatelako traidoretzat. Bera zuen

kanoia ere kendu egin nahi zioten. Santa Kruzentzat, esana dugu, alferrontziz beteta zegoen armada. “Ojalateroak” deitzen zitzaienak, alper hutsak ziren, herritarren bizkar jan-edanez bapo bizi zirenak, eta horrelako jendez bete ziren herriak. Horregatik, arriskugarria gertatzen zen Santa Kruzen antzeko borrokalariak aurrean izatea. Ez zituen begi onez ikusten ez Lizarraga, ez Dorregaray, ez Dorronsoro eta beste buruzagiak, ez orduan ez geroago ere, bere zahartzaroan. Berak idatzia da, gaztelaniaz:

“¡Ah, Lizárraga, Lizárraga! Por usted y por otros como usted perdieron las provincias vasco-navarras sus antiguos fueros. Por usted perdieron tanta hermosura! De cuán distinta manera pensarían los vascongados, y sobre todo esos vascongados de Irún, de Ataún y de otros pueblos que más me insultan, si supieran la verdad y los verdaderos deseos que tuve de triunfar, y todo por el bien de Guipúzcoa y de las demás provincias vascongadas! ¡Cuántas veces he llorado al ver desvanecida tanta hermosura, al ver pisoteados nuestros fueros y despreciadas nuestras libertades (...) Y todo ello consecuencias del proceder de unos pocos!” (Ariztimuño, 1986, 189).

Beste pasarte honetan, garbiki traidoretzat dauzka Dorregaray eta Lizarraga:

“Para poner fin a este punto digo a todos los guipuzcoanos que yo, Santa Cruz, estoy intimamente persuadido que Dorregaray y Lizárraga prepararon la traición en Francia y que muchos guipuzcoanos engañados, como Dorronsoro, ayudaron a la traición” (Ariztimuño, 1986, 191-192).

Lizarraga eta Santa Kruz, bakoitza bere aldetik ibili ziren aldi batez. Eta Erregegia isilik. Santa Kruz Beran harrapatu zutenean bere mutilekin, hiru gauza eskatu zizkion Valde-Espina markesak Santa Kruzi: bat, zeraman bandera beltza uzteko, bi, bere burua Karlos erregegiaren eskuetan jartzeko, eta hiru Lizarragaren esanera etortzeko. Eta gero, Karlos beraren agindua etorriko zaio aldegitoko esanez (Ormaetxea, I, 1991, 684-686). Estutasun hartan paperak utzi eta Frantziara ihes egin zuen uztailaren 9an. Eta han bere buruzagiek erabat bazter eta bakarrik utziko dute.

Baina berak ez du etsiko, Frantzian bost hilabete egin eta gero, berriro barrura itzultzen baita. Hau izango da bere laugarren ekitaldia, eta azkenekoa. Oraingoan aste pare bat baino ez du egingo, 1873ko abenduaren lehen astetik azkenekora. Abenduaren 6ko gauean Berrobiko lehen batailoia-
ren aurrean aurkeztu zen eta, hango jarraitzaileak hartuta, Billabonara joan zen eta bidean 18. konpainia bereganatzea lortu zuen. Handik Asteasura joan zen, Lizarraga bere etxean harrapatzeko asmotan. Baina Lizarragak aurre egin zion eta Santa Kruzek handik irten beharra izan zuen (Ariztimuño, 1986, 384-385). Zertara etorri zen? Era guztietako kabalak egiten dira. Batzuek uste izan dute Lizarraga atzeman eta garbitzera etorri zela Frantzisko Arbelaitz eta Esteban Indart, bere mutilak, hil zituelako; beste batzuek diote, berriz, Lizarragaren aurrean umiltzera etorri zela, barkazioa eskatu eta haren aginduetara jartzera (Ariztimuño, 1986, 388). Baliteke azken uste hau izatea sendoena, 1873. urtea bukatu baino lehen Santa Kruz berriro Iparraldera joatean —oraingoan gehiago ez itzultzekotan—, bere mutilak Lizarragarekin geratu baitziren. Erbestean Isidro Urruelak eman zion babesa Donibane Lohizungo bere etxean alditxo batez;

gero, Andoaingo Larretarrek Nangleten, eta hemen, luzaroago, bera bezala ihes eginda zeuden Mendizabal eta Orkaiztegi apaizekin batera egon zen (Ormaetxea, I, 1001, 688). Atzetik zebilizkion jendarmeek apirilaren 22an atxilotu zuten eta martxoko azken egunak Baiona eta Parisko kartzeletan egin zituen. Hurrengo hilabetean, antza, bizitza normalagoa eraman zuen (Ariztimuño, 1986, 408).

Santa Kruz apaizak bere sartu-irtenaldietan 21 hilabete baino ez zituen egin guztira, gerrillan murgilduta, 1872ko apirila-bukaeratik 1873ko abendu-bukaera arte. Txunditze-koa ere bada hain denbora gutxian horrelako zalaparta sortu izana. Berastegi eta inguruetan bederen ez zen giro izan, jarri zituen hamaikatxo mingain hizpidean, batzuen eskandalagarri, besteen miresgarri.

3. Salatariak omen zirela eta...

Berastegin ere utzi baitzituen bere arrastoak, garaia da, bere ibilaldien joan-etorria bere osotasunean ikusi ondoren, xehetasunetan sartzeko. Haren bizitzan pasarte bat baino gehiago dira Berastegiren historiarekin zerikusia dutenak. Zelatari eta horrelakoekin zen gogorra, horiekin hartzen zituen neurri zorrotzak, besteentzako eskarmentu-bide izan zitezten. Hemen Tolosako postariarena, herriko seme Aldunzinen hilketa eta herrian kantonatuta zegoen liberalen goarnizioarena dira aipatzekoak.

3.1. Tolosako postaria Berastegiko plazan

Tolosako postariari, adibidez, behin esanda ondo uler-
tzeko moduko mehatxu zuzena egin zion. Juan Jose Gartzia

zuen izena, Santa Kruzen laguna, eta postetxe-zerbitzuak egiten zituen Belauntza, Berrobi, Eldua, Elduain eta Berastegin. Kargu hori oso zaindua zen gerra-garai hartan, askotan etsaiei abisuak emateko erabiltzen baitzen. Halako batean, Santa Kruzen belarrietara hala iritsi zelako edo berak harrapatu zuelako, kontuak zorrotz eskatu zizkion aurrez aurre jarrita, gogora ekarriz bien artean hitz egingakoa, espioitzan harrapatzen bazuen, garbitu egingo zuela, alegia. Berastegiko plazara eraman zuen, eta belauniko jartzeko esan. Tirokatzeko eskoadra apuntatzeaz zegoela, Santa Kruzek armak altxatzeko agindua eman zuen, errudunari abisu hau emanez: “Hurrengoan badakizu”. Postariak ez zuen bigarren aldiz entzun beharrik izan, postaritzaren berehala utzi baitzuen. Berastegiko plazan gertatu zen, ustez 1873ko urtarrilean, zein egunetan jakin gabe (Aritzimuño, 1986, 121-122). Honen lekukoak izango ziren, noski, herriko plazan.

3.2. Juan Andres Aldunzin alkateordearen fusilatzea (1873)

Urte bereko martxoan, ordea, zerbait larriagoa gertatu da Berastegiko Udalean. Postariaren kasuan mehatxua izan zena, oraingoan Andres Aldunzin alkateordearenean hilketa izango da albiste zirrargarria. Ikus dezagun hori gertatu aurretik nondik nora dabilen eta zertan.

Santa Kruz hiltzera kondenatua daukate, nortzuek-eta, kausa bera defendatzen duten buruzagi karlistek. Lizarragaren mehatxua gainean daukala jakinda ere, Santa Kruz ez da horregatik kikiltzen, hazten baizik. Espainiako Iparraldeko karlisten komandante nagusiak, Dorregaray jaunak,

1873ko otsailaren 4an aldarrikatutako aginduaren bidez, Norteko trenbidearen enpresari ahalik eta kalterik gehien egiteko ordena hartua zeukan, errailak deseginez. Bestalde, otsailaren 5ean, Azkaraten zegoela, santakruzistak bi taldetan banandu ziren: batzuk Soroetarekin Azkoitira joan ziren, eta besteak, Manuelekin, Oñatira. Soroetak, Lizarraga buruzagiaren aginduari jarraiki, otsaileko azken egunetan Gaintxurizketako tunelean, trenbidea itxi zuen eta tren bat errailetatik kanpora aterata geratu zen. Oiartzungo liberalen kontraerasoan, martxoaren 7an, zaurituta hil zen Soroeta komandante santrakruzista Lesakarako ihesaldian, Bianditz eta Gatzarrieta inguru horietan (Ariztimuño, 1986, 206-207).

Bitartean, Santa Kruz bere mutilekin Elgea, San Adrian, Zegama, Lazkao, Bedaio eta Gorrititik zebilen. Herri hauetan guztietan agindua emana zegoen tropa liberalen esanetara behar zutela egon bertako eliz agintariak bezala zibilak. Gorritin liberalak Santa Kruz apaizaz galdezka joan zitzaizkion bertako erretore jaunari: bertara joaten al zen, zenbait aldiz, zenbat gizonekin, norako bidea hartzen zuen. Eta horrela luze. Hark esandakoekin, hura harrapatzeko plana egiten zuten, tropak nondik joan ziren paper gainean lapitzez markatuz, ihesbideak oro itxiz. Santa Kruzek laguna zuen apaiz hori eta esana zion berak egia esateko, gezurretan harrapa ez zezaten eta garbitu. Beste egun batean, Betelun ziren, han ere antzeko galderak eginez. Kontua zen, eginahalak egin arren, ez zutela harrapatzen.

Gaintxurizketako trenbidean egindako ekintzaren ondotik gertatutako Soroetaren heriotzaren ingurumari, martxoaren lehen hamar egun horietan, Santa Kruz Berastegi aldetik zebilen. Han egun batzuk egin zituen bere soldaduekin, atsedean hartuz eta biderako anoak prestatuz.

Udalak emandako haragiz, ogiz, ardoz eta beste janariz hornituta eta dirutan 3.609,2 erreal jasota¹¹³, martxoaren 12an Lizarrarako bidea hartu zuten, hango goarnizio liberala ezustean harrapatzeko asmoarekin, agidanez.

Zer gertatu zen gero? Gertakizunen kontakizunak, xehetasunetan sartuta, desberdinak dira zenbait puntutan.

Hasteko, *El Cura Santa Cruz* liburuan (Ariztimuño, 1986, 211) datorrenez –eta hemen oinarritzat Juan Olazabal y Ramery-ren *El Cura Santa Cruz guerrillero* (Vitoria, 1928) hartzen da–, honela gertatu zen: mutilak Gaztelumendin gora zihoazela, aski berehala, mendi-kaskotik zetorren korneta-hots garbia entzun zuten. Inolako zalantzarik gabe, aldez aurretik hartutako ezaugarri jakin baten susmoa hartua zioten hari. Dirudienez, mendi gainean kokatuak zeuden bi espioik jo zuten, Lizarrako goarniziokoei herritik noiz atera ziren iragarritzeko. Turuta-dei hura zer izan zitekeen galdetu zien Santa Kruzek bere mutilei, eta hauek erantzun zioten gerrarako deia zela hura.

Nor ziren espioi haiek? Eustaquio Echave-Sustaetak dakarrenez¹¹⁴, buru batzuk agertzen omen ziren mendi gainean, noiz agerian noiz ezkutuan. Arabako Jose Maria Loma militar liberalaren batailoikoak izan bide zitezkeen, handik laster Berastegin agertu baitziren. Lizarragaren esanekoa zen Oresako Bautista Ormaetxeak, ordea, beste hau dio: alegia, Santa Kruzen partidakoak Berastegin zeuden egunetan, Udalak, haien segurtasunerako, jagole batzuk jarri zituela Gaztelu aldeko mendi gainean eta horiek izan zirela Lizarrako nazionalen jakinarazteko korneta jo zutenak. Beraz, bertsio honen arabera, espioiak bertakoak ziren, ez Loma-ren partidakoak. Badirudi, beraz, Udala bera aurreratu zela jagoleak han ezartzera.

Nolanahi ere, espioi haiek nork bidaliak izan ziren garbi ez badago ere, une hartan Santa Kruzek bederen ez bide zuen inolako zalantzarik izan Berastegiko Udala bera izan zela saldukeria hura egin zuena, Lizarrako liberalek harrapa zezaten. Arinka batean herrira itzuli ziren. Udalekoak ohartu zirenean Santa Kruzen taldekoak itzulian zetozela, bidera irten ziren, Andres Aldunzin alkateordea buru zela, apaizaren etsai amorratua zen Gorostidi alkate liberalak ihes egin omen zuelako edo, agian zuzenago, kanpoan zelako. Plazan elkartu ziren eta Santa Kruzek berehala agindu zuen, Udaleko guztiak bertara ekarri-eta, zinegotziak egurtzeko. Eta alkateordea berarekin hartu, Gorosmendira eraman, eta han fusilarazi zuen¹¹⁵. Gorosmendi zeharkatu eta Beibatarin Ameraungorako bidean behera abiatzean, Matxikuko bordaren gainaldean, ote artean erdi-ezkutatuta baina ikusteko moduan aurkitzen da fusilatua gomutan jarritako gurutzeta. Hauxe dakar atalburu bezala, eskuinean eta letra kurtsibaz izkiriatura: “Aquí murió Andres Aldunzin el día 12 de marzo de 1873. Q.É.P.D. Loizosuer Mana. Ana”. Geure lekukotasuna han utzi genuen, Juani emazteak eta biok, 2008ko apirilaren 27an, eguerdiko eguraldi epelean.

Alkateordea fusilarazi eta handik aste betera, berriro bertara itzuli zen eta, Gorostidiren etxera joanda, zeuzkan liburuak, paperak eta Udaleko diru-kontuak zekartzaten gainerako agiriak oro erre zituen martxoaren 10eko arratsaldeko lau eta erdietan, herriko jende asko begira zela¹¹⁶.

Berastegiko alkateordea fusilatzeo agindua eman zuelako sartzen da Santa Kruzen izena Berastegiren historian eta, bidenabar, Berastegiren izena gerra karlisten historian. Bi galdera ditugu egiteko: nor zen fusilatua, eta zergatik?



Andres Aldunzinen hilarria, fusilatu zuteneko lekuan
(Elosegi, 2010)

Juan Andres Aldunzin (1823-1873) Iriazabal base-
rrikoa zen. Jose Francisco Aldunzin Belaunzaran eta Maria
Martina Gazpio Iparragirre senar-emazteek bost seme-alaba
izan zituzten: Juan Andres (1823), Ana Matea (1825),
Miguel Antonio (Berastegi, 1831), Jose Antonio (Berastegi,
1834), eta Maria Angeles (Berastegi, 1838-1866). Fusilatua
zen, beraz, etxeko zaharrena, eta hirugarrena, Miguel An-
tonio, Argentinako Tandil-era joana zena. Honen ondo-
rengoez bere osaba horren oroitzapena oso bizirik gordeko
dute. On Txomin Jakakortexarena apaizari (1990, 303-
304) bere liburu autobiografikotik hartzen diogu pasarte
hau:

“Errian, laugarren iauntxo, euskal odoleko lau anai
ziran eta ain xuxen, Berastegi neure errian zuten iatorri
eta landa batzuen iabe izatez gaiñera, abelazoka
entzutetsu baten nagusi ziran eta bei ta txal, abeletxetatik
bilduta, illero erosleentzat azoka aundi bat eraltzen
zuten. Ango emazteki beltzexkakakin ere euren azoka
izaten bai zuten, oarturen da irakurlea enegandik beti
igesi ibilliko zirala eta nekin artuemanik ezertarako ez
zutela nai izaten. Oien aurrekoren bat Berastegi’ko
Ialzabal baserritik, karlisten gudatik igesi, ara ioana
izango zan, aitona apaiz karlista batek erail ziotela
arpegiratzen bai zidaten (...) Mones Kazon’go beste
Aldunzin orri, Andres izena, Santa Kruz’en gudariak
suizkilluz eriotza eman zioten aitonaren gomutaz ziurki
ipiñiko zioten”.

Jakingo zuten, seguru asko, On Txomin “Araba” guda-
rostean kaperau izandakoa zela, Francoren atzaparretatik
ihes eginda aurkitzen zela, errefuxiatu-egoeran, zegoen le-
kuan, Mones Kazon-go parrokiari, eta baliteke horregatik

aurpegiatzea Santa Kruzena, biak, apaizak izateaz gain, kausa bertuan edo antzekoan inplikatuak ikusten zituztelako-
edo. Ez ote zuten berdintzen On Txomin apaiza jelkidea
orduko Santa Kruz apaiz karlistarekin?

Bestalde, on Txomin apaizaren pasarte horrek eskain-
tzen du zer iruzkindurik. Hildako Juan Andres Aldunzin
hura, aitona ez, baizik osaba zuten, Berastegitik Tandil-era
emigratutako Migel Antonio Aldunzin aitonaren anaia.
Miguel Antonio Aldunzin Ramona Loinazekin ezkondu
zen 1858an eta seme-alaba hauek izan zituzten: Ramon
Alduncin (Tandil, 1859), **Jose Maria** Alduncin (Tandil,
1861), Maria Alduncin (Tandil, 1862) eta Miguel Aldun-
cin (Tandil, 1864). Jose Maria Alduncin ezkondu zen
Tandil-en Gregoria Garricart-ekin eta hauen seme-alabak
bederatzi izan ziren: Jose Maria Alduncin, legegizona eta
diputatua; Miguel, ezkongabea; Diego; Baldomero; Vicen-
te; Bartolomé; Horacio; **Andres**; Pantaleon. Familia hone-
takoak izango ziren, seguru asko, Txomin Jakakortexarenak
aipatzen dituen lau anaia horiek, nahiz bere izenez Andres
bakarrik izendatzen duen. Tartean, bada, hiru belaunaldi
daude (Goyenechea, 2000, 56-57).

Beren erroak Berastegin zituzten lau anaia horiekin
harremanik ez zuela izan aitortzen digu Txomin apaizak.
Zergatik ere zertxobait azaltzen du, esatean ganaduekin ez
ezik, “ango emazteki beltzexkakin” beste azoka-mota bat
ere izaten zutela. Antza, herriko beste jauntxo aberats ge-
hienen antzera, bizitza librea zeramaten eta elizatik urrun
bizi ziren. Apaizak enbarazu bakarrik egiten zien. Hiltzera-
koan edo, zuzenago esan, hil-ondokoan izaten omen zuten
apaizaren beharra, ehorzketa elizan handikiro egiteko (Jaka-
kortexarena, 1990, 347). Baina Txomin apaizak (1990,

348) igandeko mezan esana zeukan giza eskubideak zaindu beharrekoak zirela eta bakoitzari bere sinesmena errespetatu behar zitziola, bizitzan bezala hilondokoan ere:

“... ez daukagula iñola ere oiñazpian artzerik eta eskubide oien artean, nai duan sinismena izatea edo eta sinismenik ez izatea ere, gizakiaren eskubidetako bat dala eta bizi dan artean begirune izan diogun bezela, il ondoren ere alaxen izan bear diogula, bere naiaren aurka, zankoz aurrera eleizara sartzearekin, ba dirudiela ixekazko eleizkizunak dagizkiogula, bizi ziñanean iñola ere ez zenduan eleizakin ezer nai, galazi ezin duzunean, orra nola indarrez eleizan sartzen zaitugun, esango ba'genio bezela”.

Erabaki zuen, bada, aurrerantzean “kristau sinismenik gabe bizi izan dan edonor, apaiz laguntzarik gabe iltzen ba'zan, aren iritziei begirune zor nienez, nik ez niola azken-elizkizunik iñola ere egingo iragarri nien” (Jakakortexarena, 1990, 348).

Erabakia hartu bazuen hartu, trantze larrian jarri zuen on Txomin apaiza Aldunzin anaietako baten ustekabeko heriotzak. Elizatik urrun bizi izan zen, ahaleginak egin berri zituen ardi galdu hura artaldera biltzen, baina heriotzak kanpoan harrapatu zuen. Hildakoa ezaguna zitzaion, herrikide zuen, herrian arras ezaguna zen, legegizona eta diputatua. Eta aberatsa. On Txominentzat, ordea, hori gutzia eta zerbait gehiago ere bazen. Berari utziko diogu esaten:

“Bere neskamearekin iru seme-alaba izanik, beste neskame batekin batzeko, leena aur txikiekin etxetik botata, bigarrenak ere iru semekin utzita, beste batekin aldegin ziolako, orain irugarren baltz batekin bizi zan eta

elizan ankarik iartzeke, erri guztiaren esankizunpean ioan danari, ongi al zerizkion gezurrezko eleiz otoitzak egiñaz lur ematea, galdera egin nion, errian ze marmarra eta ze esankizuna zabalduko zan ez al zan oartzen gogoraten niola (Jakakortexarena, 1990, 351-354).

Zenduaren inguruko guztiak, familiakoak zein politikariak, joan zitzaizkion azken elizkizunak egiteko erreguka. On Txominek, ordea, elizan emandako hitzari sendo eutsi zion:

“Ildakoaren etxea, eleizatik karrika erdira zegoan eta andik laxter, azken ekiñean, zerraldoa bizkarrean zutela eleiz aurrera an agertu ziran zanduaren etxetiarrak, gibeletik erri geiena aoki zutela. Eleiz-ate aurrean, geldiune tipi bat egin zuten ni agertu zai, baiña agiri ez nintzanean eta elizaterik zabaltzeke, oialerik ere iotzen ez nienean, etsiak artuta, arkuxbelbillan sartu zuten zerraldoa eta belbil lerro luzeak ostetik zerraizkiola, illeribidea danak artu zuten” (Jakakortexarena, 1990, 354).

Juan Andres Aldunzin Santa Kruzek fusilarazi zuela? Bai. Mones Kazon-go Aldunzin familiak zer sentitu ote zuen On Txomin artzainak hartutako erabakiaren aurrean?

Gehiegi urrundu gabe, Mones Kazon-go kontuak utzi-eta, gatozen Berastegira. Espioi-lana egiteagatik fusilarazi zuen. Bestalde, esana daukagunez, liberalek beren aldeko herriko alkateei agindua emana zien handik pasatzen ziren karlisten berri emateko, handik pasa bezain laster eman ere, bestela heriotza-zigorra izango zutela (Ariztimuño, 1986, 211). Nikolas Ormaetxeak (I, 1991, 671) ere gauza bera dio: “Salarizkoan ari zalako”. Orrialde berean beste hau ere badio: “Santa Kruz Berastegin zegoala agindu ziola alkateari

goardi bakar batzuk ipintzeko Gaztelu-aldeko gañetan, liberalik ba zetorren ere”. Arrazoia, aldez bederen, garbi emana dago. Hala eta guztiz ere, salataria Berastegiko Udala izan ote zen, eta baiezkoan zein neurritan izan zen ere galde liteke. Baldin esaten bada Udala bera aurreratu zela jagoleak ezartzera karlisten segurtasunerako, ez da arrazoizkoa gero korneta joz agertzea. Beraz, ez dirudi hain sinesgarria denik Udalekoen borondate zintzoaren aldeko bertsio hori. Arestian esandakoez at, Santa Kruzek berak ez bide du geroztik ezein argitasunik eman izan Berastegiko alkateordearen fusilamenduaz.

Andres Aldunzinen hilketa gertatu eta hurrengo egunean, 13an, Santa Kruz Aranon aurkitzen zen 500 gizonekin. Haren atzetik atera zen Loma liberala Tolosako jendearekin, bide-gidari Berastegiko bi gizon hartuta. Bata Pedro Saitzar zen, bestea “Paldo” gaitzizenez ezagutzen zena. Bidean zihoazela, laino itxi batek nondik jo ez zekitela utzi zituen gidari biak. Zaharrena “Paldo” izaki, hari eman zioten nondik jo erabakitzekeo ardura. Santa Kruzen suertarako, okerreko bidea hartu zuen eta Lunetara joan ordez Abadegurutzera atera ziren. Eskerrak, bestela Loma liberalaren gizonak eta Santakruzenek topo egingo baitzuten ustekabea¹¹⁷. Santa Kruzen mutilak mendiaren beste aldean zeuden eta erretiratzean beraiekin bahituta zeramatzen salarari batzuk bidean utzi zituen, hala nola Elduaingo errotrari bat eta Berastegiko batzuk. Hauek ihes egin zuten, eskuetako loturak haitzen kontra urratu eta hautsiz. Baina Aranako mendi hartan, Leunetan, tirorik ez zen egin.

Liberaletan eta karlistek enkontru hori izan zuten egun berean, Santa Kruzek Berastegin egin zuen gaua eta Lomak, berriz, Aranon. Sinesgaitza Santa Kruzen ibilera. Beraz,

Aldunzin lau tiroz josi zuten egun berean, Santa Kruz Aranora joana zen eta gauerako berriro Berastegira itzulia. Azken hau, halere, ez da erabat segurua, Pirala liberalak (1895, 761) esaten baitu martxoaren 13an Santa Kruzek Aranotik idatzi zuela Elduaingo presoez galdetuz eta, aldi berean, mehatxatuz baldin 15ean goizean ez bazeuden aske Francisco Antonio Sasiain, Josefa Ignazia Santa Kruz eta Joakin Maria Elosegui, berak bahituak zeuzkan Jose Joakin Muñagorri, Juan Jose Garaikoetxea, Santos Egues fusilatu egingo zituela. Berehala egin zen trukea. Badirudi bere arreba Ignazia Frantziatik itzulia zela; beraz, bigarren aldiz sartu zuten kartzelan; lehen aldiz, 1872ko abendu-bukaeran izan zen.

Nolanahi ere, bezperan non lotaratu zen ez badakigu ere, martxoaren 14an, Santa Kruz Leitza, Berastegi, Oresa eta Gaztelun barna zebilen, janariak eta beste gauza batzuk hartzen, beste talde batzuek gauza bera egiten zuten bitartean Itsasondo, Idiazabal eta inguruko herrietan. Egun horretan, 14an hain zuzen, gertatu zen Ikaztegietakako ekintza. Irunerako bidean zihoan Exprés trena hango tuneletik pasatzean, trenbidea itxi egin baitzuten, errailetatik irten eta kotxeak behera jautsi ziren, makinista eta beste bi balaztazain hil zirelarik. Tren hartan 25 karabinero zihoazen, trena zaintzen, injineruen teniente bat eta infanteriako alferrez bat. Santa Kruz ekintza hartan zen bere mutilekin, aipatutako tunel ondoan. Antza, karlistek kalteak egiten zituzten Irundik Altsasura bitarteko trenbidean eta horregatik joaten ziren patruilatuak. Handik, Alkizan barna, Zarautza joan zen; 26an, Orio gainean zegoen eta handik, Loma beti atzetik segi zutela, Aiara, eta hemendik Herrialdera, eta hemen Getariako Prudentzio Arnao militar

liberalak gidatutako boluntarioak eta mikeleteak gainean zituztela, Alkizara. Laburtuz esan dezakeguna da, Santa Kruz 1873ko maiatzean zehar Tolosa inguruan ibili zela, horko inguruak zehatz-mehatz ezagutzen zituela, txikitatik eta ikasle-garaitik hasita, eta nahi bezala bilatzen zituela ihes egiteko zokoguneak (Ariztimuño, 1986, 216-217).

Hurrengo hilean, apirilean, kausa karlistaren aldeko suharra itzaltzen hasi zen eta, boluntarioen kopuruak nabarmen behera egin zuelako, don Karlosek agindua eman zuen 18tik 40 urte bitarteko Gipuzkoako gizonezko guztiek –ezkonduak barne–, soldaduska egin behar zutela. Zergatik ote horrelako krisia? Karlisten artean etsipena nagusitu omen zen, beste arrazoien artean, hainbeste ibili eta sufritu eta gero, espero zen arrakastarik lortzen ez zutelako, garai-pen garrantzitsurik eskuratzen ez zutelako. Ihes egin eta ezkutatu baino ez bide zuten egiten. Zeuden buruzagi karlistak ez bide ziren gehiagorako gauza, militar profesionalak izaki, ohituta zeuden gerra-egoerara moldatzen eta patxadan bizitzen. Horregatik, Santa Kruz bezalako gerrari sutsuak bizirik baino hilik nahiago zituzten, nahiz Gipuzkoan, esaten denez, gehienak santakruzistak izan. Santa Kruz bakarrik utzi zuten, laguntzarik gabe, alde guztietatik liberalez inguratuta eta beti ihesi ibili beharrean (Ariztimuño, 1986, 220-223). Garaikoen ustez, bando bereko buruzagiaren epelkeria izan zen karlisten beherakadaren arrazoi nagusia.

Apirileko lehen egunak, Santa Kruzek Erreterian egin zituen, bertako Migel Bizkarrondo maisuaren etxean, liberalez jositako herrian, hain zuzen. Han ezkutatuta zegoela, Beasaina joan zen trenea hartuta, eta hango sagardotegi batean sagardo-pitxar bat hartzera gonbidatu zituen bertan

zeudenak. Apirilaren 10ean, ostegun santuz, Arantzazun zen pazkoazkoa egiten. Handik San Adriana joateko bi gidari hartu behar izan zituen, ez baitzen batere erraza mendiak elurtuta eta lainopean bidea asmatzen. Otzaurten, ordea, ez zen elurrik. Hurrengo egunean, ostiral santuz, Astigarragan ziren bere partidakoak, eta 12an, Bidaniatik Beizamara jaitsi ziren. Tolosan 2.000 liberal zeuden finkatuak eta, Ibarrarako norabidean han ingurutik pasatzean, gotorleku aurreko farol guztiak xehatu zituzten tiroz, gauerdiz, eta segi aurrera, Elduaina, eta handik, mendia zeharkatuz, Ollokiegira. Goiz partean Aranon aurkitzen ziren, bertako maisuaren etxean gosaltzen. Handik Berara nondik joan zitekeen galdegin zion, Aritxulegitik pasatu gabe. Beran zegoela, ikustera etorri zitzaizkion Tolosako Patrizio Orkaiztegi bikarioa eta Isidro Maria Urruela. Hauek sosegatu omen zuten gure Santa Kruz, norbait garbitu behar zuelakoan omen zebilen-eta, sutan haserre. Izan ere, bi lagun handi hil zizkioten nazionalek: Beizamako Migel Ignazio Mugertza apirilaren 14an, eta Juan Jose Labaka. Zergatik-eta, bere lagunak zirelako. Hildako biak gurdian hartu eta zerri bi zeramatzatela esanez eraman omen zituzten Tolosara. Erantzunaren bila zebilen Santa Kruz. Bere arreba bisitatzeraz joan zen Elduaina eta, handik bueltan, Ibarrara zihoazela, ohartu zen largabista falta zitzaiola. Laguntzailea bidali zuen haren bila. Emakume batek bidean esan zion kontuz ibiltzeko Tolosa hartuta zegoela-eta, nahasita jendea. Tolosako zubian, santakruztarrek bi nazional hil zituzten, mendekuz hil ere, Mugerza eta Labaka bere lagunak ordain. Erretiran zihoazela, Ibarrako fabrikatik tirokatu zituzten handik pasatzen ari ziren santakruztarrek, baina galerarik ez zuten izan. Apirileko azken

asteetan Nafarroan barna ibili zen (Ariztimuño, 1986, 222-232)

Maiatzaren 8an, Santa Kruz Lekunberrin sartu zen 600 gizonekin, eta hemen Lizarragak bere esanera jarri nahi izan zuen. Lortu gabe, ordea. Aritxulegin gordeta zeukaten kanoia eskatu zion, berari Urruela jaunak emanik, bere jabetzakoa zuela-eta. Hark ezetz. Ez zuela obeditzen-eta, Santa Kruzi kasurik ez egiteko eta alde batera uzteko agindua eman zien Lizarragak bere esanekoei. Santa Kruzek, bere aldetik, baldintza hauek jarri zizkion Lizarragari Lesakatik 1873ko maiatzaren 11n igorritako gutunean: bat, heriotzako zigorra ken ziezaiotela, baina idatziz; bi, beren borondatez berari jarraitzen zioten mutilek izan zezatela berarekin ibiltzeko askatasuna; hiru, ahoz esandako irainak idatziz jar zitzala, defendatzeko modua izan zezan. Maiatzeko ondoko egunetan, Lizarragarekin hika-mika hori izan ondoren, gehienbat Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako herrietan ibili zen (Ariztimuño, 1986, 247-273).

4. Liberalak Berastegiko gotorlekutik lekutzeko mehatxuak

Araoz, Arantzazu eta Zalduondotik ibili ondoren, Ataungo San Gregorion txaloka hartu zituzten santakruz-tarrak. Bertan gaua egin-eta, maiatzaren 30ean Baraibarrera atera ziren Aralarko mendikate bukaezina zeharkatuz. Hurrengo egunean, gaua Uitzin eginda, Leitzan zeuden. Artean berria zen, bi hilabete eta erdi baino ez ziren pasa, Berastegiko alkateordea fusilatu zutela. Baina badirudi Santa Kruzek egindakoaren damurik ez duela, ez hango liberalak bakean uzteko asmorik. Leitzatik, Berastegiko

gotorlekuan kokatuta zegoen liberalen partidako koman-
danteari mezu hau bidali zion 1873ko ekainaren 1ean:

“–Considerando las tristísimas circunstancias en que se halla nuestra desventurada patria:

–Considerando que la anarquía socialista, que la devora, amenaza llegar a un punto jamás conocido en ningún pueblo:

–Considerando que no hay para España salvación sino en los principios y en el régimen de la causa del catolicismo y la monarquía representada por Don Carlos VII (Q.D.G.):

–Considerando que el ejército regular y muy particularmente la fuerza que usted manda, no pueden por ningún concepto apoyar a la demagogia desenfadada, y contando yo con poderosos medios de acción y estando decidido a obrar con la mayor energía, apelo antes al patriotismo de usted y de sus subordinados, excepción hecha de los miqueletes y nacionales, para encarecerle la conveniencia de que por todo el día de hoy deponga y me entregue las armas.

Si usted y sus subordinados procedieran así, que es como corresponde a honrados militares en las presentes circunstancias, yo daré completa libertad a todos los que no quisieran seguirme, abonando además en el acto 100 reales por cada fusil municionado y 500 por cada millón de cartuchos que fuera de eso me entreguen.

Si abrigan ustedes el propósito de permanecer defendiendo el orden de cosas destructor existente, con mucha pena, como me sucede siempre, emplearía energicamente los medios de acción de que dispongo, sin tener ante Dios ni ante los hombres ninguna responsabilidad.

De todas maneras espero su inmediata contestación para saber a qué atenerme, pero le ruego de nuevo medite bien la situación de España y lo que al bien de sus subordinados conviene y que obre después como le indico para ahorrarme el disgusto de hacer victimas entre los que, como sucede al ejército y no a miqueletes y nacionales, manejan hasta cierto punto forzosamente el arma en favor de una situación anárquica que no pueden menos de detestar.

Dios guarde a usted muchos años.

Campo del Honor, 1 de junio de 1873". Izenpetua: Manuel Santa Cruz (Ariztimuño, 1986, 277-278).

Agiri horretan nahiko garbi islatua agertzen da Santa Kruz apaizaren *idearium* politikoa. Arriskuan dagoen aberri hori Espainia da, egoera anarkiko batean hondoratua dagoena, sozialismoaren menpe, eta hori da, hain zuzen, liberalismoak ordezkatzeko duen gizarte-eredua. Haren salbazioa aurkitu, monarkiak ordezkatzeko duen katolizismoan aurkitzen da eta horixe da, ez besterik, Santa Kruzen karlismoak desiratzen duen azken xedea. Interesgarria da, bestalde, armada ofizialeko soldaduen eta mikelete eta nazionalen artean egiten duen bereizketa, armadako soldaduek halaber armak erabiltzera behartuta daudenak baitira; mikeleteak eta nazionalak, aldiz, erakunde armatuko profesionalak. Horregatik uzten die armadako menpekoei beren erabakia askatasunez har dezaten. Desafioak serio egina dirudi. Agiri hori, seguru asko, Santa Kruzen idazkariak egina izango zen. Erantzuna egun berean jasozuen, Goizuetarako bidean, Berastegiko indar liberalen buruzagiak, García komandanteak, izenpetuta:

“Regimiento Infantería de Luchana, núm. 27.

Primer batallón, sexta compañía.

En contestación a su oficio de esta fecha, tengo el gusto de manifestarle que considerando que mi deber como militar consiste en prestar ciega obediencia a mis superiores, al Gobierno de la nación, sea cual fuere, no puedo, como igualmente mis subordinados, acceder a sus deseos, rechazando al propio tiempo sus ofertas detestables, y hallándose dispuesto a recibir a usted conforme se merece, caso de que trate de llevar a vías de hecho los propósitos que me indica.

Dios guarde a usted muchos años.

Berástegui 1 de junio de 1873”. Izenpetua: Joaquín García” (Ariztimuño, 1986, 277-278).

Gutun horiek gurutzatzen ziren bitartean, Santa Kruz Leitzan zegoen eta hara ekarri zioten ekainaren 9an bere kanoia, Aritxulegin ostenduta zeukana, Berastegin kokatua zegoen destakamenduari erasotzeko. Egun berean, eguerditan, atera zen Hilario bere konpainiarekin eta arratsaldeko lauretan Manuel Santa Kruz bere eskolta eta beste soldadu batzuekin, norako bidean esan gabe. Hurrengo egunean, 10ean, guztiak Uitzin elkartu ziren. Antza, goarnizio txiki bat zen han Berastegin zegoena, baina, leku estrategikoan kokatuta zegoenez, liberalek Tolosara Ibarra aldetik joateko bidea ixten zien santakruztarrei eta, ondorioz, alfer-itzuli handiak egin behar izaten zituzten, Baraibartik, Gorrititik-eta, joatera behartuz (Ariztimuño, 1986, 308-310). Hortik zetorren, bada, handik uxatu nahia.

Zer gertatu zen kanoi harekin, zer Berastegiko goarnizioarekin, ez da esaten. Ez dirudi erasorik egin ziotenik Berastegiko destakamenduari, Lizarragaren laguntzarik jaso

ez zutelako (Ariztimuño, 1986, 312). Baina bai zigortu zituzten Leitzako plazan Lizarragaren desertore bat, herri bertako mozkor bat, Santa Kruz iraindu zuelako, eta Gorritin harrapatutako Berastegiko bi gizon, Berastegiko buruzagiak hara espiatzera bidaliak (Ariztimuño, 1986, 312).

Esan beharrik ez dago Santa Kruz apaiza askotan ibili zela Berastegiko lurretatik, Uli aldetik bezala Leitzarandik, beti mendiko bideetatik ibilki Aranorako edo Gorritirako joan-etorrietan, mendi-bideak baitziren harentzat defentsarako babesgarrienak. Gauza jakina da azken Karlistadan Uliko etxean mikeleteak egoten zirela eta hango pasabidea zaintzen zutela. Bazen hango mikelete-etxean ostatu moduko bat eta Santa Kruz handik pasatu zen egun batean, bertan geratu omen zen mokadu bat hartzen bere mutilekin. Bertan zeuden mikeleteekin eleketan egin, ordaindu eta deus pasatu ez balitz bezala, besterik gabe, aurrera segitu zuten¹¹⁸. Han ez zegoen tiroka hasteko ez egokierarik, ez borondaterik. Egia da mikeleteak ere atzetik izaten zituela, baina, arestian esan bezala, bazekien militarrak eta mikeleteak bereizten.

Ekainean bertan, Berastegiko gorabehera hauen ondotik, hurbilekoenak zituen Tolosako Orkaiztegi bikarioa eta Isidro Urruela joan zitzaizkion eskatuz, arren, Lizarragaren esanera jar zedila eta Aritxulegiko goarnizioa entrega zezala. Izan ere, haren izena belzten hasi ziren. Bera zen trenak zilipurdika jartzen zituena eta zalgurdikoak husten, bera egurtzen, lapurtzen, su ematen, hiltzen, fusilatzen, aitorzarik eta gupidarik gabe asasinatzen zuena. Fama ezin ankerragoa jarri zioten. Dorronsorok berak ere bai. Bideak ixten zihoazkion eta erbestera joateko bideak prestatzen hasi zen (Ariztimuño, 1986, 339-340). Azkenean, Karlos

erregeaiari zor zitzaion obedientziari men eginda, Valde-Espinari entregatu zizkion bere gizonak eta armak. Santa Kruz isilean atera zen Beratik uztailaren 2an, bere mutilak agurtzeko betarik izan gabe, mugaz beste aldean don Karlosekin egoteko. Baina ez bide ziren elkartu, ordurako hura irtena zelako Espainiara beste bide batetik. Uztailaren 10ean don Karlos Beran zen. Santa Kruzen mutilak haren esanera jarri ziren eta Aritxulegira joan ziren eta han kanoiaren bila hasi. Baina ez zuten orduan aurkitu, geroago, uztailaren 20an baizik, eta orduan gustura guztiak. Bereziki, Lizarraga eta Dorronsoro.

Erbestean, abuztuan eta azaroan, hara eta hona ibiliko da, beti ihesi. Espainian bakarrik ez, Frantzian ere fusilatu nahi izan zuten. Espainia estradizio-eske baitzebilan, Frantziatik Erromara joan zen eta hemen ere ez zioten bizitzen uzten (Ariztimuño, 1986, 369-373). Santa Kruzek politika utzi, erbesteratu eta handik hiru urtera, 1876ko otsailean bukatu zen gerra. Erregimen berriak jokabide bikoitza erabili zuen karlistekin bukatzeko: batetik, erakartzekoa, kontserbadurismo politikoan kokatutako gune posibilistak bereganatzen saiatuz, eskaintza katolikoa eginez eta indultuak emanaz; eta bestetik, baztertzeak, gidariak erbestera bidaliz, isolamendu politikoa eta zapalkuntza erabiliz. Bide biak nahasian. Azkenean, desengainuak eta nekea bitarteko, karlismoak bere oinarriak galdu egin zituen eta desegin egin zen (Canal, 2000, 34).

Santa Kruzek, gutxi-gorabehera, armetan bezainbat denbora egin zuen erbestean. Barruan hamar hilabete, erbestean hemezortzi.

5. Azken consideranda batzuk

Berastegin eta inguruetan gertatuak aipatu dira, gertakari horiek bigarren gerra karlistak zeraman bilakae-raren barruan kokatuz eta Berastegikoa testuinguru zaba-lago baten barruan ezarriz. Orokorrean, Santa Kruzi fama txarra egotzi izan zaio. Ordukoa gaurko mandiotik baina orduko begi-bihotzekin begiratzen ahaleginduz, Santa Kruzen jokabideaz ohar batzuk egingo ditugu, ez balora-zioak, oraindik ere haren izena ez baita erabat itzali, garai hartako gerrilla-hotsak mendietatik hirietara jaitsiak dire-nez gero.

5.1.Nola janzten zen? Aldi bakoitzean, tokian tokiko egoera desberdinen arabera, modu batera edo bestera. Batzuetan artzaina zen bere blusarekin; beste batzuetan, berriz, baserritar arrunt bat. Baina gerrillari bihurtu zenean, ia beti jantzi berdina eramaten zuen: zamarra, txapela eta txaleko beltza, galtza gris ilunak izter erdiraino jasoak, lepo-zapi bat, eta bizar beltza, luze-luzea. Eskuan sekula armarik ez, makila bat baino. Herrietan txistua eta danborra joz sartzen ziren, alai eta umoretsu. Deskantsu-egunetan, dantzatzen ziren, Araoz, Azkarate, Leitza, Goizueta, Lesaka, Bera eta beste herri batzuetan. Baina sartzen ziren herrietan, atsedean hartzeaz gain, beste gehiago ere egiten zuten: sosak biltzen zituzten, zerga gisako zerbaite eskatuz, txikia herritar soilari, handia aberats eta apaizei. Horrela, adibidez, Zumaia, Mutriku, Oikia, Araoz eta Beasainen (Ariztimuño, 1986, 74-77). Orexako oilategiak ere astintzen omen zituzten. “Soldaduak eta Santa Kruz apaizak aldegin omen zuten (Orexatik) da denak pozik, naiz oilloak palta”, hala dio Joxe Azpirozek (1988, 90) bere kontakizunetan.

5.2. Zergatik gerrillaria? Foruen aldekoa izan al zen? Esaten den bezain krudela izan al zen?

Haren argazkiek erakusten digute zein itxurako zen hogeita hamar urte inguruko gizon hura: txikia, baina sendoa, bekoki zabalekoa eta orbain handi eta sakonez betea, aurpegia zuria, bizarra, ilea eta begiak gaztaina-kolorekoak, begirada, tristeziarako arrazoiak eduki arren, alaia (Ariztimuño, 1986,73-74).

Baina zergatik jo zuen mendira, Hernialdeko Urruti-koetxea baserrian sotana utzita? Aita Ignazio Ariztimuño jesuitak Pasto-ko komentuan espreski eskatuta, bere liburuari egiten dion “Dos palabras al lector” izeneko sarreran garbi asko esaten du erlijioaren beherakada izan zela barru-barrutik eragin ziona:

“La fe y la religiosidad han sido siempre proverbiales en aquella bendita tierra; y la creencia de que el triunfo de las armas carlistas era también el triunfo de la religión, venía a ser por entonces una persuasión íntima y general (...) Por lo que amí toca, sólo diré que estaba imbuido y penetrado de estas ideas, que me sucedió muchas veces pasar desvelado la noche pensando en ellas” (Ariztimuño, 1986, 7).

Gauza bera errepikatzen da pasarte honetan ere:

“Por todo lo expuesto anteriormente vemos que lo primero que hizo a los carlistas lanzarse a la guerra fue la defensa de la Religión Católica tan duramente oprimida. Y ése fue también el motivo poderosísimo que arrastró a la campaña a Don Manuel Ignacio Santa Cruz, y con él a muchos otros sacerdotes, tantos que se atrevió a llamar la Diputación liberal guipuzcoana a la guerra carlista Rebelión Clerical” (Ariztimuño, 1986, 37).

Esan ere esaten zen Gasteizko Gotzaindegitik antolatu eta zuzenduak izan zirela 1870 eta 1872ko altxamenduak (Ariztimuño, 1986, 38). Ez bat edo bi, laurogei apaiz inguru ziren, beren parrokiak utzi-eta, gerrillan sartuta zebiltzanak. Beraz, Santa Kruz gerrillariarena ez zen kasu isolatua inondik inora. Euskal Herritik landa ere, apaiz gerrillarien kasua Europan zabaldua zegoen. Gerran sartzearekin zuzen edo oker jokatu zuen eztabaidan sartu gabe, esan dezagun bere bizitzan leialtasun osoz eutsi ziola erlijioaren suziriari, geroko urte guztiak misiolaritzan eman baitzituen Kolonbiako lurretan.

Jainkoaren ondoren, Euskal Herria dator. Hala uste du bederen Nikolas Ormaetxeak (I, 1991, 641):

“Erljioak eman zion Santa Kruzi ajolik aundiena, urrena Euskalerrriak. Erregea gora bera, berdintsu zitzaion: baño Euskalerrriak ‘hainbeste edertasun’ galdu zitulako ‘oraintxe nire zar zarrean ere, malkoak darizkit”.

Orixek euskal karlisten “patria” Euskal Herriarekin berdintzen du, zehatzago esanda, Euskal Herri foruzalearekin. Lotura hau, ordea, ez da islatzen hain garbi Santa Kruz baitan edo, bederen, ez da aipamen zehatzik egiten haren hitzaurre aipatuan. Dena den, haren taldekoa izandako Pedro Etxabe marindarrak, bai, honek espreski dio ez zirela gerrillara joan erregea defendatzera, Jainkoa eta Foruak baizik (Iztueta, V, 1991, 574) Miguel Dorronsoro diputatu nagusiak (1870, 40) ere foruen errebindikazioa karlismoaren alternatiba barruan sartzen zuen: “nuestra bandera es Religión, Patria y Rey, con los fueros”. Behar bada, garai honetan eta Euskal Herrian bertan, karlismoak eta karlismoak bereizi beharko lirateke eta, orobat, liberalismoak eta

liberalismoak, foruzaleak bietan aurkitzen baitira. Nolanahi ere, Karlistadetan foruen aldeko errebindikazio espezifikoa geroago sartzan da, batez ere, Euskal Herrian, Nafarroan eta Katalunian (Canal, 2000, 29-30).

Orixek kontatzen duenez, don Karlosek behin batez Ingalaterran topo egin omen zuen apaizarekin eta “tiroz ilko zula esan omen zion Españían arrapatu balu” (Ormaetxea, I, 1991, 640-641). Julio Urkixok *Euzkadi* egunkariko zuzendaritzara egindako gutunean (1928-01-24) hiru gauza argitzen zituen: bat, Santa Kruzek barkamena eskatuz gutun bat egin ziola eta hark, barkatuz, beste gutun batekin erantzun ziola; bi, don Karlosek barkatu ziola, bai, baina ez zuela sekula onartu haren gerrako jokabidea; hiru, don Karlosek behin bakarrik ikusi zuela Londonen (Iztueta, V, 1991, 576). Santa Kruzek berak aitortua da don Karlosekin bere gorabeherak izan zituela, baina badirudi, oroz gainera, norbait errespetagarria izan zela harentzat, legezko erregea izateaz gain, erlijioaren kausa defendatzen zuelako. Don Karlosen “patria” hura, bistan da, Espainia zen, ez Euskal Herria. Nafarroa eta Baskongadak –orduan hala deitzen zitzairen–, Espainia nazio handi eta bakarraren Probintziak baino ez ziren.

Lehen Karlistada (1833-1840) eta bigarrena (1872-1876) une oso kritikoetan garatu ziren, iraultza modura garatu ere. Lehenengoak, Maria Cristina erregeordearen garaian, Antzinako Erregimenetik atera eta Iraultza liberalari hasiera ematen zitzaionekoa zuen mugarri; bigarrenak, berriz, Seiurteko demokrazialdia eta I. Errepublikak (1868-1874). Bigarren Karlistadan, Euskal Herrian, egiazko estatu karlistak eratu ziren. Eta erabili zen borroka-eredua, gerri-llarena izan zen; horixe zen bortxa karlistaren erarik

tipikoena, Santa Kruzen kasuan garbiki ikusi den bezala. Mendira joateak horixe adierazi bide zuen. Bortxa honek, erabilia izan zen bere era desberdinetan ulertuta, ez zituen errespetatzen gutxienezko arau batzuk, ez presoekin ez herritarrekin eta, orokorrean, zakarkeria handiarekin jokatu zen karlismoaren eta liberalismoaren arteko borroka luzean XIX. mende osoan zehar (Canal, 2000, 31-32).

Santa Kruz ere bortxa-espinal hertsia eta zakar horrek bere sareetan harrapatu zuen. Harriduraz bezala esan izan da –apaiza izanda areago–, nola izan zitekeen hain gupidagabea? Mendian bere mutilekin ateratako argazkietan, arma bakartzat makila bat duela agertzen da. Nondik datorkio, orduan, esku krudelaren eta bihotz zekenaren fama gaizto hori? Izan ere, hainbeste hilketa leporatzen dizkiote, hainbeste zigor-zaparrada leporatzen! Krudela? Agian, bere garaiko beste askok uste bezala, gerrillaririk oldartsuena, ausartena zelako izango zioten horrelako espa mingain gaiztoek. Batzuetan gogor jokatu bazuen, horretarako bide eman ziotelako izan zen. Berak dioen bezala, batez ere, espioiekin zen gupidagabea:

“Contra los espías tuve que proceder al principio con mucho rigor para imponer espanto: de lo contrario, me hubiera sido imposible dar un paso por ninguna parte. De otros rigores que empleé, no soy yo el que tengo la culpa, sino aquellos que me dieron causa justísima para ello” (Ariztimuño, 1986, 9).

Berak aitortua da, espioiak zirela tarteko, askotan egon zela heriotzatik hurbil asko. Behin batean, bi mutil liberal etorri zitzaizkion, lagun-trazan, baina ohartu zen bera hiltzeko armak ezkutuan zekartzatela. Horrelakoekin Manuelek

ez zuen gupidarik. Bidetik kendu. Zenbait eta lehen, hobe. Bera joan aurretik. Hori edo antzeko zerbait gertatu bide zen, antza, Berastegiko Aldunzin alkateordearekin.

5.3. Santa Kruzek bazituen bere etsaiak. Santa Kruz gerrillari karlista zen, liberalen kontra oldartu zena esandako arrazoiengatik. Baina bere gerrillari-borrokan, beste bandokoen erasana jasan izan beharra aski ez izaki, bere bandako hainbatekin ere istilu franko izan zuen. Ez bere borroka-mutilekin, bere buruzagiekin baino. Liberalak pentsaeraz ziren kontrakoak, erlijioaren kontra zihoazelako, batez ere. Hauek etsai garbiak ziren harentzat. Baina etxebarrukoen artean tirabirak sortzen direnean, zaila gertatzen da –ezinezkoa zenbait kasutan–, onen eta gaiztoen, errudunen eta errugabeen arteko mugak zehaztea, arrazoiak alde banatara erdibitzea, alderdikeria erabat gainditzea.

Santa Kruzek, bere aldetik, karlista jatorrak eta faltsuak, zintzoak eta traidoreak bereizten zituen. Harentzat buruzagi karlistak, oro har, alperrak ziren, herritarren bizkar bizi zirenak. Lehen Karlistadan traidoreak izan ziren bezala buruzagi karlistak –zehazki Maroto–, buruzagi liberalekin ondo konpontzen zirenak; halaxe oraingo buruzagiak ere. Izenak ematen ditu. Lizarraga komandantearekin konponezinak Aiako erasokoan hasten dira, itzal pixkaren bat egiten ziolako noski. Adiskidantzak egiteko asmotan, Lekunberrin hizketatu ziren 1873ko maiatzean, baina arrakastarik izan gabe; geroztik, Santa Kruz eta Lizarraga elkarrengandik banatzen dira eta bakoitzak erabat bere aldetik jokatzen du. Zergatik? Komandantearen ustez, apaizaren egitekoa sakristian zegoelako eta apaizaren ustez, berriz, komandanteak gerra-gizon baten neurria ematen ez zuelako. Valde-Espina

markes jauna ahalegindu zen Santa Kruz Lizarragarren esanetara makurrarazten, baina ez zuen lortu. Tolosako Luziano Mendizabal eta Orkaiztegi apaizek bular ematen zioten bere bidean aurrera segi zezan (Ormaetxea, I, 682-683).

Era berean, Domingo Dorregaray Dominguera militarrekin ere harreman zailak izan zituen. Harengan federik ez zuen izan. Izan ere, Ceutan 1823ko uztailean jaiotako militar honen curriculum militarra halakoa zen, susmopean hartzeko modukoa: armada karlistan 12 urterekin sartu zen kadete bezala; gero 1839an, Bergarako hitzarmenaren ondotik, isabeldar armadara pasatu zen, baina Iraultzak Isabel II.a tronutik bota zuenean, erabateko lizentzia eskatu eta bere zerbitzuak don Karlosi eskaini zizkion; 1873ko otsailaren 17an Nafarroan sartu zen mariskal-enpleguarekin eta euskal eta nafar Probintzietako agintaritzarekin, eta 1874ko urrian Lizarragaren komandante-kargua hartu zuen Valencia eta Aragoiko armada karlistan. Egina zeukan bideagatik, ez bakarrik Santa Kruzentzat, beste karlistentzat ere susmagarria egin zen horren jokabidea. Saldua omen, liberarentzat lanean aritu zena (Ariztimuño, 1986, 197).

Migel Dorronsoro Gipuzkoako diputatu nagusia hurbilekoa zuen, 1872ko udaberriko altxamenduan bere partidako kaperau izan baitzen. Hurrengo urteko kanpainan gerra-administratzaile izan zen eta, Santa Kruzen ustez, gehiegi lagundu zion Lizarragari eta erabat bazter utzi bera. Gezurrak ere bota zituen bere kontra. Bertzenaz, gizon garbia eta ona, baina hau ere kritikagarria: "... era hombre bueno, pero estaba enteramente sugestionado por el otro; no era un hombre para la guerra; hasta su tipo físico, pequeño, barrigudo, lo estaba diciendo (...) sin saberlo él,

y con todas sus buenas intenciones, era el instrumento de la traición que se perpetró más tarde” (Ariztimuño 1986, 197-198). Beste pasarte honetan antzeko zerbait dio haren nortasunaz eta jokabidez: “Yo con Dorronsoro nunca tuve nada: es, pues, una falsedad que yo sospechase de él. Digo que era intachable y la primera figura de Guipúzcoa; pero digo también lo que ya dijeron otros, que no era para entender cosas de guerra, y menos de guerra como la que yo hacía” (Ariztimuño, 1986, 199). Bere eskumeneko diru publikoak Lizarragaren armadak xahutu zituen: “Esos, esos son los que, sin hacer nada más que comer, acabaron con todos los recursos y los que empobrecieron a Dorronsoro (...) les dió a ellos todo... y se empobreció. A mí no me dió ni un céntimo; sólo me ha dado insultos que dejó escritos creyendo a los traidores, que fueron los que le arruinaron y los que arruinaron también a toda Guipúzcoa” (Ariztimuño, 1986, 199). Munizioa, kartutxoak-eta, eskatu, eta sekula eman ez. Dorronsorok bi konpainia zeuzkan bere zaintzarako (Ariztimuño, 1986, 200).

Beraz, harentzat karlista zintzoak eta gaiztoak zeuden, egiazko borrokalariak eta “ojalateroak”. Hauentzat bizitza militarra ofizioa zen, bizibidea; haientzat, herritar xumeentzat, aldiz, kausa zuzenaren aldeko militantzia sutsua, beste gauza guztiak utzita, borondate hutsez onartutako bizimodu gogorra, zeukatena bere bizia arriskuan jartzeraino ematen zutena.

5.4. Arestian esan da ez zuela zentimorik jasotzen ez armada ofizialetik ez Diputazioko kutxako diru publikotik; alderantziz, laguntza ez, baizik irainak eta saldukeria. Nondik ateratzen zuen orduan? Pentsatzen jarri-eta,

azkenean, bilatu zuen iturri emankorra izan zitekeena: Lizartatik legoa batera, Illarratzun itxita zegoen bidesari-etxea martxan jartzea pentsatu zuen, handik pasatzen baitziren Gipuzkoarako nafar ardoak. Dirutza ederra jasotzen zuten zergalariak: egunean lau, bost eta sei mila erreal. Ireki eta handik hamar egunera, hamar mila erreal bidali zizkion bertako zergalariak Santa Kruzi Leitzara. Jakina, Illarratzu leku arriskutsuan kokatua baitzegoen, Lizarra, Tolosa, Berastegi, Alegia, Amezketa eta beste herrietako goarnizioek alde guztietatik inguratuta, Santa Kruz Nafarroako herrietatik bakarrik ibil zitekeen, eta ibili ere halaxe ibiltzen zen, goizean Arribetik, eguerdian Atallutik, arratsean Betelutik, ilunabarrean Azpiroztik. Gauean, Bedaio, Intza, Azkarate eta inguruetako baserrietara erretiratzen ziren santakruztarrak. Zangoak majo dantzatzen zituzten. Ez zen Illarratzuko aduana-zerga ordaindu gabe libratzen zen garraiolaririk, kamioa zainduta zeukaten-eta. Azkenean, ordea, gorrotoak eraginda, Santa Kruzek Lekunberri eta Beran ezarrita zeuzkan aduanak kendu egin zizkioten Lizarragak eta Dorronsorok (Ariztimuño, 1986, 201-204). Kontu hauek noizkoak diren ez da esaten, baina badirudi 1873koak direla, martxoa aurrekoak, Berastegiko hilketa gertatu aurrekoak.

IV

AZKEN GERRATEKOAN (1936-1939)

Azken Karlistadaren ondotik Espainiako estatu-zentralismoa finkatzen eta Probintzien arteko homogeneotasuna zabaltzen doan heinean, euskal gizartean ere aldaketa sakonak ematen dira, ordura arte eman ez ziren bezalakoak. Maila ekonomikoan, Europako estatu aurreratuetan garatuz doan industrializatzeko-prozesu bizkorren parean edo, bederen, ez hain atzera, Hego Euskal Herriko kostaldean sekulako gorakada ezagutzen du industrigintzak, bereziki Bizkaian, jadanik XIX. mende-bukaeratik hasita; zerbait geroago eta mantsoago Gipuzkoan. Bi herrialde hauek XX. mendeko hirugarren hamarkadan, batez ere, industrigintza indartsuaren hartzaile bilakatzen dira eta Espainiako leku guztietatik etorritako immigrazio-kopuru handia bilduko da industrigune nagusietan, batez ere, Bizkaiko meatzetan eta metalurgiako industrietan. Araba eta Nafarroako industri iraultza dezente geroago etorriko da, gerra ostean, lehenik Araban 1950eko hamarkadan, Nafarroan hurrengoan, bietan hiriburuen inguruan. Iparraldeak emateke dauka

bigarren sektorerako urratsa, eta ez dirudi, oraingoz bederen, emateko bidean dagoenik ere. Gero eta gehiago, turisten eta lur-espekulatuzaileen bazkaleku bilakatzen ari da.

Kataluniarekin batera, bada, aipatutako bi lurralde horiek dira oso azkar esnatu zirenak modernitatearen hotsera, Europan orokortzen ari zen gizarte-aldaketa horren zurrunbiloan, Espainia osoak gizarte-egitura tradizionalen gau luzean lokartua jarraitzen zuen bitartean. Baina estatua bere eskuetan ukan, Espainiak zeukan, ez Kataluniak ez Euskal Herriak, nahiz nazio aurreratuagoak ziren, eta bera zen, estatu-zentralismoaren bidez, bere boterea ezartzen zuena lurralde osoan zehar. Bestalde, azken Karlistadaren goizetik bertatik, azken foru-hondarrak ezabatu ziren eta, hezkuntza-sistemaren bidez, gazteleraren ezarpena ere indartuz joan zen, baita herri txikietan ere, maisu-maistra erdaldunen bidez.

Euskal gizarte tradizionalan gertatzen den gizarte-higadura ekonomiko, politiko eta kulturalak bete-betean harrapatu zuen Euskal Herria bere osotasunean, baina, batez ere, kostaldekoa, eta bertan hainbat gizarte-mugimendu agertuko dira, ia denak batera: liberalismoa, karlismoa, errepublikanismoa, sozialismoa, euskal foruzaletasuna, nazionalismoa, eta Bilbon euskal oligarkia monopolista, Espainiako lur-jabe handiekin elkartu eta estatu espainolaren zimendu ekonomiko eta politikoak ezarri eta sendotuko dituen. Euskal pizkundeak ere testuinguru horren barruan abiatuko du bere gorabidea, aldez foruzaletasunaren bidetik, neurri erabakigarriagoan euskal nazionalismoaren eraginez. Gerra zibilak etengo du, zakarki eten ere, haren urre-aroa eta horrela, II. Errepublikaren ondoko gazi-gozaok dastatzeko astirik izan gabe, baten diktaduratik

bestearenean sartuta aurkitzen gara, frankismoaren tullean.

Garai honetan, noski, Berastegi eta bere ingurune hurbila, Orixeren *Euskaldunak* poeman hain ederki islatzen den bezala, erabat itsatsia dago nekazaritzan oinarritutako gizarte tradizionalaren jiteari, betiko bizimoldeari, eta horrelako herrietan, Émile Durkheimen (1982, 83-130) egoki asko azaltzen duen bezala, kontzientzia kolektiboa da agintzen duena. Indibidualismoari, norberaren hautuari oso autonomia gutxi aitortzen zaio edo, hobeto esateko, ia batere ez. Inguruko komunitatearen jokatzeko, pentsatzeko eta sentitzeko jarrerak eta bizierak dira bakoitzaren muga eta horiek dira norbanakoaren nortasuna zertzen dutenak.

Zehaztasunean harago joanki, begira dezagun Berastegi herria zein testuinguru soziopolitikotan aurkitzen zen, lehenik 1893-1923 epealdian eta segidan Primo de Rivera diktadorearen garaitik 1936ko gerratea bitartean, tartean II. Errepublikaren bizitza laburra kontuan hartuta.

EAJ 1904-1907 urte-bitarte horretan hasi zen bere alderdia Gipuzkoan antolatu eta sendotzen. Alderdiak, hain zuzen ere, 1908ko apirilaren 20an egin zuen Gipuzkoako Buru Batzarra (GBB) hautatzeko deialdia, Zumarragan burutu zena. Antolaketaren aldetik, hara joan zirenak bi taldetan banatzen ziren: batean udalbatzaren ordezkari gisa eta bestean, berriz, talde nazionalisten izenean zihozenak.. Guztira 32 herritako ordezkariak bertaratu ziren, huts egin zutenak Aduna, Lezo eta Berastegiko udalbatzako ordezkariak izan zirelarik. Beraz, urte hartan Gipuzkoako nazionalistek 35 Udaletan bederen bazituzten beren ordezkariak (Aizpuru, 2000, 171-172). Alderdiak bazuen Berastegin aurreko urtean, 1907an, jarraitzaile edo ekinkide bat

(Aizpuru, 2000, 467), nor zen ez dakiguna. Donostian bizi zen Jose Mayora Aranburu medikua hautatu zuten GBBko lehendakari 1911ko abenduaren 6an, baita 1914ko abenduaren 13an ere. Ez dakigu zenbat batzarkide elkartu ziren, baina bai, ordea, hilabete batzuk lehenago Tolosan egindako Jai Nazionalen udalbatzetatik 29 eta herri-batzokietatik 17 ordezkari izan zirela. Berastegikoa, herri-batzokiko ordezkari gisa agertzen da (Aizpuru, 2000, 179). Esan nahi baita, ordurako bazela bertan batzoki gisa funtzionatzen zuen zerbeit antolatua.

1. Berastegiren egoera politikoa Gipuzkoako hauteskunde-emaitzen mapan (1900-1936)

Hauteskunde-emaitzak bere osotasunean hartzeko, Espainiako Gorteetarako egindakoetatik abiatuko gara, handik Udaletakoetara pasatzeko, ibilbide horretan ikusiko baita noiz sartzen diren euskal nazionalistak Gipuzkoako hauteskunde-kanpainan. Nolanahi ere, hauteskunde haue-
tan, nola antolatuta zeuden ikusita, Berastegi bezalako herri txikietako auzotarren artean ordezkari-maila txikia izan zuten, hiri handietako jauntxoak izaten baitziren zerrenda-buru joaten zirenak. Batzuetan, gainera, arrotzak hirian bertan.

1.1. Espainiako Gorteetarako hauteskundeak Gipuzkoan

Lehen epealdian (1901-1905), Erregeordealdiko azken hauteskundeak eta XX. mendeko lehenak 1901eko maiatzaren 19an egin ziren. Gipuzkoa lau hauteskunde-barrutitan zatituta aurkitzen zen 1885. urtea aurretik eta lau ordezkari

kari igortzen zituen Espainiako Gorteetara. Barruti bakoitzetik bana. Azpeitia, Donostia, Tolosa eta Bergara ziren hauteskunde-barruti hauek. Zumaiakoa, bosgarrena, 1885eko ekainaren 23an gehitu zitzaion (Cillan, 1975, 219). Gorteetarako hauteskundeak 1901eko maiatzaren 19an egin ziren, Donostian Rafael Pikabea katoliko monarkikoa nagusitu zelarik % 85, 41eko portzentajearekin, Tolosan Victor Pradera karlista 51,47rekin, Bergaran Romualdo García kontserbadorea % 98,63rekin, Azpeitian Antonio Aldama integrista % 95,91koarekin eta Zumaian Joaquin Arteaga kontserbadorea, hautagai bakarra, ehuneko ehunekin (Cillan, 1975, 234-241). Eskuin estatalak erabat irentsi zuen liberalek eta sozialistek osatutako ezkerria. Alfonso XIII.aren erregealdian 1903ko apirilaren 26an egindako hauteskundeetan ere eskuinak bereganatu zituen boto gehienak. Tolosako barrutian, Julio Urquijo Ibarra karlista nagusitu zen % 56,22 botorekin. Berastegin ere bai, aise asko, % 81,73rekin, 104 alde eta 85 aurka (Cillan, 1975, 259-265). Handik bi urtera, 1905eko irailaren 10ean egindakoetan, Donostian Tomas Balda eta Tolosan Jose Orueta liberalak nagusitu ziren ehuneko 93,03 eta 55,36ko portzentajeekin, eta beste barrutietan, berriz, kontserbadoreak eta integristak gehiago handi batez. Berastegin Jose Orueta liberalak eta Julio Urquijo karlistak boto-kopuru berbera lortu zuten, hots, bakoitzak 26na (Cillan, 1975, 287-293).

Bigarren epealdian (1907-1917), 1907ko apirilaren 21eko hauteskundeak erlijio-arazoa zeukan atzean, Canalejas ministroak aurrera atera nahi zuen proiektuak asoziazio erlijiosoen boterea mugatu nahi baitzuen, eta proiektu honek, noski, biziki azkartu zuen eskuin katolikoekin eta

ezker laikoaren arteko tirabira. Gatazka-giro honetan hautagai kontserbadore eta integristak bakarrik aurkeztu ziren, Donostian Isidoro Acevedo sozialista salbu, eta eserleku guztiak bildu zituzten (Cillan, 1975, 334-335).

1910eko hauteskundeak dira, hain zuzen, 1907ko Hauteskunde-Legearen arabera egiten lehenak. Hauteskunde-kanpaina hautagaien aldarrikapenean zehaztu zen eta bide-
ratze hau 1907ko hauteskunde-lege honen ondorioz bakarrik erakundetu zen. Lege berri honetako aldaketarik sakonena 29. artikuluan aurkitzen da, eta honen arabera, behar diren adina hautagai bakarrik aurkezten badira, horiek zuzenean izendatuak geratzen dira, besterik gabe (Cillan, 1975, 123). Lege honen xede nagusia zen kazikismoarekin bukatzea. Izan ere, hauteskunde-gorputza erabat ustelduta baitzegoen, eskaintzarik onena norik egin hark erosten zituen botoak. Gorteak ezabatu bezain azkar hasten ziren botere ekonomikorik handiena zuten hautagaien bila, beren botoekin aterako zituzten etekinetan pentsatuz, alde batera utzita barrutian gehien errotuak zeudenak (Cillan, 1975, 123-125).

Honela, 1910eko maiatzaren 11ko hauteskundeetan, karlismoa ordena liberalaren kontra jaiki baitzen, kontserbadoreak errepublikar eta sozialisten gainetik pasa ziren, hurrenez hurren, Donostia eta Bergaran, eta Azpeitian integristak karlisten aurretik. Tolosa eta Zumaian ez baitzen hautagairik aurkeztu (Cillan, 1975, 364-375), Berastegik ez zuen herri-ordezkaririk izan.

Hurrengo 1914ko apirilko hauteskundeetan, orokorrean alderdi historikoen zatiketak gertatzen dira alderdi liberalen zein kontserbadoreen artean. Liberal batzuek Garcia Prieto-ri jarraitu zioten, beste batzuek Romanones-ko

kondeari. Kontserbadoreek, orobat, bitan zatitu ziren, batean Dato-ren eta bestean Maura-ren jarraitzaileak aurkitzen zirelarik. Alderdi karlistaren barruan, berriz, integristoaren eta jaimismoaren arteko borroka nabarmendu zen, batez ere. Hautagaien zerrendan ez zen agertzen nazionalisten izenik. Tolosako barrutian Jose Orueta liberala eta Pedro de Endaya jaimista aurkeztu ziren, eta lehengoa nagusitu zen % 90,11ko portzentajearekin. Berastegin ere bai antzeko % 91eko aldearekin (Cillan, 1975, 378-417). Hautesleen kopurua 237koa izan zen (Cillan, 1975, 390).

1916ko apirilaren 9ko hauteskundeetan, “cunerismoa” izenarekin ezagutzen den ustelkeri mota ezagutzen da, zeinaren arabera, alderdiek aginduta, hautagaiak barruti batetik bestera aldatzen baitziren, jakinaren gainean egonda beren herrietan ez zituztela lortuko behar beste boto. Horrela, herrietako hautesleek beren botoa ezagutzen ez zuten hautagai bati ematera behartuak zeuden. Bergarako barrutian soilik aurkeztu zen hautagai nazionalista, Enrike Elortza, baina arrakastarik gabe. Tolosan, Esteban Bilbao jaimistak eraman zituen % 81,36 boto; orobat, Berastegin, 91 botorekin, Juan Usabiaga errepublikarrak lortutako 24ren aurka (Cillan, 1875, 423-449). Urte horretan bertan EAJ lehen aldiz aurkeztu zen eta diputatu bat lortu zuen Espainiako Gorteetan. *Aberri* aldizkarian, ordea, jokabide horren kontrako salaketa zorrotza argitaratu zen 1918an, esanez hara joandako euskal diputatuak “atzerritarrak” zirela Madrilgo Gorteetan (Cillan, 1975, 426). Euskal nazionalismoa indartzen bazihoan ere, orokorrean gutxiengoan aurkitzen zen artean.

Hirugarren epealdian (1918-1923) Gorteetarako 1918ko hauteskundeetan, Probintzian antolatutako lau

distritu edo barrutiko sail desberdinetan, emaitza hauek lortu ziren: Donostiakoan, Horacio de Azqueta liberalak 5.644 boto, Jose de Elozegui mauristak 5.593, Guillermo Torrijos Goyarzu sozialistak 480, besteek 12; Zumaiakoan, Joaquin de Arteaga kontserbadoreak 3.051 boto beretu zituen, Antonio Paguaga jaimistak 2.336 eta besteek 7; Bergarakoan, Jose de Eizaguirre Ayestaran nazionalistak 4.137, José Felix de Lequerica Erquiza ciervistak 3.686, Luis Araquistain sozialistak 191, eta besteek 19; Tolosakoan, Esteban Bilbao Eguia jaimistak 3.102, Jose Maria Lardizabal Valenzuela nazionalistak 2.358, eta besteek 17. Bergarakoan izan ezik, non Jose Eizagirre nagusitu baitzen botoen ehuneko 51,19rekin, beste barruti guztietan alderdi estatalen hegemonia aski nabaria izan zen.

Tolosakoan, Esteban Bilbao integristak aurre hartu zion Jose Maria Lardizabali portzentajea 13,29 puntuko diferentziarekin. Tolosako barrutian kokatuta zegoen Berastegik, hain zuzen, hautagai integristak 99 boto lortu zituen eta nazionalistak, berriz, 71. Bien artean 28 punturen arteko aldea. Berastegi haraneko beste herrietan ere antzeko emaitzak eman ziren, adibidez, Ibarra, Belauntza eta El-duainen (Cillan, 1975, 473-497). Tolosaldean, beraz, integristak nagusitu ziren, Andoain, Asteasu, Berrobi, Zizurkil, Irura, Lazkao eta Billabonan salbu.

Hurrengo urtean, gobernuen etengabeko ezegonkortasunaren ondotik Maura-k berriro boterea eskuratu eta 1919ko ekainaren 1erako Probintzi Diputaziorako hauteskunde-deialdia egin zenean, euskal nazionalistek, Eizagirrek Bergaran izandako arrakasta ikusirik, Donostiarako izan ezik, beste barruti guztietarako –zehazki Azpeitia, Bergara, Zumaia eta Tolosarako–, hautagaiak

aurkeztu zituzten, maurista, liberal, integrista, tradizionalista, sozialistekin borrokan. Bizkaiko Sota diputatu nagusiaren laguntza jaso zuten arren, arrakastak ez zien lagundu ezein barrutitan. Tolosako hautagai nazionalista Jose Horn izan zen, eta bigarren indar bezala geratu zen 2.037 botorekin. Berastegin ere antzeko emaitzak jaso ziren: Careagak 87, Jose Hornek 76 eta Ramon Bandres liberalak, Tolosako Udaleko idazkariak, 17. Jose Horn, esaten zenez, ez omen zen separatista, nazionalista baino, Espainiako estatuan senatari eta errege-dekretuz Bilboko alkate izana (Cillan, 1975, 499-527).

Gorteetarako azken hauteskundeak 1923ko apirilean egin ziren, gobernu-buru García Prieto zela, armagintzaren krisi-egoera zela-eta, batez ere, Eibarko langileak sutan kalera irten ziren garaian, hain zuzen. Jose Eizagirre nazionalista Zumaia eta Tolosako zerrendetan aurkeztu zen, baina bietan emaitza ezin txarragoak lortu zituen, Tolosakoan 14 boto baino ez, Ricardo Oreja tradizionalistaren 2.156ren aurka. Berastegin boto guztiak azkeneko honek eraman zituen, guztira 45, botoa eman zezaketenen kopurua 243 izanda (Cillan, 1975, 570-603). Honek esan nahi du herritarrek ez bide zutela inolako interesik jarri hauteskunde hauetan, hautesleak % 18,51 bakarrik izan baitziren.

Gatozen ondorioetara. Tolosako barrutiak, 1905 eta 1914ko hauteskundeetan izan ezik, karlismoari eman zion bere botoa; Azpeitiak beti integrista, 1903an bakarrik karlismoari (Cillan, 1975, XX). Bigarren ezaugarria da, Tolosari dagokionez, lekukoak ez zirenak hautatzen zirela, hala nola Victor Pradera 1901n eta Esteban Bilbao 1916 eta 1918an. Bergarak bere botoa kausa kontserbadoreari

eman zion etenik gabe, nazionalistek 1918. urtean garai-pena lortu zuten arte. Hauteskunde-emitza onenak, orotara hartuta, hautagai integristek, karlistek eta, bereziki, kontserbadoreek lortuko dituzte, nazionalistak eta liberalak salbuespen gisa agertzen diren bitartean (Cillan, 1975, XXII).

Egia da, garai honetako hauteskunde-politika aipatzean, mota askotako ustelkeriaren kiratsa ere berehala heltzen dela izpiritu kritikoaren usaimenera. Garaian-garaian mota desberdinetako desbideratze nabari bezain eskandalagarriak txandatzen joaten dira, herri-hautesle xumeari iraingarri zaizkionak. Orokorrean jauntxo ilustratuen kazike-portaerak nahi erara erabiltzen du hautesleria, bereziki, herri txikietakoa. Hautagaiek eskrupulurik ez dute hautesleen botoak diruz erosteko. Beste batzuetan, cunerismoaren kasuan bezala, hautesleak hautagai ezezagunak bozkatzera behartzen dituzte (Cillan, 1975, 423).

Herri soilari, bestalde, herri-ordezkarriak hautatzeko sistema, oro har, aski arrotz egiten zaio eta 1901-1923 epealdian zehar portzentajeak biziki garaiak dira, % 26 eta 55 bitartekoak, adibidez, Tolosako barrutian (Cillan, 1975, 154), eta herri txikietan, seguru asko, oraindik garaiagoak. Abstentzionismo hain garaiaren arrazoia izan bide zitekeen, hauteskunde-kanpainetan erabiltzen ziren gaiak ez zitzaizkiela interesatzen herritarrei. Botoa emateko eguna igandean izaten baitzen, beren botoa ematen zuten gehienak mezetara joaten zirenak izango ziren (Cillan, 1975, 162-163). Beste arrazoietakoa bat, herritar gehienek analfabetismoa zen, hots, eztabaidatzen ziren arazo politikoei buruzko ezagutza eskasa. Gipuzkoan, 1900-1920 epealdian, % 30,7 ziren irakurtzen eta idazten ez zekitenak (Cillan, 1975,

167). Zifra garaia. Erlijio katolikoak, orobat, garrantzi handia zuen Gipuzkoan 1900-1936 epealdian zehar, ez gutxi Loiolak bertako jendeen espiritualitatean zuen indarragatik. Apaizek herrietan bi bide indartsu zituzten eliztarren bizitza gidatzeko: igandeetako sermoia eta konfesatokia. Eta Aste Santuan, misioak. Asko edo gutxi, beren eragina zuten. Halako giro erlijiosoan, ez da harritzekoa Euskal Herrian apaiz-bokazio ugari eta misiolari-lur emankorra izatea. Epealdi horretan (1900-1936) apaiztutako berastegiarren kopurua 8koa zen, Lizartza eta Amezketan bezalatsu (Cillan, 1975, 83-119). Bistan da klerikalismoak bere eragina zuela politikan.

1.2. Gipuzkoako udal-hauteskundeak

Nazionalistak lehen aldiz 1905eko azaroan aurkeztu ziren Probintziako diputazio-hauteskundeetara, eta herri gutxi batzuetan baino ez zuten lortu ordezkaritza izatea: Deba, Zumaia, Andoain eta Bergaran. Bartzelonan Zorixarreko Astean gertatutakoen ondotik 1909ko abenduan egindako diputazio-hauteskundeetan, euskal nazionalismoak orokorrean gora egin zuen Probintzian zehar, guztira 13 zinegotzi lortuz. Ondoren egindakoetan kopuruak gorantz egin zuen: 1911n 19 zinegotzi –oraingoan Donostian ere lehen aldiz ordezkaritza erdietsiz–, 1913ko abenduan 25, 1915eko azaroan –hauteskunde-barrutien antolaketan eman zen berrikuntzaren ondorioz, hain zuzen–, 11 zinegotzi, eta 1917ko azaroan 35, 1920ko otsailean 64 eta epealdi honetako azkenekoan, 1922ko otsailaren 5ekoan, 65. Comución Nacionalista-ren gorakada nabarmena da azken horietan, nahiz tartean EAJ-

Aberrikoen zatiketa gertatu. Azken urte honetan, 1922an, Tolosak hiru ordezkari lortu zituen (Aizpuru, 2000, 420-436).

Bizkaian nazionalistek burgesia industrialeko talde batzuk bereganatu bazituzten ere, Gipuzkoan ez bide zuten maila bereko sostengurik aurkitu industria eta finantzetako burgesian, hemen, halakotzat sailkatutako 37ko lagunen artean, banaka batzuk besterik ez baitira izango nazionalisten zerrendan lerrokatuko direnak: Inazio Lardizabal eta bere iloba, Bizente Monzon, Tolosako Sesé anaiak eta Bizkaian bizi ziren Pedro Chalbaud eta Jose Horn (Aizpuru, 2000, 345).

Primo de Rivera-ren Direktorioak, 1923ko irailaren 17ko dekretuaren bidez, estatu espainolaren segurtasun eta batasunaren kontrako delituak zigortzeko neurri zapaltzaile zorrotzak hartu zituen. Sistemaz kolpatu zituen estatuaren egonkortasuna kolokan jar zezaketen gizarte-mugimenduak oro, bereziki nazionalista eta kolonialista independentzi zaleak eta alderdi iraultzaileak. Alderdi Komunista, anarkistak eta PNV-Aberri taldeko buruzagi eta kideak kartzelara edo erbestera kondenatu zituen orduko legalitateak. Alderdi eta sindikatu moderatuak aldiz, diktadurak ezarritako legalitatea onartuz gero, egoera berrira moldatu ziren. Hala egin zuten, besteak beste, PSOE eta UGT estatalek eta Comución Nacionalista autonomistak.

Primo de Rivera-ren diktadura 1930eko urtarrilaren 23an erori zen eta, politika espainolaren oinak airean geratzean, Alfonso XIII.a erregeak Berenguer jeneralari eman zion gobernu osatu eta gizarte-indarrak konstituzio-legalitatera ekartzeko ardura. Diktadurak eragindako krisia hain zen sakona, beranduegi zen lehengo gizarte-ordenara

itzultzeko. Zatika-zatika deseginez joan zen diktaduraren eraikina, batean amnisti eskabideak indartuz zihozelako, bestean kargu-aldaketak gertatu zirelako. Egoera honetan monarkiak urtebete baino ez du iraungo, 1931ko apirilean eroriko baita, segidan desterrurako bidea hartuz.

Errege-ministro izandako batzuk, zehazki Alcalá Zamora, Sánchez Guerra eta Miguel Maura, izan ziren Errepublika moderatu baten proiektua irudikatu zutenak. Harrera ona izan zuten klase ertainekoen artean. Kontserbadore hutsak izandako batzuek ere ondo ikusi zuten urrats hori ematea. Espainiako gobernua 1931ko otsailaren 28an eratu zen. Hurrengo hilean, apirilaren 12an, udal-hauteskundeak izan ziren eta Miguel Maura, Azaña, Lerroux, Martínez Barrio, D'Olivier eta Largo Caballero ministro jaunek osatutako behin-behineko lehen gobernu errepublikarra bideratu zen, lehendakari Alcalá Zamora zela (Cillan, 1975, 612-613).

Era berean, II. Errepublika aldarrikatu baino bospasei hilabete lehenago, euskal nazionalismo historikoaren barruan zatiturik zeuden bi taldeak, PNV-Aberri independentista eta Comución Nacionalista autonomista, 1930eko azaroaren 16an elkartu ziren Bergarako Batzarrean. Elkarturik bai, baina, aldi berean, talde bakoitzak bere arimarekin segituko du alderdi bateratuaren barruan. PNV bateratuan gehiengoak politika estatutistaren bidetik joko du eta, mila jirabira egin ondoren, tropa nazionalak ia Gipuzkoa osoa hartuta daukatenean, orduan aitortuko zaio bere Autonomi Estatutua, hainbeste kostata lortu ondoren, hain iraupen laburra izan zuena. *Jagi-Jagi* taldekoek beren aldarri independentista izen bereko aldizkariaren bidez zabaldu zuten, baina, gizarte-babes sendorik ez zuten, azkenean, aldizkaria desagertzean, taldea ere deseginda

geratuko da 1934an. Euskal nazionalismoak Autonomi Estatutuaren lorbidean aparra bezala gorantz egiten duen aldi eta lerro paralelo berean egiten du eusko pizkundek ere maila kulturean, batez ere, literaturaren sailean eta irakaskuntzan. Erpinera hurbildu arte egin ere.

Gorte konstituziogileetarako hauteskundeak 1931ko ekainaren 28an egin ziren eta, oro har, Lizarrako Estatutuaren aldekoek irabazi zuten 132.446 botorekin, eta aurkako 95.222ekin (Ugalde, II, 1983, 711). Gipuzkoan Julio Urkixo, Rafael Pikabea eta Jesus Maria Leizaolak osatutako Lizarrako Autonomi Estatutuaren aldeko koalizioan zerrendaburu zihoan Antonio Pildain kalonjeak irabazi zuen, 35.942 botorekin, ezkerreko koalizioa gidatzen zuen Juan Usabiaga errepublikarrari 10.014 botoko alde kendu ziolarik, hau da, % 57,84ko portzentajearekin, Estatutuaren aldeko ezkerrekoen % 41,16ren aurka. Ezkerreko koalizioan batera aurkeztu ziren Jose Maria Amilibia errepublikarra, Enrique de Francisco sozialista eta ANVko Justo Garate. Euskal nazionalistak banaturik aurkeztu ziren, bada, EAJ eskuinarekin eta ANV ezkerrearekin. Berastegin ere, hauteskunde hauetan, Antonio Pildain jaunak jaso zituen botorik gehien, guztira 201; Juan Usabiagak, berriz, 40. Elduain, Berrobi, Ibarra, Tolosan eta, orokorrean Tolosaldean, Antonio Pildainek eraman zituen boto gehienak, diferentzia handiarekin, gainera (Cillan, 1975, 663-664). Eskuina zen eskualde hau, katolikoa, eta Estatutuaren aldekoa.

Gorteetarako 1933ko azaroaren 19ko hauteskundee-tan, EAJk 12 diputatu lortu zituen, horietatik bost Gipuzkoan, 236.177 botorekin, hau da, guztira emandako 512.605 botoren % 46,05ekin. Hautatuak Rafael Pikabea,

Jesus Maria Leizaola, Juan Antonio Irazusta, Manuel Irujo eta Telesforo Monzon izan ziren. Bera izango da parlamentu-talderik indartsuena (Ugalde, II, 1983, 717). Berastegin Antonio Paguaga tradizionalista –bigarren indarra–, nagusitu zen 242 botorekin eta segidan, hurrenez hurren, Jesus Maria Leizaola nazionalista 183rekin, Bizkarrondo errepublikarra 23rekin eta Enrique de Francisco sozialista 8rekin. PC eta ANVk ez zuten botorik lortu (Cillan, 1975, 666).

Diputatuetarako 1936ko martxoaren 1eko hauteskundeetan, EAJkoak nagusitu ziren Bizkaia eta Gipuzkoan. Hemen, Jose Maria Lasarte, Manuel Irujo eta Juan Antonio Irazusta nazionalistak eta koalizio berean zihoan Rafael Pikabea autonomista izan ziren hautatuak 161.326 botorekin, % 60,02rekin (Cillan, 1975, 721). Lau Probintziak batera hartuta, ordea, Fronte Popularra nagusitu zen 169.000 botorekin (Ugalde, II, 1983, 723). Berastegin zein indar nagusitu zen jakiteko ez dugu daturik.

2. Erreketeak Urton barna 1936ko uztailean

Aurreko ataletan jadanik jaso dugu Karlistadek Berastegin utzi zuten oihartzuna. Mende erdi eta gehiago igaro eta gero, oraindik orduko txinparten oroitzapenak herriko zaharrenen artean erabat itzaltzeke daudela, anaien arteko hirugarren gerra honek zer ekarriko ote du?

Bestalde, Espainian eta Gipuzkoan izandako hauteskunde-mapaz jardun garenean, ikusi da Tolosaldean karlismoa sendo errotuta zegoela, indar kontserbadoreak nagusitzen zirela. Hauek, hain zuzen, zeregin garrantzitsua jokatu dute estatu-kolpearen prestaketan.

Tutor komandanteak gidatutako 90 laguneko erreke-teen zutabea Iruñean osatu zen uztailaren 19an eta, Donostia eta Tolosan altxamenduak porrot egin zuenez gero, mendiz ihesi etorritako hango karlistak elkartu zitzaizkien Leitzañ¹¹⁹. Hemen, Becerra komandantearen gizonekin ere kontatuz, Gipuzkoan Urtotik sartu ziren uztailaren 23an, ordura arte inon ezein erresistentziarik ezagutu gabe. Hango mikelete-etxea izan zuten lehen helburua. Hango hormak bala-tiroz josita utzi zituzten. Gerra aurrean 6 mikelete aurkitzen ziren bertan eta lehen hildakoak, hain zuzen, hantxe gertatuko dira. Parrokiako Hildakoen Liburuan jasota datozenak, Andres Bikendi erretore jaunak izenpetuta, hauek dira: Jesus Murua Iñurriagarro, Eibarkoa, bizibidez mikeletea, 23 urteko ezkongabea; Polikarpo Izaeta San Vicente, Bergarakoa, bizibidez mikeletea, 33 urteko ezkondua. Bi hauek armaz hil zituzten, 1936ko uztailaren 23an. Azken igurtziak eman zizkiena Juan Sese apaiz jauna izan zen¹²⁰. Urton hildakoen zerrendan ELAko bi gudari aurkitzen dira, Juan Goenaga Zeberio eta Balentin Arregi Astiazaran, biak tolosarrak, lehena 1936ko uztailaren 24an eta bigarrena 28an hilak (Errazkin; Saizar, 2008, 47-48). Hauek izan genituen sindikatuko lehen biktimetakoak. Irungo frentean, batez ere, asko nabarmendu ziren ELAko gudariak (Vargas Alonso, 2002, 27). Erreketete erasotzaileen aldetik, hildako bat izan zen. Urtoko zubiko harrian zizelkaturiuak utzi zuten haren izena idazki honekin: “Los requetés navarros y guipuzcoanos empezaron aquí la reconquista de España. Gloria al primer caído Joaquin Muruzabal Muruzabal. 23-VII-36”. Eskerrak Luis Maria Mujikak (1987, 12) jaso zuela esaldi hori *Poeta baten narrazio nagiak* lanean, geroztik kendua izan baita eta ez

baikenuen hain esanguratsua den epigrafe hori oroimen historikoan artxibatzeko modurik izanen. Egiazki Espainiaren errekonkista handik hasi zen. Hala sentitu zuten. Hildako erreketek hori San Martin Unxkoa zen.

Lehen eraso horretan, 23-28 egun-bitarte horietan, hildakoen kopurua, hemen egiaztatu ahal izan duguna, laukoa bada ere, Errazkin eta Saizarrek (2008, 51) bikoiztu egiten dute, esaten baita “borrokak zazpi hildako eragin zitue(la) defendatzaileen artean eta bakarra erreketeen artean”. Datu hauek ez datoz erabat bat Inazio Gaztañaga herritarrek, gerraren hasiera deskribatzerakoan, pasarte honetan dioenarekin: “Berastegin Nafarroatik sartu ziren erreketek. Asko ziren. Urton tiroketa izan zen. Herritik entzun genuen. Mikeleteak ziren han eta bost hil zituzten. Azpeitiar batek alde egin zuen mendiz mendi Ollokira eta gure anaiak-eta gure etxera eraman, garbitu, jana eman eta han gelditu zen. Hurrengo egunean Andoainera joan zen. Beste aldeko inor ez zen hil tiroketa hartan. Beldurra ikaragarria zegoen” (Errazkin; Saizar, 2008, 174). Lehena da zuzena. Izan ere, buruz ari denak errazago huts egin baitezake.

Egia esan, Berastegiko jendea ustekabeen bezala harra-patu zuen 1936ko uztailaren 18ko gerra zitalak. Lotan bezala. Udako egun arrunt bat zen hura herritarrentzat. Egun bat gehiago lurrari itsatsia bizi zen jende harentzat. Eguraldia halakoxea izan, gehienak belarrak ontzen ari ziren gerra-hotsa zabaldu zenean. Nafarroatik erreketek su eta gar eginak zetozela-eta, hurrengo egunean automobilak jendez beteta pasatu ziren herrian gora Urtorako bidean. Tolosako indar errepublikarrak ziren Urtoko mikeleteen etxean posizioak hartzera zihoazenak¹²¹. Handik ez luzaro,

handik behera ziren iheska erasotik salbatzeko zortea izan zutenak. Buru-makur eta izututa. Berastegiarrek egun gutxi horietan errepidean jende armatua joan-etorri baino ez zuten ikusi. Urton tiroak izan zirela eta hildakoak ere bai. Nafarroan ere jendea garbitu zutela. Apenas ezer gehiago. Santio egunak ez bide zuen jai-girorik ekarri eta bai zerbait larria hurbiltzen ari zenaren dardarizoa.

Ekaitza hasi baino ez zen egin. Hurrengo hilean, abuztuaren 3an, zein lekutan esan gabe, armaz hila gertatu zen arratsaldeko laurretan Pablo Pérez de Osada Alconchel, Atarrabiako nafarra, bizibidez langilea, 28 urteko ezkon-gabea¹²². Gerrako lehen txoke hartan Berastegikoak ez ziren beste lagun gehiago ere gertatu ziren hilak, Eliz eta Udal-Aktetan agertzen ez direnak, hala nola: Miguel Flores, Etxarri Aranzakoa, trenbide-zaina, San Kristobalen fusilatu; Ameraungo Zentralean lan egiten zuen Nemesio ize-neko beste bat ere bai. Hauek Leitzara eramán, handik San Kristobalera, eta hemen fusilatu zituzten, herriko batzuek salatuta. Matxinatuek abuztuaren 11n okupatu zuten Tolosa, Lizartatik, Berastegitik eta Beasaindik zetozen hiru zutabeak elkar hartuta.

Kanpotik ekarrita, Arrosi inguru horretan, Elduaingo partean, gorputz gehiago agertu omen ziren hilda, lau bederen bai: Hernaniko maistra bat eta bere senarra, beste gizonezko bat, eta beste laugarren bat, hau Txaramakoa, bertan fusilatu izan zena 24 urterekin. Berastegiri dagokionez, orduko historiarik ez baita egin, inoiz han eta hemen entzundakoak hona ekarri baino ez dugu egiten, zinez ezer ziurtatzera ausartu gabe.

Frontean hildako herriko semeak ere hainbat izan ziren. Hauek dira Udal-Aktetan jasota datozenak: Leandro Ustoa

Ulanga, 1937ko uztailearen 7an lehergailu batek eztanda eginda, Legamés-en hila, 36 urterekin, Griñon-go hilerrian ehortzi zutelarik¹²³. Hurrengo urtean, 1938an, lau izan ziren hildakoak. D. Javier Arregui apaiz jauna, Teruelgo frontean tropa nazionalen kaperau gisa zegoena, han hil zen. Herrian Udalak ohorezko hileta eskaini zion, 1938ko otsailaren 20ko Udal-Aktan datorrenez: “Dada cuenta de haber recibido una carta firmada por D. Justo Arregui, manifestando el agradecimiento suyo y de sus hermanos por la asistencia de esta Corporación al sepelio y solemnes honras fúnebres de su gloriosamente fallecido hermano D. Javier Arregui (QEPD) verificados en esta villa, y que de ello guardarán eterna memoria, habiéndoles servido esta demostración de consuelo y resignación en su profundo dolor; el Ayuntamiento acordó reiterar una vez más su sentido pésame, manifestando que con el acto realizado no ha hecho otra cosa que interpretar el sentir unánime de condolencia de todo el vecindario y el suyo propio por la pérdida del que en vida fue ejemplar Sacerdote y gran español, como lo demostró desde el primer momento ofrendando su vida a la Patria y entregándola en su servicio en el frente de batalla de Teruel”. Ez dakigu non lurperatua izan zen. Herriko Parroki Aktetan bederen ez da honen izenik agertzen. Ez da zehazten, ezta ere, Teruelgo frontean nola gertatu zen hila. Seguru asko, zaurituei elizakoak ematera joanda. Izan ere, bera kaperau bezala eta Juan Yeregi mediku bezala, biak erretaguardian zeuden, gerratokitik aparteago baitzeuden. Jabier Arregi Kakoneko Martinen anaia zen. Miguel Jose Ustoa Mariezkurrena, 24 urteko soldadu gaztea, San Mateoko Ospitale militarrean hil zen, uztailearen 2ko gauean, 11,30etan, Carbellón-go

frontean jasotako zaurien ondorioz¹²⁴. Beste biak oso gazterik hil ziren, Mariezkurreneko Juan Agustin Garaikoetxea Azpiroz irailaren 14an, 19 urterekin, Madrilgo frontean, eta Ramon Zuloaga Arbillaga urriaren 15ean, 18 urterekin, Madrilgo frontean, Extremadurarako bidean, biak mina-leherketen ondorioz. Hurrengo urte-hasieran, 1939ko urtarrilaren 4an, herriko hilerrian lurperatu zuten Meakako Pedro Ignazio Azpiroz Saizar erreketete gaztea, Andres Bikendi erretoreak Parroki Aktetan izenpetzen duen bezala: "... mandé dar sepultura (...) al cadáver de D. Pedro Ignacio Azpiroz Saizar (...) de 22 años, requeté de la Segunda Compañía del Tercio de Oriamendi. Falleció según aviso del Comandante de la Milicia Española Tradicionalista y de la JONS en el frente de Cataluña, a consecuencia de herida de metralla (...). Soltero, sin recibir sacramentos, enterrado en Berastegui"¹²⁵. Orobat, Berastegiko Udalak bere doluminak erakusten dizkio Juan Echave Aguirre erreketearen familiari bere heriotzagatik, baina 1937ko uztailaren 10eko Udal-Aktetan ez da esaten non eta nola hila izan zen¹²⁶. Udaleko José María Echave idazkariaren semea zen.

Frontean hildako berastegiarrak, parrokiako hildakoen liburuan eta Udal-Aktetan datozenak horiek diren arren, ziurtasunez esan dezakegu gehiago ere izan zirela. Sagastiberria baserrian, esaterako, baziren bi anaia frontean hildakoak. Nolanahi ere, Berastegin bertan eta frontean hildakoen zerrenda osoa ixteke dago.

Berastegin gerra aurrean, zortzi edo hamar errepublikar kenduta, besteak nazionalistak eta karlistak omen ziren. Esaten denez, indar biak paretsuan, nahiz hori egiaztatzeko datu zehatzik ez den. Gerra piztu zenean, beste hainbat

herritan bezala, Berastegin ere nahasketa ikaragarria sortu zen, batez ere, soldaduskarako adinean zeuden gazteen familietan. Zer egin ez zekitela beldurraz akabatzen. Horrelakotan, ez nahi dena, baizik ahal dena egiten da, areago oraindik bizitza arriskuan ikusten denean. Izan ziren, halere, erreketek banakako batzuk gerrara boluntario joan zirenak. Beste batzuek, frontera joan beharra izatetik errazago libratuko zirelakoan, antza, JONSen izena eman zuten, hauek ere boluntario bezala. Goienetxeko Jose Azpirozek (1989, 19-21) pasarte honetan arrazoitzen du zergatik hartu zuen erabaki hori:

“Horrela, noizbait iritxi zan nire ordua ere. Ortarako, len esandako gauza orrengatik, gu baztatu egiten giñuzten. Danak reketek sartzea nai zuten. Baiña aurrena bengantza egin da gero reketek sartu? Ez orixe. Guk ez genduan nai inolaz ere. Beraz, bururik ez makurtu nai, eta zer egingo? Falanjea ekarri zuten eta falanjista egin giñan. Tolosa'tik etortzen ziran instruzioa egitera eta beren dotriña erakustera. Eta 1937'ko Ilbelta etorria zala, esan ziguten Tolosa'ra jetxi bear genduala mordoxka batek. Aien artean, nik derrior joan bearra neukan. Nire kinta azkeneko trimestreraiño eramana baizegoan (...) Ala, soldadu joan bearrean, boluntario atera nintzan, falanjista alegia, soldadu joan bear nuan baiño egun batzuk lenago (...) Ortarako, azaroa (1937) zala uste det, emengo karlisten buruzagi batek esan zidan: -Zu zertan zabilta besterik ez bezela? Zure lagunak, Meaka'ko Pedro Inazio eta Osiñeta'ko Bartolome, reketek sartu dira, ta uste degu gerra Tolosa'n bukatuko dutela (...) Baiña erantzun nion: -Ni falanjean sartua nago ta nire suertea neronek billatu nai nuke (...) Bein ere etzait damutu ala erantzunik. Bartolome elbarritu zuten da gorriak ikusia

da. Baiña bizi da, ta osasuntsu ta ondo gaiñera. Orain ere oso lagunak gera. Meaka'ko Pedro Inazio Kataluña'ko frentean il zan. Goian bego. Nire komunio-laguna zan. Arira noa. Agindu bezela, Donosti'ra joan nintzan larunbatean, eta esan zidaten igandean Burgos'era joan bear genduala sail bat. An, Donostia'n, Berastegi'ko Miel Mari Mendizabal perittoa zana eta bere emaztea oso etxeko genituan, da telefonotik itzegin nai ta ez nekian nola. Ez bainuan sekula itzegin”.

Pluralean mintzatzen baita, badirudi herrian jende gehiago ere bazirela JONSen boluntario sartu zirenak, instrukzioa egiten jarduten zutenak, horien artean familia nazionalistakoak ere bai, noski. Berastegin falanjisten egoitza Mallorkinako solairu batean zegoen eta han elkar-tzen ziren instrukzioa egiteko. Arduradunak emakumezkoetan Mallorkinako Mikaela Ferrandez eta gizonezkoetan Kakoneko Martin Arregi izan ziren. Bertaratzen ziren gehienak nazionalistak omen ziren. Erreketeen erasoetatik babesteko, antza. Zieten izuagatik, larrua salbatzeko-edo. Tolosatik bi buruzagi etortzen omen ziren eta haiek jarri omen zuten errespetua.

Urtoko lehen txokea izan ondoren, hara joanak Tolosaldera jaisten hasi ziren eta nafar erreketeak, buruan txapela gorria zeramatela arras nabarmen, Gangako tontorrean agertu ziren abuztuaren 24an, Santio bezperan, eta Ollokotik sartuta herriko plaza hartu zuten. Lehen azioen artean, Zuloagarren Martiñeneko gela batean zeuden Batzokiko tresna guztiak atera eta plazaren erdian erre zituzten.

Gerra aurrean, etxe bereko ganbaran egiten zituzten herriko dantzariak beren prestaketa-saioak. San Joan dantza sonatua Amiriko aitona Andres Etxeberriak erakutsi zien.



Berastegiko mutil-taldea San Juan dantzarako prest eliz atarian 1934. urte-inguruan, San Lorentzo egunez. Taldea osatzen zutenak, hauek ziren: kapitainak Bulatziko Luis eta Meakako Pedro Inazio Azpiroz; gero, aurretik hasita, Errediguneko Josemari Iztueta ezkerretik eta Juanluzeneko Jose eskuinetik, Uliko Segundo, Amiriko Zizilio, Modestoneko Pikatxoia, Antsoneko Pedro, Mariezkurreneco Agustin, Gaztañadiberriko Joanbeltz, Juantsantzeneko Kontzezion, Modestoneko Inazio, Saustegiko Krutz eta Ollokiko Fernando. Hamalauko taldea, eta ordezko bat: Errekaldeko (Artoango) Nikolas (Jabier Salbarrediren argazkia, *Tolosaldeko eta leitzaldeko hitza*, 1979, 2004-08-6).

Berak txistua jo eta berak erakutsi. Biak batera. Dantzari-talde oso ona osatu zen eta, herrian bertan ez ezik, kanpora ere ateratzen ziren, Leitzara San Tiburtziotan eta baita

Donostiara ere. Hemen 1934ko uztailearen 31n dantzatu ziren Atotxako zelaian, San Inazio egunez. Sekulako arrakastarekin, gainera. Dantzari-talde asko ziren hara bilduak eta haiei dantzatzeko txanda heldu zitzaientzako belarzorua dena lokaztu egin zen, irristakor jarri, eta lanak izan zituzten zekitena erakusten. Jendeari, halere, erruz gustatu zitzaion nonbait haien erakustaldia eta beren taldeari bakarrik dantzarazi zien bigarren aldiz txalo-zartaden artean. Zoritxarrez, denbora gutxi iraun zuen taldeak, bi urte (1934-1936) baino ez, gerrarekin herri-agintarien debekua etorri zen-eta¹²⁷.

Bistan da, erasorako leku sinbolikoa hautatu zutela, Batzokia desagitea, alegia. On Txomin Jakakortexarenak (1990, 93) idatzita utzi zuen nola sortu zuten abertzaleen ahalegin eta ekintzak elkartzeko leku hori:

“Urteko ikaskizunak eginda, uda atsedean alditxoan artzera etxera etorri nintzanean, batzoki sortzea beste ametsarik ez nuan erabili neure buruan. Lagun taldeño bat bilduta, zudu bizienaz, lanean asi giñan. Aurren arnasa, zaldun iator batek eman zigun irureun laurleko eralgibearretarako eskeiñita! Billeratarako eta dantzak erakusteko etxe batean areto zabal bat lortu genduan eta neskato talde bat eta mutil aldratxo bat ere bai poxpolin dantzak eta erriko Iondone edo San Ioan dantzak ikas-teko. Izebak bere iostundegiko neskekin soiñeko eta iantzi egokiak egin zizkieten, eta dana gertutu genduan, Tolosa’ko abertzaleekin alkar artuta, batzokia idekiberritzeko eguna izendatu genduan. Egun gogoangarri eta alai artan, dantzariak ikustera eta itzaldiak entzuteran, erriko betiko iauskilla gutxi batzuk ezik, (aiek gorrotu egun egokiaren zai, an genbiltzan guztien izen-erroldak artzen kuzkuz-tokietan gelditu bai ziran) enparantzara,

zaar eta gazte, erriko biztanle guztiak bildu ziran. Ura biotzukia ikurriña, Gipuzkoa Buru Batzar lendakariak Batzokiko leioan aurrenekoz erriari agertu zionean! Ura txalo io bearra! Monzon'ek, Altzeta'k eta Irazusta'k egindako alderditzaldiek sutu zuten gizatalde guztia eta erriko eta Tolosa'ko gazteen dantzak ikusten zoraturik egon ziran danak. Andik ara, iauntxo zipotz aiek ezik, erri guztia abertzale egin zan”.

Diru-laguntza hori nork eman zien ez da esaten, ezta Batzokia noiz inauguratu zuten ere. Entzuna dugu Beras-



Martiñenea etxea. Hor aurkitzen zen herriko Batzokia. Dantzak ere horko ganbaran ikasten zituzten herriko gazteek. Etxe honek Etxeberria Zuloaga familiakoen eskuetan segitzen du.

tegin abertzaletasunaren sustatzaile nagusia Bernardo Zaldua izan zela, Parte Zaharreko donostiarra, baina Berastegin bere familiarekin egonaldi luzeak egiten zituen Orejanea etxean. Azken egunetan zegoela joan nintzaion ikustera. Ohe-ondoan ikurrina zuela hil zen Kanpandegiko 11. zenbakiko azken solairuan. Arras hunkituta geratu nintzen.

Bazekiten, beraz, hainbeste kostatako batzokia osoki suntsitzean, abertzaletasunaren bihotza erdi-erditik zulatzen zutela.

Gogorrena etortzeke zegoen, halere. Herria okupatu eta berehala, erreketek garaileek beren ordezkioak utzi zituzten herria zaintzen. Herrian bertan bospaseiko gazte-taldea osatu zen eginkizun horretako, talde armatua bezala funtzionatzen zuena. Etxeratzeko agindua arratseko bederatzietan ezarria zuten eta dena kontrolpean zeukaten. Jendea beldurtuta. Testuinguru honetan gertatu bide zen Jeronimo Ormaetxea Aranaldere hilketa, erreketek herrian sartu eta handik lau egunera, 1936ko abuztuaren 28an, hain zuzen. Plazatik etxerako bidean zihoala, Jakasenetik Ezpeletarako tarte horretan, tiroz garbitu zuten. Arrosiko errotaria zen, 39 urtekoa, ezkongabea¹²⁸.

Berrikitan, ezkonduz geroztik Leitzan bizi den baina aita Berastegikoa zuen Inazio Gaztañaga lekuko abertzale eta euskaltzaleak (2008, 176), asko zehaztu gabe eta zeharka bezala, honela erantzuten dio “Fusilaturik izan al zen zure herrian” (Berastegin, alegia) galderari:

“Bai, baina ez hasieran, gerra ari zela. Gaueko hamarretarako¹²⁹ erretiratzeko legea jarri zuten nazionak. Baten bat edukiarazi zuten beranduago arte eta orduan hil zuten, tranpa eginda”.

Esan bezala, Udalak 1936ko abuztuaren 30eko Batzar hartan Jeronimoren ondasunak konfiskatzeko erabakia hartu baitzuen, hurrengo Batzarrean Labayen zinegotziak jakinarazi zuen Gipuzkoako Gerra Karlistako Batzordearen aginduz, haren ondasunak ez Udalari, hasieran erabaki bezala, baizik Batzordeari pasatu behar zitzaizkiola¹³⁰. Ondo hilda utzi zuten. Bizia kentzearekin ez aski, zeuzkan ondasun apurrak kendu zizkieten errotari umila izatea baino erru gehiago ez zuen hari.

Berastegiko seme gehiago ere izan ziren gerrakoan hildakoak, espetxeratuak eta erbesteratuak. Bulatziko Joxe Iparragirre gaztea Hernaniko Galarretako aldapan fusilatu zuten; Mallorkinako Juan Ferrandez Berjes, famili aita eta Jeronimo Ormaetxearen koinatua, Gijonen. Bidasoaz bestaldera ihesi joandakoak ere izan ziren: Obinetaberritik Martzelo Ormaetxea, Jeronimoren anaia, eta Zurikaindik Patxi eta Juan Inazio anaiak. Hark itzultzeko zortea izan zuen, bi anaiek erbestean utzi zituzten beren hezurrak. Eta modu batera edo bestera zapalkuntzak ukitutako izenzerrenda oraindik gehiago luza daiteke, zalantzarik gabe. Inoiz Berastegi herriaren oroimen historikoa berreskuratzen bada, agertuko dira. Hasiak dira jadanik hirugarren belau-naldikoak, ordukoen bilobak, oroimen kolektibo hori beldur eta zeresanen errautsetatik aireztatzen, ahanzturaren lainopetik egiaren eguzkitara ateratzen.

Anaien arteko gerra zital hark, beste herri gehienetan bezala, Berastegin ere oroitzapen mingotsak utzi zituen, batez ere, garai haiek ezagutu eta bizi izan zituztenentzat. Hotzikara sortzen du, Errazkin eta Saizarren aipatu liburua (2008, 23-24) ireki-eta, Tolosaldean bakarrik gerrakoan fusilatuen, gerra-lerroan eta presondegietan hildakoen eta

bonbardaketetan hildako zibilen kopurua zein izugarria den ikusita. Hildakoak, noski, bando bietakoak izan ziren.

Gerra bukatzean, 1940ko hamarkada-hasieran, soldadutalde bat egon zen, hogeit hamar laguneko edo. Txankanean egoten ziren, baina otorduak Udaletxea eta Martiñenea artean Kontzejuak zeukan aterpe batean egiten zituzten. Nafarroako muga zaintzeko egon bide ziren han kuartelerratuak. Lizartzan eta beste muga-herrietan bezala.

V

FRANKISMOAREN SOTOAN (1939-1975)

Frankismoak ezarritako monosistema politikoaren garaian –bereziki, hasierakoan–, udalbatzaren antolaketan errotiko aldaketak egon ziren. Harrezkero udal-karguak oro eskuz izendatuak izango dira, herri-ordezkaritzari lekurik eman gabe.

Berastegiko udal-politikan errotiko aldaketa izendapen berriak egin zirenean eman zen, herria okupatu eta handik hamalau egunera egindako udalbatza konstituziogilean.

Udal-talde berriak bi galera izan zituen 1938an. Bi zinegotzi hil ziren bost hilabeteko tartearekin. Lehenik Lizarragako Domingo Labaien Garaiar, alkateordea, hil zen urtarrilaren 5ean 40 urterekin; segidan Martintxoneko Gabino Lizarza Lizarza, palankari ospetsua¹³¹, hau ekainaren 6an, 45 urterekin. Biak gazterik joanak, hurrenez hurren, urdaileko minbiziak eta biriketako minak jota¹³².

Geroztik hauen eserlekuak hutsik geratu ziren, udalbatzaren osaketa zazpi lagunekoa izaki. Kopuru hau 1945ean bostera murriztuko da.

1. Atxikipenak eta omenaldiak

Berastegi erreketeeek okupatutako lehen herrietako bat izan baitzen, Udaleko agintari berriek lehen unetik hasi ziren armetan altxatutako mugimendu nazionalaren aldeko atxikipenak egiten. Gipuzkoako gobernadore zibilari eta Diputazioko lehendakariari zorion-agurrak igortzeko erabakia hartzen du. Alkatea honela zuzentzen zaio lehenari:

“Tengo el honor de expresar a V. E. la íntima y hondísima satisfacción del Ayuntamiento de mi presidencia por la designación de su persona para el cargo de Primera Autoridad Civil de esta Provincia, a la vez que noblemente, de todo corazón. Como cumple a verdaderos españoles, en nombre propio y del Ayuntamiento pleno le ofrezco nuestra más entusiasta e incondicional adhesión para salvar a España en su gloriosa tradición. ¡Viva España!”¹³³.

Beste honetara bigarrenari:

“Con satisfacción honda e íntimo contento tengo el honor de comunicar a V. E. el placer que el Ayuntamiento de mi presidencia ha experimentado al conocer la designación de V. E. para presidir la dignísima Corporación provincial, por lo cual le enviamos nuestra cordial felicitación, que hará extensiva a todos los dignos Diputados. A la vez en nombre propio y del Ayuntamiento ofrezco a V. E. fervorosamente nuestra más sincera adhesión, a fin de que nuestra querida provincia vuelva a ser el modelo de Provincias españolas como lo fue durante muchos años. ‘Viva España Católica! ¡Viva Guipúzcoa Española!’”¹³⁴.

Bietan, estilo berean, mezu bera doa: Biba Espainia Katolikoa eta biba Gipuzkoa Espainola. Gerra hasi baino ez da egin, bi hilabete eskas, eta Gipuzkoa mendean ikusten dute. Baikor sentitzen dira. Tropa nazionalek Madril jadanik hartua baitzuten, “Espainiako Armada Salbatzailearen” garaipena goraki ospatzeko, Berastegiko plazan hiru dozena etxafuego erre zituzten, 7,25 pezeta ordainduta¹³⁵. Harritzekoa ere bada aipu hau 1936ko azaroaren 1eko Udal-Aktan horrelako euforiarekin agertzea, zeren II. Errepublikako gobernuaren kontra Armadak egindako estatu-kolpeak huts egin baitzuen 1936ko uztaileko saioan, berdin urte bereko azaroan Manzanares ibaiaren inguruetan emandako “Madrilgo bataila” izeneko ahaleginean ere. Egia da, bai, Varela jeneralak zuzendutako tropa nazionalek Madril inguratu zutela urriaren 18an eta, matxinatuen mehatxua hurbil ikusirik, Errepublikako gobernuak Valenciara aldatu zela azaroaren 6an eta bere izaera naturalagatik kokagune estrategikotzat jotzen zen Manzanares ibaia zeharkatzea ere lortu zutela, baina Miaja jenerala eta Rojo komandantearen aginduetara antolatu berria zen Armada Popularrak eutsi egin zion haien erasoari Casa del Campo, Ciudad Universitaria eta Argüelles auzo inguruetan, aurrera egitea galaraziz. Ordukoa da errepublikarren “no pasarán” oihu famatu hura, matxinatuen kontrako erresistentzi sinbolo gisa emana (Martínez Reverte, 2007). Hurrengo urtean ere berriro ahalegindu ziren hiriburua hartzen, baina oraingoan ere alferrik. Laburra izango zela uste zuten gerra 1939an bukatuko da, Madril hartzean, hain zuzen. Gertakarien kronologia aurrean dugula, pentsatu beharko da Berastegiko Udalak ospatu, tropa nazionalek urriaren 18an Madril inguratu izana ospatuko zuela, gertakari hori garaipen garrantzitsutzat hartuz.

Hurrengo urtean, matxinatuek beren esku dauzkaten erakunde desberdinetatik etortzen zaizkien omenaldi-ekintzetan parte hartzeko gomitak aho batez onartzen ditu Berastegiko udalbatzak. Honela, Burgosko Udalak Segura kardenalari eskaintzen dion omenaldi-ekintzarekin bat egiteko proposamena aho batez onartzen du¹³⁶. Berdin Nafarroako Brigadei Donostian egindako omenaldian, kasu honetan, alkateak esan bezala, arrazoi gehiagorekin, haiek izan baitziren Berastegi herria jendilaje marxisten atzaparretatik askatu zutenak:

“Añade que estas heroicas Brigadas (Navarras) son merecedoras de que se les dedique tan grandioso acto, pues no hay que olvidar tampoco que eran éstas las que liberaron este pueblo de las hordas marxistas”¹³⁷.

Omenaldi hori 1937ko azaroaren 10ean ospatu zen eta bertan izan ziren Luzio Etxeberria alkatea eta Luis Garziera zinegotzia¹³⁸. Ordurako, 1937ko martxoko dekretu batez, jadanik bateratuak zeuden mugimendu nazional bakarrean milizia desberdinak, zehazki, FET (Falange Espainola Tradizionalista) eta JONS (Juntas de Ofensiva Nacional Sindicalista). Bilbo ekainean hartuta, Euskal Herri osoan garaile sentitzen ziren.

2. Gastu militarrek gerrakoan

Gerra batek berekin ditu gastuak. Altxamendu nazionala 263.588,78 pezeta kostatu zitzaion Tolosako Udalarari matxinatuek bertan egondako garaian egin zituzten gastu-mota desberdinak batuta (Errazkin; Saizar, 2008, 15). Berastegi okupatuan militarrek 1936ko uztailaren 24tik

abuztuaren 20ra arte egindako gastuen ordainketa aipatzen da 1936ko irailaren 9ko Udal-Akta honetan, bere horretan transkribatzen duguna:

“En esta villa de Berástegui a veinte de Septiembre de mil novecientos treinta y seis; reunido el Ayuntamiento en sesión extraordinaria bajo la presidencia del Sr. Alcalde don Lucio Echeverria Garciarena, con asistencia de los señores Concejales anotados al margen, previa la oportuna Convocatoria cursada la forma, siendo el objeto de la misma (como se dice en la Convocatoria) deliberar y resolver la forma de enjugar el déficit que arrojó al suministro del sostenimiento de los elementos militares que han guardado y defendido este pueblo durante el período que media entre el 24 de julio al 20 de Agosto último.

El Señor Alcalde Presidente después de declarar bien constituida la Junta, ordenó al Sr. Secretario que leyese la cuenta de los gastos a que se hace referencia y los donativos que para enjugar el saldo en contra que ella arrojaba, hayan hecho algunos particulares.

Hecho así hizo uso de la palabra el Sr. Alcalde quien manifestó que como habían podido observar los concurrentes, el déficit ascendía a 7.218,70 pesetas y las cantidades entregadas por la Sociedad Calparsoro y Cía¹³⁹, Señora Viuda de Sesé¹⁴⁰ y D. Francisco Olarrea-ga¹⁴¹, eran 2.000-1.000 y 2.000 pesetas respectivamente, esto es 5.000 pesetas en total, quedando reducido el déficit a 2.218, 70 pesetas, que era el que debía de ser objeto de reparto entre los contribuyentes de esta villa. Que quería adelantarse a exponer que esos señores que habían hecho esos donativos merecían gratitud, pues su patriótico y altruista proceder, ya que con ello facilitaban grandemente la forma de hacer este reparto y que en

cuanto a lo demás invitaba a los reunidos a que expresaran lo que les ocurriera para practicar el reparto. Hizo uso de la palabra el Concejal D. Domingo Labayen quien manifestó que a su entender sería práctico que se nombrara una Comisión de Concejales que lo proponía, para que en vista de la suscripción que se giró anteriormente y los datos y noticias que obran en las oficinas de este Ayuntamiento y se obtengan en cualquier otra forma, propongan una distribución equitativa de las cuotas aplicables a cada vecino, fijándose principalmente en los datos que arroja aquella suscripción a fin de que la equidad, como antes se ha dicho, quede bien servida.

A los concurrentes les pareció acertada la proposición hecha por el Sr. Labayen, que en consecuencia se acordó por unanimidad aceptarla elevándola a decreto.

Se acordó también por unanimidad que en esta Comisión formen parte los señores D. Domingo Labayen, Don José Joaquín Azpiroz y Don José Plazido Dominchin a quienes se les ruega aceleren cuanto les sea posible el desempeño de su cometido. Los aludidos señores aceptaron las cargas que se les confirieron y ofrecieron ocuparse del asunto a la brevedad posible”¹⁴².

Testu horretan ez baita zehazten nor ziren herria epealdi horretan zaindu zuten “elementu militar” horiek, iturri honetatik ezin da ezer egiaztatu. Erreketek okupatzaileek egindakoak, agian? Nolanahi ere, harrigarri samara egiten da 32 eguneko hain epealdi laburrean horrelako gastua egitea: 7.218,70 pezetakoa. Jakingarria egiten da, halaber, ordainketaren banaketa nola egiten den: kopururik handiena, 5.000 pezeta, hiru horien kontura, eta gainerako 2.218,70 pezetak herritarrek ordaintzekotan, altxamendua- ren aldekoak izan ala ez. Hurrengo urteko ekitaldiari

dagokion aurrekontuan, 1937koan, gastuen atalean, “vigilancia y seguridad” izenpean, 285,30 pezetako kopurua dator¹⁴³. Azken herri-zaintzaileen faktura ote? Hala dirudi.

Sarrerren atalean, Urtoko Juan Mugika mikeleteak entregatutako 1.004,77 pezeta aipatzen dira, ardo, pattar eta okelen gaineko zerga gisa jasoak¹⁴⁴. Iturri horretatik dirutza sartzen baitzen udal-administrazioko kutxara, Probintzien arteko mugak asko zaintzen ziren, artikuluen eta, batez ere, jan-edarien trafikorik egon ez zedin. Honela, Gipuzkoako Arbitrio Probintzialeko Administratzaile Nagusiak zirkular bat bidali zuen Udaletara 1937ko uztailean, muga-zaintza zorrozteko eskatuz¹⁴⁵.

3. Adierazpen erlijiosoak gerra ondoren

Gerra ondoren, 1940ko hamarkadatik aurrera, asko ugaltzen dira deboziozko festa erlijiosoak, batez ere, Jesusen Bihotza Sakratuari eta Zaragozan Pilareko Ama Birjinari eskaintzen zaizkionak. Berastegiko udalbatzara Garesko aita errepadoreek egindako zirkular bat iritsi zen, Gobernazioko ministro jaunari eskabide bat zuzentzeko deia eginez, Jesusen Bihotza Sakratuaren festa Espainiako Festa Nazional gisa ezarria izan zedin. Eta Udalak eskatu bezala egin zuen, Patriaren aurrerapen eta handitasunaren egiazko bermea izango zelakoan¹⁴⁶. Mendeurrena ospatzen zela-eta, Gasteizko elizbarrutiko peleginazioan Zaragozako Pilarera ekainaren 27an joateko deia, berriz, Gipuzkoako gobernadore zibilaren eskutik etorri zen. Diputazioko eta Donostiako Udalarekin batera, han izan ziren Luzio Etxeberria alkatea eta Ursino Aranalde zinegotzia Udalaren izenean:

“Se dió lectura de una Circular del Exmo. Ser. Gobernador Civil de esta provincia exponiendo que la definitiva Victoria de nuestro glorioso Ejército a las órdenes del invicto Caudillo de España, ha sido una merced que nos ha otorgado la Providencia para salvar los eternos valores de la Civilización y de la Hispanidad, siendo la Santísima Virgen la que como Medianera universal de todas las gracias nos ha dispensado su protección. Que es, pues, obligada nuestra demostración de gratitud por los favores recibidos y el Centenario que este año se celebra de la aparición en Zaragoza de la Santísima Virgen al Apóstol Santiago nos da ocasión para ofrecerle el testimonio de la verdad de nuestra fe y renovar la confianza en su intercesión para la futura grandeza de España. Exponente de estos sentimientos son las peregrinaciones que llegan al Pilar y de estas manifestaciones de fe participa la Diócesis de Vitoria con la que tiene organizada para el día 27 de este mes en la que han de formar corporativamente la Exma Diputación provincial y el Exmo. Ayuntamiento de San Sebastián”¹⁴⁷.

Bien bidaia hori 100 pezeta ordaindu zuen Udalak¹⁴⁸. Lehortek uzta galtzeko arriskua zekarrela-eta, Udaletik sortzen da elizan errogatibak egiteko ekimena 1942ko ekainean¹⁴⁹. Hamarkada-bukaeran, 1949an, Wenceslao Mayorak, Tolosako erretore eta artzapezak, Izazkungo Ama Birjinaren koroatzea dela-eta, alkatea elizkizunetara eta ondoko bazkarira gomitatzen du. Udalak dohaintzan, 250 pezeta ematen ditu¹⁵⁰.

“Espainia berria” eraikitzeko orduan, bada, garaileen oroimen-lekuak aukatuko dira ospakizun politiko zein erlijiosoetan. Eta azken esparru honetan, eliza hierarkikoa

zutabe nagusietako bat izango da eta frankismoak lehen unetik aldarrikatzen duen nazional-katolizismoak inflazio erlijiosoak ekarriko du ondorioz, nola bokazioetan hala deboziozko elizkizunetan. Garaile bizidunei omenaldiak egiten zaizkie eta beren bandoko hildakoei, orobat, hotsandiko hiletak.

4. Arazketak udal-administrazioan

Hasteko, gerra hasi eta berehala, abuztuaren 6ko bileran, Martin Arregi, Jose Maria Intxaurren eta Jose Maria Maiz zinegotziak kanporatu zituzten nazionalistak zirelakoan, VIII. atalean herri-lurren kronikaz jardutean zehazten den bezala.

Zapalkuntza erakundetuaren ondotik edo, horrekin batera, egitez edo ustez altxamenduaren kontrakoak zirenen bizkar lege zigortzaileak aldarrikatu ziren. Neurri hauek, bereziki, administrazio-langileak ukitu zituzten, irakaskuntzakoak, Udalekoak, foru-diputaziokoak, zeuden lanpostutik kendu eta bazterrean utziz, horietako hainbat bizitzeko baliabide jakinik gabe. Honela, Vizcaya jaunak zirkular bat argitaratu zuen 1937ko urtarrilaren 6an, aginduz ideologia nazionalista edo marxista zuten funtzionario guztiak beren udal-karguetatik kendu egin behar zirela, gerra honetan Espainiari egindako kalte handiarengatik:

“Todos, absolutamente todos son responsables y han contribuido al desarrollo de la infección nacionalista y a su preponderancia política a costa de idearios españoles de los que fueron dolorosamente desgajados; que a todos es imputable el daño inmenso causado a España

con esta guerra inicua mantenida aun por el execrable euzcadismo y todos, por consiguiente, deben pechar con sanciones adecuadas; que existe un castigo mínimo cuya imposición lo exigen de consumo el desagravio al resarcimiento, la seguridad y hasta el decoro de España; este castigo mínimo es el apartamiento de los nacionalistas de todo cargo público o retribuido en los Municipios, que sólo pueden discernirse a quienes sean neta, clara e indiscutiblemente españoles y termina diciendo a los Ayuntamientos que no han llevado a término la depuración aplicando estrictamente estas normas”¹⁵¹.

Zirkularra argitaratu eta handik lau egunera gauzatu ziren Berastegiko udal-administrazioan arazketa-zigorrak. Hiru langile izan ziren beren udal-lanetik berehala bota zituztenak: Martin Zuloaga, udal-gordetzailea eta edateko uren zerbitzu-arduraduna; Migel Inazio Urreta Malkorra, danborraria; eta Pedro Iriarte Lasarte, Eldua auzoko erloju publikoaren arduraduna. Prudentzio Gorostidi udal-ahaldunari inskripzio eta tituluen interesak kobratzeko emana zitzaion ahalordea kentzeko erabakia hartzen da, nazionalista zela argudiatuz. Ahalorde hori Jose Maria Etxabe idazkariaren eskuetara pasatzen da¹⁵².

Udaleko lehen kargu-arazketa 1937an eman zen. Handik sei urtera, 1943ko martxoaren 4an Gobernazioko Ministerioak aldarrikatutako Aginduak erabakitakoaren arabera, Jose Maria Etxabe Yaben udal-idazkariari berari helduko zaio arazketa-espediterearen jakinarazpena. Erabaki honekin erabat harrিতuta, Udalak berehala igortzen du ohar bat Gobernazio-Ministeriora esanez gauza jakina eta ezaguna dela idazkari jaun hori FET eta JONS mugimenduari atxikia dela eta, beraz, ez zegokiola arazketa-

zigorrik¹⁵³. Arrazoia? Ageriko falangista eta mugimendu nazionalari errotik atxikia zelako, bere idazkari-karguan jarraitu zuen hainbat urtez, arazketa-mehatxutik aske.

5. Ondasunen konfiskazioak

Administrazio-arazketak ez ezik, ondasunen konfiskazioaldarrikapenak eman ziren, kasu batzuetan bete zirenak eta beste batzuetan ez. Berastegiri dagokionez, artxiboek argitutuko dute neurri zigortzaile horri buruzko informazioa. Konfiskazio-agindua eman zela eskura izan dugun dokumentu honek erakusten du:

“Ordenado por la Comisión Provincial de Incautaciones de Bienes de Guipúzcoa se proceda a practicar el inventario de los bienes pertenecientes a V. participole que el día seis del actual a las once horas de la mañana se constituirá el Aguacil de este Ayuntamiento en unión del Secretario en su casa al objeto indicado, esperando se halle en su domicilio en el día y hora citados.

Dios guarde a V. muchos años

Berástegui, 3 de julio de 1.938

II Año Triunfal

El Alcalde

Lucio Echeverria (eskuz idatzia)

Sr. D. Francisco Olaechea Malcorra. Berastegui”¹⁵⁴.

Zigortua, Frantzisko Olaetxea Malkorra jauna, konfiskazio-agindu hori hartu eta handik hilabetera hil zen. Agindua ez zen gauzatu.

6. Udal-enplegatuen izendapenak eta soldatak

Udaleko hainbat enplegaturen arazketak zirela medio, kargu batzuk hutsik geratu baitziren, gerra osteko lehen hamarkadan kargu horiek bete ziren eta beste batzuk sortu ere bai. Orokorrean, gerra garaian eta oste hurbilean, aldaketa handiak egon ziren udal-langile eta funtzionario publikoen lanpostuetan. Kasu batzuetan tartean arrazoi politikoak zeudelako, beste batzuetan funtzionario-izaerak berak hautagaien desplazamendua berarekin zekarrelako. Berastegi herria ez zen izan salbuespen bat izendapen berrien politika administratibo horretan.

Honela, 1936ko urtarrilean, ordura arte bitarteko albaitari-lanak eginez zetorren Nikolas Yeregi jaunak bere karguari uko egin zion eta honen ordeztan Frantzisko Beobide, Asteasuko semea, izendatu zuten martxoaren 1ean¹⁵⁵. Honen lekua Bizente Larrañeta jaunak hartu zuen 1945eko abuztuaren¹⁵⁶. Orobat, Tomas Almandoz hil zelarik istripuz 1940ko azaroan pilotakada bortitz batek Beotibarko frontoian buruan jota¹⁵⁷, haren ordeztakoak egitera Joan Yeregi jauna etorri zen, bertan urte asko egin zituen Mallorkina etxean. Almandoz Astigarragako semea izaki, bere herrian ehortzi zuten azaroaren 22an. Bere alarguna, Maria Teresa Esnaola anderea, alarguntza-pentsioa jasotzeko eskubiderik gabe geratu zen, defuntuak bere zerbitzuak Berastegi eta Elduiaren 18 urtez baino egin ez zituelako, 1922ko abenduaren 1etik 1940ko azaroaren 19ra arte. Alabaina, 1931ko urtarrilaren 11ko Ministerio-Aginduaren arabera, arautegiak eskatu, 20 urteko zerbitzuak beteta edukitzea eskatzen zuen¹⁵⁸. Hiru seme-alaben ama alarguna, inolako laguntza sozialik jaso gabe geratu zen kale gorrian, bi

hilabeteko soldata jasota. Elduaingo Udalarekin batera, Probintziako Buletin Ofizialak 1942ko urtarrilaren 11n argitaratutakoaren arabera¹⁵⁹, Berastegiko Udalak bete zituen praktikantearen plazaz hornitzeko baldintzak, baina badirudi plaza hori hutsik geratu zela. Joan Yeregi mediku jaunaren garaian bederen ez zen herrian praktikanterik.

Ez dakigu nor izan zen erloju-arduraduna gerra aurrean, ezta Eldukoaren ordeztu izendatu zuten ere. Berastegin, gerra ondoren, hainbat urtez, Jose Yeregui errementaria izan zen erlojua ordu ofizialarekin beti puntuan edukitzeko ardura zeukana¹⁶⁰.

Udalak laguntzaile-mekanografa baten plaza sortu zuen eta bulego-eginkizun horretarako Maria Dolores Zufiria Sáez de Heredia hautagaiari eman zitzaion bitarteko izaerarekin eta urteko 3.000 pezetarekin 1945eko urriaren 6ko bileran¹⁶¹. Plaza hau 1948an atera zen.

Arazketaren ondorioz hutsik geratutako plazak, berriz, 1948an bete ziren. Hala zeuden Alondegiko administratzailearena eta edateko uren arduradunarena. Lehenengo zein bigarren kargurako Pedro Aldunzin Aranalde jauna hautatu zuten bitarteko izaerarekin eta, hurrenez hurren, urteko 750 eta 300 pezetarekin¹⁶². Doi-doi mila pezetako soldata. Martin Jose Iparragirre Esnaola udal-gordetzailearen karguarekin agertzen da jadanik 1940an, eta 1947an bi kargu eramaten ditu batera: edateko ur-kontagailuaren zerbitzua eta udal-arbitrioaren administratzailearena¹⁶³.

Serapio Mugika Zufiriak (1923, 950) "Berastegui" herriari eskainitako atalean dakarrenez, 1920ko hamarkadan Udalean aguazilak zeukan herria zaintzeko ardura eta bere egitekoa betetzeko kabo bat, 5 guardia zibil eta mikeleteak zituen laguntzaile. Aguazilak bazuen, bada, bere boteretxoa.

Gerra ostean, 1940an, Juan Cruz Ansa Santa Kruz zegoen kargu horretan, ez dakigu noiztik noiz arte. Kontua da aguazilaren plaza hutsik zegoela-eta, Migel Azurmendi Aranalde hautatu zutela 1948ko urtarrilaren 17an, urtean 1.000 pezetako soldatarekin eta bitarteko izaerarekin¹⁶⁴. Honek, ordea, bere karguari uko egin zion urte bereko uztailean, eta honen anaia Rafaelek hartu zuen ardura hori baldintza beretan¹⁶⁵.

Udal-enplegatu batzuen urteko soldatak aurreratu ditugu. Urteen joanean aldatzen joaten baitira, 1940ko ekitaldiari dagozkion karguen soldata-kopuruak bakarrik eskainiko ditugu¹⁶⁶:

–Jose Maria Etxabe Yaben, idazkaria, urteko 5.000 pezetarekin, eta kargua jabetzan.

–Tomas Almandoz Mendizabal, medikua, 3.549 pezetarekin, eta kargua jabetzan.

–Gregorio Munita, albaitaria, 981 pezetarekin eta bitarteko izaerarekin.

–Juan Cruz Ansa Santa Kruz, alguazila, 400 pezetarekin eta bitarteko izaerarekin.

–Martin Aldunzin Artola, arbitrioen administratzailea, 250 pezetarekin, eta kargua jabetzan.

–Martin Jose Iparragirre Esnaola, gordetzailea, 200 pezeta eta bitarteko izaerarekin.

Beste kargu batzuk hutsik zeuden urte horretan, hala nola, praktikantearena, emaginarena eta farmazialariarena, eta hauentzat esleitutako soldatak, lehen bientzat 1.064, 70 eta hirugarrentzat 507 pezetakoak ziren. Osasun-zerbitzu hauek ez dira ezagutu frankismo-garaiko Berastegin.

Udalbatzak egiten zituen bileretan ohiko gaiak aztertzen ziren, gehienetan baserriko gaiak zegozkienak. Harria

atera eta karea egiteko, mendi-sasiak erretzeko, buztina ateratzeko, ura etxera eramateko, labeak egiteko udal-baimena behar izaten zen eta baserritarrek egindako horrelako eskaerak askotan errepikatzen ziren, gerra aurreko eta osteko udal-aktetan agertzen den bezala. Eztabaidak partikularrek udal-lurretan egindako eraikinen gainean sortzen ziren gehienbat. Adibidez, Udalak Matias Olaetxea Saizarri bere Arrue etxeari atxikirik zeukan labea botatzeko agindua eman zionean bezala. Honek bere alde argudiatu zuen esanez eraikin horrek ez zuela trabarik egiten bide publikoan eta, gainera, beste batzuek ere bazeuzkatela beren eraikinak udal-lurretan eginda eta zergatik berak ez. Eztabaidatu eta arazoa bototara jarri-eta, Matias Olaetxea jaunaren eskaera ez onartzeko erabakia hartu zen, lau botoz biren aurka¹⁶⁷.

Arazo horiek, ordea, txikiak ziren herri-lurren inguruan izandakoekin alderatuta. Baserritarrek garai haietan harreman administratibo gutxi izaten zituzten Udalarekin, ez bazen jaiotza-agiria eskatzeko-edo, eta ez bide zuten parte hartzen udal-kudeaketaren politikan.

**HERRI-LURREN
MANKOMUNITATETIK
PRIBATIZAZIORA**

VI

BERASTEGI ETA ELDUAIN: LURSAILEN USTIAPEN KONPARTITUA (1319-1848)

Lehenagoko garaietan, gutxienez 1319an hasi eta 1848ra arte, Berastegi eta Elduain auzo-herriek batera izan zituzten beren herri-lurrak eta ez zegoen ez mugarik ez mugarririk bi Udaletako lursailen artean. Herri bien gerrikoak 71 kilometro karratuko azalera osatzen zuen. Mugen historian zehar beti sortu izan dira istiluak, askotan auzietan bukatzen zutenak, 1319an Berastegi eta Elduaingoek Leitzako Udalarekin bezala (Elosegi, 2006, 38). Beren lursail bateratu horien ustiapenari dagokionez, Berastegik bi heren eta Elduainek heren bat jasotzen zuen, 1515ean izenpetutako hitzarmenaren arabera (Mugica, 1923, 951).


Hurrengo atalean zehaztuko ditugun arrazoiengatik, azkenean, 1848an zehazki, elkarrengandik banantzea erabaki zuten. Geroztik, Berastegiren azalera gaur egungo 45,83 kilometro karratukoa izatera pasatu zen. Beraz, 26

kilometro karratu galtzen ditu. Halere, bera da Tolosaldeko herrietan azalerarik hedatuena duena.

Kontua da, ia sei mendetan zehar (1319-1848) Berastegi eta Elduaingo mugak aldatu gabe egon zirela eta mugarriak ere ongi finkatuak zeudela. Bi mugarri-mota zeuzkaten bere leku jakinetan ezarriak. Batek kanpoko auzo-herriekiko mugak finkatzen zituen, eta besteak Elduari, Elduain eta Berastegi herriei zegozkienak.

Lehen mugarri-motari dagokionez, Elduak Tolosa, Ibarra, Berrobi, Belauntza, Elduain, Andoain eta Amasa-Billabona zituen mugakide; Elduainek, Nafarroatik Goizueta eta Arano, eta Gipuzkoatik Hernani, Urnieta, Andoain, Eldua, Belauntza, Gaztelu eta Berastegi; Berastegik, azkenik, Nafarroatik Areso, Leitza eta Goizueta, eta Gipuzkoatik Elduain, Gaztelu, Oresa eta Lizartza. Herri-lurren jabetza bi herriena zen eta mendietako lursailen kudeaketan mankomunitate antzeko zerbait osatzen zuten. (Elosegi, 2006, 36).


“Encabezamiento”koa deitzen zaion mugarri-motak, berriz, herri bakoitzak zeuzkan lursail partikularrak eta komunalak bereizten zituen. Noizbehinka, data jakirik gabe, muga eta mugarri horiek ikustera joaten ziren herri-agintariak, beren adituekin. Ikuskaritza egiten Bideraundik¹⁶⁸ hasten ziren, Tellaetxetik jarraitu eta herriari buelta osoa eman ondoren, Azpikoetxeko hariztian bukatzen zuten. Egindako ikuskaritza batzuk Tolosan dagoen Gipuzkoako Artxibo Orokorrean notario-aktetan jasota datoz. Bata 1686an Francisco Echeverria eskribauak idatzitakoa da eta, dokumentu horretan datorrenez, guztira 55 mugarri eman zituzten ontzat; baina lehengo zaharretatik 37 egoera txarrean zeudenez, berriak jarri behar



Berastegi eta Elduaingo muga eta mugariak 1319-1848 epealdian Nafarroa eta Gipuzkoako auzo-herriekin (Elosegi, 2006, 37)

izan zituzten. Bestea, berriz, 1718an Jose Aranalde eskribauak idatzitakoa da, 32 urteko tartearekin, eta oraingo honetan ez zen mugarri berririk jarri beharrik izan. Dokumentu bietan hainbat xehetasun ematen dira: berria non jarri zuten eta zaharra non topatu, zein harri-mota zen, nongo eta nolako lursaila zen, non kokatua zegoen, eta abar (Elosegi, 2008, 36-38). Dokumentu hauetan garbi aditzera ematen da mugarriek markatutako eremutik kanpo zeuden lurrak, nahiz haien erabiltzaileak partikularrak izan, bi herrienak zirela. Ohar hau egiten zitzaaien erabiltzaileei, badaezpada ere, jakin zezaten ez zirela haien jabeak.

Berez, herri-lurrak ezin ziren saldu, baina, Espainiak XVIII. eta XIX. mende-hasieran egindako gerra-gastuak zirela bide, estatu-administrazioak zerga bereziak ezarri zituen eta, Udalek ordaintzeko kaudimenik aski ez zutenez gero, haiek saldu ahal izatea baimendu zitzaien. Berastegi eta Elduain egoera honek behartuta hasi ziren beren herri-lurrak saltzen 1810ean, eta 1847rako gehienak salduta baitzeuzkaten, elkarrekin zituztenak zatitu eta berriro mugarritzea erabaki zuten Udal biek (Elosegi, 2008, 37-38). Berastegiko udal-artxiboan aurkitzen den eta Lascurain, Echeverria eta Escoriaza arkitektoek 1848ko martxoaren 27an egindako plano batean finkatuta datoz. Hor Gipuzkoako Diputazioak esanda jarritako mugarri zaharrak agertzen dira, batetik, Elduain eta Berastegik auzo-herri aipatuekin dituztenak eta, bestetik, Eldua, Elduain eta Berastegiko herri-lurrak eta pribatuak bereizten dituztenak. Plano horrek erakusten duenez, jabetza pribatuko lursailen esparrua aski mugatua zen artean. Ariztunugaldetik hasita, lursail pribatuen marra Goienetxea, Tellaetxea, Olloki, Amiri, Juanluzenea, Bordatxo, Intzazburu, Elaundegaraikoa,



Berastegiko “encabezamiento”ko muga eta mugarriak gaur egun (Elosegi, 2008, 40)

Igeltza, Osiñeta, Garaiburu, Bordatxuri eta Elberdin base-
rrien ingurumari pasatzen zen, horien inguruko mendi-
hegaletik, leku horietan kokatuak aurkitzen baitira
aipatutako baserri horiek (Salbarredi, 2004, 14). “Encabe-
zamiento”ko grafiko horrek egiaztatu eta areago zehaztu
baino ez du egiten eremu pribatuari buruzko marra hori.

Geroztik, orduko lursail pribatuen gerrikoa oraindik
areago zabalduz joan zen, esan nahi baita herri-lurrak pri-
batizatzen joan zirela, eta hurrengo mendearen hirugarren
hamarkadan herri-lurren eta pribatuen arteko arazoa bizi-
bizi jarriko dela udal-agintariak piztuta. Baina honetaz
jardun aurretik, ikus dezagun hurrengo atalean zergatik
ematen den Gipuzkoa osoan zehar herri-lurrak pribatiza-
tzearen fenomeno, herri gehienek kasua baita hau, ez
Elduain edo Berastegiri atxikia bakarrik.

VII

HERRI-LURREN PRIBATIZAZIOA

Mende luzez Berastegik eta Elduainek batera izan zituzten beren herri-lurrak. Zer dela-eta, zatitu zituzten? Galdera honi erantzuten saiatuko gara atal honetan, Berastegiko kasua Gipuzkoaren testuinguruan kokatuta, horrela bakarrik hartzen baitu bere esanahi osoa.

Manuel Lekuonak (1974, 12) Iñaki Linazasororen *Casertós de Guipúzcoa* liburuari egiten dion hitzaurrean, lurraren jabetza nekazaritzak ekarri zuela dio:

“Nekazaritza sortu zan arte –artzai-garai jatorrean alegia– lur guziak erri-lur bide ziran. Artzaiak bere artaldearentzako larrea, erri-lurrean du, erri-lurrean bear du. Nekazariak, berriz, berak lantzen duan lurra, beretzako nai du... Nekazaritzak ekarri zuan gure artean, lurraren jabetasuna...”.

Tesi klasikoa da hori, horrela formulatuta orokorregia, pribatizazioaren prozesua esplikatzeke geratzen baita eta, geroko ikerketek frogatzen duten bezala, haren ezaugarriak ez baitira berberak izan toki guztietan.

1. *Ondazilegi*-lurrak direla-eta, aurre-zehaztapenak

Herri-lurren arazo hau hain da konplexu eta nahasia, aldez aurretik gai horretan erabiltzen diren kontzeptuak behar bezala mugatzen ez badira, berez iluna dena areago iluntzeko arriskua dago.

Jabetzari dagokionez, izaera juridiko desberdineko ondasun-motak bereizten dira, jarraian zehazten joango garenak eta gure azalpenean etengabe agertuko direnak: herri-lurrak, udal-ondasunak, *ondazilegiak*, eta besterik.

Udal-ondasunak Udalaren jabetzakoak diren eta errentan emanda dauzkan ondasunak izendatzen dira horrela. Gazteleraz “bienes de propios” deitzen zaie. Normalean etxeak, errotak, meatzeak, burdinolak, mendiak, larreak eta horrelakoak izan ohi dira. Etekina ateratzea dute helburu. Espainiako Erregimen Zaharrean, ondasun horietatik jasotako errenta-diruak zenbait udal-zerbitzu ordaintzeko erabiltzen ziren.

Herri-lurrak, aldiz, herriari dagozkion ondasunak dira, errentan eman gabe, herritar edo auzotarrek zuzenean erabiltzen dituztenak: mendiak, zuhaiztiak, larreak, garolekuak, eta besterik. Hauek gazteleraz “los comunes” edo “los bienes comunales” izendapena daramate. Kasu honetan herritar guztiak ziren onuradun zuzenak eta guztiei zegokien ondasun horiez debalde gozatzeko eskubidea.

Zailagoa da Gipuzkoan erabiltzen den eta euskaraz emana datorren *ondazilegi* kontzeptuaren edukia mugatzea, gaztelerazko hizkuntza juridikoan ere horrelaxe emana dena¹⁶⁹. Hitz hau ez dator euskarazko hiztegi modernoetan, baina bai Plazido Mujika eta Retanarenean, hurrenez hurren, “monte común, ejido, terreno comunal” eta “disfrute del

dominio útil de un terreno” itzulpenekin. Hitz elkartu horren *onda* substantiboari dagokionez, interpretazio kontraesankorrak daude. Serapio Mugica Zufiriarentzat¹⁷⁰ “fondo” edo “suelo” da, hots, *lurzorua*; Alvaro Aragón Ruano-rentzat,¹⁷¹ aldiz, “cepa del árbol”, hots, *zuhaitz-ondoa*, “sagarrondoa”, “pikondoa” esaten den bezala. Bestalde, *zilegi* kalifikatzaile horrek adierazten du, lursail hori, nahiz modu batera zein bestera ulertu, ez dela lehengo zentzuan ulertu beharreko “herri-lurra”, ezta jabetza pribatukoa ere, nahiz erabiltzaileak haren gozamina izan; hori batetik eta, bestetik, landatzeko zein lantzeko lur baimendua dela, (h)ondeatzeko zilegia, alegia. Garbi dagoena da, azkenik, *ondazilegi* izeneko lur horiek Udalen ondasunak izatera pasatu aurretik, herritarren gozamenekoak izan zirela.

Partikularrek *ondazilegiak* beretzen zetozela-eta, Gipuzkoako diputatu batzuek –zehazki Vicente Laffitte, Luciano Abrisqueta, Luis Elizalde, Juan de Olazabal eta José Joaquín Castañeda jaunek–, 1909ko azaroaren 30eko txosten luze batean gogorarazten diote Diputazioari bere eskuetan dagoela herri-lurrak administratzea eta Udalei herri-lur horiek errebindikatzea eskatu behar zaiela (Ayerbe, 2005, 590). Eta une hori egokia zen, Diputazioak bazuelako Probintziako basoak zuzenean edo zeharka antolatzeko azpiegitura, Baso-Zerbitzua, alegia. Horregatik, izenpetzaileek eskatzen zuten Baso-Zerbitzu horrek har zezala bere egitekotzat argitzea zein ziren lehen herri-lurrak izandakoak eta orain partikularren eskuetan zeudenak, aurrerantzean gehiegikeriarik gerta ez zedin. Eta hemendik aurrera, hain zuzen, derrigorrezkoa gertatuko da herri-lurrez gozatu ahal izateko Batzorde Probintzialaren baimena izatea. Leaburuko

Udalak herri-lur batzuen gozamenegaz egiaztatze-lanak egin zituen 1921ean (Ayerbe, 2005, 591-192, 398).

Geroago, Batzorde Probintzialeko Baso-Zerbitzuak 1917ko apirilaren 11n egindako txostenean zetorrenez, *ondazilegiak* Udalek partikularrei utzitako lursailak ziren, horietan haiek landaketa jakin batzuk egin zituzten, gero horiez gozatzeko eskubidearekin. Baina horiez gozatuz gero, lurzorua berriro Udalaren eskuetara pasatu behar-koa zen berezko landaketaz bertan etorritako produktu eta landare berri guztiekin¹⁷². Zuhaitzia landatu zutenena zen, baina inoiz ez lurzorua.

Izan ere, *ondazilegi* horiek ezaugarri berezi batzuk dituzte. Horien oinarrizko izaera da, sorreran herri-lurrak izaki, partikular bati utziak izan zirela, ustia zitzan. Gainera, sorreran gozamen hori zuhaitziari bakarrik atxikitzen bazitzaion ere, desamortizazio-garaian beste probetxu-mota batzuei ere aplikatu zitzaizkien, funtsean, garo-lekuei. Nolanahi ere, eta puntu hau ere gogoan hartzekoa da, partikularrari herri-lurrez gozatzeko aitortzen zaion eskubidea, azken batean, familiaren autokontsumora zuzendua dago, ez merkatura, zuhaitzen kasuan bezala¹⁷³.

Zer gertatu zen *ondazilegi* horiekin? Denboraren poderioan, beste arrazoiengatik udal-agintarien utzikeriagatik, herriarenak izatetik partikularrenak izatera pasatu zirela. Herri-lurretako zuhaitziaren gozamena zuten partikularrak, urte batzuk igaro eta gero, lurzorua jabetzarekin egiten ziren eta eskritoretan beren lursailak bailiran erregistratzen zituzten. Arazoak, batez ere, landatzaileak edo hauen ondorengoak baserri aldatu eta maizter berriak sartzean gertatzen ziren¹⁷⁴. Maila juridikoan zailtasun gehien ekarri, *ondazilegi* horiek baserri-elementuen barruan sartzeak

dakar. Izan ere, baserriari atxikirik agertzen dira, hau komunitatearekiko unitate funtzional gisa hartuta bere eskubide eta betebeharreran. Eskubideak, beraz, etxeari dagozkionak dira, ez gizabanakoari, eta honek zailtasunak eta nahasketa dakartza etxe-ondasunak sailkatu eta horien transmisioa erregistratzeko orduan.

Areago zehaztuz, esan dezagun, baserri-ondasunak erregistratzeko orduan, kontuan hartu beharreko hainbat xehetasun aurkitzen direla eskriturretan: bat, *ondazilegi* hitza baserriari atxikiriko elementu bezala agertzen da, gazteleraz modu askotara emana datorrena: “montazgo ondacillegui”, “usufructo ondacillegui”, “terrenos ondacilleguis de su pertenencia”; bi, lurraren gozamen-motari dagokionez, a) zuhaztiari, b) garo-lekuari eta c) belardi, orbel, otadi edo fruta-arbolari buruzkoak bereizten dira; hiru, kasu batzuetan, eskubideen titularitatea esplizitatu egiten da, adieraziz “lurraren jabetza herriarena dela eta usufruktua jabearena”; lau, beste batzuetan, *ondazilegi* hitza aipatu gabe, “usufruktua jabetza” aipatzen da, “helechal cuyo usufructo le pertenece en propiedad” (Karrera, 2002, 19-20). Eskura izan ditugun Berastegiko beste baserri-eskriturretan, baserri-ondasunak deskribatu eta zehaztean, ez da *ondazilegi* hitza agertzen. Beste batzuetan, lursail jakin baten salmenta-eskrituran, baldintzazko ohar bat tartekatzen da, inork erreklamatzeko badu, saltzaileak erosleri hainbesteko bat ordain diezaion. Eta kopuruaren zenbatekoa zehazten da.

Praktikan gertatzen dena da *ondazilegi* horiek nekazal ustiapenari dagozkionak bailiran agertzen direla Jabetzako Erregistroan. Garo-lekuen probetxuak gurasoengandik seme-alabengana pasatzen ziren ezkontza-kapitulazioetan eta horrelaxe inskribatzen zituzten eskritura publikoetan.

Ondazilegien kasuan, bada, luraren egiazko jabetza (herriarena) eta horren gozamina (partikularrena) praktikan nahasten direneko kasu berezi baten aurrean aurkitzen gara, herri-lurren pribatizatzeari bide ematen dion prozesu juridiko konplexu baten aurrean. Azken batean, komunalen eta partikularren arteko liskarrak, auzietan erabakitzen ziren, erregistratutako eskrituretan oinarrituta.

2. Pribatizazio-prozesua: Gerrak eta desamortizazioak

Zalantzarik txikiena ez da, herri-lurren pribatizazio-prozesua azkartzen duten gizarte-faktoreez jardutean behin eta berriz aipatzen den bezala, XVIII. eta XIX. mendeetako Espainiako gerra-gastuek bere eragin nabarmena izan zutela herri-mendi batzuetako jabetza-aldaketan. Eragin hori, gainera, etengabea izan da Gipuzkoaren historian, ez bakarrik elementu estrategiko eta defentsa-leku bezala, baita –eta, bereziki–, bertako lurzoruan landatutako materialei eman zitzaien erabileragatik ere. Basoetako egurra gerra-gastuetarako eta armagintzarako erabili zen, zehazki Konbentzio-Gerran (1794-1796) Donostia eta Hondarribiko gotorlekuak sendotzeko eta Soraluzeko armagintza hornitzeko. Ez da ahaztu behar, ezta ere, frantses tropek gerra horretan Probintziako hainbat herritan basoak bota zituztela eta Leintz Gatzagan, berriz, baso gehiena 1794an (Ayerbe, 2005, 495).

Hurrengo mendean *ondazilegi*-erregimeneko herri-lurren egoerak oraindik areago egin zuen okerrera, lehenik, Independentzi Gerrak (1808-1814) eta Lehen Karlistadak (1833-1839) eragindako gastuekin eta liberalek sistemaz sustatutako basoen desamortizazio-politikarekin. Probin-

tziako Udalak Espainiako eta Frantziako estatuek bertan eragindako gastu handiei erantzun ezinez zorpeko geratu baitziren, haietako askok auzotar eta jabe partikularrengandik diru-kopuru garrantzitsuak jaso zituzten mailegutan, berriro itzultzekotan. Bitartean, horren ordainetan, Udalak mailegari horiei lursail-zati batzuk uzten zizkien, *ondazilegi* bezala ezagutzen diren horiek, hain zuzen, haietaz goza zezaten. Orokorrean, hariztiak eta gaztainadiak izaten ziren. Baita garo-lekuak ere. Lursail horiek, berez, utzitakoak (gazteleraz “prendarios”) ziren, baina aldi baterako bakarrik. Baina denbora luzez mailega-emaileei ez baitziren itzultzen, 60 edo 80 urte pasa eta gero, utzitako lursailen jabetzarekin egin ziren haiek¹⁷⁵. Hala gertatu zen Larraulen. Udal batzuk, ordea, ahalegindu ziren berreskuratzen “utzitako” lursail horiek, Alegian, adibidez.

Dena den, udal-lurren salmenta edo besterentzea ez zen berria, gertatzez beste herri batzuetan ere eman baitzen, ekonomi larritasunetan aurkitu ziren garaietan, XIV. eta XV. mendeetan, Tolosa, Segura, Urretxu, Hernani, Andoain, Urnietan eta. Baina 1808ko Independentzi Gerrak, ordura arte ez bezala, krisi gogorrean jarri zituen Gipuzkoako udal-aziendak. Horregatik, Espainiako Gorteetan 1813ko urtarrilaren 4an onartutako Dekretu batek ahalbidetu zuen herrietako udal-lurrak eta lugorriak banatzea eta, horien bitartez, gastuei aurre egitea. Fernando VII.aren 1814ko etorrerak gobernu liberalaren xedapen horiek geraraztea lortu bazuen ere, ordurako kaltea egina zegoen Gipuzkoako basoetan (Ayerbe, 2005, 500). Honela, bada, Gipuzkoako *ondazilegi*-izaerako herri-lurren azalera are gehiago orokortu zen eta lursail horiek zati handi batean besterenduak gertatu ziren (Ayerbe, 2005, 498).

Gerra-gertakariak Gipuzkoako herri-lurretan eragin-dako kalteei, berriz, gobernu liberalak sistemaz sustatutako desamortizazio-politikak ekarritakoa erantsi behar zaie. Sarrera gisa esan dezagun, Kontzejuetako ondasun publikoen salmenta antzinatik zetorren zerbeit zela. Espainiako erregeek, estatu-zorrak ordaintzeko, behin baino gehiagotan beretu zituzten kontzeju-ondasunak: Felipe V.ak 1738an, Isabel II.ak 1834an. Jadanik ordurako desamortizazioaren politika gobernu-ekonomia saneatzeko panazea bihurtua zegoen, Independentzi gerrak ekarritako gastu larriak ordaintzeke baitzeuden artean eta, hori ez aski izateaz gain, gerra zibil berrian buru-belarri sartua baitzegoen. Ordurako, 1834rako, Lehen Karlistadak 4.756,313 erreal eta 24 marabediko gastua egin zuen (Ayerbe, 2005, 107-209).

Estatu espainoleko Sustapen-Ministerioaren barruan, Juan Álvarez y Méndez (Mendizabal) Haziendako ministro zela, Mendien Zuzendaritza Orokorra sortu zen 1837ko maiatzaren 31n errege-dekretuaren bidez, eta honek aldarrikatzen zuen mendi lugorriak, erregerenak eta jabe ez-egunarenak aurrerantzean gobernuak administratuko zituela, horretarako sortutako Mendi Nazionalen Zuzendaritza Orokorren bidez. Administrazio berri hau indartuz joan ahala, prozesu desamortizatzailea ere areagotuz joan zen, batez ere, eliz ondasunak beretuz. Desamortizazio zibila, alabaina, astiroago egin zen, herriak beren herri-lurrak kenduko zizkien beldur baitziren. Horregatik, 1828ko maiatzaren 17ko Errege-Aginduaren bidez, gobernuak herriek beren herri-lurren gain zuten jabetza errespetatuko zuela aldarrikatu zen, 1841eko urtarrilaren 8koaren bidez ziurtatua izan zena. Baina gobernuak ez zuen agindutakoa bete (Ayerbe, 2005, 211-214).

XIX. mende-hasieran abiatutako desamortizazio-prozesua, azken ondorioetaraino Pascual Madoz-en 1855eko maiatzaren 1eko legearekin eraman zen eta, udal-ondasunei dagokienez, aldaketa eta parentesi batzuk salbu, bera egongo da indarrean XIX. mendearen bigarren zati osoan zehar Calvo Sotelo-ren 1924ko Udal-Estatutua arte. Honek ekarriko du herri-lurren egiazko eta erabateko desegitea.

Mendi publikoen pribatizazioak ez zuen halako etekin ekonomikorik ekarri, ez bederen uste bezainbatekorik, Espainian trenbideak eta linea elektro-telegrafikoak eraikitzeari ekin zitzaion garai hartan. Diru azkarrak mendiak soildu eta xehatzea besterik ez zuen egin (Ayerbe, 2005, 488). Gipuzkoan, hain zuzen, Madoz-en lege hori aplikatu zen, mendi-salmentaren salbuespen-espeditenteak luzatuz, kontuan hartuta alde zaureratik Udal bakoitzaren eta Diputazioaren oniritzia. Halere, herri-lur asko Udalek beren auzotarren artean banatu zituzten 1856an, eta beste batzuk, berriz, ez ziren salmentatik at geratu, Udalerriaren ondasunak ala herriarenak ziren ez zekitelako, edo botere publikoen interesek ondasun-mota guztiak besterentzea aldeztu zutelako. Horregatik, Gipuzkoan beste Probintzietan ez bezalako zabaltasunez aplikatu zen baso-desamortizazioaren legea, ez baitzen egin hemen ez mendien sailkapenik ez ezein katalogorik. Hainbat alkatek salatu zuten egoera hori. Halako batean, ordea, Azken Karlistadak (1872-1876) baso-onibarretan egindako kalte handiak eraginda, Espainiako gobernu zentrala euskal Probintzietako mendi publikoen sailkapena eta katalogoa egitera behartua egon zen 1877ko azaroaren 29an. Horretarako, errege-dekretuak eskatzen zuenez, bulego eta korporazio probintziales beharrezko datu guztiak ahalik eta lasterren eta zehatzen bidali

behar zituzten. Hala eskatu arren, Gipuzkoako herri gehienek erakutsi zuten arduragabekeria zela medio, 1886. urtera arte ez dira lortuko ondasun komunalen salmenta-salbuespenei buruzko aitorpenak. Azken ondorioa da, Gipuzkoa desamortizazioarekin biziki zigortua izan zela eta, herri-lur haietako asko salmentatik salbuetsita egon beharrekoak izanik, gobernu zentralak haien kopurua ez deusera murriztuta utzi zuela, mendi garaiak partikularren eskuetara pasatuz¹⁷⁶.

3. Legeria

Baso-politika penala arautzen duten lehen xedapen idatziak 1397ko Ermandadearen Koadernoan biltzen dira, zuhaitzak –bereziki fruta-arbolak eta mahastiak–, erretzea zigortuz. Baina, batez ere, 1457ko Ermandadearen Koadernoan arautzen da sakonago mendiei buruzkoa, zuhaitzak noiz moztu, non landatu, ganaduak non bazkatu, eta horrelakoak zehaztuz. Orokorrean, ganaduen bazkatzeko askatasuna arautzen da, baldintzak ondo finkatuz: noiztik nora, zein ganadu-espezie (behorrak eta ahuntzak ez), ez edozein tokitan (ez toki babestuetan, mintegi eta soroetan, adibidez), eta abar. Zuhaitzia zaintzeari, orobat, garrantzia handia ematen zaio. XVI. mendearen erditik aurrera indartuz doan ontzigintzak eta burdinoletarako egur-ikazkintzak desoihantzea ekarri baitzuen, arazo honi irtenbidea emateko neurriak hartzen dira (Ayerbe, 2005, 94-109). Era berean, Probintziako Ordenantza orokor horien alboan, Udalek ere beren ordenamendua antolatzen joan ziren XIV. mendetik aurrera, erregeek ziurtatzen zituztenak.

XVIII. mendean, Idiazabal herriak Azpeitian 1797ko uztailean elkartutako Batzar Nagusietan jakinarazten zuen kontzeju-lurretan landu gabeko hainbat lugorri zegoela, horietan zuhaitzak landatzeko bitartekorik gabe, eta lursail horiek auzotarrek beren kontura erabili nahi zituztenen artean zuzen banatzeko proposamena egiten zuen, landatua herriari entregatzekotan, hala behar izanez gero. Eskari hori ondo iruditu zitzaion Diputazioko Batzordeari, basogintza sustatzeko modu egokia, lehendik ere indarrean egona. Nikolas Bikuña Estensorok, adibidez, Zestoako 1713ko Batzar Nagusietan mendien gozamina auzotarren eskuetan jartzea proposatu zuen, jabetza beretzat gordez. Udalen jokabide horri, esana daukagunez, *ondazilegi* deitzen zitzaion. Vicente Ruiz Apodaka Marinako intendente jaunak Tolosako Diputaziora 1799ko urtarrilaren 9an bidalitako idazkian datorrenez¹⁷⁷, gerrek eragindako gastuen ondorioz Udalak erabat zorpetuak zeudelako, horregatik jarri zen indarrean ohitura hori. Ez dakigu egindako eskaria bete zen ala ez, baina bai, herrietara bidalitako zirkularraren bidez, 1738ko Arautegiko 13. artikulua indarrean jarri zela, gipuzkoar *ondazilegia* orokortuz XIX. mende-hasieran, gerragatazkez nahastutako garaian, hain zuzen. Gertaera honek erraztuko du, inolako zalantzarik gabe, helburu horrekin Udalek partikularrei utzitako kontzeju-lurren jabetza galtzea, jendeak lur horien memoria galdua duelako edo dokumentu-frogarik ez dagoelako.

XIX. mendean, 1833ko abenduaren 22ko Mendien Errege-Ordenantza orokorrak Probintziako legeria aldatu zuen, Diputazioaren esku utziz soilki herri-lurren eta udal-ondasunen sustapena eta ustiapenari buruzkoa, erabilgarritasun publikotzat hartutako mendien administrazioa,

alegia. Gipuzkoan Erregimen Zaharrear baso-sustapena Foru Diputazioak gidatu zuen beren Batzar Nagusietan, baina 1876tik aurrera Diputazio Probintzialaren eskuetara pasa zen. Azken Karlistadaren ondotik, eta Diputazioko Sustapen-Batzordeak 1901ean Baso-Zerbitzu baten oinarriak finkatu zituen, gidari Antonio Ganuza injinerua zela. Honek egindako “Bosquejo forestal de Guipúzcoa” txostena 1902ko abendaren 27an aurkeztu zen Diputaziora eta Batzorde Probintzialak 1903ko irailaren 7ko bileran onartu zuen Baso-Zerbitzuko Arautegi-Proiektua (Karrera, 2002, 28). Eta 1905etik aurrera Espainiako Sustapen-Ministerioak bere gain hartuko ditu desamortizaziotik at geratutako mendi publikoei buruzko betekizunak. Zerbitzu honen xedea basoak berritzea izango da, egurraren ustiapena antolatzea eta mendi-ondasunak nekazaritzarekin eta industrigintzarekin bateragarriak egitea.

XX. mendean, mendien gaineko eskuduntzari buruz Gipuzkoako Diputazioak 1910eko apirilaren 12an egindako eskabideari erantzunez, 1910eko abenduaren 27ko Sustapen-Ministerioaren errege-dekretua aldarrikatzen da, zeinaren arabera aurrerantzean Euskal Diputazioak arduratuko baitira beren baliabideez baso-zerbitzuak egiteaz, estatu-inspekzioaren beharrik gabe, Mendietako Injineru baten zuzendaritzapean. Beraz, errege-dekretu hori izango da Gipuzkoako baso-autonomiaren oinarri juridikoa, Kontzertu Ekonomikoa 1937an baliogabetuko den arte (Ayerbe, 2005, 596-598). Esan behar da, ordea, Udal guztiak ez zirela ados etorri errege-dekretu horrekin eta beren Udal-Ordenantzen autonomia aldarrikatu zutela baso-gaietan. Udal batzuek, gainera, Alegian bezala, beren Ordenantzak egin zituzten (Ayerbe, 2005, 599). Nolanahi

ere, ados ala ez, orokorrean 1910eko errege-dekretu honen ondorioak berehalaxe nabaritu ziren Baso-Zerbitzuak aurrera eramandako basogintzan: 1910-1911 urte-bitartean 838.518 landare berri landatu ziren, aurreko neguan baino 300.000 landare gehiago 177 hektareako herri-lurretan. Berastegiko herri-lurretan ez ziren landare berriak landatu, baina bai Austriako larizio-motako pinu-hazia erein 16 hektareako lursailetan (Ayerbe, 2005, 601-602).

Diputazio Probintzialak, Gipuzkoako mendietan zuhaitz-landaketak egiteaz gain, 1912tik aurrera basoak oihantzeari eta mendiak mugarriztatzeari ekin zion. Berastegiko herri-lurretan 1911 eta 1912 urteetan Ipuñon 3,5680 hektarea lur erabili ziren larizio pinua erein eta 1.200 landare landatzeko (Ayerbe, 2005, 615). Geroko urteetan ere, 1918-1920 epealdian zehar, landare-mintegiak handitzen joango dira Andoain eta Berastegin (Ayerbe, 2005, 643).

Esan berriak gara Udalek beren autonomia eskatzen zutela herri-lurren gainean, Alegiako Udalak bere Ordenantzak egin zituela. Udaletatik abiatutako mugimendu-uhin hau zabalduz etorriko da. Orain Gipuzkoako Udalak izango dira 1915eko irailaren 25eko datarekin Diputazioari “Gipuzkoako herri-lurren baso-ustiapenerako Arautegi-Proiektua” aurkeztuko diotenak, jatorrizko testuan “Proyecto de Reglamento para los aprovechamientos forestales de los montes comunales de Guipúcoa” deitua, eta horrek are gehiago zailduko ditu Udalen eta Diputazioko Baso-Zerbitzuaren arteko harremanak. Mugimendu honek, Ataungoak deituta, Beasainen 1913ko ekainaren 5ean egingako bileran du bere hasiera. Bertan izan ziren Irun, Errenteria, Andoain, Amezketa, Abaltzisketa, Zaldibia, Berastegi,

Lizartza, Leintz Gatzaga, Zegama, Idiazabal, Oñati, Segura, Beasain, Gaztelu, Hondarribia eta Ataungo ordezkariak, herri-lurren ustiapenez eta oihantzeaz hitz egitera joanak. Udal-talde sendoa. Diputazioak baso-gaietan zeukan zentralismoa salatzen zuten eta, ondorioz, Udalentzat behar besteko autonomia eskatzen, horrekin ukatu gabe hari zegokion inspeksio-ardura. Bilera hartan batzorde bat izendatu zen eta, Donostiako Enrike Arizpe letratuak zuzenduta, delako Arautegi-Proiektu hori formulatu zuten, Diputazioak onar zezan. Irungo Jose Lopetegi, Ataungo Frantzisko Dorronsoro eta Berastegiko Migel Mari Mendizabal izan ziren arau horiek formulatu zituztenak eta udal-batzordeak 1915eko maiatzaren 22an onartu zituenak (Ayerbe, 2005, 625). Arau hauetan jakinarazten zitzaion Diputazioari, mendien oihantzea ez ezik, abeltzaintza ere zaindu beharrekoa zela, Probintziaren aberastasun-iturrietako bat zelako, eta maila horretan, Gipuzkoako Udalak ez direla baldintza berdinetan aurkitzen. Horretarako, azienden bazkalekuak ziurtatzeko, alegia, herri-lurren mugarriztatzea egitea eskatzen dute.

Udalen Arautegi-Proiektu horien aurrean, Diputazioko Antonio Ganuza injineru-buruzagiak txosten luze bat bidali zion Batzorde Probintzialari, adieraziz Baso-Zerbitzuak oso arau zehatzak eta zientifikoki oinarrituak zeuzkala finkatuta herri-lurren kontuan. Haren ustez, 1910eko abenduaren 27ko errege-dekretuak ez zuen aipatzen ez udal-autonomia, ezta euskal Diputazioen subiranotasuna ere (Ayerbe, 2005, 627-628). Ondorioa? Hauxe: bi erakundeak, Udalak eta Diputazioa, ez zetoze ados eta konponbidea behar zela elkarren arteko interes kontraesankorrak bateratzeko (Ayerbe, 2005, 630). Hurrengo urtean kargu-aldaketa egon zen

Diputazioko Baso-Zerbitzuan, Antonio Ganuzak 1916ko uztailaren 12an dimititu egin baitzuen eta haren ordeko Luis Barandiaran izendatu baitzuten 1917ko urtarrilaren 26an. Arduradun berria euskalduna izatea zen baldintzetako bat eta berak hori ederki betetzen zuen.

Gipuzkoak Baso-Zerbitzua arautzeko eskuduntza eskuratzuz gero, 1923an Herri-Mendien Ordenantza eman zen, Gipuzkoako Diputazioak 1926ko abenduaren 23an onartu zuena. Tarte horretan, 1925eko ekainaren 11ko errege-dekretua aldarrikatu zen, 1909ko urriaren 8ko Mendi Babesleen Katalogo-Buruzagitza ordezkatzera zetorrena, bere egitekoa izanik: urtero murrizketak berrikustea eta, eguneratzuz gero, artxibatzea. Herri-lurrez gozatzeko lehentasuna herriko auzotarrei ematen zaie, baina behin-behineko izae-rarekin, haien jabetza beregana ez dezaten. Oraingoan estatu-legeriatik zetorren Gipuzkoan ohiturazkoa zen *ondazilegi*-izaerako herri-lurren antzeko zerbaiten erabakieredua (Ayerbe, 2005, 465-467).

4. Herri-lurren egoera

XVIII. mendean zehar eta hurrengoetan hainbat lege aldarrikatu ziren, guztiak basogintza zaindu eta sustatzera bideratuak. Izan ere, 1716tik eta, bereziki, 1752 eta 1778 urte-bitartean, Koroak hornitzaile batzuei emandako baimenen ondorioz, onenak itsasontzi-enpresen hornikuntzarako eraman zirelako Gipuzkoako oihana hainbeste soildu zen, 1784an ez baitzen geratzen zuhaitz sasoikorik. Horregatik, Gipuzkoako basoak zein egoeratan zeuden jakiteko ikuskaritzarik garrantzitsuena azken urte horretan egin zen, emaitzak Donostiako Marinako ministroari igorritz. Zuhaitz-

mota guztiak bereizi behar ziren: haritzak, pagoak, gaztainak, etab.; era berean, baita berriak, onduak, zaharrak ziren ere. Berastegin 172 zuhaitz ondu zeuden eta 11.961 landare gazte hazten ari zirenak (Ayerbe, 2005, 146-150).

Fernando VII.ak 1818an arautegi bat aldarrikatu zuen, eta horretan eskatzen zitzaien Diputazioei azal zezatela zein zen landatutako eta besterendutako herri-lurren hedadura. Gipuzkoako Diputazioak Udaletara zirkular bat igorri zuen, inprimaki bat datu jakin batzuekin beteta 1818ko irailaren 31rako igor zezatela eskatuz: zenbat landare zeuden 1738an eta 1818an zenbat geratzen ziren. Epealdi horretan besterenduak zenbat izan ziren jakin nahi zen. Berastegik eta Elduainek batera 1738an 366.791 landare zituzten eta 1818an, berriz, 245.200; besterenduak; beraz, 121.59 izan ziren. Erdia baino zerbait gutxiago. Kopuru horietan lursail guztiak datoz, lugorriak ere bai, erabilgarria laurden bat baino ez izaki (Ayerbe, 2005, 502-503). Lehen esan den bezala, liberalek 1820an gobernua hartzean, berriro lehengo besterentze-politikarekin jarraituko dute eta, herri-lurrak zeuzkaten herrietan basoak landatzeko mugimendua azkartzen den arren auzolanean jardunez, Lehen Karlistadan kalte handiak egingo dira Gipuzkoako mendietan. Lehenaz gain, herri-lur asko besterendu ziren eta mankomunitate gisa funtzionatzen zuten batzuk desagertu egingo dira, hala nola Berastegik eta Elduainek osatzen zutena, edo Eniriokoa eta Aralarkoa (Ayerbe, 2005, 504-505). Hori da Berastegi eta Elduain banatu izanaren egiazko arrazoia, erabakigarriena, eta ez bi herrien arteko konponezinarena, edo horrelakorik.

Geroago, baso-aberastasuna sustatzeko bitartekoak finkatzeko xedearekin Diputazio Probintzialeko Wenceslao

Orbea letratu ofizialak 1896ko azaroaren 26ko txosten bat egin zuen¹⁷⁸, eta hau egiteko Udalei bost puntu zehazteko eskatzen zitzairen: 1) desamortizaziotik salbuetsita zeuden eta Udalarenak ziren herri-lurren zerrenda, horien izaera azalduz: zuhaiztia, larrea, garo-lekua, etab.; 2) herri-lurraz gozatzeko modua: orokorrean edo lursailetan zatituta, auzotarrei enkantean emanez-edo; 3) partikularrek lortutako eskubideak; 4) eskubide partikular horiek eraikiak izan zireneko tituluak; 5) beste herri batekin batera izandako herri-lurren zerrenda. Hirugarren puntuan, areago zehaztuz, lortutako eskubideak bazeuden ala ez galdetzen zen: adibidez, larrea guztien probetxukoa izaki, zuhaiztia partikularra zen ala ez, edo alderantziz, garoa jabetza partikularrekoa izaki, gainerako probetxu guztiak komunalak ziren ala ez. Denetarikoa erantzunak iritsi ziren: Oiartzunen 430 lur-zati ziren *ondazilegi* deiturikoak; Ataunen auzotar orok zuen zuhaitzak landatzeko eskubidea; Alegian partikularrek garoa, gaztaina eta adakeraz gozatzeko eskubidea zuten, Elduainen garoa eta lurra partikularrenak ziren eta komunalak, aldiz, zuhaiztia, otadia, belardiak eta ura. Eta Berastegin? Zatirik handiengan lurra eta garoa partikularrenak ziren eta komunalak, aldiz, zuhaiztia, otadia, belardiak, eta abar. Elduainen bezala (Karrera, 2002, 35, 107 oharra). Ikusten denez, nahasia da Gipuzkoako herri-mendien egoera. Kasu batzuetan partikularrena da zuhaiztia eta/edo horren probetxua, eta komunalak, aldiz, Udalaren jabetzakoak direlako, eman gabe utzitako eskubideak eta probetxua. Alderantzizkoa ere gertatzen da: hots, lurra eta garoa partikularrenak direla eta zuhaiztia eta beste probetxukoak, berriz, komunalak.

Hurrengo urtean, 1897ko uztailaren 8an, Wenceslao Orbeak berak, baso-aberastasunaren egoera hobeto ezagu-

tzeko xedearekin, herrietako alkateei bidalitako Zirkularran eskatzen zitzaien 1897ko urriaren 1erako desamortizaziotik salbuetsita zeuden herri-lurrei buruzko datu zehatzak igortzeko, horiek sailkatuz gero, katalogo orokor bat egin ahal izateko. Sailkapenean sartzen ziren, batetik, herri-basoak zituzten herriak eta, bestetik, ez zituztenak. Berastegi lehen sailean sartzen zen, “Berasteguico-mendia” eta “Belabieta edo Eldumendi”rekin. Guztira 2.485 hektareako azalera, garai hartan zeuden zuhaitzak *Quercus pedunculata* (artea) eta *Fagus sylvatica* (pagoa) izanik (Ayerbe, 2005, 517-528). Baina Antonio Ganuza injineruak bere “Bosquejo forestal de Guipúzcoa” txostenean (1902) dakarrenez, Katalogoa puztuta agertzen da. Baziren herri batzuk hainbat mendirekin agertzen zirenak, bat edo bi bakarrik izanda. Berastegiri, goran ikusi bezala, 2.485 hektarea esleitzen zitzaizkion, baina egiazki izan, 400 baino ez zituen (Ayerbe, 2005, 525), zeren Leitzararen zeuzkan eskubideak soilki hango larreetan bazkatzera mugatzen baitziren, hango lursailak betirako salduak izan zirelako. Katalogoan, ordea, herriaren jabetzakoak bailiran bezala agertzen dira (Ayerbe, 2005, 525, 138 oharra). Beraz, Leitzarango basoak salduz geroztik, herri-lur gutxi dituzte: “Berastegi y Elduayen (con poco terreno y arbolado de roble, al vender el vuelo del monte común *Leizarán*, donde sólo tienen el disfrute de pastos y aguas, el monte *Uli* de Berastegi y *Aitzondo* de Elduayen, con algun arbolado de haya de poca importancia)” (Ayerbe, 2005, 547).

5. Protesten uholdea

Bestalde, urteak aurrera egin ahala, herri-lurren pribatizazioak ere esparru publikoak irentsiz baitzeturten eta

artean XX .mende-hasieran erabakitzeke baitzegoen herri-lurren arazoa, Gipuzkoako herri batzuetan lursail horien ustiapenak gatazka asko sortu zituen herrien, Udalen eta partikularren artean, hala nola Alegia, Aretxabaleta, Ataun, Lizartza, Billabona, Elduain eta Berastegin. Azken herri honetako auzo batek idazki hau igorri zuen Diputaziora 1911ko otsailaren 16an, herri-lurren pribatizazioa salatuz:

“Como ay un escandalo en ésta con las leñas comunes o leñas del juego o de todo beçindario reserbadas cuando enajenación de los bienes de la billa y como tenían miedo de llebar todos el gobierno se le dieron nombre de elechales, cuasi todos comunes, pero no tienen más derecho que el usufruto de elecho. En aquel tiem(po) abía miedo de ladrones de Madrid y agora tenemos ladrones en los pueblos. Aze años que andan en consultas los bezinos o medio caballeros de estos pueblos buscando el nombre para elechales que sean propios para ello todo, leñas comunes, arrgomas, pastoación del ganado, conteras, arbolados antiguos particulares, castañales y demás, y si uno deja la bolsa todos para ellos. En estos pueblos de montaña no se puede bibir mejor que la ley antigua en masa. Los pueblos (de) Lizarza, Gaztelu, Oreja se an caido jente baja y los jaunchos también se ban retirando de Tolosa o de San Sebastián no se ban engordando con los escandalos que an puesto en estos pueblos. Esto parece una familia abandonada que no tienen padres. Siento mucho a molestar con estas letras. Y sin nmás. Juan Esquiazu”¹⁷⁹.

Batzorde Probintzialak salatutako gertakariak frogatzeko eskatu zion Eskiazu jaunari. Lizartza ere aipatzen baita testu horretan, esan behar da hemen hamaika baseritarrek

beren garo-lekuak zeuzkaten lursailean landaketak egitea galarazi zutela 1906an, argudiatuz haien jabeak zirela aspal-diko denboretatik. Hemen auziak 1915. urtera arte bederen jarraitu zuen.

Ikusiz gatozen bezala, herri-lurren kontuan anabasa handitu eta zabaltzen baitzihoan, beste arrazoien artean haien antolaketa eta kudeaketa hurbiletik segitzeko asmoarekin, Diputazio Probintzialak Mendizainen Arautegia aldarrikatu zuen 1903ko irailaren 7an. Probintzia baso-eskualdetan banatu zen eta mendizainak izendatu ziren. Hauen egitekoa zen basoak zaintzea, gaizkileak harrapatu eta zigortzea, kalteen berri ematea. Hautagaien azterketa 1905eko urtarrilaren 2an egin zen eta lanpostu horretarako 21 lagun aurkeztu ziren. Gumersindo Azurmendi Zabaleta, Zegamako semea, 1885ean jaio eta 1959an bere sorterrian hila, 1908an hautatu zuten. Orduan nekazaria zen, ezkon-gea eta 23 urtekoa. Prudentzia Luzia Larrea Muruarekin ezkondu zen. Mendizain hauek su-arma eramateko baimenduta zeuden zerbitzu-orduetan. Tuberkulosi-gaixotasuna harrapatu zuen 1910ean eta denboraldi batez zerbitzutik at egon zen, bere ordezkok Bartolome Benito Arizkorretak egin zituelarik. Osatuta, lanera 1910eko azaroaren 22an itzuli zen (Ayerbe, 2005, 558-560). Hilabete batzuk geroago, 1911ko irailaren 19an, lehen mailako mendizain izendatu zuten, Pablo Agirrerren ordezko bezala, 3. eskualdean, eta lehenik Gaztelun eta gero Berastegin jarri zen bizitzen, urtean 1.250 pezetako soldatarekin.

Mikeleteak Uliko ariel-etxea utzi zutenean, 1928an, Nekazaritzako Batzordeak mikelete-etxea Mendi-Zerbitzura pasatzeko proposamena egin zuen, mendizaina bertan bizi zedin udaberri, uda eta udazkenean. Izan ere, etxe hura

leku estrategikoan kokatua zegoen inguruko herri-lurrak –Berastegi, Gaztelu, Orexa eta Lizartzakoak–, gertu-gertutik zaintzeko. Proposamena Batzorde Probintzialak 1928ko abuztuaren 16an onartu zuen. Hernaniko mintegian zegoen behor-hazkuntza ere hara eraman zen. Urte bereko irailean telefonoa eta elektrizitatea bertan jartzekotan ziren¹⁸⁰. Eta jarri zuten. Gumersindo Azurmendi mendizaina bertan bizi izan zen hainbat urtez. Artean zutik zegoen ariel-etxe zaharrean edukitzen zituen bere aziendak.

Garrantzi handiko berritasuna suposatu zuen 1907ko ekainaren 16ko errege-dekretuaren bidez sortutako Mugarriztatze-Inspekzioak, Nekazaritza, Industria eta Merkataritzaren Zuzendaritzapean zegoena. Izan ere, etengabeko usurpazioak ematen ziren eta mendi publikoak zehaztasunez mugarriztatu beharra zegoen. Hutsune handi bat betetzera zetorren, beraz, zerbitzu hau. Egiteko honek bazituen bere zailtasunak ere, jabetza-tituluak eta alboko mugak arreta handiz aztertzea eskatzen baitzuen. Egiteko hori betetzera zetorren, hain zuzen ere, Inspekzioa: hots, mugarriztatzeak eta Katalogoa egitera, ondasunak Jabetza-Erregistroan inskribatzera, lursailak trukatzera, mendi publikoen menpekotasunetik askatzera, etab. (Ayerbe, 2005, 430-431). Horretarako “Zerbitzu bereziak” sortu zituen bere pertsonalarekin.

Sortutako zerbitzu berri horien ondotik, 1909tik aurrera, Gipuzkoako Diputazioko Baso-Zerbitzutik eta Udaletatik gogor ekin zitzaion herri-lurrak defendatu eta babesteari. Aurrerantzean usufuktuan baino ez dira utziko, gozatzeko eskubidearekin soilki. Herri-lurren gozamina –batez ere, garo-lekuena–, auzotar guztiei zegokiena zen. Garo-leku horietan zuhaitzak landatzeari zegokionez,

ordea, kexak sortu ziren auzotarren artean, landaketak garoaren desagertzea omen zekarrelako. Lursaila zatitan banatuta zetorrenean, ordea, partikularrek zioten aspaldiko denboretatik zirela herri-lurretako leku desberdinetan sortzen den garoaren jabeak eta baserri bat esku batetik bestera pasatzen denean, edo salmenta, dohaintza edo herentziaren bidez, garo-lekua baserriari zegokion ondasun bezala agertzen zela, berdin errentan ematen zenean ere, katastro guztietan idatziz jasoia zetorren bezala.

Herri-lur gehieneko egoera 1927an zein zen argi erakusten du partikularrek herri-lurretan egindako landaketei buruz Sustapen-Sailean izapidetutako Berastegiko espedienteak¹⁸¹. Hemen, hasteko, partikularrek herri-lurren gozamenaz daramaten jokabidearen aurrean Udalak erakusten duen pasibitatea deskribatzen da, haiek, herri-lurrak ixteaz gain, Jabetzako Erregistroan beren jabetzakoak bailiran inskribatzen baitituzte. Udalak herri-lurretan egindako zuhaitz berriak landatzea salatzen du. Salatutako auzotarrek onartzen dute landaketa berriak egin dituztela, baina argudiatzen dute esanez herri-lur batzuetako garoaren probetxua beraiena dela aspaldiko denboretatik lursail horiek beraiek darabiltzatelako eta horietan zuhaitzak jabetzan dauzkatelako. Zuhaitz horiek, batez ere, lizarrak dira, hauek baitira ardientzako bazka bezala erabiltzen direnak. Diote, bada, ohitura hau aspaldikoa dela herrian eta, behar den bidetik besterik frogatu arte, burugabekeria dela zuhaitzen landaketa salatzea. Udalak, bere aldetik, onartzen du garo-lekuak partikularren probetxukoak direla, baina Batzorde Probintzialak uste du, 1926ko Probintziako Mendien Ordenantzetako 42. artikulua mendi publikoetan lurrak okupatzea debekatzen baitu eta lur horiek zuhaitzez

okupatuta baitaude, 361. eta 362. artikuluetan datorrenaren arabera, zuhaitzak Udalaren jabetzakoak direla.

Udal-Haziendako Sailak hartutako erabaki horren aurka egindako helegitean, berresaten da Probintziako nekazal herri guztietan auzotarrek beren gozamenerako hartutako herri-lur horietan betidanik landatu izan direla zuhaitz berriak galdu edo bota zirenen lekuan, 1738ko Mendien Ordenantzak zekarrena aplikatuz. Nolanahi ere, gaineratzen da, baserri jakin batzuei esleitutako garo-leku horietan oso zuhaitz gutxi landatu izan direla, zuhaitzietan garoa ez datorrelako, hain zuzen. Landatzekotan ere, lizarrak baino ez dira landatzen, haien hostoak ardien bazkarako erabiliz. Edozein kasutan ere, esango da landaketak fede onez eginak izan direla beste herri askotan egiten den bezala. Beraz, zegoen kalteak ordaintzea edo beren lur partikularretan landatzeko baliabideak ematea eskatzen zuten (Karrera, 2002, 30).

6. Pribatizazioa, zergatik eta nola?

Lehen esan da Udal gehienek beren herri-lurretan egurra baino ez zutela ikusi eta horrekin dirua ateratzea izan zela haien helburu nagusia. Beraz, Udalen aldetik, epelkeria edo zaletasun gutxi zegoen mendiak zaintzeko eta, auzoen aldetik, berriz, norberaren egoismoak agintzen zuen. Udaletan, gertatzez, herri-lurren eta partikularren arteko tirabirak sarritan pizten ziren, baina balantzak, antza, azken hauen aldera egiten zuen, batez ere, tartean lagunen edo ahaideen konpromisoak zeudenean. Horregatik, ezin zen utzi Udalen eskuetan herri-lurren kudeaketa. Horretaz gainera, partikularren zuhaitzi-eremu handien berdin garo-

leku eta otadien lege-egoera oso zalantzazkoa zen, haien jabetza ez baitzen erosketa-bidez lortua izan. Horregatik, zalantzan jartzekoa zen haien legitimitatea, zeren haien izaera “partikularra”, bakarrik eta soilki, ustezko jabeen aitortuenean oinarritzen baitzen, esanez aspaldiko denboretatik zetozela lur haiek erabiliz, etenik gabe eta inor kontra egin gabe etorri ere. Honela, jabetza-informazio horren bidez, herri-lur zirenak beren jabetzakotzat zeuzkaten. Eta hori izan zen, hain zuzen, Gipuzkoan foru-garaitik hasita indarrean egon zen *ondazilegi* askoren bukaera. Hala izendatutako mendi-lurretan zuhaitzia bakarrik zen hura landatu zutenena, sekula ez lurzoru bera (Ayerbe, 2005, 589). Delako “jabetza-informazio” hori XIX. mendebukaeran partikularrek herrietako udal-epaitegietan asko erabili zuten argudio bezala Jabetza-Erregistroan inskribatzeko. Hala egin zen 1922an Berastegin Allor, Gangara eta Musquille garo-lekuekin. Hauek partikularrek beren jabetzakotzat hartu zituzten; Udalarentzat, aldiz, “Berasteguicomendia”ri zegozkion herri-lurrak ziren, 1886ko irailaren 4ko Errege-Aginduz salmentatik salbuetsita zeudenak. Erregistroan inskribatu eta 30 urte pasa ondoren, inork erreklamatzeko ez bazuen, haren “jabeari” edo, zuzenago, erabiltzaileari jabetza-eskubidea onartuta geratzen zitzaion. Administrazioak bazuen berrikitan egindako usurpazioak salatzeke ahalmena, baina urtebete eta egun bat baino gutxiagoko datazioaren barruan egin behar zuen. Hortik pasa ezkerero, ohiko Auzitegiak erabakitzen zuen¹⁸².

Berastegin, baserri edo etxeari atxikitako ondasunak eta lursailak Udaleko katastro-liburuetan erregistratzeari dagokionez, XIX. mendearen erdiko data batzuk badira. Juan Martin Garziarena jaunak 1869ko urriaren 25eko datarekin

idazki bat igortzen du Berastegiko Udalera, eta hor eskatzen dio agiri bat luza diezaiola ziurtatuz Katastro-liburuetan inskribatuak aurkitzen direla bere jabetzekoak diren Arretxe baserriari eta Txankanea etxeari dagozkien ondasunak eta lursailak¹⁸³. Udalak inolako arazorik gabe luzatu zion eskatutakoa:

“Certificamos que detenidamente reconocidos los libros Catastrales que obran en el archivo municipal de esta villa formados el último año o copiados al menos del formado anteriormente, resulta que las fincas descritas en la precedente instancia son de propiedad de Don Juan Martin Garciaarena, y que anualmente paga la contribución del Culto y Clero, a saber, por la casería Arresea y sus pertenecidos a ciento cincuenta y ocho reales y sesenta centimos y Y en cumplimiento de lo ordenado en el precedente acuerdo damos el presente en Berastegui a veinte y seis de Julio de 1868. El Alcalde Presidente = Juan Bautista de Lizarza”¹⁸⁴.

Berastegiko Udalean indarrean daude, beraz, Katastro-liburuak 1867an. Bestalde, Berastegiko Udal-Juzgatuan 1897an bederen jabetzari buruzko informazioa (*información posesoria*) praktikatzen zeneko daturik bada, Juan Maria Iparragirre alkate zen garaian eta idazkari Juan Eizmendi¹⁸⁵. Orokorrean jabeek Udalari eskatutako erregistroen aktak jasotzen ziren hor.

Honaino herri-lurrek pribatizatze-prozesuan egindako ibilbidea Gipuzkoako mendi eta basoetan.

VIII

ZORIONEKO HERRI-LURREN KRONIKA (1919-1946)

Auziak auzi, Berastegiko herri-lurren gai honek harreman zuzen-zuzena du aurreko atalean aztertu dugunarekin, bertan zehazten baita zein egoeratan aurkitzen ziren herri-lurren eta partikularren mugak XIX. mendearen erdi alde-ra, Elduain eta Berastegik batera zituzten beren lursailak zatituz gero. Mugak auzoen biran tinkatuak zeudela eka-rriko dugu gogora, aztertzeraz goazen arazo honek bere jatorria non duen ikus dezagun. Atal honetakoa ezin da ulertu aurrekoa gabe.

Bestalde, eta bide batez, beharrezkoa da azarora zein testuingurutan harrotzen den argitzea ere. Gauza jakina da, hauteskundeetan lortutako emaitzen arabera, herri-politika kudeatzen duten udalbatzan aldaketak izaten direla. Nolanahi ere, aurreko atalean esan bezala, nahiz eta 1922ko hauteskundeetan Tolosaldean Ricardo Oreja Elosegui tradi-zionalista nagusitzen den, Primo de Rivera jeneralaren diktadura-garaian Berastegiko udalbatzaren kudeaketan

nazionalista ezagunak ere agertzen dira, besteak beste, Kakoneko Martin Arregi Artola alkatea eta Juanluzeneko Juan Eusebio Lezea eta Arbideko Jose Maria Intxaurren kontzejalak. Diktadura jautsi eta hurrengo hilean, 1930eko otsailaren 11ko errege-dekretuaren bidez, udalbatza berria eraikitzeko agindua etorri zen. Berastegin udalbatzako zortzi kontzejalek, Udalean 1930eko otsailaren 26an elkarturik, Bernardo Garziarena Artola alkate hautatu zuten¹⁸⁶ eta hurrengo egunean Martin Jose Ustoa Maizkurrena lehen alkateorde eta Jose Antonio Azpiroz Irisarri bigarren alkateorde, guztiak gehiengo osoz¹⁸⁷. II. Errepublika 1931ko apirilaren 14an aldarrikatu eta gero, batzorde kudeatzailea antolatu zen 1931ko maiatzaren 19an, Jose Maria Intxaurren, Luzio Etxeberria eta Migel Maria Mendizabalek osatzen zutena, azken hau izan zelarik hautatua lehendakari bezala¹⁸⁸. Hurrengo hilean, ekainaren 5eko udal-bileran¹⁸⁹, Juangoneko Luzio Etxeberria Garziarena izendatutako dute alkate eta karguari 1941. urtera arte eutsiko dio. Hamar urtez, beraz. Etsoingo Jose Maria Saizar Olaetxeak bakarrik egingo ditu bost urte gehiago alkatetzan 1944-59 epealdian zehar. Honen aurreko alkate biak, Arrosarenako Jose Plazido Domintxin Zuloagak (1941-1942) eta Lizarragako Juan Labaien Garaiarrek (1942-1944) bi urte urte baino ez zituzten egin. Obinetaberriko Pio Labaien Armendarizek (1959-1968) eta Antsoneneko Joakin Azpiroz Nazabalek (1968-1979), berriz, 9 eta 11 urte egingo dituzte kargu berean. Hauek izan dira II. Errepublikatik Autonomi Aroa bitarteko alkatetzaldia betetzen dutenak.

Berastegiko udal-kudeaketaren bilakaeran egiazko bira gerra zibila hasi eta hurrengo hilean eman zen. Domingo Labaienek 1936ko abuztuaren 6rako egindako ezohiko

deialdiari erantzunez, udalbatzako kide guztiak Luzio Etxeberria Garziarena alkatearen lehendakaritzapean elkartuta, Martin Arregi, Jose Maria Intxaurre eta Jose Maria Maiz beren kontzejal-kargutik kendu zituzten eta, hauen lekuak betetzeko, Jose Joakin Azpiroz Lasarte, Jose Plazido Domintxin Zuloaga eta Ursino Aranalde Esnaola izendatu ziren.

“Prescristos estos señores, el Sr. Presidente dió posesión de sus cargos a los mismos quienes ofrecieron desempeñar el cargo con fidelidad y al servicio de España.

En consecuencia, este Ayuntamiento quedó constituido en la siguiente forma:

D.Lucio Echeverria Garciarena, Alcalde.

D.Domingo Labayen Garayar, Primer Teniente Alcalde

D.Luis Garciarena Artola, Segundo Teniente Alcalde

D.Miguel Joaquín Olaechea Saizar, Regidor Síndico

D.Gabino Lizarza Lizarza, Regidor 1º

D.José Antonio Azpiroz Irisarri, Regidor 2º

D.José Joaquín Azpiroz Lasarte, Regidor 3º

D.Ursino Aranalde Esnaola, Regidor 4º

D.José Plácido Dominchín Zuloaga, Regidor 5º

A propuesta de la presidencia el Ayuntamiento acordó por unanimidad adherirse al movimiento salvador de España”¹⁹⁰.

Bederatziko talde horrek gidatuko du, bada, gerrahasiera hartako udal-politika eta, beste hainbat egitekoren artean, adarretik helduko dio gaiztotzen zetorren herri-lurren arazoari. Ez garairik onenean, halere.

Norbaitek galde dezake sarrera honen beharrik ba ote zegoen herri-lurren auziaren nondik norakoa ulertzeko.

Agian, sobera luzatu gara, baina azaldu dugun gerra aurreko, garaiko eta ondoko testuinguru soziopolitikoak kontuan izan gabe anekdotismo hutsean geratzeko arriskua legoke, sakonean hori baino zerbait gehiago denean.

Nolanahi ere, esanez gatozen bezala, herri-lurren arazoa hirugarren hamarkada-hasieran lehertzen bada ere, lehenetik zetorrena zen. Inoiz behar bezala sendatu gabeko zauri bat, kirats usaina zeriona. Aurreko atalean aztertu bezala, partikularrek herri-lurretan egindako itxitura eta landa-erakinen arazo hau jadanik 1912an harrotu zen. Lehenago ere bai, baina, urteak joan urteak etorri, bere hartan segitzen zuen, herri-lurrak pribatizatzen zihoazen, harik eta 1919an Diputazio Probintzialak hala behartuta, Berastegi-ko Udalak, izendatutako ordezkarien eta hartutako akordioen bidez, auzotar batzuek herri-lurrez jabetzeko zeukaten ausardiarekin bukatzea erabaki zuen arte¹⁹¹. Data hori, beraz, oinarritzko erreferentzia da, herri-lurrak pribatizatzeari, behingoz behar-eta, errematea eman nahi baitzaio. Bestalde, arazo honek badu zerikusirik auzo-herri batzuetako –bereziki, Leitza eta Elduaingo–, mugekin ere.

Diputazioak bere erabakia aldarrikatu eta handik hamar urtera berpiztuko da, Udalean nazionalistek alkate-tza galduz geroztik, hain zuzen, eta hasieran uste zen baino garrantasun handigoarekin, gerrak lehenetik gaiztotuta zegoen giroa areagotu baizik ez baitzuen egin.

Arazoan inplikaturako auzotar batzuek Udala auzitara eramango dute, garai batean herriko jauntxoak eraman zituzten bezala¹⁹². Herri-lurren gainean sortzen den gatazka honek bere abiapuntua Udalean bertan du. Udalbatzak, Luzio Etxeberria alkatearen zuzendaritzapean egindako 1931ko maiatzaren 10eko bileran, salaketa ezarri zuen

Martin Arregi, Migel Maria Mendizabal eta Gorostidiren alargunaren kontra¹⁹³, hauek zuhaitzak landatu zituztelako Artolabordagana, Ipuliñoazpi eta Ilintxebordan. Salatuek zioten beren lursailetan egin zituztela. Eta hori egiaztatzeko, salerosketarako dokumentuen kopia azaldu zuten. Udalak, ordea, erabaki zuen landaketa horiek Berastegiko udal-jabetzakoak zirela eta auzotarrek lursail horiez gozatzeko baino areagoko eskubiderik ez zutela. Udalak Diputazioaren babesarekin kontaktatu zuten. Erabaki honen atzean, hain zuzen, Probintziako Mendi-Zerbitzuaren txostena zegoen, zeinetan, “Berasteguiko mendia” izenpean, herri-lurren mugak zehazten baitziren. Nekazaritzako Batzordeak, txosten hori aztertu ondoren, Diputaziori pasatu zion, onar zezan. Hala egin zuen 1930eko abenduaren 12an. Berastegiko Udaletik Diputaziora egindako kontsultari, honela erantzun zitzaion:

“En su consecuencia y de conformidad con lo que dispone el artículo 42 de las Ordenanzas de Montes de la Provincia, S.S. acordó declarar que estas plantaciones deben quedar de propiedad del Ayuntamiento de Berástegui y que, contra lo que manifiestan los denunciados, ellos son los llamados a promover el juicio correspondiente para demostrar la propiedad de los terrenos de referencia. Y lo traslada a V. para su conocimiento, el de los interesados y efectos. San Sebastián, 5 de mayo de 1931”¹⁹⁴.

Beraz, Berastegiko Udala Diputazioak erabakitakoa betearaztera mugatuko da. Hori bai, salaketa ezarri, Udalak ezarri zuen. Hiru horiekin hasi zen auzia 1935ean orokortu egingo da eta herritarren artean bizigiroa txartzen joango

da. Beti ere Luzio Etxeberriaren lehendakaritzapean eta bertan zeudela Domingo Labaien, Luis Garziarena, Migel Joakin Olaetxea, Gabino Lizarza, Jose Antonio Azpiroz, Martin Arregi eta Jose Maria Maiz kontzejalak, 1935eko apirilaren 16ko bileran, berriro “Berastegiko mendia” izeneko herri-lurren mugen arazoa harrotuko da, eta bertan alkateak 1935eko otsailaren 1ean egindako idazkiari Pro-bintzi Batzordeak emandako erantzuna irakurtzen da. Hor “Berasteguiko mendia” deituaren mugetan dauden hiru lursail-mota izendatzen dira, bere osotasunean jasotzen ditugunak taula honetan:

“Berasteguiko mendia” izenpeko lursailen izaera eta erabilera

1. Herri-lurrak izanik partikularizat hartuak izan direnak

- Otzabio, Etsoinena
- Ospitaleko Muteguiya

Guztira: 2

2. Jabeek ireki nahi ez dituzten lursail itxiak

- Bizkotx, Balentina Lezearena
- Bizkotx, Miguel Lorenzo Zuloagarena
- Meari, Jose Antonio Lasarena
- Urzuriaga, Miguel Lorenzo Zuloagarena
- Lizartoki, Juan Bautista Iparraguirrerena
- Konditz, Frantzisko Olaetxearena
- Atxurkarbe eta Oingañeta (bi zati), Fermin Iztuetaarena
- Intxurtzikita eta Almitxuri, Jose Maria Intxaurrendorena
- Azola, Juan Eusebio Lezearena
- Olaya, Francisco Aranalderena
- Galarrieta, Matias Olaetxearena
- Akuluku-iturri-ondoa, Ascensio Olaetxearena

- Aguinaga, P. Saizarrena
- Uraundiaga, Jose Maria Maizena
- Uraundiaga, Martin Aranalderena
- Galdirgain, Martin Malkorrarena
- Olloko, Felix Lizarzarena
- Olloko, Juan Bautista Iparraguirrerena
- Olloko-Dorado (?),
- Muñido, Jose Maria Saizarrena
- Oingañeta, Fermin Iztuetaarena

Guztira: 21

3. *Oilategiak*

- Mautemusoor, Leitzako Juana Bordarena
- Urto-Nafarra, Aleman del Pertargorena
- Akerkoi, Jose Luis Artolarena
- Beiskari, Francisco Aguirrezabalarena
- Bordaren txabola, Miguel Goyenetxearena
- Intzasburu, Migel Goienetxearena
- Olaya, Francisco Aranalderena
- Iturraun-buru, Miguel Ignazio Dominchinena
- Iturraun-buru, Martin Aguirrezabalarena
- Amizabal, Andres Etxeberriarena
- Txokoa, P. Saizarrena
- Otaburu, Juan Agustin Azpirozena (zati bat berea da)
- Arrosi, Jose Lorenzo Azpirozena
- Arreigo-egia, Juan Irisarrirrena
- Otatxiki, Nazario Ostoarena
- Otatxiki, Jose Maria Joanenearena
- Otatxiki, Jose Maria Maizena
- Aramendia, Jose Maria Maizena
- Aramendia, Martin Aranalderena.

Guztira: 19

Beraz, 42 lursail dira auzitan daudenak, Udalak partikularren jabetzari kendu nahi dizkionak edo herri-lurtzat dauzkanak. Bistan da, jakina, zerrenda hori osatzen, bere izen eta guzti, Udalak berak parte hartu zuela, nahiz erabakia Diputazioak hartua izan¹⁹⁵. Udalak lursail horien itxiturak kentzeko eta eraikitako bordak eta oilategiak hogege egunen barruan botatzeko agindua eman zuen¹⁹⁶.

Zerrenda horretan datorren Frantzisko Olaetxea Mal-korrek gutun hau jaso zuen Udaletik:

“El Ayuntamiento de esta villa, en sesión que celebró el día 16 del actual, se ha ocupado de una comunicación procedente de la Excma. Comisión provincial expresiva de una relación de fincas y nombres de las personas que las mantienen cerradas y que por su carácter de comunales fueron comprendidas en el deslinde practicado recientemente y que en consonancia con el carácter que ostentan deben estar abiertas a la libre acción del vecindario para que practique los derechos que le corresponden y como resultado de la deliberación a que fué sometida, se acordó que, secundando y colaborando lo que en este orden de la apertura de esos cierres tiene acordado la Diputación, se requiere a los Sres. que mantienen esos cerrados para que las abran dentro de los términos de veinte días contados desde la fecha del recibo de la comunicación.

Y siendo V. uno de los comprendidos en la relación a que se alude, con referencia al terreno llamado ‘KON-DIZ’, intereso de V. que en cumplimiento del acuerdo referido se sirva quitar el cerrado de ese terreno en el término de veinte días contados desde la fecha del recibo de esta comunicación.

Dios guarde a V. muchos años

Berástegui, 23 de Abril de 1935.
El Alcalde
Lucio Echeverria (eskuz idatzia)
Sr. D. Francisco Olaetxea”¹⁹⁷.

Arazoa guztientzat berbera baitzen, zerrendako beste guztiek ere gutun hori bera edo antzekoa jasoko zutela pentsatu beharko da.

Errekerimendu horren aurrean, hainbatek, seguru asko izututa, herri-lurren izaera onartu eta behar zen egoerara itzultzeko eskea egin zuten, Udalari ohiko kanona ordainduz. Horrela egin zuten, adibidez, beren oilategiak Iturraunburun eraikiak zeuzkaten Migel Ignazio Domintxin Artola eta Martin Aguirrezabala Elmarrueta jaunek¹⁹⁸. Jose Maria Juanenea Zubiri eta Jose Luis Artola Izagirre jaunek Otaixiki eta Akerkoin zituzten beren oilategiak eta horiek ere eskari bera egin zioten Udalari¹⁹⁹; berdin Jose Luis Artola Izagirre jaunak ere²⁰⁰. Eta Udalak baiezkkoa eman zien guztiei, errentan bost pezetako ordainsaria ezarriz.

Bost auzotar horiek eguneratu zuten beren oilategien egoera emandako epearen barruan. Ikusirik, ordea, gehienek ez ziotela kasurik egin emandako aginduari, Udalean kezka sortu zen. Eta eztabaida. Jose Antonio Azpiroz kontzejalak, guztien gainera Probintzi Batzordeak agindutakoa betearazi egin behar zela-eta, itxiturak irekitzeko, bordak eta oilategiak botatzeko ardura osoa mendizainaren gain uztea proposatu zuen. Eta gastuak, interesatuen bizkar. Jose Maria Etxabe idazkariak urrutiago ikusten zituen nonbait gauzak eta antzemanik arazo hark kate luzea ekarriko zuela, jakinarazi zien han batzartuak zeuden Domingo Labaien, Luis Garziarena, Gabino Lizarza, Migel Joakin Olaetxea eta Jose Antonio Azpiroz kontzejalei eta

Luzio Etxeberria alkateari, amore eman ez zutenak asko zirela –gehienak–, lursail horiek beren jabetzakoak zirela uste zutelako eta, auzien gurpilean sartuz gero, horrelako erabaki batek nahasketa eta ondorio larriak ekarriko zituela, maila guztietan ekarri ere, eta, batez ere, ekonomikoan²⁰¹. Baina udalbatzak aho batez Jose Antonio Azpirozen proposamena onartu zuen. Esaten da udalbatzakoek Diputazioaren aginduetara zeuden alkate eta mendizainaren presioa izan zutela. Horretaz, ordea, ez da deus idatzirik.

Udalak bere asmoetan aurrera egiten duela-eta, ondoko egunetan beste auzotar batzuek ere beren egoera legez-tatzera jotzen dute, hala nola Migel Lorenzo Zuloaga Ibarrola, Migel Jose Arozena Labaien eta Jose Manuel Aranburu Unsain jaunek, itxitako lursailetan²⁰²; berdin Jose Maria Saizar Olaetxea eta Migel Goienetxea Saizar jaunek, Tortoa eta Intzesburuko oilategiekin²⁰³.

Udalaren esanera makurtzen diren banaka horiek salbu, oraindik ere gehienek bereari eutsiko diote, baina ez luzaroan, hogei egunez behetik Uliko Gumersindo Azurmendi mendizainak bere egitekoa burutua baitzuen bere mutilekin, 1935eko ekainaren 9ko udal-bileran jakinarazi zen bezala. Lursailen, zigortuen eta gastuen zerrenda xeheki emana dator, ondoko taulan bere osotasunean dakar-guna²⁰⁴.

Udalak hartutako neurriak herri-lurren gainean

<i>Lursailaren jabeak</i>	<i>Itxiturak ireki, eraikinak bota</i>	<i>Pezetatan</i>
1. Feliz Lizarza	Itxitura bat	16
2. Jose Maria Intxaurreondo	Hiru itxitura	51
3. Matias Olaetxea	Itxitura bat	15
4. Aszenzio Olaetxea	Itxitura bat	10
5. Palizeto Saizar	Itxitura bat eta oilategi bat	30
6. Jose Maria Maiz	Itxitura bat eta oilategi bat	45
7. Martin Aranalde	Itxitura bat eta oilategi bat	50
8. Juan Bautista Iparragirre	Bi itxitura	45
9. Jose Antonio Lasa	–	20
10. Frantzisko Aranalde	Itxitura bat eta oilategi bat	45
11. Juan Eusebio Lezea	Itxitura bat	15
12. Fermin Iztueta	Hiru itxitura eta borda bat	140
13. Frantzisko Olaetxea	Itxitura bat	25
14. Andres Etxeberria	Oilategi bat	20
15. Juan Agustin Azpiroz	Oilategi erdi bat	10
16. Jose Lorenzo Azpiroz	Oilategi bat	20
17. Juan Martin Gogorza	Oilategi bat	20
18. Jose Maria Aleman	Oilategi bat	15
19. Frantzisko Agirrezabala	Oilategi bat	20
		612

Arazo honetan kaltetuak 19 auzo dira guztira eta gastuen batezbestekoa 32,21 pezetakoa da; kasu batean bakarrik biderkatzen da lau aldiz kopuru hori. Interesatu bakoitzak hamabost egunen barruan sartu beharko du dagokion diru-kopurua udal-agiritegian²⁰⁵.

Zigor hauek ezarri ziren hilabete berean, zehazki 1935eko ekainaren 16ko udal-bileran, auzo batzuek herri-lurretan lursail batzuk izateko eskaria aurkeztu zuten, berrietan bordak, oilategiak eta, kasu batzuetan, biak egiteko helburuarekin. Eskatzaileen zerrenda hau Migel Joakin Nazabal, Juan Cruz Urkizu, Juan Bautista Azurmendi, Frantzisko Maria Ustoa, Bernardo Iparragirre, Domingo Lazkano, Juan Ansa, Juan Migel Lezea, Pedro Ignazio Ugartemendia eta Jose Maria Saizar jaunek osatu zuten. Udalak baiezkoa eman zien, borden kasuan 10 eta oilategien kasuan 5 pezeta ordainduz²⁰⁶.

Batzuek Udalaren aginduetara plegatuta, beste batzuek bere ondasunetan zigortuta, 1935eko udan gogortzera joko dute Udalaren eta auzotar zigortuen arteko harremanek. Erreklamazioen uhinarekin arazoa larriagotzen hasten da. Batzuek 30 edo 40 urteko antzinatasunean oinarritzen dute beren jabetzako eskubidea. Honela, Martin Aranalde Aldunzin jaunak dioenez, bere oilategiak 41 urte badituela eta, desegina izan zaiona berreraikitzea eskatzen du 1935eko ekainaren 15ean Udalari zuzendutako idazki batean²⁰⁷. Luzio alkateak Probintzi Batzordearen eskuetan utzi zuen berak erabaki zezan. Martin Arregi kontzejala, ordea, kontra atera zitzaion, argudiatuz Udalak errespetatu egin behar zituela hogeita hamar urte baino gehiagoko itxiturak eta eraikinak. Arazoa bototara jarrita, alkatearen proposamena atera zen aurrera aldeko zituela Domingo La-

baien, Luis Garziarena, Migel Joakin Olaetxea eta Jose Antonio Azpiroz kontzejalen lau botoak²⁰⁸. Bat bosten kontra.

Udal-bilera horretan bertan, beste urrats bat ematen da, lehen apirilean egindako herri-lurren mugaketari jarraipena emateko proposamena zuzenduz Probintzi Batzordeari²⁰⁹. Bigarren zerrenda honetan herri-lurrak zirenak eta hala izan gabe bidegabeki halakotzat hartuak izan zirenak bereizi ziren, taula honetan dakartzagunak²¹⁰:

<i>Herri-lurrak</i>	<i>Lursail partikularrak</i>
1. Ermíñe, Aiztun	1. Otxabion, Jose Maria Saizar Olaetxearena
2. Gaztainza	2. Learralden, Martin Jose Iparragirrerena
3. Urriztiko iturriondoa	
4. Urtiñoko etxeburua	
5. Irugartañeko Zamargingo etxeburua	
6. Iturriako labakiazpia	
7. Ezpeletako etxeatzea	
8. Goikobordako etxeondoa	
9. Bordazarburua	
10. Elberdingo iturria (bi lur-zati)	
11. Lauzoeta (bi lur-zati)	
12. Uraundiaga	
13. Matxikuerreka (bi lur-zati)	
14. Sastixar (bi lur-zati)	

15. Arrimakilleta (bi lur-zati) 16. Alto San Anton (hiru lur-zati) 17. Telleri 18. Intzahar (bi lur-zati) 19. Arantzun 20. Ataka gorria – Aintzerga 21. Kamineroan etxeondoa 22. Pastantxun hariztiondoa 23. Geizetako txabola 24. Arrateko ataria 25. Malokorra 26. Gorostita 27. Txorroa 28. Igeraldeko ataria 29. Iturraungo errekaondoa (bi lur-zati) 30. Amiriko garo-lekua ²¹¹	
--	--

Horko beste 30 horiekin, herri-lurren zerrenda 42tik 72ra igotzen da. Honek esan nahi du denboraldi honetan Udaleko adituak zein diren herri-lurrak eta zein ez, berrikusten ibili direla eta zerrenda zabaltzen etorri dela. Aldi berean, Udalak herri-lurretan bordak eta oilategiak egiteko edo lehengoekin segitzeko baimena luzatzen die beren egoera eguneratzea eskatu zutenei, ohiko errenta ordainduz. Baimena lortu zutenak, Juan Saizar, Miguel Ignazio Domintxin, Martin Agirrezabala, Jose Maria Joanena,

Jose Luis Artola, Migel Goienetxea, Jose Maria Saizar eta Juan Lizarza izan ziren²¹².

Nolanahi ere, 1935eko apiriletik abuztura bitartean, herri-giroa asko txartuko da, alkateak berak aitortzen duen bezala. Horren arrazoia da, hartutako erabaki horien ondorioz, orokorrean lurgintzatik eta abeltzaintzatik bizi diren baserritar guztiak ateratzen direla galtzen, mendietan itxiturarik ez-eta, han bazkatzen diren aziendak barruti edo larre batetik bestera joan ez daitezen zaintzen, lan gehigarri bat sortzen zaielako. Kaltetuenak, noski, herrian gehiengo osatzen duten baserritar xumeak izango dira, hauetako batzuk kanpora joan beharrean aurkitzen direlarik. Berastegiko baserritarrek bizi duten ondoeza honela deskribatzen du Jose Maria Etxabe idazkariak 1935eko abuztuaren 4an egindako bilera-aktan:

“El sr. Alcalde Presidente expuso: que a consecuencia de la apertura reciente de terrenos comunales que algunos vecinos de esta villa los tenían cerrados y que este Ayuntamiento, compartiendo ordenes emanadas de la Exma Diputación se vio en precisión de ejecutarlas, se ha creado una situación perjudicial y molesta a los intereses comunales de la ganadería de este pueblo que es menester rectificar.

La fuente principal de riqueza de este Municipio está en la explotación de la ganadería y es sabido que encuentra su desarrollo y casi único motivo de su existencia en el pastoreo libre de esos terrenos comunales de la villa que le permiten coordinar aquella explotación sin descuidar la labor general del caserío en que vive.

Como es notorio a todos, Sres particulares que han sufrido los efectos de esa orden de apertura de los terrenos que detentaban y que en su mayoría las tenían

unificadas con otras de su propiedad particular han dejado abiertos estos y ocurre que el ganado que tiene costumbre de pasturar (sic) en sus inmediaciones por tener su abrigos o bordas y por otra causa cualquiera, se introduce en aquellos terrenos dando lugar a denuncias de que los dueños de aquellos terrenos presentan al juzgado competente.

Esto obliga a los campesinos y ganaderos, singularmente a los modestos, a poner guardianes y pastores que les vigilen y los guarden, distrayéndolos de las labores de sus casas y lo que es peor haciendo demasiado onerosa la explotación de sus ganados hasta el punto de emigrar como han hecho algunos a otros puntos en que se vean libres de ese peligro y como quiera que los modestos que son la mayoría y por consiguiente los que más derecho tienen a que sean ayudados, el Alcalde que habla estima y así lo propone que se proceda a practicar los cierres o cerradas que hagan falta de los terrenos comunales de esta villa sin invadir los particulares a fin de que el ganado que pasture en aquellos, no pueda pasar a los terrenos particulares que están abiertos²¹³.

Zulo batetik atera eta bestean sartu. Lehen interesatuen kontura irekitako itxiturak berriro ixteko erabakia hartzen da. Nola? Elorritz, inguruan landare hori badenean eta kostuak gutxitzearren, alanbre arantzaduna beharrezkoa denean bakarrik erabiliz. Ez da zehazten, baina badirudi oraingoan gastuak Udalaren kontu joango zirela.

Ikusi berriak gara nola erreklamatu zuen Martin Aranalde Aldunzinek bere oilategiaren jabetza ekainean, bere eskakizuna 41 urteko antzinatasunean oinarrituta. Orduan ezezkoa jaso zuen. Orain, abuztu-bukaeran, Udalak, behar den informazioa jaso ondoren, ez-frogatutzat ematen du

haren eskakizuna, lekukoen azalpenetan Arandiako lursailen zeukan bere eraikin horri buruz behar adinako zehaztasunik eta ziurtasunik ematen ez delako. Jakinarazi zitzaion jadanik 1919.az geroztik ustezko jabetza horiek balio gabetuztat ematen zirela²¹⁴. Beraz, antzinasunaren arrazoiak ez zuen balio.

Hurrengo urtean, ordea, partikularrak erasora pasatzen dira, Udala auzitara eramanez. Honela, 1936ko ekainean, Jazinto Peña prokuradoreak bi auzi jartzen dizkio Udalari, Migel Maria Mendizabal Garziarena eta Juan Bautista Iparragirre Goienetxea jaunen izenean, bederatzi egunen buruan deklaratzera behartuz, lehen kasuan, Erlozagaburua eta Erloizagakoa garo-lekuen jabetzari buruz, eta, bigarrenean, Prakusagasti lursailen eta Olloko gaztainadiaren jabetzari buruz. Udalean 1936ko ekainaren 2ko bileran eztabaidatu zen arazoa, zer egin ez egin. Domingo Labaien kontzejalak aurkeztutako bi eskakizunei aurre egitea eta, horretarako, letratua eta prokuradorea izendatzea proposatu zuen; Martin Arregik, aldiz, adierazi zuen, aurkeztutako dokumentuak aurrean, lursail horiek Mendizabal eta Iparragirreraren jabetzakoak zirela eta, ondorioz, ez zegokiola Udalari auzitan sartzea. Azkenean, horrelako eztabaidetan ohikoa zen bezala, Labaien jaunaren proposamena nagusitu zen sei botorekin, Arregi eta Maizen bi botoen kontra²¹⁵. Juan Bautista Iparragirre jaunak Tolosako lehen instantziako Epaitegira eramandako auzian, Udalaren aldekoa izan zen epaia, horretarako Francisco Ruiz Jarabe epaileak bi arrazoi hauek eman zituelarik: bat, zuzenbidean ez duela aski oinarri lursailaren ustezko jabetzari buruzko titulazioa ekartzeak, eskriturak izateak, alegia; bi, Udalak lursail horien egiazko egoera juridikoa berrezarri nahi zuela eta,

nahiz eta hogeita hamar urte baino gehiagoko jabetza izan, edo erakutsi, partikularrek horien gozamina baino ez zutela izan, sekula ez jabetza:

“Que desestimando la demanda origen de este pleito, debo absolver y absuelvo de la misma al Ayuntamiento de Berástegui que aparece como demandado, y estimando la reconvencción formulada, debo declarar y declaro la nulidad de los títulos presentados por el demandante Don Juan Bautista Iparraguirre Goyenechea, como fundamento del derecho de propiedad del que se creía asistido sobre los terrenos descritos en el hecho primero de la demanda, declarando igualmente nulas las inscripciones de dichos títulos derivados y ordenando la cancelación de las mismas en el Registro de la Propiedad; todo ello sin hacer expresa condena de costas a ninguna de las partes. Firmado: Francisco Ruiz Jarabe”²¹⁶.

Migel Maria Mendizabalen kasuan, ordea, epaia Udalaren kontrakoa izan zen. Udalak, aho batez, helegiteko agindua ematen die. Rekondo letratuari eta Fidel Azurza prokuradoreari²¹⁷. Juan Bautista Iparragirrek, bere aldetik, jasotako ezezko epaiaren kontrako helegitea jarri zuen eta bistako epaian deklaritzen izan ziren Luzio Etxeberria alkatea eta Domingo Labaien alkateordea²¹⁸. Udalak xahutuak ditu jadanik, 1938ko martxoan, 11.373 pezeta, Iparragirre eta Mendizabalekin izandako auzietan²¹⁹.

Urte bereko apirilean, Migel Maria Mendizabal, Martin Arregi, E. Migel Garaikoetxea eta Pedro Etxeberria jaunek beren jabetzako lursailetan sasiak erretzeko baimena eskatu zuten Udalean, baina erantzuna beste bilera batean emateko atzeratu zuten. Arrazoia zen, ustez, herri-lurrak zirela²²⁰.

Hasieran, 1936an, bi baino ez ziren izan auzitara jotzera erabaki zutenak. Orain, 1938ko ekainean, zortziko taldea aurkeztuko da Epaitegian, beren eskrituretan ageritzen diren lursailak beren jabetzakoak direla azalduz. Hauek ziren taldea osatzen zutenak: Mitxeloko Felix Lizarza Labaien, Juan Agustin Azpiroz Saralegi (hau Goienetxeko Jose Lorenzo Azpiroz Nazabalen izenean, bera une hartan frontean zelako), Elaundegaraiko (?) Matias Olaetxea, Arbideko Jose Maria Intxaurren, Etxetxikiko Jose Maria Maiz Irigoien, Patxikutorreneko Martin Lorenzo Aranalde Aldunzin, Frantzisko Olaetxea Malkorra eta Juanluzeneko Juan Eusebio Lezea Azpiroz. Horietako batek, zehazki Felix Labaien jaunak, demanda hau jarri zuen Udalaren aurka, 1938ko ekainaren 7ko bileran irakurria izan zena:

“Se dio lectura de un escrito que presenta D. Felix Lizarza Labayen, vecino de esta villa, manifestando que es propietario del caserío Zubechea o Mincholo de esta jurisdicción figurando entre los pertenecidos el castañar frente a los molinos de Olloco, que este Ayuntamiento ordenó se quitara el cierre que lo circundaba y no queriéndolo hacer, lo hizo a su costa el Ayuntamiento, cobrándole por este concepto 16 pesetas que contra este acto arbitrario del Ayuntamiento reclama el exponente, reivindicando la propiedad de este terreno, pidiendo una declaración en este sentido, por parte de esta Corporación y que en consecuencia acuerde abonarle, los daños y perjuicios causados, representados por el importe de la construcción del cierre, el de la hierba de tres años, que no ha podido recoger por la destrucción del cierre y las diez y seis pesetas que por la destrucción del cierre se le causaron. Acompaña copia de la escritura de capitula-

ciones matrimoniales de D. Miguel Antonio Lizarza y Dña. Maria Sebastiana Labayen²²¹.

Mitxeloko (Mintxolo) Felix Lizarza Labaienen antzera, beste zazpiek ere azalpen bera edo antzekoa egiten dute, beren ondasunetan kaltetuak izan direla, alegia, eta, ondorioz, guztien azken eskaria ere berbera da: beren lursailen eta eraikinen jabetza onartua izan dadila eta egin-kalteak bere osotasunean ordainduak izan daitezela. Beraz, guztien azalpenean garbi agertzen denez, beren izeneko lursailen jabetza errebindikatzeaz gain, itxiturak kentzearen edo eraikinak botatzearen ondorioz izandako kalte-ordaina ere eskatzen dute.

Hurrengo hilean, uztailean, erreklamazio bera egiten dute Jose Azpeitia Beloki, Juan Bautista Iparragirre Goienezte eta Juan Fermin Iztueta Ubillos jaunek, funtsean salaketa berarekin. Juan Fermin Iztuetak, adibidez, kendutako Ongañeta eta Atxokorbeko lursailen jabetza eta kalte-ordainketa eskatu zuen²²². Izan ere, ikusi dugunez, bera izan zen ondasunetan eta gastuetan zigortuena 140 pezetarekin. Udalean beren lursailen planoak edo krokisak ekartzeko esan zien²²³. Idazki horiek mahai gainean geratzen dira aztertuak izan daitezten. Horretarako, Jose Antonio Azpiroz kontzejalaren proposamenez, Udalak Laskibar Albistur perituari Mendi-Zerbitzuan dauden herri-lurren planoaren kopia bat lortzeko eskea egiten dio 1940ko uztailean²²⁴.

Udalean beren eskabideak egiten dituzten auzotarren zerrenda handitzen doa urtetik urtera. Ikusi dugun bezala, 1938ko ekainean, zortziko taldea zen bere eskabideak egin zituena. Talde honi beste bost lagun gehitzen zaizkio 1940ko azaroan, zehazki hauek: Jose Azpeitia Beloki, Juliana

Azpiroz Iparragirre, Juan Bautista Iparragirre Goienetxea, Juan Fermin Iztueta Ubillos eta Frantzisko Ustoa. Orain, guztira, 13 auzotar dira Udalari eskabide bera egiten diotenak. Horien guztien eskabidea ez onartzea erabakitzen da, esanez haien lursailak “Berastegiko mendiari” dagozkion herri-lurrak direla, Udalaren jabetzakoak, alegia. Bilera berean, halaber, Estatu-Epaitegira jotzeko erabakia hartzen da, honek ezaba ditzan “Berastegiko mendia” izenpeko herri-lurren auzian Udalaren aurka emandako epaiak oro²²⁵. Helegite hori Nekazaritzako Ministro jaunaren bidez egitea onartzen da hurrengo bileran²²⁶.

Udalak, kasu batzuetan, oso ideia argiak zeuzkan herri-lurren erabilerari buruz eta Gipuzkoako Diputazioarekin kontsultatu gabe hartzen zituen erabakiak; beste batzuetan, ordea, erantzukizuna haren gain uzten zuen. Esate baterako, 1940ko abenduan, Florentzio Labaien jaunak herri-lurretan, Bordazarren, 9.000 metro ixteko baimena eskatuz Udalari, urtean 15 pezeta ordaintzekotan. Gipuzkoako Mendi-distrituak, honek bai zorrotz ukatu zion baimena, praktika hori martxan jarritz gero, azkenean, denboren joanean, errentan hartua jabetza bihurtzen zelako²²⁷. Auziak lekuko.

Hurrengo urte-hasieran, 1941ean, beste eskari bat iristen da Udalera, urtarrilaren 23an egiten duena Martin Arregik, herri-lurrak ez baizik bere jabetzakoak direla erreklamatz, baina Udalak ukatu egiten dio²²⁸. Handik hiru urtera, 1944an, eskari bera egiten dute Martin Jose Goienetxea Garaikoetxea, Migel Goienetxea Saizar, Juan Agustín Azpiroz Larrategi, Jose Lorenzo Azpiroz Nazabal eta Migel Maria Mendizabal jaunek ere, baina Udalak ukatu egiten du haien lursailen izaera partikularra²²⁹. Nahasgarria

gerta daiteke hemen berriro Migel Goienetxea Saizar jaunaren izenarekin topo egitea, honek 1935ean bere egoera legezkatzea eskatu baitzuen Udalean, inplizituki onartuz, jakina, herri-lurren izaera. Oraingoan bere jabetza pribatukotzat errebindikatzeko duena, Uliko garo-lekua da. Bedi hori argigarri. Hurrengo urtean, 1945ean, Martin Lorenzo Aranalde Aldunzin jauna da auzia Tolosako Epaitegian jartzen duena, eta Udalak demandari kontra egitea erabakitzen du²³⁰.

Berastegiko Udalak, beraz, 1945. urtera arte sistemaz ukatzen du auzi-jartzaileek eskatzen duten beren lursailen jabetza partikularra. Hamar urte luzez bereari eusten dio. Auzitik auzira, azkenean auzotarrak nagusitzen dira. Honela, 1946ko apirilaren 23an, Migel Maria Mendizabal, Juan Bautista Iparragirre Goienetxea, Martin Lorenzo Aranalde Aldunzin, Jose Lorenzo Azpiroz Nazabal, Migel Goienetxea Saizar eta Paskuala Azpiroz Saralegiri, hauei beren lursailen jabetza aitortzen die Udalak, esanez sei horiekin egindako okerra zuzendu beharra dagoela:

“Dada cuenta de un escrito de fecha 23 de Abril de este año (1946) firmado por don Miguel Maria Mendizábal, Juan Bautista Iparragirre Goyenechea, Martin Lorenzo Aranalde Alduncin, Jose Lorenzo Azpiroz Nazabal, Miguel Goyenechea Saizar y Pascuala Azpiroz Saralegui, propietarios y vecinos a saber: el primero de San Sebastián y los demás de Berastegui en el se pide la subsanación de un error de hecho por virtud del cual se consideraron equivocadamente como formando parte del monte Berasteguico-mendia los terrenos que en la misma solicitud se describen y el reconocimiento a favor de cada uno de la propiedad de su terreno respectivo tal

como se delimita en los antecedentes del repetido escrito”²³¹.

Azkenean, bada, eskatzaile horien lursailen jabetza pribatua onartu egiten du Udalak. Idazki honetan zehazten den bezala, Migel Maria Mendizabal eta Juan Bautista Iparragirre jaunek urte batzuk lehenago eginak zituzten beren eskabideak, Udalaren kontra bi auzi jarriak zituzten, eta bietan beren aldeko epai irmoa eman zen. Udalaren eskabidez, geroago, Estatu-Abokatutzak epai horiek baliogabetzeko bi demanda ezarri zituen, baina hauek ere ez ziren onartuak izan epai irmoen bidez eta, gainera, bigarren epaiko gastuak Administrazioaren kontura joan ziren. Martin Lorenzo Aranalde Aldunzin jaunak, ikusi bezala, 1945ean eraman zuen Udala auzitara, deklaratzera; honen kasuan, ordea, haren eskea etenda geratu zen, alde bien borondatez jarraipenik ez ematea erabaki zelako. Azkenik, Jose Lorenzo Azpiroz Nazabal, Migel Goienetxea Saizar eta Paskuala Azpiroz Saralegi jaun-andereek ere beren eskariak eginak zituzten Udalaren kontra beren jabetzakotzat jotzen zituzten lursailen gainean. Baina Udalak, ikusirik Epaitegietan zer gertatu zen Mendizabal eta Iparragirre jaunekin eta kontuan izanda, berriro auzietara joanez gero, galtzekoa gehiago zuela irabaztekoa baino, atzera egingo du, haien eskabideari baiezkoa emanaz.

Zergatik aldaketa hori? Hasteko, Udalak bere gain hartzen du eskatzaile horiekin izandako hutsegitea:

“El error de hecho que ha dado lugar a la situación a este asunto, creada a ese Ayuntamiento con relación a este asunto, radica en que al tiempo en que se hizo el deslinde y amojonamiento del monte ‘Berastegiko

mendia', los componentes del Ayuntamiento de Berástegui que a la sazón en dicha época lo formaban, incurrieron en el de suponer que determinados terrenos (...) formaban parte del monte deslindado que pertenece a esta Villa..."²³².

Ez dirudi, ordea, hori izan zitekeenik ez arrazoi bakarra, ezta nagusia ere. Epaitegietan egiazko indar eragilea izan zutenak, izan, auzi-jartzaileek aurkeztu zituzten dokumentuak izan ziren, notarioek izenpetutako salerosketako eskriturak, alegia. Hauek guztiek Tolosako Lorenzo Saltarain notarioak izenpetutako eskriturak erakutsi zituzten, data desberdinetan luzatuak: Migel Mendizabalena 1926ko urtarrilaren 30ean, Juan Iparragirrerena 1931ko urtarrilaren 28an, Martin Lorenzo Aranalderena 1922ko apirilaren 5ean, Jose Lorenzo Azpirozena 1934ko apirilaren 1ean, Migel Goienetxearena 1931ko martxoaren 26an. Migel Maria Mendizabal eta Juan Iparragirreren kasuan, gainera, beren alde zituzten, hurrenez hurren, Iruñeko Lurralde-Epaitegiak 1938ko otsailaren 7an eta 1937ko urriaren 31n emandako epai irmoak²³³.

Horiek horrela, hurrengo bileran, egin-kalteak ordaintzea erabakitzen du Udalak. Bakoitzari eman beharrekoa zenbat izango den ere zehazten da: Migel Maria Mendizabali 5.090 pezeta, Juan Bautista Iparragirreri 3.500, Martin Lorenzo Aranalderi 6.000, Jose Lorenzo Azpirozi 3.500, Migel Goienetxeari 2.000 eta Paskuala Azpirozi 3.000²³⁴.

Aldaketa honek soka ekarriko du atzetik, luzaro gabe segitzaileak izango baitituzte. Honela, 1946ko azaroaren 12an, Jose Maria Intxaurren Danborena, Juan Eusebio Lezea Azpiroz, Jose Maria Lizarza Olaetxea eta Jose Azpeitia Beloki jaunek ere aurrekoen eskabide bera egin zuten eta

hauei ere ordaindu egin zitzaien: lehenengoari 2.680 pezeta, bigarrenari 2.500, hirugarrenari 1.500 eta laugarrenari 500²³⁵. Kalte-ordaina jaso zutenak –guk egiaztatu ahal izan ditugunak–, 10 dira guztira, baina kaltetuak izan, askoz gehiago izan baitziren, ez dakigu kalte-ordaina guztiek jaso zuten ala ez. Dakiguna da Luzio Etxeberria alkate ohiak ziurtagiri bat eskatu zuela Udalak 1946ko azaroaren 16ko bileran erabakitakoaren arabera kaltetuei ordaindutako gastuen gainean eta eman egin zitzaiola²³⁶.

Jabe partikularren erreklamazio-boladak jarraitu egingo du hurrengo hamarkadan ere. Honela, Tolosako Juan Maria Araluze Villar notarioak 1952ko apirilaren 21ean izenpetutako idazki baten bidez, eta Berastegiko Udalean Jose Maria Saizar alkatearen aurrean²³⁷, Mateo Esnaola Esnaola, Rufino Ustoa Maizkurrena, Jose Antonio Azpiroz Irisarri, Damaso Azpiroz Saizar, Luis Garziarena Artola, Luzio Etxeberria Garziarena, Maria Juana Lizarza Goienezte (eta honen senarra Juan Martin Lezea Zubeldia), Juan Lizarza Lizarza eta Juan Bernardo Garziarena Artola jaunek beren lursailen jabetza pribatua onartua izatea eskatu zioten Udalari. Gaia denboraldi batez eztabaidatua izan ondoren, baiezkoa lortu zuten 1953ko urtarrilaren 1eko bileran, Juan Bautista Aranalde, Migel L. Zuloaga, Martin Azpiroz, Kandelario Matxinea eta Nikasio Urkizu kontzejalen aldeko bost eta Jose Maria Saizar alkatearen eta Domintxin kontzejalaren kontrako bi botorekin²³⁸.

Hamar ziren bere eskabidea egin zutenak, eta horien artean hiru bederen –Meakako Jose Antonio Azpiroz Irisarri eta Elaundeazpiko Luis Garziarena Artola kontzejalak eta Joangoneko Luzio Etxeberria Garziarena alkate ohiak–, herri-lurren arazoa piztu eta horien aldeko defentsan

sutsuki jardun zutenak aurkitzen ziren. Luzio Etxeberria alkate ohiak, hain zuzen, 1953ko otsailaren 25ean zuzendu zion Udalari Basalur, Ansolsz, Bezkaitz, Salobita, Bizkotx eta Lokagarro-leku izeneko lursailen izaera partikularra onartzeko eta egin-kalteak ordaintzeko eskabidea, zeina Udalak 1946an hartutako erabakian oinarritzen baitzuen: “en escritos de 12 de noviembre de 1946 y esa Corporación accedió por unanimidad al reconocimiento de la propiedad solicitada y al abono de daños y perjuicios, por las razones a que se alude en el acta de la sesión de 16 de los mismos mes y año, obrante en el libro de actas al folio 16”²³⁹.

Antza, Juan Maria Araluze notarioaren idazkian datorenez, Berastegiko Udalak arinki jokatu zuelako –“equivocadamente y por tanto con negligencia”, alegia–, horregatik onartu behar izan zuen Udalak partikularren lursailen jabetza 1946an²⁴⁰. Orain lursailen jabetzak guztiz alderantzizko zentzua hartzen du, erabat hartzen ere, kontua ez baita, hasieran esaten zen bezala, Udalak partikularrei errentan utzitako herri-lurak zirela, baizik partikularren jabetzakoak betitik:

“Ausencia absoluta de todo acto posesorio por parte de la Corporación Municipal sobre los terrenos cedidos, los cuales no pasaron nunca a poder del Municipio, sino que por el contrario, a pesar del otorgamiento de dichos documentos, esos inmuebles siempre han estado en poder de los supuestos cedentes”²⁴¹.

Herri-lurren arazo honek luze iraun zuen, ia hogeitau urte, eta haserre handiak sortu zituen herritarren artean, batez ere gerra-garaian, funtsean arazo ekonomiko garbia zena politikoarekin nahastu zelako. Jose Azpiroz herritarrak

herri-lurren arazoan karlista eta nazionalisten arteko lis-
karra, zurien eta beltzen artekoa, tartekatzen du. Pasarte
hau luzexkoa bada ere, bihoa bere osotasunean, orduko
herri-giroa hobeto ezagutzearen alde:

“Nire gogoan edo denbora guzian, gure herrian bi
bando ziran: karlistak eta liberalak edo beltzak. Gure aita
auetakoa zan. Fama zuten karlistak eliz-zalegoak eta
zintzoagoak zirala; eta beltzak, gure aita-ta, gaiztoagoak.
Ez dakit, ba, dena gezurra eta kontua ez ote zan. Elizara
danak joaten giñan; eta gaiñerako erriko bizitzan, gauza
itxusiak egiten zituztenak karlista itxurakoak gehiago ote
ziran egoten naiz. Ideolojirik batere ez, ez batzuek eta ez
besteak. Gauza auetan arrunt ezjakiñak ziran. Erri guzian
bate ez det uste zanik, karlismoa eta liberalismoa zer zan
gutxiena ere zekianik; baizik lengo gerretatik zetozen izen
ori zeramaten batzuek, eta aiekin bat etzetoztenei beltzak
deitu. Baiña banatze orren zergatia beste bat zan. Nik
zortziren bat urte izango nituan. Ieltsa izena zuan baserri
batekoak, berea zuan usteko sail bat itxi zuan belaze
egiteko; eta karlista izeneko oiek kejavu eta pleitua eman
zioten, iriki arazteko esanez, erriaren terrenoa zala-ta.
Eztabaida auek irabazi zuten, eta bai iriki ere terrenoa.
Gure aitak-eta, beltzak, ezetz; terreno propiedade zala-
ta, gizon gaixo orri lagundu zioten. Au esaten det, ala
zala dakidalako. Baita zenbat diru eman zioten nire aita
ta osaba Josolontzok, berak esanda. Ala ere galdu egin
zuan. Gauza auek lentxeagotik omen zetozen. Baiña
orduan oso gogortu ziran bi bandoetan. Naiko elkar ezin
ikusia sortu zan botazioetan. Beti karlistak irabazten
zuten, eta agintzen aiek nagusi. Horrela gauzak, gerra
etorri zan da naikoa zapaltzen saiatu ziran. Guri, beltzei,
multa eman ziguten. Baziran iru milla bana pezta

ordainduak. Orduan ori diru asko zan. Aitari hogeï ta amar duro, eta neri hogeï duro eta nituan gauzak inkautatu. Ortarako, auzi orren ondoren, diputazioko inxeniero batek *deslindea* egin zuan: mendi aldetik zeudenak erriarenak edo *komunalak*; bee aldetik zeudenak, *propiedades*. Gure alderdia etzan konforme *deslinde* onekin eta auzia eman zioten aiuntamentuari, eta irabazi bai Tolosa'n eta bai Panplona'n. Atzenerako, lengo radikal aiek baztatu ziran; da gauzak horrela gaizki zijoazela ikusi zutenean, arreglo bat proponitu ziguten: zeïni berean pakean uzteko, eta egindako gastuen alderako zerbait diru eman ziguten; eta pakea egin genduan zorionean. Orain denak ondo konpontzen gera, Jainkoari eskerrak, Bazan ordua. Bukatu ziran beltzak eta zuriak. Orain anaiago. Sekulako izan dedilla” (Azpiroz, 1989, 15-17).

Auzian inplikaturia izan zen lekuko baten ikuspegia jasotzen da pasarte horretan, gure kronikan bere lekuan aipatu duguna. Guri, batez ere, auzi horretan irakurketa politikoari ematen zaion garrantzia iruditu zaigu nabarmentzekoa. Auzi-jartzaile eta erreklamatzailen artean baziren nazionalista ezagunen artean ideologia jakinik ez zutenak ere; Udaleko gehienak –guztiak ez esatearren–, beste aldekoak. Funtsean arazo ekonomikoa zena politikoarekin nahastu baitzen, auzotarren arteko harremana gaiztotu izanak hor du bere azalbidea. Sobera luzatzen zihuan arazo honek bukaera behar-eta, azkenean sua piztu zuenak itzali zuen, bera ere irabazleen gurdian sartu eta bere burua auzi-jartzaileen sailean kokatuz. Zenbat aldatzen diren gauzak hamazortzi urteren buruan, batez ere, kausa galdutzat ematen denean!

Aspaldiko auziak zaizkigu haiek, baina orduan planteatutako arazoaren gainean zer galdeturik bada. Ikusiak gara nola Berastegik eta Elduainek ikuskatu zituztenean herri-lurren mugarriak 1700. urtean, artean jabetza pribatuko lursailak herri-gerriaren bueltan zeudela, auzotako baserrien mugan²⁴². Baserrien inguruan errenditzen ziren lursail pribatuak. Handik gorakoak, beraz, herri-lurrak genituen. Ordukoak orduko, Berastegiko Udalak 2006. urtean bere ondasun higiezin bezala jotzen dituenak 43 lursail baino ez dira, 380 hektarea inguruko azalerarekin eta, gaurko kopuru hau ordukoarekin alderatzen bada, arras nabarmena da herri-lurrek bi menderen buruan ezagutu duten murrizketa.

Bistan da, herri-lurren pribatizazioa, beste herrietan bezala, aspalditik datorren fenomeno da. Ez daukagu errepikatu beharrik, baina bai gogoratu, Berastegiko Udala behartua egon zela bere herri-lurrak saltzera gerra-garaietan –Konbentzio eta Independentziako Gerretan eta ondoko bi Karlistadetan–, egindako gastuak ordaintzeko. Gerrate zibilaren ondoren, 1940an, Goinetxeko Jose Azpiroz izendatu zuten Leitzarango lursailen administratzaile eta kargu horretan hamalau urte egin zituen. Gero haren kargua Antsoneko Joakin anaiak eta Obinetaberriko Pio Labaienek hartu zuten. Bi mila eta berrehun hektarea inguruko lurazalera zuten hango herri-lurrek. Egiazki lursail handia hangoa, denetarik zuena: basoa –gehienbat txagaz estalia–, eta ardi-larreak. Halako batean, Estatuko Mendi-Ondarearekin egindako Partzuergoak Udala ordezkatzan zuen Kudeaketa-Batzordekoek nahi ez bezala funtzionatzen omen zuelako, hauek Leitzarango baso handiak gerra ondoren saltzea erabaki zuten (Azpiroz, 1988, 67-71).

Herri-ondasunak kudeatzeko ardura duen Udala bera da haiek pribatizatzen dituenak. Hori herritik bertatik aparte dauden Leitzarar haraneko lursailetan. Eta herri-inguruko mendietan –aipatu dugun “Berastegiko mendia” izenpeko lursailetan, alegia–, nola pribatizatu dira hainbeste lursail hain denbora laburrean? Partikularrek, errentan hartuta edo gabe, itxiturak jarriz edo eraikinak eginez, eta egoera horretan urte batzuk egin eta gero, antzinatasunaren izenean eta notario baten aurrean eskriturak altxatuz? Badirudi hori izan dela bidea, edo horrelako zerbait iradokitzen da eskuartean izan ditugun agirietan. Kasu bakoitzean frogatu beharrekoa, halere. Oraingoz seguruago dakigun apurtxo da, izandako auzietan egiaztatu ahal izan denez, eskriturek zer kantatu, hark agintzen duela. Jakina, eskriturak egiteko eta erregistratzeko moduak eta moduak daude. Bestalde, eskritura bakoitzak, hasierako jabetik azkenekora ere, bere bide berezia egiten du. Aldatuz ere joan daitezke, klausula berriak txertatuz, alegia. Lorenzo Saltarain notarioaren aurrean 1925ean izenpetutako Berastegiko lursail batzuen salerosketa-eskrituran, adibidez, klausula hau zetorren:

“Estipulan que si dentro del plazo de diez años contados desde hoy fuese obligado el comprador (...) a dejar abierto o levantar el cerramiento del terreno (...) por el Ayuntamiento de Berástegui le entregará el (vendedor..) mil doscientas cincuenta pesetas por via de indemnización”²⁴³.

Epe horren barruan lursail horren itxitura irekitzea gertatu baitzen, saltzaileak hitzartutako kopurua ordaindu zion erosleari. Halaxe dator egiaztatuta notario-aktan ezkerreko ertzean eskuz idatzita.

Gu kronikatxo bat eskaintzearekin konformatu gara, inori kontuak eskatzeko asmorik gabe. Merezi luke uste baino konplexuagoa den gai honek areago sakontzea eta puntu ilunak argitzea, testu idatziaz gain, herritarren ahozko tradizioari ere leku eginez. Guk egin ez duguna. Beste gauza askotan bezala, gai honi buruz ere azken hitza emateke dagoelakoan gaude.

Dokumentuak eskuan, Berastegiko herri-lurrak noiz, nola eta zein baldintzatan saldu ziren, nola pribatizatuz etorri diren, zehaztasunez jakiteak beste ataltxo bat eskatzen du, guri hemen ez dakiguna.

Egun, garai batean herri-lurretan oparoa izandako Berastegi herriak hagitz murriztuak ditu bere lursailak, ondoko taulan ikus daitekeen bezala.

Berastegiko ondasun higiezinaren inbentarioa (2006-03-3)²⁴⁴

<i>Lursailen izena</i>	<i>Lursailen azalera (hektareatan)</i>
1. Mendi-ondo	0,7958
2. Gaztelu-ataka	0,3279
3. Oantzun	0,4462
4. Arrateko zentral-ondoa	0,1058
5. Berroa	2,7646
6. Intzez buru	10,811
7. Meteorologiako txabola	0,033
8. Beheko-laka	0,1196
9. Akerpeko Harkaiztia	5,5798
10. Alloar	0,1104

11. Beskoitz	0,9522
12. Beskoitz	6,7804
13. Tinto	0,3174
14. Intzen bordaldea	1,6698
15. Intzen bordaldea	1,4122
16. Aldamuño goikoa (Uli)	1,3524
17. Aldamuño behekoa (Uli)	0,5566
18. Solar	1,2788
19. Artaleku	2,3368
20. San Anton	0,1058
21. Solabieta	0,2668
22. Ipuliño	55,218
-----	-----
23. Beatari/Gorrotola	134,67
24. Sarmaña	
25. Goldizgain	
26. Ipuliño/Ipuliño zahar	
-----	-----
27. Lauzota-Aldea	0,0644
28. Lauzota	1,472
29. Arriñeko bordaondoa	0,0598
30. Sedron bordaondoa	0,2346
31. Sedron bordaondoa	2,5668
32. Letabide	1,2098
33. San Lorentzo	77,378
-----	-----
34. Gorrotola (M)	31,974
35. Beibatari (I)	
-----	-----

36. Gorosmendi	0,4554
37. Ollatzeko borda	0,092
-----	-----
38. Bizkotx	
39. Urkita	59,92
-----	-----
40. Ibingo pinudia	10,631
41. Kanposantua	0,2438
42. Muga	18,322
43. Ibarrola	1,0028

Begira zer-nolako mirakuluak gertatzen diren bizpahiru menderen buruan! Edozein mirakulu sinesgarria izan dadin, zergatik gertatu zen horrela esplikatu behar da. Aurreko atalean aipatutako adituek diotenekin bat eginez, gure ustea da partikularrek Jabetzako Erregistroan inskribatutako eskriturretan datzala arazoaren funtsa. Erregistro horiek, segun zein garaitan eta zein herritan, desberdinak izan ziren eta Auzitegietan ere, Berastegiko kasuan bezala, epai desberdinak eman zituzten, hasieran komunalen aldekoak eta gero kontrakoak.

Azken hitza, apaizak, hala zen esaera. Kasu honetan, ordea, epaileak izan zuen. Baina ondo dakigu humanoen artean ez dela azken hitzik. Gai eztabaidatueta adituek ere beti irizkideak ez izatea da normalena. Zer esanik ez eztabaida parte-hartzaile interesatuen artean trenkatzen denean.

Nolanahi ere, inor eskandaliza ez dadin –kontsolatzekoa ez bada ere–, esan dezagun beste behin antzeko fenomenoia edo berbera beste herrietan ere eman zela.

Seguru asko Berastegiko liskar horiek ez bide ziren hainbeste gaiztotuko, 1936ko gerra zibila piztu zenean, funtsean arazo ekonomiko garbia zena –herri-lurren eta partikularren aldekoenen artekoa, alegia–, politikoarekin nahastu izan ez balitz, zehazki karlisten eta nazionalisten artekoarekin. Kontatzen da herrian hamabi gizonetzko talde nazionalista baten zerrenda zegoela prestatua, Aresoko autobus batean hartu, norabait eraman, eta han garbitzeko asmotan:

“(Herrian) batzuk ziran nazionalistak eta beste batzuk karlistak. Hauek ez zuten ondo ikusten gure jokaera hau. Orduan ba alkarrekin gendun borroka horrekin etorri zan lehen esan duguna. Errepublikanoak eta komunistak ere baziran ale batzuk. Alkarren artean sortu zan ba sekulako foloioa. Eta orduan gertatu zan horiek hemen zeudela ia orduantxe pasatzen zirala soldadoak eta horrela ba alkarrengana karlistak (...) nazionalistetakoak bezala baziran hartakoak gehiago ez ... (*hitz batzuk entzuteko zailtasunak*) nik ez dakit pike bat nondik sortu zan ba nola nazionalistak ginen herri honetan hil behar zuen hamabi gizon. Hamabi gizon hil behar zuen nazionalistak zirenak. Eta Tolosan oraindik ez ziran sartu, e!. Eta gaur arratsaldean bezala, Aresoko autobus bat etortzekoa zan, –Aresokoa zan, Patxikusaltsa–, hark eraman behar zituen gizon horiek bere destinora, auskalo nora eraman behar zitun, eta horiek denak ikusita kapitain bat joan zan apaiz batengana. Eta apaiz horri galdetu omen zion: baino hemen hau horrela prestatu al da? Hamabi gizon horrela, ezerren arrasto gehiago gabe... Nola? Zer da hemen? Zer politika da hau? Zer dute elkarren artean? Zan komunalak eta propietarioak. Gu ginen propietarioen aldekoak eta komunalak ziran beste aldekoak. Haiak herriarentzat utzi nahi zuten dena eta

guk propietariook gerena salbatu egiten gendun, ez? Pleitoetan zebilkien borroka bat. Eta orduan apaiz horrek esplikatu zien: ez, hemengo dena da terrenoena, terreno komunalak eta propiedade. Baina bestela politika bezala ezer ez, batzuk karlistak eta beste batzuk nazionalistak bai, baina beren artekoa aparte, ezer horretan ez dago. Kapitain horrek deitu autobusekoari eta esan zion: “Ba ez etorri, hori besterik ez bada, hemen hil behar baldin badu, hil behar du politikagatik, eta politikagatik ez badago ezer, ez etorri”. Eta horrela salbatu ziran hemen hamabi gizon. Eta horietako bat nere aita”²⁴⁶.

Kontakizun honetan dozena baten zerrenda ematen da, baina beste batzuek kopuru hori hamazortziraino luzatzen dute eta azken hau zuzenagoa iruditzen zaigu, kontuan izanda auzian zuzeneko parteak izan zutenak gehiago izan zirela. Bestalde, apaizaren izenik ez dator. Militar hura nor izan zitekeen ere ez dakigu, halako auzi batean parte hartzeko nolako aginpidea zeukan ere ez, gertakari horren berri nola izan zuen ere ez. Eta okerreana, ez dakigula zein tesuingurutan eman zen gertakari hura eta zein datatan. Salatzailea nor izan zen, berriz, gutxiago. Hauek guztiak herri-oroimenean ondo gorderik egongo dira, seguru asko, baina ez dugu ziurtatzerik izan.

Bestalde, argi dago salaketa horren atzean batzuen-ganako mendekuaren mamua ezkututzen zela eta hori antolatu zutenak beren aldeko egoera politikoaz baliatu zirela, baina ez da hain argi ikusten zer egiten zuen afera horretan Aresoko autobuszaleak. Dakigun gehiena da salakuntza eman zela, baina, zorionez, ondorioz gabe geratu zela.

OHARRAK

I. Auzotarren eta jauntxoen arteko liskarrak(1500-1605)

- ¹ Sig. 1. Berastegiko Udal-Artxiboa. Pergaminozko azalaz inprimatua da. Ez dakar datarik, baina 1651ekoa dela pentsatzen da.
- ² “Executoria litigada en la Chancillería de Valladolid, año de 1525, por Juan Veltran de Hortega, y su hijo, señores de la casa de Hortega con el Concejo, e Hijodalgo de la villa de Usurbil, y los Beneficiados de la Iglesia de S. Salvador de dicha villa sobre los diezmos de dicha Iglesia, que lleva dicho Juan Veltran, y otras cosas” (*Memorial*, 1651, 2 eta 57 zenb.).
- ³ Apaiz hau, izatez Ibarakoa eta apaiz bezala Tolosako Santa Maria parrokian zegoena, Beriñas burdinolako jabea zen, beste leku batean azaldu bezala. Bera ere jauntxoen familiakoa, antza.
- ⁴ Astigarragako Murgia oinetxetik dator genealogi soka: “D^a Leonor de Murguía y Salinas, hermana del señor de Murguía D. Felipe, recayó en su descendencia el señorío de Murguía, por carecer, como queda dicho: de sucesión legítima y casó esta señora, según reza la carta datal de Argañaraz y Berastegui, dueño del solar de su apellido en Amézqueta, casa armera de mucha antigüedad y nobleza, que llevaba anejo el coopatronato de Santa María de Ugarte, más diversos molinos, ferrerías y extensos montes. Martin Ochoa era hijo de otro Martin Ochoa de Argañaraz, dueno y morador de esta casa y de D^a Maria Lopez de Berastegui, hermana legítima de Juan Martinez, señor y Pariente Mayor del solar de Berastegui y nieto de Ochoa de Argañaraz, así bien dueño de ella y de Maria Garitano su mujer” (Tola de Gaytan, Marqués: “Parientes Mayores de Guipúzcoa. Señores del Palacio casa-fuerte de Murguía en Astigarraga”. Tirada aparte de la *Revista Internacional de los Estudios Vascos*. Año 1928, Tomo XXV, nº 3, Julio-Septiembre, 1934, San Sebastián, Imprenta de la Diputación de Guipúzcoa, 1934, 9).

- ⁵ “Acostamiento de 25 maravedis, que en 8 de Marzo de 1270, mandó su Magestad se assentasse en los libros Reales por auer hecho merced a Pedro Martinez, de Verastegi dellos, en renumeracion de servicios, y en contemplacion de ser dueño del solar de Verastegui, y por auer prestado a su Magestad algunas cantidades, para satisfacer las arras de la Reyna de Navarra, hermana de su Magestad” (*Memorial*, 540 zenb.).
- ⁶ “Don Garcia de Verastegui en 4 de Noviembre 1656 presentó las escrituras siguientes, para mas convencimiento de los testigos de los Cabildos, en el pleyto del año 1535, de que le haze relacion à num 870. Cedula. El Rey. Contadores mayores, y Mayordomo: yo vos mando, que assentedes en los nuestros libros de los acostamientos a Pedro Martinez de Verastegui, de 25 maravedis, de que le hizimos merced, por lo bien que Nos ha servido, y en contemplacion de ser dueño del solar de Verastegui, à que Nos dio por prestamo, parte de las arras que dimos a nuestra hermana la Reyna de Navarra, para que de Nos le queden, desde este ordenamiento en adelante; mi voluntad es, que assi se faga” (*Memorial*, 541 zenb.).
- ⁷ “A la 16. pregunta, Dixo que desde los dichos 40 años a esta parte en todo el tiempo ha oido dezir, è oyó de los dichos sus ancianos, è mayores, que fueron hombres de mucha edad (...) que fue en la dicha tierra de Verastegui, muchos años, è tiempo antes del Concilio Lateranense, que havia 400. c. mas años, è antes del dicho tiempo, uno de los parientes mayores, que (...) havia fundado, è edificado la dicha Iglesia del señor S. Martin de Verastegui en su propio suelo, è fundo en la tierra que tenia, è poseia, como Patron fundador dela dicha Iglesia (...) que despues dello por tiempo auian entrado en estos Reynos de España los Moros infieles, è se auian apoderado del dicho Reyno de España, contra los quales se auia leuantado un Rey Christiano en Castilla, è auia llamado a los Nobles parientes mayores Solariegos Caualleros de la dicha Prouincia de Guipuzcoa, è fuera de ella, para la expulsion delos dichos infieles, auian seruido en la dicha conquista, è cobrança delos dichos Reynos de Castilla, y en la defensa dela santa Fé Catolica, por cuyo seruicio el Papa Urbano Segundo les auia hecho

gracia, y merced a los dichos parientes mayores, que tenían fundadas, y edificadas las dichas Iglesias desde antes del Concilio Lateranense, para que lleuassen las diezmas de las dichas Iglesias perpetuamente (...) y que así lleuaua los dichos parientes las dichas diezmas, è oblaciones de las dichas Iglesias de antes de Concilio Lateranense. Lo qual todo este testigo assi oyò dezir por publica uoz, è fama de los dichos sus antecessores, è ancianos, è que ellos assi lo oyeron a los suyos por publico y notorio: y que el testigo ha tenido, y tiene por tales Patronos de la dicha Iglesia de san Martin de Verastegui a los dichos Juan Martinez de Verastegui, y sus antepasados, dueños que fueron de la dicha Casa, è Solar, por lo que de suso ha dicho, è porque la dicha Iglesia de Verastegui esta fundada dentro del dicho termino redondo de la dicha Casa, è Solar de Verastegui, e por él pessenida, è porque el dicho Solar esta cabe a la dicha Iglesia, y la dicha Iglesia e nombra san Martin de Verastegui, è porque en la dicha Uniuersidad de Verastegui no ay otra Casa ninguna que el testigo sepa, ni ha oido dezir, que se llame, e se nombre la Casa de Verastegui, saluo solo este Solar de Verastegui, e las otras casas de la dicha Uniuersidad de Verastegui se llaman Areiztun, è Sagastiberri, è Sarria, è Beaca (Meaka?), è Bulacia, è otros nombres propios que tienen” (*Memorial*, 1651, 37 zenb.).

⁸ Florina, urrezko moneta, Erdi Aroan nazioarteko moneta-unitate izan zena.

⁹ Pisu-neurria, hamar libraren baliokidea.

¹⁰ “... los maravedis que les caben pagar por razón de las vacas que ha tenido, veinte florines corrientes en dinero contado, y dos jarros de vino, y un relde de vaca y doze mantecas y los quesos que los dichos Bustos, se hazían en cada año desde el día de Santa Cruz de Mayo, hasta el día de Nuestra Señora de Agosto, en todos los días, sábados” (*Memorial*, 1651, II. galdera, 863 zenb.).

¹¹ “Visto, que siendo muchos mas en numero los dueños de los ganados vacunos de las dichas Universidades, que se han apacentado, y apacientan, que los terminos, è padros, Seles, yerbas de Basaiz, è Orin, è de Ameran, è de Ollaiz, è de Hurlio, è de Oreneun. Por

razones de los quales, el dicho Juan Martinez de Verastegui, pretende tener derecho a las annuas prestaciones que pide, que ni los dichos Juan de Gorostiçu, y consortes, atento que se prueba, è parece por el processo, que los dueños delos ganados, mandaron a los dichos Mayorales que no pagassen, ni acudiesen al dicho Martinez con dineros, carne, ni vino, ni otra cosa de aquello con que acudian, ni le repartiessen a las dichas sus vacas, sino que pagarian de sus casas a los dichos mayoresales” (*Memorial*, 1651, 562-563 zenb.).

¹² “...Que respondiendo al dicho respecto de la dicha pregunta, y justicia, que de 40 años a esta parte, por muchas veces oyó decir a Martin de Sagastivirri, y a Juancho de Arrue, vecinos de Verastegui, que eran hombres viejos, y ancianos, que en los tiempos antiguos solía aver guerras y disensiones, entre los Navarros, y los vecinos de las dichas Universidades de Verastegui, y el Duayen, Gaztelu, que confinan con el dicho Reyno de Navarra, y que los vecinos de los dichos lugares, andando trabajando en sus tierras, solían andar *armados* de temor de dichos Navarros; y que por eso, assentaron de hazer pariente mayor al dueño de la dicha Casa, y Solar de Verastegui; y porque les defendiesse de los dichos Navarros, y visitasse cada semana dos vezes los terminos de Leyzaran, y Seles dèl, y los Bustos de los vecinos de las dichas Universidades, le dieron el pan de la Iglesia de la dicha Universidad de Verastegui, y los dichos florines, quesos, mantecas, carne y vino, y renta que de los dichos Bustos, y dueños de ganados de las dichas Universidades, le dieron el pan de la Iglesia de la dicha Universidad de Verastegui (...) Y porque los amparase y defendiesse, según que este testigo ha declarado... (...) y que este testigo nunca ha oido en su tiempo, que ninguno de los Seles de Leyzaran aya sido, ni sea dela dicha Casa, y Solar de Verastegui, y Señores que han sido de ella” (*Memorial*, 1651, 864 zenb.).

¹³ “... que les oyò dezir que en los tiempos pasados, los Lacayos Navarros solian venir a las dichas Universidades de Verastegui, y el Guayen, y a la Universidad de Gaztelu y a sus Bustos, y hatos de vacas, y otros ganados y los solian robar y matar y hazer muchos daños en las personas y bienes, y ganados de los dichos lugares, y que para la defensa dellos, y para la guarda de sus personas y bienes,

y bustos de vacas, y otros ganados auían hecho, y puesto pariente mayor en la dicha Casa, y Solar de Verastegui, y que al dicho tiempo, porque los amparasse, y defendiesse de los dichos Navarros, le dieron, y asentaron al dicho dueño de la casa, y solar de Verastegui, los diezmos de la Santa Iglesia de Verastegui, y el de Guayen, y de la tierra de Gaztelu, y la renta de los molinos de las dichas Universidades, y los dichos florines, quesos y mantecas, carne y vino...” (*Memorial, 1651, 864 zenb.*).

¹⁴ Hau zen V. galdera: “Que si alguna vez los dichos Juan de Goroștiçu, y Martin de Cazcarraga, y sus consortes, y vecinos, y moradores de Verastegui, y el Guayen, y sus pasados, dueños de ganados vacunos de los Bustos de Verastegui, y el Duayen, dexaron de acudir con alguna cosa dello, ò algo menos, lo traian, y acudian al dicho Juan Martinez, è sus padre, y abuelo, è antepasados a la justicia, y por tela, y rigor de justicia, les hizieron, y hazian todo ello, cumplir, y pagar, fin que faltasse cosa alguna, y lo pagaron, è que assilo vieron passar en su tiempo, è oyeron dezir a sus mayores, è ancianos, que ellos siempre assi lo vieron, è oyeron, è que nunca vieron, ni oyeron dezir lo contrario, y que dello es publica voz, y moradores de las dichas tierras de Verastegui, y el Guayen” (*Memorial, 1651, 863 zenb.*)

¹⁵ “... lo que el dho. Joanes de Berastegui pide cerca de los dichos veynte florines corrientes e vino e carne e manteca e queso es una ymposicion forzosa e intolerable a quien resisten las leyes destos Reinos lo otro porque el principio de esta ymposicion fue cierta ayuda e cortesia que para Mes de Berastegui... anterior al dcho, Joanes, pidio a las dhas. Universidades....” (*Tolosako Artxibo Probintziala, sec. 1., Ng. 8, Ig. 13, 1536, Pablo Fernández-ek aipatua, 1975, 112-113 orr., 42 oharra.*)

